

**Hans Christian Andersen**

# **Hemeretzi ipuin**

**euskaratzailea: Martxel Eguen (taldea)**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,  
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Itzulpena: Martxel Eguen (taldea).

Euskarazko edizioa: Literatura unibertsala, 1997

Jatorrizkoaren data: 1833-1848

Hans Christian Andersen euskaraz:

<http://ekarriak.armiarma.com/?i=243>

# Aurkezpena

## Hans Christian Andersen

1805ean jaio zen, Fionia (Danimarka) uharterako Odense herrian, familia pobre batean. Aita, Hans Andersen, eskalapoigilea zen lanbidez, bigarren mailako zapatari «librea»; hau da, gremiotik kanpo jardun behar zuena. Ama, Anne-Marie Anderstdatter, berriz, eskale ibilia zen. Hansen gurasoak bera jaio baino bi hilabete lehenago ezkondu ziren. Etxerik ez zutenenez, Hansen aitaren gurasoenean bizi izan ziren luza-roan. Aitona burutik eginda zegoen, eta kalean, atzetik segika izaten omen zituen ume-saldoak burlaka. Amona udal asiloko baratzean aritzen zen lanean.

Pobreen eskolara joan zen Hans umetan, Odenseko hospizioko eskolara, eta hantxe ikasi zuen, nola edo hala, idazten eta irakurtzen. Hansen ama burgesen etxeetara joaten zenean lisi-ba egitera, mutikoak lagundu egiten zion batzuetan, eta halaxe ikasi zuen, gaztetandik,

zer zen handikien aurrean burua makurtu beharra.

Aita irudimen handiko gizona omen zen, eta, zapatari txiroa izanagatik, hartu zuen astia semeari jostailuzko antzokitxo bat egiteko, bere txotxongilo eta guzti. Panpina haiek izan zituen Hans gazteak, agi denez, bere nahiak eta ametsak bideratzeko tresna, eta haur-jolas horretatik sortua dateke gero erakutsiko zuen antzerkirako zaletasun sutsua. Hamaika urteko mutiko kozkorra zela, aita hil egin zitzaion, 32 urterekin. Bi urte geroago, ama berriro ezkondu zen; orduko hartan Niels Joergensenekin, lehenengo senarra bezala zapataria hura ere.

1819an Kopenhagera abiatu zen Hans fortuna bila, ospea lortzeko helburuaz. Baina hiriak ez zuen besoak zabalik hartu. Han ere Gosea eta Miseria izan zituen lagun. Komediaren munduan sartu nahi izan zuen, kosta ahala kosta, eta obra liriko batzuk idatzi eta Teatro Nazionalera igorri zituen. Ez zizkioten onartu, baina etsi gabe, tinko eutsi zion bere borrokari. Hainbat urteren buruan aurkitu zuen, azkenik, hainbeste desio eta behar zuen babeslea: Jonas Collin antzerki

zuzendari eta estatu kontseilaria. Gizon hari esker egin zituen ikasketak Unibertsitatean, eta ezaupideak ere bai, itzal handiko jendearen artean.

1827an ikusi zuen argia Andersenen aurreneko lanak: *Flyvende Post* aldizkariak *Arratsa* izeneko poema argitaratu zion. Handik bi urtera, berriz, *Amodioa San Nikolaseko kanpandorrear* estreinatu zen Kopenhageko Teatro Nazionalan. Eta 1834an argitaratu zen Andersenen lehenengo ipuin-bilduma.

Andersenek jenero guztiak jorratu zituen, baina ez zuen nahi besteko osperik lortzen. 1837tik aurrera bidaiak egin zituen maiz, eta Kopenhagera itzultzen zen bakoitzean, ikusirik harrera hotzagoa egiten ziotela han, etxean, kanpoan baino, egonaldi laburrak egiten zituen Danimarkan, eta berriz ekiten zion bidaiatzeari: Suedia (1837), Alemania (1840), Grezia, Turkia eta Austria (1841); Alemaniara berriro, gero Ingalaterrara (1847), Portugalera, Afrikako iparraldera... Barrua astindu zioten Anderseni bidaia haiek. Paraje berriak ikusteak eta Europa-

ko intelektualak gertutik ezagutzeak eragin handia izan zuten Andersenengan eta haren obran.

Urteak aurrera joan ahala, kanpoan lorturiko ospea iritsi zuen azkenean Danimarkan ere, eta izendapen ofizialak egin zizkioten hurrenez hurren.

Hans Christian Andersen 1875ean hil zen, Kopenhagen, 70 urte zituela.

\* \* \*

## **Andersen-en obra**

Hans Christian Andersen oso idazle ugaria izan zen. Horren lekuko dira hark idatzitako 20 antzerki lan, 6 eleberri, 3 poesia-bilduma, 7 bidaia-liburu, 3 autobiografia eta haren egunkariko 4520 orrialdeak.

Baina, zalantzarik gabe, Andersen bere ipuinengatik da ezaguna mundu osoan. XIX. mendeko haur-ipuin klasikoez hitz egiterakoan, bi deitura datozkigu burura ezinbestean: Grimm eta Andersen.

Grimm anaiak garai-garaiko gizonak ziren; erromantizismoaren zale, folklore germaniarreko

mitoei eusten saiatu ziren bi erudito. Biltze lan bikaina egin zuten, herriaren ahotan zebiltzan ipuinak jasoz. Andersenen kasua oso bestelakoa da, hura ez baitzen herri ipuinetako izpiritua jasotzera mugatu. Edozein iturritatik edan zuen Andersenek, baita alemaniar erromantikoenetik ere. Baina askatasunaren izenean urrunago joan zen, haratago, muga guztiez gaindi. Dena zen zilegi harentzat, dena erabilgarri: idazten zue-nean erabat libre zen —autorea libre izan daite-keen heinean—, bere buruaren jabe bakar.

Eta halaxe idatzi zituen 156 ipuin. Era guztie-takoak idatzi zituen, eta emaitzak ere halako-keak izan zituen. Herri-tradizioan hartuko zuen oinarri, edo maitagarrien lilurazko munduan. Alegia- edo parabola-tankera emango zien ipui-nei, edo prosaz jantziriko poemena. Bere bizi-tzan abiapuntu hartuko zuen batzuetan, egune-rokotasuna islatzen zuten pasadizoetan bestee-tan, edota irudimenaren mundu mugagabean must egingo zuen bestela. Gizartearen hipokri-siaren aurrean, satira bilatuko zuen, ironia, txan-txa, kitzikadura... Edo, sarri askotan egin zuen legez, erlijioa aitzakia harturik, irakaspen etikoa

izango zuen helburu: ongia eta gaizkia, patua, zoriona... Irakaspen estetikoaren atzetik joango zen beste batean, eta naturaren goratarrea egingo, edo musikarena... Ipuin luze-luzeak sortuko zituen batean, labur-laburrak hurrengoan. Horra haren obraren aberastasun itzela.

Eta aniztasun oparo horrekin, harridura eta magia sortu zituen, barrea eta negarra eragin. Bi hitzekin labur daiteke haren izaera: umorea — ironiaz betea, bizia, zakarra, sotila— eta malenkonia, kontakizunaren arabera erabiliak biak. Haren ipuinetan zentzugabekeriak badu lekua, gehiegikeriak badu izateko arrazoia. Dena da, berez, barregarria, absurdua. Gauza arrunt eta umilenak, ezertarako balio ez dutenak, hartu eta pertsonaia nagusi bihurtzen ditu, gizakiak baino nortasun handiagokoak askotan. Horiexek dira, hain justu, ipuinik *andersenianoenak*.

Andersenek berak bere narrazioak bi sailetan bereizi bazituen ere, Andersen bat da. Izan ere, kontakizun memeloenaren azpian ere bada zerbait, eta zerbait horrek bereizten du Andersen beste ipuingileen artetik. Berezko zigilua dute haren idazkiek: haren nortasuna eta bizi-indarra.



Hans Christian Andersenek historia bakarra kontatu zuen ipuinetako adabakietan: berea.

Idazle aparta da Andersen. Nolaz, bestela, ipuin zahar horiek gaur arte bizirik iraun? Sugeak txoriarekin nola, halaxe jokutzen du ipuingileak irakurlearekin: erakarri, liluratu eta, bere egiten duelarik, gogoak ematen dion lekura eramaten du. Andersenek ipuinak haurrentzat dira helduentzat bezainbat; batzuk zein besteak harapatzen ditu bere sareetan. Ipuinei darien umorea eta kutsu poetikoa haurren bihotz samurretara iristen den bezala, kontakizun gehienetan sumatzen den bikoiztasunak zer pentsa ematen dio jende helduari.

Andersenek, ipuingintzaren historiak eman duen alkimistarik handienak, ipuin-amalgama koloreanitza eta zoragarria utzi digu. Hona hemen haren hemeretzi ipuin. Egin diezaiogun leku bakoitzak bere barruan dugun haur unibertsal horri. Izan ere, eta kontuak kontu, ipuina beti baita ipuin.

\* \* \*

Gure esker ona adierazi nahi diegu Jose Antonio Azpiroz, Juanita Irurtia, Idoia Lizarralde, Valentin Olaetxea eta Claus Drengsted-Nielsen itzulpen hau irakurtzeagatik eta egin dizkiguten oharrengatik, eta Martin Aramendiri «Zorionaren eskalapoiak» ipuineko bertsoak moldatzeagatik.

# EGIA DA!

— Izugarria gertatu da! —esan zuen oilo batek. Eta oilo hori ez zen gertaera gertatu zen lekukoa, herriaren beste aldekoa baizik.

— Izugarria gertatu da, eta oilategi batean, gainera. Eskerrak gaur ez dudan bakarrik lo egin behar kotan! Ez nuke begirik bilduko!

Eta, orduan, gertatutakoa kontatu zuen. Gainerako oiloei, txundiduraren txundiduraz, lumak laztu zitzaizkien, eta oilarrari, berriz, gandorra erori. Egia da!

Baina has gaitezen hasieratik. Gertaera herriaren beste aldeko oilategi batean gertatu zen. Eguzkia sartu berria zen eta oilo guztiak kotaratuak ziren. Haien artean bazen oilo luma-zuri mozkote bat; egunero erruten zuen arrautza eta oso oilo prestua zen. Kotan zegoela, luma tartean zorriketan hasi eta luma txiki bat erori zitzaion.

— Bat gutxiago —esan zuen—. Zenbat eta luma gehiago galdu, orduan eta ederrago egongo naun.

Txantxetan esan zuen hori, oilo alaiabaitzen, baina oso prestua, bestela, lehen esan dudan bezala. Eta loak hartu zuen.

Ilun zegoen oilategian. Oiloak bata bestearen ondoan kotaratuta zeuden eta luma galdu zuenaren albokoa esna. Han esan zena entzun zuen eta ez zuen entzun; oso zentzuzkoa baita hori egitea, auzokoekin bakean bizi nahi bada. Hala ere, ezin aldamenekoari kontatu gabe etsi.

— Entzun al duzu zer dioten? Ez dut izenik emango, baina gure artean dagoen oilo batek bere burua lumatu behar omen du ederragoa izateko. Oilarra banintz, zapuztu egingo nuke nik!

Oilategiaren gainean hontza ama eta hontza aita bizi ziren beren hontzakumeekin; oso belarri fineko familia! Oiloak esandakoa hitzez hitz entzun eta begiak biratu zituzten, eta hontza amak hegoak astindu zituen.

— Ez entzun! Baina entzun al duzue zer esan duten? Neure belarriekin entzun dut; eta gauza asko entzun behar dira belarriak galdu aurretik. Oilategiko oiloetako bat, bere egokitasun guztia

alde batera utzirik, bere burua lumatzen ari da kotan, oilarraren arreta bereganatzeko.

— *Prenez garde aux enfants!* —esan zuen aitak—. Hori ez da umEEK entzutekoa!

— Ez, baina gure auzokoari kontatuko diot —esan zuen amak—. Oso hontza zuhurra da eta asko estimatzen dut.

Eta han joan zen hegan.

— Uu-huu! Uu-huu! —egin zuten ulu bi hontzek, eta hain ozenki, usoek ere entzun egin baitzuten—. Entzun al duzue? Entzun al duzue? Uu-huu! Oilo batek bere burua lumatu du oilarragatik. Hotzak akabatuko da, dagoeneko hil ez bada.

— Non? Non? —egin zuten urruma usoek.

— Alboko oilategian. Ia-ia neure begiekin ikusi dut. Halako lotsagabekeriarik! Baina egia da!

— Egia da! Egia da! Den-dena egia! —egin zuten urruma usoek, eta usategian kontatu zuten istorioa:

— Oilo batek, beno..., bik, batzuek esaten dutenez, erabat lumatu dute beren burua beste itxura bat izateko eta, hartara, oilarraren aten-

tzioa erakartzeko. Hori erokeria egin dutena! Hotza harrapatu eta sukarrez hiltzeko arriskua baitago, eta biak hil dira; biak hil!

— Esnatu, esnatu! —kantatu zuen oilarrak, eta hesi gainera joan zen hegan. Artean lobe-  
begiak zeuzkan baina, hala ere, kantatu egin  
zuen.

— Hiru oilo hil dira oilarrak maite ez zituela-  
ko! Beren burua lumatu dute. Oso penagarria da  
eta ez dut isilean gordeko. Zabaldu berria!

— Zabaldu berria! —egin zuten txistu sugu-  
zarrek. Eta oilarrek kukurrukuka eta oiloek kaka-  
rakaka egin zuten: «Zabaldu berria!» Eta horre-  
la, oilategi batetik bestera zabaldu zen berria,  
eta, azkenik, istorioa sortu zen oilategiraino iritsi  
zen atzera.

— Esaten dutenez, bost oilok beren burua  
lumatu dute oilarraren maiteminez, ea gehien  
zein argaldu. Gero elkarri mokoka hasi eta odo-  
lustuta denak hil dira, beren senitartekoen lotsa-  
rako eta jabeen kalterako.

Lumatxoa galdu zuen oiloak ez zuen, noski,  
istorioa beretzat hartu, eta oso oilo prestua  
zenez, honela esan zuen:

— Oilo txolin horiek! Baina asko dira horiek bezalakoak. Horrelako gauzak ez dira isilean gorde behar. Ahal dudan guztia egingo dut egunkarian ager dadin eta, hala, herri osoak jakingo du istorioa. Horixe merezi dute oilo horiek eta beren senitartekoek!

Eta istorioa egunkarian argitaratu zen, eta egia da, bai: luma txiki bat bost oilo izatera iritsi daiteke.

*(Det er ganske vist!)*

# ARTZAIN TSA ETA TXIMINIA-GARBITZAILEA

Badakizu nola izaten diren armairu batzuk, zahar-zaharrak, denborak belztuak eta zur guztia kiribilez eta hostoz landuta dutenak? Bada, horrelakoxe bat zegoen gela nagusian; amabisa-barena zen jatorriz, eta arrosak eta tulipak zeuzkan goitik behera zizelatuta. Kiribil bitxienez beterik zegoen eta haien artean orein-burutxoak ikusten ziren, beren adar eta guzti. Erdiko oho-lean, berriz, itxura xeble samarreko gizon bat zegoen, oso-osorik: irribarre-imintzio bat zuen aurpegian —ezin baitzen erabateko irribarrea zenik esan—. Bizar luzea zuen, adar txikiak bekokian eta, hankak, ahuntzarenak. Hain zen bitxia, ezen etxeko haurrek izena ere jarri zioten: Goijeneralazpikomandantesarjentu Ahuntz-hanka, titulu luzea eta esaten zaila, baina beste inorena ez bezalakoa. Hantxe egoten zen, pareko ispilu handiaren azpiko mahaitxora begira beti; izan ere, mahai gainean portzelanazko artzaintsa txiki zoragarri bat baitzegoen. Artzain-



tsak urre-koloreko zapatak zituen, gonatxoarrosa gorri batekin lotua, urre-koloreko kapelua buruan eta artzain-makila eskuan. Xarmagarria zen benetan. Haren ondoan tximinia-garbitzaile bat zegoen, ikatza bezain beltza, baina portzelanazkoa hura ere. Irudi fin eta txukuna zen, portzelanazko beste edozein irudi bezain fina; tximinia-garbitzailearena itxura besterik ez zuen, baina printze batena ere izan zezakeen, izan ere, printzea zen eta. Hantxe zegoen, bere eskailera eskuetan, neskatxa batena bezalako aurpegi zuri eta arrosa-kolorekoarekin. Nolabaiteko akatsa zirudien horrek, kedar-arrastoren bat behintzat behar baitzukeen aurpegian. Artzaintsa eta tximinia-garbitzailea elkarren ondoan zeuden, halaxe jarri baitzituzten, eta ezkontzeko hitz emanda zeuden. Bikote polita osatzen zuten: biak ziren gazte, biak ziren portzelana berberaz eginak eta biak ziren hauskorrak.

Haien ondoan beste irudi bat zegoen, hiru aldiz handiagoa: Txinako mandarin bat, burua gora eta behera mugitzen zuena, portzelanazkoa hura ere. Artzaintsaren aitona zela zioen behin eta berriro, nahiz eta horren frogarik inoiz

eman ez. Artzaintsarengan ahalmena zuela esaten zuen eta Goijeneralazpikomandantesarjentu Ahuntz-hankak harekin ezkontzeko baimena eskatu zionean, baiezko keinua egin zion buruaz.

— Ahuntz-hanka hartuko duzu senartzat — esan zion mandarin zaharrak—, eta, gainera, zurbeltzez egina dagoela egingo nuke. Goijeneralazpikomandantesarjentu Ahuntz-hankaren andrea izango zara. Armairua bete zilar dauka, eta hori, kajoi sekretuetan ezkutatuta daukana kontuan hartu gabe.

— Ez dut armairu ilun batean bizi nahi! — esan zuen artzaintsak intzirika—. Barruan hamaika emazte portzelanazko dauzkala entzun dut.

— Bada, zu hamabigarrena izango zara! — agindu zuen Txinako mandarinak—. Eta gaur gauean bertan, gainera! Armairuak karrak egin orduko egingo dugu ezkontza, bai horixe, eta bestela ni ez naiz txinatarra! Eta gora eta behe-ra eragin zion buruari eta loak hartu zuen.

Artzaintsa txikiak, negar batean, bere tximienia-garbitzaile maiteari begiratu zion.

— Irten gaitezen mundura, arren —esan zion zotinka—. Hemen ezin gaitezke geratu.

— Eskatzen didazun guztia egingo dut —erantzun zion tximinia-garbitzaileak—. Goazen lehenbailehen. Biontzako adina irabaziko dudala uste dut neure lanbidean.

— Nahiago nuke hemendik jaitsita banengo —esan zuen artzaintsak—. Ez naiz lasai egongo mundura irten arte.

Tximinia-garbitzaileak artzaintsa lasaitu zuen eta hankatxoak non jarri behar zituen erakutsi zion: ertz zizelatuetan lehenengo, eta mahaiaren hanketan kiribildurik zeuden hostoetan gero. Tximinia-garbitzailearen eskailera ere erabili zuten eta luze gabe iritsi ziren lurrera. Baina armairurantz begiratu zutenean, han sekulako zalaparta zegoela ikusi zuten. Orein zizelatu guztiek, haserre bizian, lepoa luzatu, adarrak astindu eta buruari eragiten zioten, eta Goijeneralaz-pikomandantesarjentu Ahuntz-hankak jauzi egin eta Txinako mandarinari oihu egin zion:

— Ihesi doaz! Ihesi doaz!

Orduan, beldurtuta, komoda txiki bateko kajoirra egin zuten salto artzaintsak eta tximinia-

garbitzaileak. Han, kajoiaren barruan, hiruzpalau karta-sorta osatugabe eta nola-hala eratutako txotxongilo-antzerki bat zeuden. Emanaldi bat eskaintzen ari ziren orduantxe, eta damak, hala urreak eta bihotzak nola makilak eta ezpatak, lehen ilaran zeuden eserita, eta tulipekin haize ematen zieten beren buruei; atzean, zutik, txotakoak zeuden, burua bai goian eta bai behean, kartetan izaten duten bezala. Ezkondu ezin zen bikote bat agertzen zen antzerkian eta artzaintsa gaixoari bere egoera gogorazi zion eta negarez hasi zen.

— Ezin dut gehiago! Kajoi honetatik nola edo hala atera beharra daukat!

Baina lurrera iritsi eta mahaira begiratu zuteanean, Txinako mandarin zaharra ikusi zuten. Esna zegoen eta gorputz osoa mugitzen zuen, zeren, jakina, burua ez beste guztia pieza bakarra baitzuen.

— Mandarin zaharra datorrela! —egin zuen oihu artzaintsak. Izuaren izuaz, bere portzelanazko belaunburuen gainera erori zen.

— Badakit zer egingo dugun —esan zuen tximinia-garbitzaileak—. Txoko horretako pot-pou-

rri ontzian sartuko gara. Izpiliku eta arrosa lehor artean etzango gara eta, etortzen bada, gatza botako diogu begietara.

— Alferrik izango da —esan zuen artzaintsak—. Gainera, badakit mandarin zaharrak potpourri ontzia andregai izan zuela garai batean. Eta halako harremanen ondoren beti geratzen da zerbait. Ez, ez dugu mundura irtetea beste ihesbiderik.

— Baina konturatzen al zara horrek zer esan nahi duen? —galdetu zion tximinia-garbitzailleak—. Pentsatu al duzu mundua oso zabala dela eta agian ez garela inoiz itzuliko?

— Bai, badakit —esan zuen artzaintsak.

Tximinia-garbitzailleak begietara zuzen-zuzen begiratu, eta esan zion:

— Nire ustez tximinia da biderik onena. Ausartuko zara sutontzitik sartu eta tutuan gora igotzen? Tximiniara iritsi artekoa izango da okerrera; gero, han, moldatuko naiz. Oso gora igoko gara, eta ez gaitu inork harrapatuko. Zulo bat dago han goian, mundu zabalera ematen duena.

Eta estufaren ateraino eramanean zuen artzaintsa.

— Hau iluntasuna! —esan zuen artzaintsak—. Baina, hala ere, tximinia-garbitzailearen atzetik joan zen tutuan gora, gau iluna baino beltzago bazen ere.

— Iritsi gara tximiniara —esan zuen tximinia-garbitzaileak—. Begira! Begira! Horra hor izarrik distiratsuen!

Hala zen, izar bat zegoen ilunpetan dizdiz, bidea erakutsi nahi balie bezala. Arrastaka igo ziren, bide latza baitzen, gora eta gora. Baina tximinia-garbitzaileak artzaintsa gora altxatzen zuen, igotzen laguntzen zion eta portzelanazko hankatxoak non jarri erakusten zion. Iritsi ziren, azkenean, tximiniaren muturreraino eta ertzean eseri ziren, neka-neka eginda, eta ez zen gutxia-  
gorako.

Zeru izartua zuten ganean eta hiriko etxe guztien teilatuak behean: ikuspegi luze, zabal, mugarik gabea, urrunean galtzen zena. Artzaintsak ez zuen sekula imajinatu mundua hain handia izan zitekeenik. Burutxoa tximinia-garbitzailearen sorbalda ganean jarri eta negarrari eman zion, eta gerrikoaren urre-kolorea joaten hasi zitzaion.

— Gehiegizkoa da! —esan zuen—. Ezin dut jasan, zabalegia da mundua. Nahiago nuke ispi-luaren azpiko mahaian banengo berriro. Ez dut zorionik izango hara itzuli arte. Mundu zabaleraino etorri naiz zurekin, baina orain etxera eraman behar nauzu berriro, benetan maite banauzu.

Tximinia-garbitzailea arrazoiak ematen saiatu zen: Txinako mandarin zaharra gogorazi zion, eta Goijeneralazpikomandantesarjentu Ahuntz-hanka ere bai, baina artzaintsak halako negar-zotinak egin zituen, eta hainbeste musutxo eman zion ezen tximinia-garbitzaileak amore eman behar izan baitzuen, berriro jaistea zentzugabekeria bazen ere.

Eta, horrela, zailtasun handiz, tximiniatik behera abiatu ziren berriro, tutuan barrena, bidaia batere atsegina ez izan arren, harik eta sutontzi ilunera iritsi ziren arte. Handik irten baino lehen, atetik begiratu zuten badaezpada, gelan zer gertatzen ari ote zen. Isilik zegoen dena; baina irten zirenean, ai!, Txinako mandarina ikusi zuten lurtean! Ihesi joan zirenean, atzetik segika hasi eta erori egin zen nonbait, eta hiru puska egin. Bizkarra bi zatitan puskatua

zeukan eta burua gelaren bazter bateraino birabiraka joanda. Goijeneralazpikomandantesarjentu Ahuntz-hanka betiko lekuan zegoen, gogoe-tan.

— Jainko maitea! —esan zuen artzaintsak—. Aitona txiki-txiki eginda dago, eta gure erruz! Ezingo dut sekula nahigabe hau gainditu!

Eta eskutxoak bihurritzen zituen.

— Kolaz konponduko dute —esan zion txim-  
nia-garbitzaileak—. Primeran geratuko da, ez  
zaitez kezkatu. Bizkarra itsatsi eta lepoan grapa  
bat jartzen diotenean, berria bezala geratuko da  
eta lehen botatzen zizkigun kirtenkeria guztiak  
esango dizkigu.

— Zuk uste? —esan zion artzaintsak. Eta  
mahai gainera igo ziren, lehen egoten ziren leku-  
ra.

— Hemen gara berriz ere —esan zuen tximi-  
nia-garbitzaileak—. Alferrik gure neke guztiak.

— Aitona konponduko balute, sikiera... —  
esan zuen artzaintsak—. Garestia izango ote da?

Eta konpondu egin zuten. Etxekoek bizkarra  
itsatsi eta lepoan grapa bat jarri zioten, eta



berria bezala geratu zen, baina burua mugitzeko gauza ez zela.

— Harro zabilta txiki-txiki egin zinenetik! — esan zion Goijeneralazpikomandantesarjentu Ahuntz-hankak—. Niri ez zait, bada, harro egotekoa denik iruditzen. Berarekin ezkonduko naiz, bai ala ez?

Eta artzaintsak eta tximinia-garbitzaileak kezkatuta begiratzen zioten Txinako mandarinari, buruarekin baietz esango zuen beldur. Baina mandarin zaharrak ezin zuen burua mugitu eta, gainera, ez zion inori esan nahi lepoan grapa bat zuenik. Horrela, portzelanazko iruditxoek elkarren ondoan jarraitu zuten, aitonaren grapa bedeinkatu zuten eta elkar maitatu zuten txiki-txiki egin ziren arte.

*(Hyrdinden og skorsteensfeieren)*

# URRETXINDORRA

Dakizuenez, Txinan, txinatarra da enperadorea, eta txinatarrak dira haren ingurukoak ere. Kontatzera noakizuen istorio hau aspaldi gertatu zen, baina horrexegatik, hain zuzen, kontatu behar dizuet, ahaztu egingo baita bestela. Munduko gauzarik zoragarriena zen enperadorearen jauregia: goitik behera portzelana finez egina, oso ederra, baina oso hauskorra, kontu handiz ukitu beharrekoa. Diren lorerik bitxienak zeuden jauregiko lorategian; haietan ederrenek zilarrezko kanpaitxoak zituzten zintzilik, txilin-txilin, eta beraz, inor ezin zen pasatu loreei begiratu gabe. Den-dena zegoen arretaz egina enperadorearen lorategian, eta hain zen handia, lorezainak berak ere ez baitzekien non amaitzen zen. Urrutira abiatzen zenak baso liluragarri bat aurkitzen zuen amaieran, zuhaitz lerdenez eta aintzira sakonez betea. Itsasoraino iristen zen basoa. Itsaso urdin sakona zen, itsasontzi handiak ere zuhaizpeetaraino heltzeko bezain sakona. Han, zuhaitz artean, urretxindor bat bizi zen, zoraga-

rri kantatzen zuena. Arrantzale gizajoa ere, nahikoa lan bazuen arren, dena utzi eta adi-adi egoten zitzaion gauean sareak biltzera irteten zenean.

— Bai kantu ederra! —esaten zuen, baina atzera lanari lotu eta txoria ahaztu behar izaten zuen. Eta hurrengo gauean ere, gauza bera esaten zuen.

— Bai kantu ederra!

Munduko bazter guztietatik joaten ziren bidaiariak enperadorearen hirira; den-dena iruditzen zitzaien miresgarri, jauregia eta lorategia bereziki, baina urretxindorra entzun orduko, honela esaten zuten guztiek:

— Baina... hona hemen gauzarik zoragarriena!

Bidaiariak, zein bere herrira itzultzean, han ikusitakoak kontatzen zituzten, eta jakintsuek liburu asko idatzi zituzten hiriaz, jauregiaz eta lorategiaz, baina inortxori ere ez zitzaion urretxindorra ahazten: hura zen goraiatuena. Olerkariak poemarik ederrenak egin zizkioten itsaso urdin sakonaren ondoko basoan bizi zen urretxindorrari.

Mundu guztira zabaldu ziren liburu haiek, eta denborarekin, enperadorearen eskuetara iritsi ziren batzuk. Urrezko jarlekuan eserita, irakurri eta irakurri aritzen zen enperadorea, eta baiespen-keinuak egiten zituen buruarekin, hiriaz, jauregiaz eta lorategiaz irakurtzen zuenak ase-beterik. «Baina urretxindorra da denetan miresgarriena» esaten zuten liburuek.

— Zer demontre da hau? —esan zuten enperadoreak—. Urretxindorra? Nik ez dut, ba, horren berririk! Halako txoria eduki erreinuan, lorategian gainera, eta nik ezer jakin ez? Liburuetan irakurri beharra ere!

Zerbitzari nagusiari deitu zion orduan. Zerbitzaria printzipala zen oso, eta bera baino maila apalagokoren bat zerbait galdetzera ausartzen bazitzaion, ez zion «P» besterik erantzungo, ezer ere ez, alegia.

— Urretxindor izeneko txori zoragarri bat omen dugu hemen —esan zion enperadoreak—. Erreinuko gauzarik ederrena dela diote. Zergatik ez dit inork ezer esan?

— Ez dut horren aditzerarik —esan zuten zerbitzariak—. Ez dute inoiz gortean aurkeztu.

— Datorrela gaur gauean bertan niretzat kantatzera! —agindu zuen enperadoreak—. Mundu guztia nire ondasunen jakitun, eta ni ezjakin!

— Ez dut horren aditzerarik —esan zuen berriro zerbitzariak—. Baina bilatuko dut, eta aurkituko dut.

Non bilatu, ordea? Eskaileretan gora eta behera, gela eta korridoreetan atzera eta aurrera ibili zen zerbitzaria. Parean egokitu zitzaion inork ere ez zuen urretxindorraren aditzerarik. Hala, enperadorearengana igo zen berriro zerbitzaria, eta esan zion mitoa izango zela kontu hori, liburuak idatzi zituztenen asmakizunen bat edo.

— Berorrek ez luke liburuek dioten guztia sinetsi behar. Askotan asmakizun hutsak izaten dira, edo sorginkeriak bestela.

— Baina, Japoniako enperadore ahaltsuak bidalia dut liburu hori, eta ez du, noski, gezurrik esango. Urretxindor hori entzun nahi dut, eta gaur bertan gainera! Nire babes dohatsua izango du. Eta ekartzen ez badidazue, jipoia berotuko dizuet afalostean!

— Tsing-Pe! —esan zuen zerbitzariak, eta han hasi zen berriro eskaileretan gora eta behe-  
ra, gela eta korridoreetan atzera eta aurrera;  
gorte erdia joan zitzaion atzetik, inork ez bai-  
tzuen jipoia berotzerik nahi.

Galde eta galde ibili ziren non ote zen urre-  
txindorra, kanpoan ezaguna baina gortean eze-  
zaguna zuten hori.

Sukaldean neskame errukarri bat aurkitu  
zuten azkenik.

— Eneee! Urretxindorra? —esan zuen neska-  
meak—. Ezagutuko ez dut ba! Hark bai kantatu!  
Gauero mahaian bildutako apurrak nire ama gai-  
xoari eramateko baimena dut. Itsasertzean bizi  
da bera. Itzulerakoan, nekatzen naizenean,  
basoan atsedean pixka bat hartzen dut. Eta  
orduan entzuten dut urretxindorra. Malkoak ate-  
ratzen dizkit haren kantuak; ama musu ematen  
ari zaidala iruditzen zait.

— Neskametxo —esan zion zerbitzari nagu-  
siak—, sukaldari jarriko zaitut eta enperadorea-  
ren oturuntza ikusteko baimena ere agintzen  
dizut, urretxindorrarengana eramaten bagaitu-

zu, gaur gauean gortean agertzeko mandatua du eta.

Hala, urretxindorra aritzen zen basora abiatu ziren denak. Gorte erdia han zen. Bizkor-bizkor aurrera zihoazela, marruka hasi zen behi bat.

— Hara! —esan zuen gorteko aitoren seme gazte batek—. Hemen da! Hori da indarra, hain animalia txikia izateko. Lehendik ere entzuna dut nik hori.

— Ez, behi-marruak dira horiek —esan zuen neskametxoak—. Iristeko asko falta zaigu oraindik.

Hurrena, korroka hasi ziren igelak aintziran.

— Xarmagarria! —esan zuen kapilau txinatarrak—. Elizako kanpai dilinda bezalakoxea da!

— Ez, igel-korrokak dira horiek —esan zuen sukaldeko neskameak—. Baina, aurki entzungo dugu, nik uste.

Hartan, urretxindorra hasi zen kantari.

— Horixe da! —esan zuen neskatxak—. Entzun, entzun! Hortxe dago!

Eta adar artean zegoen txoritxo gris bat erakutsi zien.

— Bai ote? —esan zuen zerbitzari nagusiak—. Ez nuen uste horrelakoa izango zenik. Hori itxura arrunta duena! Hainbeste handiki ikusteak galaraziko zizkion koloreak.

— Urretxindor txiki hori —deitu zion neska-meak—, gure enperadore prestuak kantari entzun nahi zaitu.

— Bai pozik ere! —erantzun zion urretxindorrak, txorrotxio liluragarri batekin.

— Beirazko kanpaien dilinda bezalakoxea da! —esan zuen zerbitzari nagusiak—. Begiraiozue eztarritxoari, nolako dardara eragiten dion! Harritzekoa da lehenago entzun ez izana. Arrakasta handia izango du gortean, bai horixe!

— Kantatuko al diot berriro enperadoreari? —esan zuen urretxindorrak, enperadorea bertan zuelakoan.

— Urretxindor xarmant hori! —esan zuen zerbitzari nagusiak—. Atsegin handiz gonbidatzen zaitut gaur gauean gortean ospatuko den festara, gure enperadore prestuak zure kantu ederra-ekin goza dezan.

— Zuhaitz artean hobeto entzuten da —esan zuen urretxindorrak. Baina gogo onez joan zen



haiekin, enperadorearen borondatea horixe zela jakinik.

Jauregia goitik behera argitu zuten abagune hartarako. Hormak eta zoruak, portzelanazkoak denak, dir-dir egiten zuten milaka eta milaka lanpararen argitan. Lorerik ederrenak, kanpaitxodun horietakoak, jarri zituzten korridoreetan apaingarri. Presaka eta korrikako hainbeste joan-etorrik haize-korronte handia sortzen zuen, eta horretxek eragiten zien dilinda kanpaitxoei, eta txilin-hotsa besterik ez zen entzuten.

Enperadorea eserita zegoen areto handiaren erdian urrezko kota bat jarri zuten urretxindorrrarentzat. Han ziren gorteko guztiak; neskametxolari ate ostean egoteko baimena eman zioten, sukaldari izendatua baitzuten ordurako. Dotore-dotore jantzita zeuden denak, txoritxo grisari begira. Enperadoreak hasteko keinua egin zion buruarekin.

Zoragarri kantatu zuen urretxindorrrak, eta malkoak etorri zitzaizkion masailetan behera enperadoreari. Polikiago kantatu zuen orduan, guztien bihotzak hunkitzeraino. Liluraturik zegoen enperadorea, eta bere urrezko txapina eskai-

ni zion urretxindorrari, lepotik zintzilik jartzeko. Urretxindorrak, ordea, eskerrak eman eta nahikoa saritu zutela erantzun zuen.

— Enperadorearen begietan malkoak ikusi ditut, eta horixe dut saririk onena. Balio handikoak dira enperadore baten malkoak. Ondotxo daki Jainkoak aski eta sobera dudala hori —eta berriro kantatzeari ekin zion, bere doinu goxo zerutiarrekin.

— Inoiz ikusi dudan gauzarik xarmantena da —esan zuten dama guztiek. Eta eztarria urez bete eta gur-gur egiten zuten norbaitek hitz egiten zienean, urretxindorrarena egin nahirik. Nes-kame-morroiek ere beren esker ona erakutsi zuten. Eta gauza handia zen hori, ez baitziren inor ederresten ibiltzen diren horietakoak. Bai, urretxindorrak arrakasta handia izan zuen.

Gortean jarri behar izan zuen bizitzen, bere kaiolatxoan; bi aldiz ateratzen zen paseatzera egunez, eta beste behin gauez. Hamabi morroik eramaten zuten beti, hankari loturiko sedazko lokarri banatatik helduta. Urretxindorrari ez zioten atsegin handirik ematen halako irteerek.

Hiri guztira zabaldu zen txoriaren berri. Klean bi lagunek topo egiten zutenean, batek «urre» esan orduko «txindor» erantzuten zion besteak, eta hasperen egin eta primeran uler-tzen zioten elkarri. Eta hamaika gazta-saltzaile-ren seme-alabei jarri zieten urretxindor izena, baina haietako inork ez zuen kantatzeko halako dohainik erakutsi.

Egun batean fardel handi bat iritsi zen enperadorearentzat. «Urretxindorra» zioen kanpoaldean.

— Hemen dugu gure txori ospetsuari buruzko beste liburu bat —esan zuen enperadoreak. Baina han ez zen libururik; kaxa bat zen, eta barruan automata txiki bat zegoen: urretxindor artifizial bat zen, benetakoa antzeratzen zuena, baina diamante, errubi eta zafiroz estalia erabat. Txoriaren giltzari eragin orduko kantuan hasten zen, benetakoak nola; eta isatsa gora eta behe-ra mugitzen zuen, urreak eta zilarrak distiraraziz. Lokarritxo bat zuen lepotik zintzilik. Honela zioen: «Japoniako enperadorearen urretxindorra txit xumea da Txinakoarenaren aldean».

— Bai polita —esan zuten denek. Eta hala, txori artifiziala eraman zuenari «Inperioko Urretxindor Banatzaile Gorena» titulua jarri zioten.

— Orain, kanta bezate biek batera. A ze biko-tea osatuko duten!

Eta batera kantatu behar izan zuten, baina ez zuten oso ondo elkar hartu. Izan ere, benetako urretxindorrek bere erara kantatzen zuen, eta artifizialak, berriz, balsak besterik ez zuen kantatzen.

— Ez da bere errua! —zioen musika-irakasleak—. Primeran jarraitzen dio konpasari, eta zuzen betetzen ditu arau guztiak.

Orduan, bakarrik kantatu behar izan zuen urretxindor artifizialak. Benetakoak adinako arrakasta lortu zuen bere emanaldian, eta hura baino askoz ikusgarriagoa zen: dir-dir egiten zuen, eskumuturreko edo papar-orratz batek bezala.

Hogeita hamahiru aldiz kantatu zuen doinu bera, eta ez zuen neke-arrastorik batere erakutsi. Berriro entzun nahi zioten denek, baina enperadoreak esan zuen urretxindor biziari ere aukera eman behar zitzaiola. Non zebilen,

baina? Inor ez zen konturatu leihotik atera eta bere baso berdera ihes egin ziela.

— Zer da hau, gero! —esan zuen enperadoreak. Gorte-jendea haserretu egin zen, eta esker gaiztoko animaliatzat hartu zuten urretxindorra.

— Orain badugu hura baino hoberik! —esan zuten, eta urretxindor artifiziala kantari jarri zuten berriro; doinu bera entzun zuten hogeita hamalagarrenez, baina hala ere, ezin izan zuten ikasi, oso zaila baitzen.

Musika-irakasleak gorespen handiak egin zizkion txoriari, eta benetako urretxindorra baino askoz hobea zela zioen; bai kanpotik, bere diamante eta guzti, eta bai barrutik ere.

— Zeren, pentsa ezazue, eta batez ere, pentsa beza berorrek, Maiestate, benetako urretxindorak zer kantatuko duen inork ez dakiela; honekin berriz, dena dago aurrez prestatuta! Hala izan behar du eta hala da, ez dago ustekaberik. Edonork ikus dezake nolakoa den, ireki eta ikus daiteke zein egoki dauden jarrita zilindroak eta nola higiarazten duen batak bestea.

— Halaxe iruditzen zait niri ere —esan zuten denek. Eta musika-irakasleak hurrengo igandean

txoria jendaurrean erakusteko baimena lortu zuen. Haren kantua ere entzun zezaketela esan zuen enperadoreak. Eta entzun zuten, eta txolin-duta gelditu ziren, Txinan tea edan ondoren ohi duten bezala.

— O! —esan zuten denek. Eta eskua altxatu eta baiespen-keinuak egin zituzten buruarekin. Baina benetako urretxindorra entzuna zuten arrantzale gizajoek esan zuten:

— Ondo kantatzen du, eta haren antza ere badu; baina zerbait falta zaio. Ez dakigu zer, baina...

Benetako urretxindorra erbesteratu egin zuten gortetik eta erreinutik.

Urretxindor artifiziala sedazko lastarairatxo batean egoten zen, enperadorearen ohe ertzean, eta opari guztiak, urrea eta bitxiak, zituen inguruan. «Enperadorearen Aretoko Kantari Inperial Gorena» izendatu zuten, ezkerraldeko lehena; hura baitzen enperadorearen ustez alderdi ospetsuena, alde horretan dagoelako bihotza. Eta enperadoreak ere ezkerraldean duelako bihotza.

Musika-irakasleak hogeita bost liburuki idatzi zituen urretxindor artifizialaz; tratatu luzea zen, eta txinatar karaktere zailenez idatzia. Guztiek obra irakurri eta ulertu zutela esaten zuten, bestela ezjakintzat hartu eta ostikoka erabiliko baitzituzten.

Urtebete igaro zen horrela: enperadoreak, gorte-jendeak eta gainerako txinatarrek buruz ikasi zituzten txori artifizialaren erraietatik ateratzen ziren gur-gur guztiak; baina horrexegatik zuten gustukoa, beraiek ere kantatu zezaketelako. Kaleko umeek «zi-zi-zi» eta «gur-gur-gur» esaten zuten, eta hori bera esaten zuen enperadoreak.

Gau batean, ordea, txoria onenean ari zela, eta enperadorea ohean zegoela hari entzuten, zerbaitek «krask» egin zuen txoriaren barruan, gurpil guztiak atera zitzaizkion eta musika isildu zen. Enperadorea berehala altxatu eta medikuei deitu zien. Baina zer egin zezaketen medikuek? Deitu zioten erloju-konpontzaileari, eta isildu gabe han eta hemen begira ibili ondoren, konpondu zuen nolabait; baina esan zuen ez zela komenitramankuluak asko mugitzea, oso gasta-

tuta zeudelako, eta ezin izango zirelako lehengo moduan ezarri berriro, musikarekin bat etortzeko. Hura zoritxarra! Harrezkero urtean behin bakarrik entzungo zuten urretxindorra kantari, eta hori ere asko omen zen. Baina musika irakasleak hitzaldi bat eman zuen, hitz potoloz betea. Esan zuen lehen bezain ondo egiten zuela, eta hark hori esan zuelarik bukatu ziren hango komeriak.

Bost urte igaro ziren, eta herri osoa zegoen enperadorearen egoeraz tristeturik: gaixo zegoen, hiltzeko zorian. Hala zioten behintzat. Eta enperadore berria izendatu zuten; herritarrak kalera atera ziren, eta zerbitzari nagusiarri galde-tu zioten enperadorea nola zegoen.

— P! —erantzun zuen buruari eraginez.

Hotz eta zurbil zetzan enperadorea bere ohantze zoragarrian; denek uste izan zuten hila zela, eta enperadore berriari jende asko joan zitzaion adeitasuna adieraztera. Morroiak alde batera eta bestera ibili ziren txutxumutxuka, eta jauregiko neskameak kafea hartzera bildu ziren. Gela eta pasabide guztietan alfonbrak ezarri



zituzten, pausoak antzeman ez zitezten, eta beraz, ez zen txintik entzuten.

Baina enperadorea bizirik zegoen artean. Zurrun eta zurbil zetzan bere ohantze zoragarrian, belusezko oihalez eta urrezko zintzilikario astunez inguraturik. Leiho bat zegoen irekita goialdean eta ilargiak argitzen zituen enperadorea eta —haren alboan— urretxindor artifiziala.

Enperadore gizajoak ezin zuen arnasarik hartu ia; bular gainean zama astun bat balu bezala. Begiak ireki zituen, eta Herio ikusi zuen bere bularrean eserita, urrezko koroa jantzita. Enperadorearen urrezko ezpata zeukan esku batean, eta zutoihala bestean. Eta inguruan, belusezko oihalen zimurren artean, buru lilurgarriak ikusten zituen, izugarriak batzuk, atsegin eta eztiak besteak. Han ziren enperadorearen mamu zintzo eta gaizto guztiak, berari so, eta Herio, bihotz gainean eserita.

— Oroitzen al zara? —esaten zioten batak bestearen atzetik—. Oroitzen al zara? —eta hainbeste gauza esaten zioten, ezen aurpegia izerdiz betetzen zitzaion.

— Nik ez nekien hori —esaten zuen enperadoreak—. Jo musika, jo musika, jo Txinako danbor handia! —oihukatzen zuen—. Ez ditut gehiago entzun nahi!

Baina mamuek beren jardunarekin jarraitzen zuten, eta entzuten zuen guztiari Heriok baietz egiten zion buruarekin, txinatarrek egiten duten bezala.

— Jo musika, jo musika! —orroka enperadoreak—. Kanta ezazu, kanta ezazu, urrezko txori txiki horrek! Eman dizut urrea, eman dizkizut bitxiak, zintzilakatu dizut nire urrezko txapina. Kanta ezazu, arren, kanta ezazu!

Baina txoriak ez zuen kantatzen. Ez zegoen haren giltzari nork eragin. Eta han jarraitzen zuen Heriok, enperadoreari so bere betzulo hutsekin. Ez zen txintik entzuten, isiltasun bel-durgarri bat zen nagusi.

Bat-batean kantu liluragarri bat entzun zen leihotik; benetako urretxindorra zen, adar artean kantari. Enperadorearen egoeraren berri izan zuen, eta hari pozaldi bat eta itxaropena ekartzera etorria zen. Eta hark kantatu ahala desagertu egin ziren buru haiek, eta odola indar han-

diagoz hasi zen enperadorearen zain ahuletan higitzen. Eta Heriok ere, entzun zuenean urretxindorra kantari, esan zion:

— Jarrai, urretxindor txiki, jarrai!

— Urrezko ezpata ematen badidazu; enperadorearen koroa ematen badidazu.

Eta Heriok itzuli zizkion bitxi guzti-guztiak, kantu baten truke. Eta urretxindorrak kantatu zuen hilerriaz; nola arrosak loratzen diren han, nola intsusaren usaina aditzen den han, eta nola belarra bizen malkoek ezkotzen duten han. Kantu hori entzunda bere lorategiko minak hartu zuen Herio. Eta hala atera zen leihotik, laino lauso eta hotz bat bailitzan.

— Eskerrik asko! —esan zuen enperadoreak—. Txori miragarri hori, ondotxo dakit zu nor zaren! Neure erreinutik erbesteratu zintudan, eta hara non zuk, zure doinuarekin, eraman dituzun nire ohantzetik bekatu gaiztoak eta eraman duzun nire bihotzetik Herio. Nola eskertuko dizut?

— Dagoeneko eskertu didazu —erantzun zion urretxindorrak—. Malkoak atera nizkizun lehen aldiz zure aurrean kantatu nuenean. Ez zait

sekula ahaztuko. Bitxi horiek baitira kantariaren bihotzaren bozkario. Baina egizu lo, eta senda zaitez. Zuretzat kantatuko dut!

Eta berriro hasi zen kantari, eta lo gozo eta lasaigarri batek hartu zuen enperadorea.

Eguzkia sartzen zen leihoetatik, enperadorea sendo eta osasuntsu esnatu zenean. Zaintzaile bat bera ere ez zuen alboan, hilda zegoela uste baitzuten guztiek, baina urretxindorra kantari zebilen oraindik.

— Gera zaitez nirekin betiko —esan zion enperadoreak—. Zuk nahi duzunean kantatuko duzu, eta txiki-txiki egingo dut urretxindor artifiziala!

— Ezta pentsatu ere —esan zuen urretxindorrak—; ahal bezain ongi kantatu du. Zaindu ezazu orain arte bezala! Nik ezin dut habia jau-regian egin eta bertan bizi, baina utzidazu nahi dudanean etortzen. Adar batean pausatuko naiz arratsean, leihotik oso hurbil, eta zuretzat kantatuko dut. Zu alaitzeko eta zure gogoaz zuzpertzeko kantatuko dizut; zorientzuek eta zoritxarrekoek kantatuko dizut. Zure inguruko ongiaz eta gaizkiaz kantatuko dizut. Txori txikia urrutira joa-

ten da, arrantzale gizajoengana, eta nekazaria-renera, zugandik eta zure gortetik urrun diren guztienera. Zure bihotza dut zure koroa baino maiteago, baina koroak badu halako itzal sakratu bat. Etorri eta zureztat kantatuko dut. Baina gauza bat agindu behar didazu.

— Eskatu nahi duzuna —esan zuen enperadoreak, zutik jarrita. Enperadore-galak zituen soinean, berak jantziak, eta urrezko ezpata gotorra zuen bihotzaren kontra estuturik.

— Ez gero esan inori guztia kontatzen dizun txori bat daukazunik. Hobe izango da horrela!

Eta urretxindorra hegan joan zen.

Zaintzaileak beren enperadore zena ikustera itzuli ziren, baina «egun on» esanez hartu zituen hark.

*(Nattergalen)*

# PASARATZEKO ORRATZA

Bazen behin pasaratzeko orratz bat hain fina, non jostorratza zela begitantzen baitzitzaien.

— Kontuz! Kontuz nola heltzen didazuen! — esan zien zegoen lekutik atera zuten hatzei—. Oso fina naiz, eta lurrera jausiz gero, ez nauzue sekula aurkituko.

— Beno, beno, ez da hainbesterako izango! —erantzun zioten hatzek destainaz. Eta gerritik estutu zuten.

— Begira! Segizioa dut! —esan zuen pasaratzeko orratzak. Atzean zeukan hari luzeaz ari zen, korapilorik gabeko haria bazen ere.

Hatzek sukaldariaren txapinerantz eramane zuten orratza; larrua urraturik zeukan eta josi egin behar zen.

— Lan hau ez da batere duina —esan zuen orratzak—. Ezin naiz hortik pasatu, hautsi egingo naiz! Hautsi egingo naizela! —Eta hautsi egin zen.

— Ez al dizuet, ba, esan finegia naizela? —egin zuen protesta orratzak.

«Orain ez du ezertarako balio», pentsatu zuten hatzek, baina orratzari heltzen segitu zuten halere, eta sukaldariak lakre berotan sartu zuten eta lepo-zapiari erantsi zion gero.

— Orain papar-orratza naiz —esan zuten pasartzeko orratzak—. Beti pentsatu izan dut zerbait hobea izateko jaio nintzela. Zerbait bazaara, beste zerbait izatera irits zaitezke.

Eta barre egin zuten bere baitan; izan ere, kanpotik begiratuta ezin baitzaio antzeman orratzari barrez ari den ala ez. Eta han gelditu zen eserita, harro-harro, urrezko karroza baten eserlekutik munduari begira balego bezala.

— Atrebentzia handia ez bada, galde al diezazuket urrezkoa zaren? —galdetu zion ondoan zuten buruorratzak—. Oso itxura ederra duzu, eta zeure burua eta guzti, txikia bada ere. Saia zaitetz buru hori handitzen, edozeinek ez dauka lakre berotan sartua izanaren ohorea.

Hori entzunda, orratza, harrotuta, tente-tente jarri zen, baina gehiegi, nonbait, arraskara erori baitzen, sukaldaria lepo-zapia garbitzen ari zen unean.

— Ene! Orain bidaiatzera noa —esan zuen orratzak—. Galtzen ez banaiz, behintzat...

Baina galdu egin zen.

— Finegia naiz mundu honetarako —esan zuen erreten batera iritsi zenean—. Baina nik, behintzat, badakit nor naizen eta nondik natorren, eta hori ez da gutxi. Eta orratza tente-tente jarri zen eta ez zuen umore ona galdu.

Era guztietako gauzak pasatu ziren beraren ondotik: ezpalak, lasto-izpiak, egunkari-pusketak...

— Begira nola doazen igeri! —esan zuen orratzak—. Ez dakite ondoan zer duten. Ni nago ondoan! Begira horko ezpala; ezpaletan beste ezertan ez du pentsatzen, bera ezpala delako. Eta hara hor, lasto-izpia, alde batera eta bestera bueltaka... Ez pentsatu hainbeste zeure buruan, galtzadako harrietan trabatuko zara eta. Eta begira hor, egunkaria; bertan idatzita dagoen guztia ahaztua dute dagoeneko, eta begira nola zabaltzen den hala ere. Ni, berriz, hemen nago, lasai-lasai. Badakit nor naizen eta berdin jarraituko dut.



Egun batean, distira handiko gauza bat heldu zitzaion ondora. Botila hautsi baten pusкета bat zen, baina orratzak diamantetzat hartu zuen. Dir-dir zegoenez, harekin hitz egitea pentsatu zuen. Papar-orratza zela esanez aurkeztu zuen bere burua:

— Zu diamantea izango zara, noski?

— Horrelako zerbait, bai —esan zuen beira-pusketak. Eta biek gauza baliotsuak zirela pentsatu zuten eta mundu guztia zein harroa zen eztabaidatzen hasi ziren.

— Ni neska gazte baten kutxatxoan bizi nintzen —esan zuen orratzak—. Sukaldaria zen eta esku bakoitzean bost hatz zituen. Ez dago munduan hatz haiek baino harroagorik, eta hori ni kutxatxora sartu eta kutxatxotik atera besterik egiten ez zutelarik.

— Dir-dir egiten al zuten? —galdetu zuen beira-pusketak.

— Dir-dir!? —erantzun orratzak—. Bai zera! Harrokeria besterik ez zuten. Bost anaia ziren, denak hatz jaioak. Lerroan zeuden bata bestearen alboan, luzera desberdinekoak izan arren. Mutur batekoa, Erpurua, motza eta lodia zen;

lerrotik kanpo geratzen zen eta bizkarrean angelu bakarra zuen, behin bakarrik tolesteko moduan, baina esaten zuen inork hatz hori falta bazuen ezingo zuela soldadutza egin. Erakuslea saltsa gazietan eta gozoetan sartzen zen, eguzkia eta ilargia seinalatzen zituen eta idazterakotan bera zen gidari. Luzea garaiena zen eta beti goitik begiratzen zien besteei. Nagiak urrezko eraztuna zeukan gerrian eta Txikiak ez zuen sekula ezer egiten eta harro zegoen horretaz. Harroputz galanta zen, bai horixe! Eta orduan arraskan behera erori nintzen.

— Eta orain hementxe gaude, distira egiten! —esan zuen beira-pusketak. Eta une horretantxe ur gehiago etorri zen, gainezka egin zuen, eta berarekin eraman zuen beira-pusketa.

— Hara, hori behintzat igo dute kategoriaz! —esan zuen orratzak—. Ni hemen geratuko naiz ba, finegia naiz eta. Harrokeria modu bat ere bada hori, baina jarrera duina da, hala ere.

Eta tente-tente jarrita, pentsatzen jarraitu zuen.

— Hain naiz mehea, non eguzki-izpi batetik jaioa naizela pentsa baitaiteke. Gainera, eguzkia

ur azpian nire bila ibiltzen da beti, baina hain mehea izanda, amak ere ezin nau aurkitu. Nire begia banu, hautsi zitzaidan begi hura alegia, negar egingo nuke. Baina ez, negar egitea ez da fina.

Egun batean, mutiko batzuk etorri ziren eta, erretenean miaketan ari zirela, iltzeak, txanpon zaharrak eta horrelako gauzak aurkitu zituzten. Zikinkeriak ziren; baina atsegin zituzten, hala ere.

— Ai! —esan zuen mutiko batek, orratzak zizta egin ziola eta—. Hemen sua dago!

— Sua? Ni ez naiz sua! Dama bat naiz —egin zuen protesta orratzak. Baina ez zion inork aditu. Lakrea erori egin zitzaion eta belztu egin zen, baina beltzak liraindu egiten du eta, beraz, lehen baino lerdinagoa zegoela iruditzen zitzaion.

— Hara hor arrautza-oskola! —esan zuten mutikoek—. Eta orratza arrautza-oskolari itsatsia geratu zen.

— Paretak zuriak eta ni beltz! —esan zuen orratzak—. Bai dotorea! Ikusgarria nago! Ez ahal naiz zorabiatuko, hautsi egingo naiz bestela.

Baina ez zen zorabiatu ez eta hautsi ere.

— Zorabioaren kontrako erremediorik onenak altzairuzko urdaila edukitzea eta pertsona baino zerbait gehiago zarela gogoan izatea dira. Askoz hobeto nago orain. Zenbat eta finago, orduan eta zailduago.

— Krask! —egin zuen arrautza-oskolak, gurdi bat, bete-bete eginda, gainetik pasatu zitzaionean.

— Ai! Hau estutua! —egin zuen garrasi orratzak—. Orain bai zorabiatuko naizela! Hautsi egingo naiz! Hautsi egingo naiz!

Baina ez zen hautsi, karga-karga eginda zegoen gurdia gainetik pasa zitzaion arren. Han geratu zen, erretenean. Eta dagoela hantxe.

*(Stoppenålen)*

# SIRENATXOA

Itsasoaren hondoa urdin-urdina da, galsoroetako lore-urdin ederrenaren petaloak bezain urdina, eta garden-gardena, beira hutsa bezain gardena; baina oso sakona da, eta ez da aingurarik hondora iritsiko denik, eta kanpandorre ugari beharko lirateke, bata bestearen gainean jarri eta hondotik azalera iristeko. Eta, han, hondo-hondoan, bizi dira sirenak.

Ez uste itsasoaren hondoan harea zuria besterik ez dagoenik. Bai zera! Zuhaitz eta landare bitxienak hazten dira han; zurtoinak eta hostoak hain dituzte malguak, ezen uraren mugimendu txikienak ere eragiten baitie, eta bizirik daudela dirudite. Arrain guztiak, txiki zein handi, haien adarren artean ibiltzen dira, airean txoriak bezalaxe. Itsasoaren sakonenean itsasoko erregearen jauregia dago: harresiak koralezkoak ditu, leiho luze zorrotzak anbar gardenekoak, eta teilatua maskorrez egina, eta maskorrak ur-korrontearen arabera irekitzen eta ixten dira. Ikusgarria da; izan ere, maskor guztiek perla distira-

tsuak baitituzte barruan, hain bikainak, ezen bat bakarra aski bailitzateke erregina baten koroa apaintzeko.

Itsasoko erregea alarguna zen aspalditik, eta ama zaharrak zaintzen zion etxea. Emakume bizkorra zen ama, baina bere nobleziaz oso harro zegoen eta hamabi ostra zeramatzan isatsean, gorteko gainerakoek sei besterik eraman ezin bazituzten ere. Baina ondo mereziak zituen laudorioak, oso maite baitzituen bere semearen alabak, itsasoko printzesatxoak. Sei neskatxa eder ziren, baina gazteena zen guztietan ederrena: azala zuri-zuria zuen, arrosa baten petaloen antzekoa, eta begiak ozeano sakonena bezain urdinak. Baina bere ahizpak bezala, ez zuen hankarik; isatsa zuen hanken lekuan.

Sirenek egun osoa jolasean ematen zuten jauregiko areto handietan. Lore bizidunak hazten ziren aretoetako hormetan. Anbar horiko leiho handiak zabalik zeuden eta arrainak igeri sartzen ziren, gure etxeetan enarak hegan sartzen diren antzera. Arrainak printzesa txikiengana joaten ziren zuzen-zuzenean; haien eskuetatik jaten zuten eta haien laztanak atsegin zituzten.

Jauregiaren kanpoaldean lorategi handi bat zegoen. Hango zuhaitzak gorri biziak eta urdin margulak ziren. Frutek urreak bezala distiratzen zuten eta sugarrak bezala loreek. Zuhaitzek etengabe eragiten zieten beren zurtoin eta hostoei. Zorua harea finekoa zen, baina urdina, sufrearen sugarra bezain urdina. Han ziren gauza guztiek distira urdin berezi bat islatzen zuten; esan zitekeen itsasoaren hondoan ez, baina airean zeundela, zerua goian eta zerua behean. Itsasoa bare zegoenean, eguzkia bera ere ikusten zen, argitasun guztia korolatik igortzen zuen purpura-koloreko lore bat zirudiela.

Printzesatxoek zeinek bere txokoa zuten lorategian, eta bakoitzak nahi bezala aitzurtzen eta landatzen zuen. Batek balea itxura eman zion bere lore-sailari, besteak nahiago izan zuen sirenatxo baten irudia, eta txikienak, berriz, erabat biribila egin zuen, eguzkiaren itxurakoa, eta eguzkiaren antzeko distira gorridun loreak besterik ez zituen landatu. Ume berezia zen txikiena, lasaia eta pentsakorra, eta beste ahizpek beren sailak itsasontzi hondoratuetatik bildutako gauza bitxienekin apaintzen bazituzten ere,

berak, eguzki-itxurako lore gorri haiez gainera, marmolezko irudi eder bat besterik ez zuen: mutil gazte eder baten irudia, marmol zurian zizelatu, itsasontzi bat urperatzean hondora eroria. Irudiaren alboan sahats negarti gorri bat landatu zuen. Sendo-sendo hazi zen sahatsa eta mutilaren irudiaren gainetik abailtzen zituen bere adar leunak hondar urdineko zoruraino; eta zoruan egiten zuen itzal gorrixka adarrekin batera mugitzen zen; esan zitekeen adarrak eta sustriak jolasean eta elkarri musuka ari zirela.

Sirenatxoarentzat ez zegoen gauza atsegina-gorik gizakien munduari buruzko istorioak entzutea baino; amona zaharrak itsasontzietan eta hirietan buruz eta gizaki eta animalietan buruz zekien guztia kontatu behar izaten zion. Sirenatxoari miresgarria iruditzen zitzaion lurreko loreek urrina izatea, itsas hondotan ez baitzuten halakorik, eta basoak berdeak izatea, eta adar artean ibiltzen ziren arrainek hain alai eta hain ederki kantatzea; amonak arrain esaten zion txoriei, bestela, ez zioten ulertuko, neskatxek ez baitzuten sekula txoririk ikusi.



— Hamabost urte betetzen dituzuenean — esan zien amonak—, baimena izango duzue itsasotik irteteko, ilargi-argitan harkaitzetan eseritzeko, eta itsasontzi handiak ikusteko. Eta basoak eta hiriak ere ikusiko dituzue.

Hurrengo urtean bete zituen hamabost urte ahizpa zaharrenak, baina gainerakoek... Beno, urtebeteko aldea zuten batengandik bestearengana eta, beraz, gazteenak bost urte itxaron beharko zituen itsas hondotik irten eta gure mundua ikusteko. Baina ahizpetako bakoitzak hitz eman zien gainerakoiei kontatuko ziela zein zen lehen egunean ikusten zuen gauzarik ederrena; izan ere, amonak kontatutakoa ez zen nahikoa; beraiek askoz ere gehiago jakin nahi zuten.

Baina inork ez zuen gazteenak adinako grinarik, eta bera zen hain zuzen gehien itxaron behar zuena, bera, guztietan isilena eta pentsakorrena. Gauetan leihora irteten zen, eta gora begiratzeko zuen ur urdin ilunaren artetik, eta arrainak ikusten zituen beren hegal eta isatsekin ura mugitzen zutela.

Ilargia eta izarrek ere ikus zitzakeen. Distira apala bazuten ere, uretatik begiratuta guk ikusten ditugunak baino handiagoak ziruditen. Izarren azpitik hodei beltz moduko bat ikusten zue-nean, bazekien balea zihoala gainetik igeri, edo jendez betetako itsasontzi bat, bestela; gutxi usteko zuten itsasontzian zihoazenek sirenatxo eder bat zutela azpian, esku zuriak gilarantz luzatzen zituela.

Eta horretan, bete zituen printzesa zaharrenek hamabost urte eta irten zen ur-azalera.

Itzuli zenean gauza asko zeuzkan kontatzeko, baina bere ustez gauzarik zoragarriena harea gainean etzanda egotea zen, ilargiaren argitan eta itsasoa bare zegoela, eta itsasertzeko hiri handia ikustea; izarrek bezala distiratzen zuten hiriko argiak ikustea; hango musika eta iskanbila, eta kotxeen eta jendearen zarata entzutea; kanpandorreak ikustea, eta kanpaiak dilindan entzutea. Eta iritsi ezin zituen gauza haiexek ziren, hain zuzen ere, gehien desio zituenak.

Nolako arretaz entzuten zion ahizpa gazteenak! Gau hartan leihora joan zenean eta ur urdin ilunaren artetik gora begiratu zuenean, hiri

handi hura irudikatu zuen, soinu, zarata eta guzti, eta iruditu zitzaion kanpaien soinua entzuten zuela.

Hurrengo urtean bigarren ahizpak izan zuen uretan gora egin eta nahi zuen lekura igeri joateko baimena. Eguzkia ezkututzen ari zenean iritsi zen azalera, eta ikuskizun hura inoiz ikusi zuen gauzarik zoragarriena iruditu zitzaion. «Zeruak urrezkoa zirudien!», esan zuen, «eta hodeiak...», ezin zuen horrenbeste edertasun adierazi. Esan zien hodeiak igaro zitzaizkiola gainetik, gorriak eta moreak, baina haiek baino bizkorrago beltxarga-saldo batek egin zuela hegan eguzki ingurura, xingola zuri handi baten antzera; bera ere harantz joan zela igeri, baina eguzkia urperatu eta itsas azaleko distira arrosa itzali egin zela.

Handik urtebetera hirugarren ahizpa igo zen. Hura zen guztietan ausartena, eta itsasora isurtzen zen ibai zabal baterantz egin zuen igeri. Mendixka berde zoragarrietan mahastiak, jauregiak eta landetxeak ikusi zituen, oihan handien artean. Txorien kantua entzun zuen. Eguzkia hain zen kiskalgarria, non behin baino gehiagotan ur azpian sartu behar izan zuen aurpegia,

freskatzeko. Badia batean haur talde bat ikusi zuen; erabat biluzik zeuden eta plisti-plasta zebiltzan uretan; haiekin jolastu nahi izan zuen, baina izaturik ihes egin zioten. Animalia txiki beltz bat hurbildu zitzaion gero; zakurra zen, baina bera sekula zakurrik ikusi gabea zen, eta zakurra zaunka eta zaunka hasi zitzaionean, sirenatxoak itsas barrenera ihes egin zuen izaturik. Ezingo zituen inoiz ahaztu baso eder haiek, mendixka berdeak eta haur atsegin haiek, isatsik ez zeukaten arren igerian bazekiten haur haiek.

Laugarren ahizpa ez zen aurrekoa bezain ausarta izan; itsas zabalean gelditu zen, eta esan zuen huraxe zela, hain zuzen ere, gauza guztietan ederrena: ikusmira zabala zegoen, milia askotakoa, eta zeruak beirazko kanpai bat zirudien. Itsasontziak ikusi zituen, baina oso urrun: antxetak ematen zuten. Izurde atseginak jauzika zebiltzan, eta balea izugarriek sudur zuloetatik ura botatzen zuten, inguru guztian ehundaka iturri baleude bezala.

Bosgarren ahizparen txanda etorri zen gero. Neguan betetzen zituen hark urteak, eta horre-

gatik bestee ikusi ez zuten ikuskizuna ikusi ahal izan zuen: itsaso berde-berde, eta izozmendi handiak han eta hemen igeri; mendi bakoitzak perla bat zirudien, eta gizakiek eraikitzen zituzten kanpandorreak baino askoz ere garaiagoak ziren. Oso forma bitxiak hartzen zituzten, eta diamanteen distira. Mendi handienetako batean eseri zen printzesa. Haizeak ilea nahasten zion eta belontzi guztiek izuturik alde egiten zuten haren ondotik. Arratsean zerua hodeiez estalitzen, tximistak eta trumoiak izan ziren; itsaso beltzak oso gora altxatzen zituen izotz-puskak eta tximista-argitan distira egiten zuten. Itsasontzi guztiek belak hedatu zituzten, beldurturik eta izuturik, baina sirenak bere izozmendiaren gainean jarraitu zuen lasai-lasai eserita, eta tximista-argiak sigi-saga eginez itsaso argitsuan erortzen ikusi zituen.

Ahizpak lehen aldiz itsas-azalera irteten zirenean, liluraturik gelditzen ziren han ikusten zituzten gauza eder eta berriekin, baina behin nagusitasuna iritsi eta nahi zutenetan irteteko baimena lortzen zutenean, aspertu egiten ziren eta nahiago izaten zuten etxera itzuli. Hilabete

bat kanpoan egin ondoren beren etxea baino leku hoberik eta atseginagorik ez zegoela, eta etxean beste inon baino hobeto egoten zela esaten zuten.

Askotan, arratsean, bost ahizpak elkarri besotik heldu eta ur-azalera igotzen ziren. Ahots zoragarriak zituzten, edozein gizakirenak baino gozoagoak, eta ekaitzak jotzen zuenean eta itsasontziren bat urpera zitekeela iruditzen zitzaie-nean, itsasontzira hurbildu eta itsas hondoaren edertasuna goraipatzen zuten kantuz, eta beldurrik gabe hara jaisteko eskatzen zieten marinelei. Baina, marinelek ez zuten haien kantua ulertzen, ekaitz-hotsa zela uste zuten, eta nahiago izaten zuten edertasun hura ez ikusi; izan ere, itsasontzia hondoratzen zenean, gizonak ito egiten baitziren, eta hildakoan bakarrik bisitatzen zuten itsasoko erregearen jauregia.

Gauetz, ahizpak elkarri besotik helduta itsas azalera igotzen zirenean, ahizpa txikiena bakar-bakarrik geratzen zen haiei begira; negarrez hasi behar zuela ematen zuen, baina sirenek ez dute malkorik, eta horregatik, gehiago sufritzen dute.

— Hamabost urte banitu! —esaten zuen—. Seguru nago hor goiko mundu hori gustatuko zaidala, eta baita hangotarrak ere!

Eta azkenean bete zituen hamabost urteak.

— Hara, etorri zaizu joateko garaia —esan zion amonak, ama erregina alargunak—. Zatoz! Dotore-dotore jantziko zaitut, zure ahizpak jantzi nituen bezala.

Eta lirio zurizko koroa bat jarri zion buruan, baina petalo bakoitza perla baten erdia zen; eta sei ostra handi erantsi zizkion amonak isatsean, gorentasunaren erakusgarri.

— Min ematen didate, baina! —esan zuen sirenatxoak.

— Badakit, baina batzuetan eder egoteak hori eskatzen du! —esan zion amonak.

Gustura utziko zituen sirenatxoak dotorezia haiek guztiak! Gustura kenduko zuen koroa astun hura! Polikiago emango zioten bere lore gorriek. Baina ez zen ezer aldatzera ausartu.

— Banoa! —esan zuen, eta uretan gora igo zen burbuila bat bezain arin.

Burua uretatik atera zuenean eguzkia sartu berria zen, distira arrosak eta urre-kolorekoak

zituzten artean hodeiek; arratseko izarra dizdiz zegoen zeru arrosean. Haize freskoak leun-leun jotzen zuen. Itsasoa bare-bare zegoen. Hiru mastako itsasontzi handi bat ikusi zuen, bela bakar bat jasorik zuela, ez baitzegoen haize handirik, eta marinela kordaren eta masten inguruan eserita zeuden. Musika eta kantuak entzuten ziren, eta ilundu ahala kolore askotako argiak piztu ziren. Herrialde guztietako banderak ziruditen, airean astinka. Sirenatxoa itsasontziko gelako leihora joan zen igeri, eta olatuek gora jostzen zutenean, jende asko ikusten zuen barruan dotore-dotore jantzita; baina printze gazte begibeltza zen han ederrena. Printzeak ez zituen hamasei urte baino gehiago izango, eta haren urtebetetzea ospatzeko ari ziren festa egiten. Marinela zubian zebiltzan dantzan, eta printze gaztea haiengana hurbildu zenean ehun suziritik gora jaurti zituzten. Egun argia balitz bezala argitu zen inguru guztia, eta sirenatxoa izutu eta uretan murgildu zen, baina berehala atera zuen berriz ere burua uretatik; zeruko izar guztiak gainera zetozkiola iruditu zitzaion. Ez zuen sekula halako su magikorik ikusi: eguzki handiak kiribil-



ka zebiltzan, suzko arrainak aire urdinean dilindan zeuden, eta hura guztia itsaso garbi barean islatzen zen. Itsasontzian ere argitasun handia zegoen, eta erraz bereizten ziren bai soka guztiak bai jendea. Zein ederra zen printze gaztea! Denei eskua eman, eta irri eta barre egiten zuen, eta musikak betetzen zuen gau zoragarri hura.

Sirenatxoari berandutzen ari zitzaion, baina ezin zituen begiak itsasontzitik eta printze eder harengandik urrundu. Itzali ziren argi nabarrak, eta ez zen beste suziririk jaurti, ez beste kanoi-burrunbarik entzun; baina itsaso barreanean bazen zurrumurru apal bat. Sirenatxoa kulunka zerabilten uhinek, eta gelaren barrualdea ikusten zuen. Baina itsasontziak abiada handiagoa hartu zuen; bela guztiak bata bestearen atzetik hedatu zituzten; zakartu egin ziren olatuak, hodei handiak agertu ziren zeruan, eta tximistak ikusten ziren urrunean. Ekaitz izugarri bat zetorren! Marinelek, ekaitza zetorrela oharturik, belak bildu zituzten. Itsaso haserre hartan kulunka zebilen itsasontzia, jitoan, eta mendiak bezalako olatu beltz handiak altxatzen ziren, itsasontziaren masta eraitsi nahi balute bezala; olatu

erraldoien azpian ezkututzen zen itsasontzia beltxargen antzera eta ur-mendi gainean agertzen zen berriro. Sirenatxoari bidaia atsegina iruditu zitzaion; marinelei ez, noski: itsasontziak kriski eta kraska egiten zuen, eta itsasontzira sartzen ziren itsas erauntsiek oholak okertzen zituzten. Masta erditik puskatu zen kanabera bat bezala, eta itsasontzia alde batera okertu zen; ura sartu eta sartu ari zen ontzian. Orduan konturatu zen sirenatxoa itsasontziak zuen arriskuaz. Berak ere kontuz ibili beharko zuen uretan zeuden ohol- eta itsasontzi-puskekin. Bat-batean erabat belztu zen zerua, ikatza bezain beltz egin zen, eta sirenatxoak ez zuen ezer ikusten; baina, tximista bat erortzen zenean, berriz ere argitzen zuen, eta itsasontziko gauza guztiak ikusten zituen. Bakoitzak ahal zuena egiten zuen itsasontzian bere burua salbatzeko, baina sirenatxoa printzearen kezkatan zegoen, eta azkenean, itsasontzia txiki-txiki egina zenean, han ikusi zuen printzea poliki-poliki urperatzen. Horrek poztu egin zuen sirenatxoa, horrela berearekin elkartuko baitzen printzea; baina berehala gogoratu zen gizakiak ezin zirela uretan bizi, eta

hilda ez bazen, printzea ez zela iritsiko aitaren urpeko gaztelura. Ez, printzeak ez zuen hil behar! Ohol artean igeri joan zen sirenatxoa, min har zezakeela ahazturik: hondoratzen zen ur azpian eta agertzen zen berriro olatuen gainean. Eta azkenik printze gaztearengana iritsi zen. Printzea etsita zegoen itsaso haserre hartan igeri egin ezinik; ahulduta zituen besoak eta hankak, eta bere begi ederrak ixten hasi zitzaizkion, eta hilko zen, sirenatxoak lagundu izan ez balio. Sirenatxoak eutsi zion printzearen buruari, eta olatuak nora, haiek ere hara geratu ziren.

Egunsentirako ekaitza baretua zen. Ez zen itsasontziaren arrastorik; itsasoa gorri-gorri zegoen eguzkiaren distiraz. Eguzkiak printzearen masailak bizitu zituela ematen zuen, baina begiak itxita zeuzkan oraindik. Sirenatxoak bekokian musu eman eta ile nahasia laztandu zion. Pentsatu zuen printzeak lorategiko marmolezko irudiaren antza zuela, eta musu eman zion berriz ere; bizi zedila eskatu zuen.

Halako batean, lurra ikusi zuen bere begien aurrean, eta mendi urdin garaiak, eta mendien gailurretan elur zuria dizdiz, beltxarga-saldo bat

balitz bezala. Behean, kostaldean, oihan berde ederrak zeuden, eta haien aurrean eliza bat, edo monasterio bat, ez zegoen ziur: eraikuntza bat behintzat. Lorategian limoiondoak eta laranjondoak zeuden, eta ate aurrean palmondo izugarri handiak. Bazter hartan itsasoak kala txiki bat eratzen zuen; bare-bare zegoen, baina oso sakona zen, eta labarraren oinetan harea zuri fineko hondartza bat zegoen. Sirenatxoak kala hartaraino igeri egin zuen printzearekin, eta hareatan etzan zuen, kontu handiz, eta burua altxatu zion, eguzkiaren argi beroa har zezan.

Horretan, eraikuntza zuriko kanpaiak entzun ziren, eta neskatxa-talde bat itsasertzera joan zen korrika. Sirenatxoa igerian urrundu zen, eta ur gainean ageri ziren arroka garai batzuen atzean ezkutatu zen. Ilea eta bularra aparrez estali zituen inork aurpegia ikus ez ziezaion, eta begira gelditu zen: printzearengana nor hurbiltzen zen ikusi nahi zuen.

Neskatxa bat hurbildu zen berehala; izutu egin zen eta jende gehiagori deitu zion, eta sirenatxoak ikusi zuen printzea bizirik zegoela eta irribarregeiten ziela ingurura etorritakoei, baina

ez berari, ez baitzekien sirenatxoak salbatu zue-  
nik. Sirenatxoak pena handia hartu zuen prin-  
tzea eraikuntza handira eramán zutenean; era-  
bat tristeturik urperatu eta etxera abiatu zen,  
aitaren jauregira.

Neska isila eta pentsakorra zen lehen ere, eta  
harrezkero gehiago. Ahizpek galdetu zioten ea  
zer zen han goian ikusi zuen gauzarik ederrena,  
baina sirenatxoak ez zien ezer erantzun.

Sirenatxoa goiz eta arratsaldez itzultzen zen  
printzea utzi zuen lekura. Ikusi zituen lorategiko  
fruituak heltzen, eta nola jasotzen zituzten, eta  
baita mendietako elurra urtzen ere; baina prin-  
tzea ez zuen ikusi. Gero eta tristeago itzultzen  
zen etxera. Kontsolamendu bakarra lorategitxo-  
an eseri eta printzearen antza zuen marmolezko  
irudia besarkatzea zuen. Baina ez zituen bere  
loreak zaintzen, sastraka baten antzera utzi  
zituen hazten. Bideak erabat estali zituzten eta  
zuztar eta hostoak zuhaitzen adarretan kiribildu  
ziren. Dena ilun-ilun gelditu zen.

Baina ezin isilik gehiago iraun, eta ahizpa bati  
kontatu zion guztia; eta berehala jakin zuten gai-  
nerako ahizpek, baina ez beste inork, sirenatxo

pare batek izan ezik, eta horiek ez zieten bere lagun minei beste inori kontatu. Haietako batek ezagutzen zuen printzea, ikusi zuen itsasontziko festa, eta bazekien nongoa zen printzea eta non zegoen haren erreinua.

— Zatoz, ahizpatxo! —esan zioten printze-  
sek.

Eta besotik helduta, ur-azalera igo ziren ilara luze bat osatzen zutela, eta printzearen jauregia zegoen lekura hurbildu ziren.

Jauregia harri hori distiratsuz eraikia zen. Marmolezko eskailera handiak zituen, eta horietako bat itsasertzeraino iristen zen. Teilatuaren gainetik urre-koloreko kupula zoragarriak ageri ziren, eta jauregia inguratzen zuten zutabeen artean zeuden marmolezko eskulturak bizirik zeudela ematen zuen. Leiho luzeetako kristal gardenetatik oso saloi ederrak ikusten ziren: sedazko errezela garestiak eta tapizak zeuden leihoetatik zintzilik eta hormak pintura handiz apaindurik. Ikusgarria zen! Saloi handiaren erdian iturri handi bat zegoen, eta ur-txorrotak kristalezko kupularaino iristen ziren; kupulatik sartzen ziren eguzki-izpiek ura argitzen zuten,

eta baita urmael handian hazten ziren landare ederrak ere.

Sirenatxoak orain bazekien non zegoen printzearen jauregia, eta arratsalde eta gau askotan itzuli zen hara igeri; bera izan zen ahizpetatik itsasbazterrera gehien hurbiltzera ausartu zena, eta marmolezko balkoi baten azpian zegoen ubide estuan sartzera ere ausartu zen. Balkoiak itzal egiten zuen uretan eta hantxe geratzen zen sirenatxoa printzea ikusteko; printzeak ilargi-argitan bakarrik zegoela uste zuen.

Sirenatxoak arratsalde askotan ikusten zuen printzea bere itsasontzi ederrean; entzuten zuen itsasontziko musika eta ikusten zituen banderak haizetan. Ihi artetik egoten zen zelatan sirenatxoa, eta haizeak haren ile luze zuriarekin jolasten zuen; norbaitek ikusten zuenean, hegoak zabalik zituen beltxarga bat zela pentsatzen zuen.

Askotan entzun zituen arrantzaleak, gauez zuziekin arrantzan zebiltzala, printze gaztea gorai patzen, eta sirenatxoa asko pozten zen printzea erdi hilik olatu gainean zihoala haren bizia salbatu izanaz, eta oroitzen zen nola eduki

zuen haren burua bularrean eta eman zion musu. Printzeak, ordea, ez zekien ezer eta ezin zuen ametsik ere egin.

Sirenatxoak gero eta gehiago maite zituen gizakiak. Gero eta gehiago desiratzen zuen haiekin bizitzera joatea. Haien mundua berea baino askoz ere handiagoa iruditzen zitzaion. Itsasoan barrena joaten ziren gizakiak beren itsasontzietan, mendi garaietan gora hodeietaraino igotzen ziren, eta haien zelai eta baso-lurrak berak ikusi ahal zuena baino harago iristen ziren. Gauza asko jakin nahi zuen, baina ahizpek ez zuten erantzunik galdera guztientzat, eta amona zaharri galdetu zion, hark oso ondo ezagutzen baitzuen goiko mundua, goiko mundua esaten zienta amonak itsasoz gaindiko lurraldeei.

— Eta gizakiak, itotzen ez badira —galdetu zuen sirenatxoak—, betiko bizi al dira? Ez al dira hiltzen, gu hemen itsasoan hiltzen garen bezala?

— Hilko ez dira, ba! —esan zuen amonak—. Guk baino bizitza laburragoa dute gainera. Gu hirurehun urtera ere iristen gara, baina hiltzen garenean, apar bihurtzen gara: ez dugu hilobirik ere uzten gure senideen artean. Guk ez dugu



arima hilezkorrik, ez dugu ondorengo bizitzarik. Ihi berdearen antzekoak gara: behin moztuz gero, ez da berriro hazten! Gizakiek, ordea, arima dute, eta arimak betiko bizia du; bizirik irauten du gorputza hauts bihurtuta ere. Airean gora joaten da izar distiratsuetaraino! Gu itsasoa gora joan eta gizonen lurrak ikusten ditugun bezala, haiek leku zoragarri eta ezezagunetara joaten dira, guk inoiz ikusiko ez ditugun lekuetara.

— Eta guk zergatik ez dugu arima hilezkorra? —esan zuen sirenatxoak nahigabeturik—. Gustura emango nituzke nire bizitzako ehun urte egun bakar batean gizaki izatearen truke eta mundu zerutiar horren zati bat edukitzearen truke.

— Ezta pentsatu ere! —esan zuen amonak—. Gu haiek baino zoriontsuagoak gara eta bizitza hobea dugu!

— Hil eta apar bihurtu beharko dut hortaz! Uko egin beharko diot olatuen musika entzuteari, eta lore ederrak eta eguzki horia ikusteari! Ezin ote dut ezer egin arima hilezkorra lortzeko?

— Ez! —esan zion amonak—. Gizon batentzat bere aita edo ama baino garrantzitsuagoa izatea

lortuko bazenu, bere gogo eta maitasun guztia-  
rekin zutaz maiteminduko balitz, eta apaiz batek  
gizon horren eskuineko eskua zurearen gainean  
jarri eta gizaldi eta gizaldietan elkarri leialtasuna  
aitortuko bazeniote, arima bat sartuko litzaizuke  
gorputzean eta orduan lortuko zenuke gizatasu-  
naren zoriona. Gizonak arima bat emango lizuke  
zuri, berea galdu gabe. Baina hori ezinezkoa da!  
Hemen, itsasoan, ederrena duzuna, arrain-isa-  
tsa, higuigarria iruditzen zaie lurtarrei; ez dute  
ezer ulertzen, uste dute hanka esaten dieten bi  
euskarri baldar behar direla eder izateko.

Sirenatxoak hasperen egin zuen eta bere  
arrain-isatsari begiratu zion triste.

— Alaitu zaitez umetxo! —esan zion amo-  
nak—. Egin dezagun jauzi eta dantza gure hiru-  
rehun urteko bizitzan; denbora luzea da, eta har-  
tuko dugu atsedean hiltzen garenean. Gaur  
gauean dantzaldia izango da gortean!

Hura zen luxua! Lurrean ez da halakorik.  
Dantza-areto nagusiko hormak eta sabaiak kris-  
tal lodikoak ziren, baina gardenak erabat. Arro-  
sa- eta berde-koloreko ehundaka maskor erral-  
doi zeuden hormaren biran ilaran jarrita; gar

urdin batek argitzen zuen areto guztia, eta hormetatik zehar, itsasoraino iristen zen argitasuna. Kanpoaldea argi-argi zegoen, eta milaka arrain handi eta txiki ikusten zen kristalezko hormetarantz igeri; batzuen ezkatak purpura-kolorekoak ziren, besteenek, aldiz, zilarra edo urrea ziruditen. Aretoaren erdi-erditik erreka zabal bat igarotzen zen, eta han ari ziren tritoiak eta sirenatxoak kantuan eta dantzan. Ez da lurrean halako ahots ederra duen gizakirik. Sirenatxoa zen ondoen kantatzen zuena, eta guztiek txalo egingiten zioten, eta une batez zoriona sentitu zuen bihotzean; izan ere, bai baitzekien lurreko zein itsasoko ahotsik ederrena zuela. Baina berehala etorri zitzaion burura berriz ere han goiko mundua. Ezin zuen printzea ahaztu, eta tristetu egingen zuen printzeak bezalako arima hilezkorrik ez izateak. Irten zen, bada, aretotik isats-puntetan, eta barruan dena kantua eta poza zen arren, sirenatxoa bere lorategian eseri zen triste-triste. Orduan adar-hotsa entzun zuen, eta pentsatu zuen: «Orain itsasontzian egongo da bera, aita eta ama baino maiteago dudan gizona, nire pentsamendu guztien jabea, zeinaren eskuetan jarri

nahi dudan neure etorkizuna. Edozer egingo nuke bera neureganatu eta arima hilezkor bat lortzearren! Ahizpak aitaren jauregian dantzan dabiltzan bitartean, itsas sorgina ikustera joango naiz; beti beldur izan diot, baina beharbada jakingo du niri nola lagundu!»

Sirenatxoa, orduan, bere lorategitik irten eta zurrunbilo apartsurantz abiatu zen; zurrunbilo haren atzean bizi zen sorgina. Sirenatxoa ez zen behin ere bide hartatik ibili; han ez zen lorerik, ezta itsas-landararik ere; harea grisa besterik ez zegoen alde guztietan, eta zurrunbilo-urak harrapatzen zuen guztia hartu eta hondo-hondoraino eramaten zuen. Zurrunbilo horiek gainditu behar zituen itsas sorginaren eremuetara iristeko, eta bide-puska batean ez zegoen lokatz bero eta burbuilatsua besterik; zohikaztegia esaten zion sorginak gune hari. Atzean baso bitxi bat zegoen, eta haren erdian sorginaren etxea. Basoko zuhaitz eta zuhaixkak polipoak ziren: erdi animalia, erdi landare. Lurretik ateratzen ziren ehun buruko sugeak ziruditen. Adarrak beso luze likatsuak ziren, har-itxurako garro malguak zituzten eta sustraieetatik hasi eta azken

adar muturreraino mugitzen ziren etengabe. Uretan harrapatzen zuten guztiari heldu eta estu-estu eusten zioten eta ez zuten sekula askatzen. Sirenatxoa beldurrak dardaraz zihoan; atzera egitekotan ere egon zen, baina printzea eta giza-arima gogoratu zituen, eta berriz ere adorea bildu zuen. Polipoek iletik harrapa ez zezaten, bildu zuen ile luzea buruaren inguruan irmo-irmo, tolestu zituen besoak, eta hegan joan zen, arrainak uretan bezala; polipo izugarriek, sirenatxoa harrapatu nahian, beren beso malguak eta garroak luzatzen zituzten. Sirenatxoa konturatu zen polipo haietako batek harrapatzen zuen gauza, ehundaka beso txikik inguratzen zutela eta kate sendo batek bezala eusten ziotela. Itsasoan hil eta hondoratutako gizakiak eskeleto zuri bihurturik zeuden polipoen besoetan. Itsasontzietako lemak, kofreak eta lurreko animalien eskeletoak ere harrapatzen zituzten; sirenatxo bat ere harrapatu eta ito egin zuten, eta hori zen beldurgarriena.

Orduan basoko zabalune argi eta hareatsu batera iritsi zen. Itsas-suge handi mardul batzuk ikusi zituen jolasean, beren sabelalde hori naz-

kagarriak agerian zituztela. Zabaldiaren erdi-erdian etxe bat zegoen, urperatutako gizakien hezurrez egina; han zegoen itsas sorgina, apo bati ahotik ahora jaten ematen, gizakiek kanario-  
ei azukre-kozkorra ematen dieten bezala. Uretako suge handi mardulei txitatxo esaten zien eta bere papar handi higuigarrian jolasean ibiltzen uzten zien.

— Badakit zertara zatozen! —esan zion itsas-sorginak—. Burutik eginda zaude, zeharo! Baina, emango dizut nahi duzuna, zoritxarra besterik ekarriko ez badizu ere, nire printzesa maitea. Arrain-isatsaren ordeztu gizakiek ibiltzeko erabiltzen dituzten euskarri horiek nahi dituzu, printze gaztea zurekin maitemintzeko eta zuk arima hilezkorra lortzeko.

Eta horretan barre-algaraka hasi zen sorgina, eta lurrera erori zitzaizkion soinean zituen apoa eta sugeak.

— Garai ezin hobean zatoz —esan zion sorginak—. Bihar, eguzkia irteten denean izango da. Bestela, datorren urtea arte ezingo dizut lagundu. Edabe bat prestatuko dizut. Eguzkia irten aurretik itsasertzeraino joan beharko duzu, eta

itsasbazterrean eseri eta nik emandako edabea edan beharko duzu. Une horretan, zure isatsa bitan banatu eta estutu egingo da, eta gizakiek hanka eder esaten dieten horietakoak sortuko zaizkizu. Baina min handia izango duzu, ezpata batek gorputza zeharkatuko balizu bezala. Inoiz ikusi duten neskarik ederrena zarela esango dute guztiek. Ez duzu galduko zure ibilera zalua; munduko dantzariak ere ez dira zu bezain zalu izango. Baina ematen duzun pausu bakoitza labana zorrotz baten sastada izango da, odola isuraraziko dizun sastada bat. Oinaze hori guztia jasateko prest bazaude lagunduko dizut.

— Bai, prest nago! —esan zuen sirenatxoak ahotsa dardaraz, printzea eta lortu nahi zuen arima hilezkorra gogoan.

— Baina gogoan izan —esan zion sorginak— behin giza-irudia hartuz gero, ezin izango zarela atzera sirenatxo izan! Ezin izango zara itsasora itzuli zure aitaren jauregian ahizpekin elkartzera, eta ez duzu arima hilezkorrik lortuko, baldin eta printzeak bere aita-amak baino maiteago ez bazaitu, bere pentsamenduak zuretzat ez baditu eta apaizak zuen eskuak elkartzen ez baditu. Eta

printzea beste emakume batekin ezkontzen bada, ezkontzaren hurrengo egunean zure bihotza erdibitu egingo da eta zu apar bihurtuko zara.

— Bai, bai, aurrera egingo dut! —esan zuen sirenatxoak hildako bat bezain zurbil.

— Baina, ordaindu egin beharko didazu! —esan zion sorginak—. Eta ez gutxi gainera! Itsas hondoko ahots zoragarriena duzu, eta ahots horrekin printzea liluratzeko asmoa izango duzu, baina niri eman beharko didazu. Zure gauzarik onena behar dut edabea egiteko; nik neure odoletik botako diot, bi ahoko ezpata bezain zorrotza izan dadin.

— Baina ahotsa kentzen badidazu —esan zuen sirenatxoak—, zer geratzen zait!

— Gorputz zoragarria —esan zuen sorginak—, ibilera zalua eta begien mintzoa; nahikoa duzu hori giza-bihotza zeureganatzeko. Tira, ez ikaratu! Atera mingaintxoak, moztu dezadan nire edabearen ordainetan.

— Hala izan bedi! —esan zuen sirenatxoak. Eta sorginak edabea egosteko ontzia prestatu zuen.



— Gauza ona da garbitasuna! —esan zuen sorginak. Suge guztiak bildu eta haiekin garbitu zuen ontzia. Ondoren paparrean ebaki bat egin zuen, eta odol-tantak ontzira erori ziren; lurrinak irudi harrigarriak osatzen zituen, irudi beldurgarriak. Ontzira gauzak bota eta bota aritu zen sorgina, eta irakiten hasi zenean, krokodilo baten negarra ematen zuen. Azkenik, prest zegoen edabea; ur garbia bezain gardenena zen.

— Hemen duzu! —esan zion sorginak, eta mingaina moztu zion sirenatxoari. Eta sirenatxoa mutu gelditu zen, hitz egiteko eta kantuan aritzeko gauza ez zela.

— Nire basoa zeharkatzean polipoek harrapatzen bazaituzte —esan zuen sorginak—, edabeta bat bota eta mila zatitan puskatuko zaizkie besoak eta garroak.

Baina sirenatxoak ez zuen halakorik egin behar izan; polipoak izaturik urruntzen ziren, sirenatxoaren eskuetan isurkari hura izar baten antzera dir-dir ikusten zutenean. Berehala igaro zituen basoa, aintzira eta zurrunbilo apartsuak.

Aitaren jauregia ikusi zuen. Dantza-aretoko argiak itzalita zeuden. Ziur asko lo egongo ziren

guztiak, baina ez zen ausartu haiengana joaten. Mutua zen orain eta betiko urruntzera zihoan. Penaren penaz bihotza erdibitu behar zitzaiola iruditu zitzaion. Lorategira joan zen igeri eta ahizpen lorontzi bakoitzetik lore bat hartu zuen. Ondoren, milaka musu bota zituen eskuekin jau-regira, eta itsaso urdin ilunean gora abiatu zen.

Printzearen jauregia ikusi zuenean eguzkia irteteko zegoen artean. Marmolezko eskailera zoragarria igo zuen. Ilargi zoragarria zegoen diz-diz. Sirenatxoak edabe bero garratza edan zuen orduan, eta gorputza bi ahoko ezpata batek zeharkatzen ziola sentitu zuen; konortea galdu eta hilda bezala gelditu zen. Eguzkiak itsasoa argitu zuenean esnatu zen; izugarrizko mina zuen, baina printze eder gaztea zuen alboan, ikatza bezain begi beltz haiekin begira. Sirenatxoak begiak jaitsi zituen, eta arrain-isatsa desagertu zitzaiola ikusi zuen eta inoiz neskatxa batek izan dituen hanka eder eta zurienak zeuzkala. Baina biluzik zegoen, eta bere ile luze sarriarekin estali zuen gorputza. Printzeak nor zen eta nondik zetorren galdetu zion, eta sirenatxoak bere begi urdinak jaso eta begirada gozo

baina triste bat zuzendu zion, ezin baitzuen hitz egin. Printzeak, orduan, jauregira eraman zuen sirenatxoa eskutik helduta. Pauso bat ematen zuen bakoitzean, sorginak esan bezala, orratz eta labana zorrotzak zapalduko balitu bezalako mina sentitzen zuen, baina gustura zegoen. Printzeari eskutik helduta burbuila bat bezain airos zihoan sirenatxoa, eta guztiak liluraturik gelditu ziren sirenatxoaren ibilera zalu eta dotorearekin.

Sedazko eta muselinazko soineko garestiak egin zizkioten; jauregiko neska ederrena zen, baina mutua: ezin zuen ez kantatu, ez hitz egin. Emakume esklabo asko etorri ziren sedazko eta urrezko soinekoak jantzita, printzeari eta errege-erreginari kantatzera. Haietako batek besteak baino hobeto kantatzen zuen, eta printzeak txalo eta irribarre egin zion. Horrek tristetu egin zuen sirenatxoa, bai baitzekien berak hobeto kantatzen zuela, eta pentsatu zuen: «Baldin baleki printzeak berarekin egoteagatik galdu dudala ahotsa betiko!»

Ondoren esklaboak dantzan hasi ziren, musika atseginarekin batera beren gorputzak sigi-saga, dotore kulunkatuz. Orduan sirenatxoak

bere beso zuri ederrak jaso, hanka-puntetan jarri, eta beste inork ez bezala egin zuen dantza. Mugimendu bakoitzak bere edertasuna areagotzen zuen, eta bere begien mintzoa bihotzaren erdiraino iristen zitzaien denei, esklaboen kantutak baino barrurago.

Guztiak liluraturik zeuden, printzea batez ere; «nire umezurtz ederra» esaten zion, eta sirenatxoak dantza eta dantza jarraitzen zuen, nahiz eta lurra ukitzen zuen bakoitzean labana zorrotzak zapaltzean bezalako oinazea jasan. Printzeak betiko berarekin gelditzeko eskatu zion, eta printzearen gelaren aurrean belusezko kojín batean lo egiteko baimena eman zioten sirenatxoari.

Sirenatxoarentzat gizon-jantzi bat egiteko agindu zuen, zaldiz ibiltzera elkarrekin joan ahal izateko. Baso lurrintsuetan barrena ibiltzen ziren; zuhaitzetako adar berdeak haien sorbaldaraino abailtzen ziren, eta txoritxoek hosto berrien artean kantatzen zuten. Mendieta ere igotzen zen sirenatxoa printzearekin, edonork ikus zezakeenez hankatxoak odoletan bazituen ere, barrez joaten zen printzearen atzetik, eta

hain gora igotzen ziren, ezen behean hodeiak ikusten zituzten, lurralde urrunetara zihoan txori-aldra bat balitz bezala.

Gauetz, printzearen jauregian guztiak lo zuedela, marmolezko eskailera zabalera irteten zen sirenatxoa, hankatxoak itsas uretan freskatzera, eta itsas hondo-hondoan bizi zirenez oroitzen zen.

Gau batean ahizpak agertu ziren elkarri besotik helduta igerian; oso kantu tristea zuten. Sirenatxoak keinu egin zien, eta ahizpek sirenatxoa ezagutu zutelarik, guztiak zein triste gelditu ziren kontatu zioten. Harrezkero, gauero joaten zitzaizkion ahizpak bisitan, eta sirenatxoak gau batean, urrutian, amona zaharra ikusi zuen, urteetan ur azalera irten gabea, eta baita itsasoko erregea ere, bere koroa buruan zuela; besoa luzatzen zioten sirenatxoari, baina ez ziren ausartzen itsasertzera ahizpak adina hurbiltzen.

Egunetik egunera gehiago maite zuen printzeak sirenatxoa, haurtxo bat maitatzen den moduan maite zuen, baina ez zitzaion bururatu ere egiten hura erregina egitea. Baina sirenatxoa printzearen emazte izaten ez bazen, ez

zuen arima hilezkorra lortuko eta itsasoko apar bihurtuko zen printzea ezkondu eta hurrengo goizean.

«Beste inor baino gehiago maite al nauzu?» ematen zuen ziotela sirenatxoaren begiek, printzeak besoetan hartu eta kopeta eder hartan musu ematen zionean.

— Bai, zu zaitut maiteena —esan zion printzeak—, zu zara-eta bihozberena, eta gehien maite nauzuna, gainera. Behin ikusi nuen neskatxa baten antza duzu. Ez dut hura berriz ikusteko esperantzarik. Behin, itsasontzi batean nindotala, itsasontzia hondoratu egin zen, eta olatuek itsasertzeko tenplu sakratu batera eramán ninduten. Tenplu hartan neskatxa batzuk ziren zerbitzari. Neskatxa gazteenak itsasertzean ikusi ninduen eta bizia salbatu zidan; bitan besterik ez nuen ikusi. Hura da maita dezakedan emakume bakarra, baina zuk haren antz handia duzu, bihoztzean dudán haren irudiaren antz handia. Hura tenplu sakratuari lotua dago, eta horregatik bidali zaitu zoriak zu niregana. Ez gara inoiz elkarrengandik urrunduko!

«Ez daki nik salbatu nuela! —pentsatu zuen sirenatxoak—. Nik eraman nuen itsasoz baso ertzera, tenplua dagoen lekura. Arroketan eseri eta inor etortzen ote zen zain gelditu nintzen. Eta ikusi zuen ni baino gehiago maite duen neskatxa hori». Eta hasperen sakon bat egin zuen, ez baitzekien negar egiten. «Neskatxa tenpluarena dela esan du. Ez da inoiz mundura irtengo, ez dute inoiz elkar ikusiko; ni, berriz, berarekin nago, egunero ikusten dut, zaindu egingo dut, maite egingo dut, nire bizi osoa eskainiko diot!»

Baina printzea ezkontzekoa zela eta ondoko herriko erregearen alabarekin ezkonduko zela, gainera, esaten zuen jendeak, eta horregatik ari zirela itsasontzi eder bat egiten; printzea ondoko erresuma bisitatzera joatekoa zela, baina izatez, erregearen alaba ezagutzera zihoala; segizio handia eramango zuela printzeak. Baina sirenatxoak burua mugitu eta barre egiten zuen, inork baino hobeto ezagutzen baitzituen berak printzearen pentsamenduak.

— Bidaia bat egin behar dut! —esan zion printzeak—. Nire gurasoek printzesa ederra ikustera joateko agindu didate, baina ez naute derri-

gortuko hura emaztetzat hartzera. Ezin dut hura maitatu! Hark ez du tenpluko neskatxaren antzik, eta zuk bai. Noizbait emaztea aukeratzekotan, zu aukeratuko zintuzket. Begiez mintzo zaren umezurtz mututxo nirea!

Eta printzeak sirenatxoari ahoan musu eman eta bere ile luzea laztantzen zuen; sirenatxoak printzearen bihotz aldean etzaten zuen burua, eta zoriona eta arima hilezkorra zituen amets.

— Ez duzu zertan itsasoaren beldurrik izan, mututxo nirea —esan zion printzeak, auzoko erregearen lurraldera zeramatzan itsasontzi ederrean. Eta itsasoko ekaitzez eta itsasoaren baretasunez hitz egin zion, eta itsas hondoko arrain bitxiez eta buzoek ikusitako gauza harri-garriez, eta sirenatxoak barre egiten zuen kontakizun haiek entzutean, berak inork baino hobeto ezagutzen baitzuen itsas hondoa.

Gauean, ilargi-argitan, itsasontziko lema zeraman gizona ez beste guztiak lo zeudela, sirenatxoa itsasontziko karelean eseri eta ur gardenetara begira geratu zen, eta iruditu zitzaion bere aitaren jauregia ikusten zuela, eta jauregiaren gainean amona zaharra, zilarrezko koroa



buruan, ur-korronteen artetik itsasontziko gilara begira. Orduan sirenatxoaren ahizpak itsas-azalera irten ziren; tristuraz begiratu zioten eta beren esku zuriak estutu zituzten. Sirenatxoak irribarre egin zien, bera ondo zegoela eta zoriontsua zela esanez bezala. Horretan, lemazaina hurbildu zen, eta ahizpak urperatu egin ziren, eta gizonari, ikusi zuen gauza zuri hura itsasoko aparra iruditu zitzaion.

Hurrengo goizean, auzoko erregearen hiriburu-ko portuan barrena sartu zen itsasontzia. Eliza guztietako kanpaiak jo eta jo ari ziren, eta dorre garaietatik tronpetak entzuten ziren; soldaduak lerroan jarrita zeuden, tente-tente, banderak eta baioneta distiratsuak eskuan. Egunero bazen festaren bat. Dantzaldi eta ongi etorri, ospakizun ugari egin zen, baina printzesa etorri gabe zen artean; urruti omen zegoen, tenplu sakratuan, erregina bati zegozkion bertuteez janzten. Baina iritsi zen, azkenean.

Sirenatxoa haren edertasuna ikusteko irrikaz zegoen, eta onartu behar izan zuen sekula ikusi zuen izaki ederrena zela. Azal fina zuen, zuri-

zuria, eta, betazal beltz luzeen artetik, begi urdin leialak irribarrez.

— Zu zara eta! —esan zuen printzeak—. Zuk, zuk salbatu zenidan bizia hondartzan hil zorian nintzela!

Eta printzeak bere emaztegai lotsatia besarkatu zuen.

— Oh, zein zoriontsua naizen! —esan zion sirenatxoari—. Ez nuen usteko halakorik gertatuko zitzaidanik. Poztu zaitez nire zorionarekin, zu zara eta gehien maite nauena.

Sirenatxoak musu eman zion eskuan, eta bihotza erdibitzen zitzaiola iruditu zitzaion. Ezkondu eta hurrengo egunean hil egingo zen eta itsas apar bihurtuko.

Eliza guztietako kanpaiak jo eta jo aritu ziren; mezulariek ezkontzaren berri zabaldu zuten kaleetan zehar. Aldare guztietan, zilarrezko lanpara garestien barruan, olio urrintsuak jarri zituzten erretzen. Apaizek intsentsu-ontziei eragiten zieten, eta ezkongaik, elkarri eskua emanda, apezpikuaren bedeinkapena hartu zuten. Sirenatxoak sedazko eta urrezko soinekoa zuen jantzita eta emaztegaiaren soinekoaren

hegalari eusten zion; baina sirenatxoaren belarriek ez zuten jai musika entzuten, eta bere begiek ez zuten ospakizun sakratua ikusten; bere heriotzako ordua eta galduko zituen gauza guztiak zituen gogoan.

Arratsalde horretan bertan, ezkonberriak itsasontzira igo zirenean, kanoien burrunba entzun zen eta bandera guztiak jaso zituzten. Itsasontziaren erdian urrezko eta purpurazko errege-denda jarri zuten, kojinekin ederrenez jantzia: han egingo zuten lo ezkonberriek gau lasai hotz hartan.

Haizeak belak puztu zituen eta itsasontzia poliki-poliki joan zen itsasoan barrena.

Ilundu zuenean, kolore askotako lanparak piztu ziren eta marinelek dantza alaiak dantzatu zituzten. Sirenatxoari orduan, uretatik irten zen lehen aldia etorri zitzaion gogora, orduko festa eta alaitasun bera ikusi zituen, eta dantzan hasi zen bera ere, bihurturik, enara ihesi doanean bezala. Denek txalo jo zioten sirenatxoari. Ez zen inoiz hain ederki dantzatu; labana zorrotzak zapaltzean bezalako mina zuen oinetan, baina ez zuen oinetan minik sentitzen, min handiagoa

baitzuen bihotzean. Bazekien hura zela printzea ikusiko zuen azken aldia. Harengatik utzi zituen familia eta etxea, harengatik galdu bere ahots zoragarria eta jasan oinazeak, eta printzea ez zen konturatu ere egin. Printzeak arnasten zuen aire bera arnastuko zuen azken gaua zen, itsaso sakona eta zeru urdin izartsua ikusiko zituen azken gaua; pentsamendurik eta ametsik gabeko gau amaigabe bat izango zen hura, arimarik gabe eta lortzeko esperantzarik gabe. Gauerdia arte zorientasuna eta alaitasuna besterik ez zen izan itsasontzian; eta sirenatxoak barre eta dantza egin zuen, heriotzaren itzala bazuen ere bihotzean. Printzeak bere emaztegaia besarkatu zuen, eta emaztegaiak printzeari ile beltza lantandu zion. Elkarri besotik heldu eta beren denda zoragarrira joan ziren biak atsedean hartzera.

Itsasontzia isil eta lasai geratu zen; lemazaina bakarrik zegoen esna. Sirenatxoa, besoak karelean jarrita, sortaldera begira geratu zen egunsentia noiz iritsiko, bai baitzekien eguzkiaren lehen izpiek heriotzara eramango zutela. Orduan, bere ahizpak ikusi zituen itsasotik irte-

ten; bera bezain zurbil zeuden; haizeak ez zuen haien adats luze ederra nahasten, moztua baitzuten.

— Sorginari eman diogu geure ilea, ez zaitez gaur gauean hil. Labana hau eman digu berak. Begira zein zorrotza den! Eguzkia irten aurretik, bihotzean printzeari sartu beharko diozu, eta haren odol beroa zure hanketara erortzen denean, zure hankak arrain-isats bihurtuko dira eta sirena izango zara berriro ere; gurekin itsasoratu eta hirurehun urtez biziko zara itsasapar bihurtu baino lehen. Aukeratu bizkor! Zu ala bera. Gaur gauean hil egin behar du bietako batek eguzkia irten aurretik. Gure amona zaharrak asko sufritu du, eta hark ere ile zuria galdu du; sorginaren guraizeak eramane du gure ilearekin batera. Hil ezazu printzea eta itzul zaitez gurekin! Bizkor! Ez al duzu ikusten argitasun gorri hori? Hemendik minutu batzuetara irtengo da eguzkia eta hil egingo zara.

Eta hasperen sakon bat egin eta olatuen artean desagertu ziren.

Sirenatxoak denda estaltzen zuen purpurazko tapiza jaso eta lo ikusi zuen andrea, burua

printzearen bular gainean etzanda; makurtu eta printzeari musu eman zion bekokian eta zerura begiratu zuen. Egunsentia gero eta argiagoa zen. Sirenatxoak labana zorrotzari begiratu zion, eta ondoren printzearengana zuzendu zituen begiak. Printzeak bere emaztearen izena esaten zuen ametsetan: emaztearentzat zituen pentsamendu guztiak. Labanak dardar egin zuen sirenatxoaren eskuan... Sirenatxoak harrika bota zuen labana eta labana erori zen tokian odola isuri balitz bezala gorritu zen ura. Sirenatxoak berriz ere printzeari begiratu eta bihotzean iltzatu zizkion begiak. Eta bere burua itsasora bota zuen eta gorputza apar bihurtzen zitzaiola sentitu zuen.

Eguzkia agertu zen itsasoan; izpi gozo epelek berotu zuten apar hotz hila, eta sirenatxoak ez zuen heriotza nabaritu. Eguzkia ikusi zuen distiratsu, eta ehundaka izakitxo garden airean. Itsasontziko bela zuriak eta zeruaren kolore arrosa ikusten zituen izaki haien artetik; haien ahotsa musika hutsa zen, baina hain izpirituala, ezen giza-belarriak ezin baitzuen entzun, nola giza-begiak ezin baitzuen haien forma ikusi. Sirena-

txoa konturatu zen bere gorputza izaki haiena bezalako zela, eta gorputza gora eta gora zihokiola sentitu zuen.

— Baina nora noa? —esan zuen, eta bere ahotsak izaki haiena bezalako hotsa atera zuen: hots izpirituala, munduan parekorik ez duena.

— Airearen alabengana zoaz! —erantzun zioten besteek—. Sirenak ez du arima hilezkorrik izaten, ezta izango ere gizon baten amodioa bereganatzen ez badu! Sirenaren betiereko bizitza indar ezezagun baten esku dago. Airearen alabok ere ez dugu arima hilezkorrik, baina ekin-tza onak eginez gero lor dezakegu. Orain herrialde beroetara goaz hegan; hango aire kirastuak gizakiak itotzen ditu, eta haiek freskatzera goaz. Lore-urrina zabaltzen dugu airean, eta hala, kontsolamendua eta sendabidea ematen diegu. Hirurehun urtetan ongia egiten badugu, arima hilezkorra lortu eta gizakien betiereko zorientasuna ezagutuko dugu. Zu, sirena gaixo hori, guk nahi dugun gauza bera lortzen saiatu zara bihotzez; asko sufritu duzu, eta aireko izpirituen mundura igo zara. Hirurehun urteren buruan

ekintza onen bidez arima hilezkorra lortzeko aukera duzu orain.

Eta sirenatxoak bere beso ederrak Jaunaren eguzkiaren aldera luzatu zituen eta lehen malkoak etorri zitzaizkion begietara. Itsasontzian, zarata eta poza entzun zen berriz ere; sirenatxoak printzea eta emaztea bere bila zebiltzala ikusi zuen, apar harroari begiratzen ziotela triste-triste, bere burua olatuetara bota zuela jakingo balute bezala. Inork ikusi gabe, sirenatxoak musu eman zion printzeari bekokian, eta printzeari irribarre egin eta hodei arrosarantz igo zen aireko gainerako izakiekin batera.

— Hirurehun urte barru horrelaxe igoko gara Jainkoaren erreinura!

— Lehenago ere igo gaitezke! —esan zuen batek—. Gizakien etxeetara sartuko gara. Han haurrak izaten dira, eta gurasoei poz ematen dien eta gurasoen maitasuna merezi duen haur bat aurkitzen dugun bakoitzean, Jainkoak laburtu egingo du probarako jarri dugun denbora. Umeak ez du jakingo gelan hegan gabiltzanik, eta irribarre egiten diogun bakoitzean, Jainkoak hirurehun urteetatik bat kenduko digu, eta haur



gaizto bihurri bat ikusten badugu, nahigabez  
negar egingo dugu eta malko bakoitzeko proba-  
egun bat gehiago jarriko digu!

*(Den lille Havfrue)*

# ENPERADOREAREN JANTZI BERRIA

Orain dela urte asko bazen enperadore bat jantzi berriak eta dotoreak biziki maite zituen, hainbestearino eze, arropatan gastatzen baitzuen diru guztia. Enperadorearentzat axola gutxiko gauzak ziren bere soldaduak, antzerkia edo zalgurdian basora joatea, non eta ez zen bere jantzi berriak erakusteko. Jantzi bat zeukan egunaren ordu bakoitzerako, eta erregeez Kontseilu Gelan daudela esan ohi den bezala, zera esaten zen enperadoreaz:

— Enperadorea jantzigelan dago!

Enperadorea bizi zen hiria oso giro alaiko hiria zen, eta kanpotar asko joaten zen egunero bisitan. Behinola bi pikaro heldu ziren, ehuleak zirela eta inon den oihalik zoragarriena ehuntzen zutela esanez. Oihal hark kolore eta marrazki ederretan ederrenak omen zituen, eta harekin egindako jantziek ba omen zuten berezitasun txundigarri bat gainera: ikusezinak zirela beren

kargua merezi ez zutenentzat edo tonto hutsak zirenentzat.

— Jantzi bikainak, inondik ere —pentsatu zuen enperadoreak—. Aldean baneuzka, aise igarriko nioke nire erreinuan nork daukan merezi ez duen kargua. Bizkorrak eta ergelak bereiziko nituzke. Bai, oihal horiekin jantzi bat egin diezadaten agindu behar dut berehala —eta diru pila bat eman zien pikaroei lanean has zitezten.

Eraiki zituzten bi ehundegi, eta lanean ari balira bezala hasi ziren, itxurak egiten, ehundegietan hari-izpirik ere ez zegoen arren. Sedarik finena eta urrezko haririk preziatuenak berehala ekar zitzatela eskatu zuten, gorde zituzten seda eta hariak fardeletan, eta gaueko ordu txikiak arte aritu ziren lanean ehundegi hutsetan.

— Oihala egiten zenbat aurreratu duten jakiteko irrikitan nago —pentsatu zuen enperadoreak.

Baina tontoa edo bere kargurako ezgai bazen oihala ez zuela ikusiko gogoratzeak barrena nahastu zion. Uste zuen berak ez zuela zertan beldurrik izan, baina, hala ere, beste norbait bidali nahi izan zuen aurretik, gauzak zertan

ziren ikus zezan. Hirian denek zuten oihalaren tasun berezi haren berri, eta irrikitan zeuden auzokoa zeinen inutila edo tontoa zen jakiteko.

— Nire ministro zahar zintzoa bidaliko dut ehuleengana —pentsatu zuen enperadoreak—. Bera da egokiena ehuleek lanean aurreratu ote duten ikusteko. Oso gizon zentzuduna da, eta ez dago bere kargurako bera baino egokiagorik.

Eta han joan zen, bada, ministroa, bi pikarokak ehundegi hutsetan lanean ari ziren gelara.

— Jainkoarren! —pentsatu zuen ministro zaharrak, begiak zabal-zabal—. Ez dut ezer ikusten eta! —baina ez zuen ezer esan, badaezpada ere.

Bi pikarokak ministroari inguratzeko esan, eta, ehundegi hutsa erakusten zioten bitartean, galdetu zioten ea ez al zitzaizkion marrazkia ederra eta koloreak politak iruditzen. Baina ministro gizajoak begiak gehiago zabalduagatik, ez zuen deus ere ikusten, ez baitzegoen zer ikusirik.

— Ene! —pentsatu zuen—. Tontoa ote naiz, ba? Halakorik ez zait sekula burutik pasa; ez dezala inork ere jakin! Ez ote naiz egokia minis-

tro kargurako? Ez, ez diot inori esan behar ez dudala oihala ikusten.

— Zer, ez duzu ezer esan behar? —galdetu zuen ehuleetako batek.

— Oi, bai polita! Zoragarria benetan! —esan zuen ministro zaharrak, antiojoetatik zehar begira—. Bai marrazki ederra! Horiek koloreak! Bai, asko gustatu zaidala esango diot enperadoreari!

— Pozten gara, ba —esan zuten ehuleek. Eta kolore guztien izenak eta marrazkiaren xehetasunak azaldu zizkioten. Ministro zaharrak arreta handiz entzun zituen ehuleen azalpen guztiak, enperadoreari dena errepikatu ahal izateko gero. Eta bai ondo errepikatu ere.

Ehuleek diru gehiago eskatu zuten, eta seda eta urrezko hari gehiago, oihalerako behar zutela esanez. Fardeletan gorde zuten dena, hari-izpi bat ere ehundegirako utzi gabe, eta ordu arte bezala segitu zuten, ehundegi hutsetan lanean.

Handik gutxira, enperadoreak beste funtzionario zintzo bat bidali zuen, oihal-lana zertan zen jakitera eta jantzia noiz bukatuko ote zuten galdetzera. Eta ministroari gertatu zitzaion gauza bera gertatu zitzaion hari ere: begira eta begira

egon arren, ehundegia hutsik egoki, ez zuela ezertxo ere ikusten.

— Polita oihala, ezta? —esan zioten bi pikarok, eta existitzen ez zen marrazkia erakutsi eta azaldu zioten.

— Ni tontoa ez naiz, ba —pentsatu zuen funtzionarioak—. Ez ote naiz egokia dudan kargurako? Bai gauza harrigarria! Ez dadila inor konturatu behintzat!

Beraz, ikusten ez zuen oihal hura goraiatu, eta zorionak eman zizkien kolore polit eta marrazki bikain haiengatik.

— Benetan diot: oso oihal ederra da, aparta —esan zion enperadoreari.

Guztien ahotan zebilen oihal zoragarri haren kontua. Eta enperadoreak ere bere begiez ikusi nahi izan zuen oihala, artean ehundegian zegoe-la.

Goi mailako gortesau mordo batez inguraturik —ehundegian izanak ziren bi funtzionario zahar zintzoak tartean—, han joan zen enperadorea pikaro maltzur parearengana. Eta han segitzen zuten bi pikaro haiek nekagaitz, lan eta lan, albainurik gabe ehuntzen.

— Ez al da *magnifique*? —esan zuten bi funtzionario zintzoek—. Begira, Maiestate! Begira zer marrazki eta zer kolore! —eta ehundegi hutsa erakusten zioten, gainerako guztiek oihala ikusten zutelakoan.

— Arranopola! —pentsatu zuen enperadoreak—. Ez dut ezer ikusten eta! Hau bai gauza harrigarria! Tontoa ote naiz, ba? Ala ez naiz enperadore izateko gai? Besterik ez genuen behar!

— Oi, zeinen ederra! —esan zuen ozen enperadoreak—. Enperadorearen erabateko onespina dauka! —eta atseginezko buru-makurtua egin zuen ehundegi hutsari so. Nola esango zuen, ba, ez zuela ezer ikusten?

Enperadorearen segiziokoak begira eta begira zeuden, eta besteek baino gehiago ikusten ez bazuten ere, enperadoreari esan zioten:

— Oi, zeinen ederra! —eta oihal berri zoragarrri harekin jantzi bat egin behar zuela gomendatu zioten, handik gutxira ospatzekoa zen prozesiorako.

— *Magnifique*, sekulakoa, miresgarria —zabaldu zen ahoz aho, eta poz-pez zeuden

denak. Enperadoreak Zaldun Gurutzea eman zien pikaroei botoi-zuloan jartzeko, eta Ehule Txit Agurgarri izendatu zituen.

Prozesio egunaren bezperan, gau osoa jaikita eman zuten bi pikaroeak, hamasei kandela baino gehiagoren argitan. Ikus zezala jende guztiak berebiziko ahalegina egiten ari zirela enperadorearen jantzia gertu egon zedin. Ehundegitik oihala hartzen zutela itxurak eginez aritu ziren gau osoan, guraize handiez airea ebakitzen eta haririk gabeko jostorratzez josten. Eta bukatzean, esan zuten:

— Kitto, jantzia gertu dago!

Enperadorea bera joan zen lantegira, zaldun nagusiak lagun zituela, eta ehule pikaroeak besoak altxatu zituzten airean, zerbaiti eutsiko balioke bezala, eta esan zuten:

— Hemen galtzak! Hona atorra! Tori kapa! — eta horrela, arropa guztiak hurrenez hurren—. Armiarma-sarea bezain arina da! Aldean ezer ez duela iruditzen zaio bati, eta horixe du dohain nagusia.



— Halaxe da! —esan zuten zaldun guztiek, nahiz eta, ikusi, ez zuten ezer ikusten, ez baitzegoen zer ikusirik.

— Maiestate, erantzi bedi, mesedez —esan zioten pikaroek—, eta jantzi berriak saiatuko dizkiogu ispilu handiaren aurrean.

Kendu zituen enperadoreak arropa guztiak, eta pikaroak, haiek jositako jantzi berriak jantziko balizkiote bezala aritu ziren, itxurak eginez. Gerritik heldu, eta zerbait lotzen ziotelakoa egin zuten: jantziaren hegala zen. Gorputza bira batera eta bira bestera zerabilen enperadoreak ispi-luaren aurrean.

— Jainko maitea, bai jantzi ederra! Bai ederki ematen diola! —esan zuten denek—. Nolako marrazkiak! Horiek koloreak! Oso jantzi polita da!

— Maiestate, kanpoan zain dauzka prozesioan berorri lagunduko diotenak, palio eta guzti —esan zuen zeremonia-maisuak.

— Prest nago! —esan zuen enperadoreak—. Ondo ematen dit, ezta? —eta berriro jarri zen ispi-luaren aurrean, jantziei begira balego bezala.

Jantziaren hegalaria eutsi behar zioten xanbelanek lurra haztatu zuten hegalaria heltzeko. Eskuak jaso eta airean eutsi zioten hegalaria, ez zezan jendeak pentsa ez zutela ezer ikusten.

Eta han joan zen enperadorea prozesioan, palioaren azpian, eta kalean eta leihoetan esaten zuen jende guztiak:

— Bai ederrak enperadorearen jantzi berriak! Zein hegal zoragarria! Bai poliki ematen diola! — inork ez baitzuen onartu nahi ez zuela oihala ikusten, zeren zeukan kargurako egokia ez zela edo tonto hutsa zela aitortzea izango baitzen. Ez zen enperadorearen jantzirik halako arrakasta izan zuenik.

— Baina ezer ez darama eta! —esan zuen haur batek.

— Jainko maitea, entzun xalotasunaren ahotza! —esan zuen haurraren aitak. Eta batak besteari ahapeka esan zioten haurrak esan zuena.

— Ez darama jantzirik, haur batek esan du ez daramala ezer aldean!

— Ez darama jantzirik! —esan zuten azkenik denek.

Eta enperadorea urduri jarri zen, bai baitzekien arrazoi zutela, baina esan zion bere buruari:

— Prozesioa amaitu arte segitu behar dut.

Eta are tenteago joan zen, xanbelanak atzetik zituela existitzen ez zen hegalaria eusten.

*(Keiserens nye Klæder)*

# IDA TXIKIAREN LOREAK

— Nire lore gaixoak! Hil egin zaizkit! —esan zuen Ida txikiak—. Eder-ederrak neuzkan atzo, eta gaur, begira, zimeldurik dauzkate hosto guztiak! Zergatik, baina? —galdetu zion Idak sofan eserita zegoen estudiante bati. Idak asko maite zuen estudiantea. Istoriarik harrigarrienak eza-gutzen zituen estudianteak, eta irudi zoragarriak egiten zituen paperez: bihotz-irudiak barruan dantzariak zituztela; loreak, eta gaztelu handiak, ireki eta itxi egiten ziren ate eta guzti. Atsegina zen estudiantea.

— Zergatik daude gaur loreak horren itsusi? —galdetu zion berriz ere Idak. Eta erabat zimeldurik zegoen lore-sorta bat erakutsi zion.

— Badakizu zer duten? —esan zion estudianteak—. Ba, bart dantzan izan dira, eta horrexegatik daude buru-makur.

— Loreek ez dakite, ordea, dantzan! —esan zuen Ida txikiak.

— Jakingo ez dute, ba! —esan zuen estudianteak—. Gaua etortzen denean, gu lo gaudela,

pozaren pozez jauzika hasten dira. Eta ia gauero joaten dira dantzara.

— Eta umeak? Haiek ere joaten al dira?

— Baita ere! —esan zuen estudianteak—. Han izaten dira bitxilore eta mugeta txikitxoena.

— Eta non dantzatzen dira lore eder horiek? —galdetu zuen Ida txikiak.

— Egonda zaude, ba, erregearen jauregiaren aurrean. Bada han lorez betetako lorategi bat. Eta ikusiko zenituen beltzargak: ogia bota eta etorri egiten dira igerian. Ba, hantxe, jauregi hartantxe izaten da dantza!

— Atzo bertan izan nintzen lorategi horretan amarekin —esan zuen Idak—, baina hosto guztiak eroriak ziren zuhaitzetatik, eta han ez zegoen lorerik. Non daude orain? Hainbeste eta hainbeste ikusi nituen udan!

— Jauregian daude —esan zuen estudianteak—. Erregea eta gorteko guztiak hirira itzuli bezain pronto, lorategia utzi eta jauregira sartzen dira loreak lasterka. Ikusiko bazenitu! Bi arrosa ederrenak errege-aulkian esertzen dira, eta errege-erreginarena egiten dute. Amaranto

gorri guztiak albo banatan jartzen zaizkie zutik, eta erreberentziak egiten dituzte: ganbarako aitoren semeak dira. Haien ondoren lore ederrenak sartzen dira, eta orduan hasten da dantzaldia. Bioleta urdinak itsas-kadeteak dira, eta jazintoekin eta azafraiekin egiten dute dantza, eta *señorita* esaten diete. Tulipak eta urre-koloroko lirio handiak dama nagusiak dira, eta haien ardura izaten da guztiak egoki dantzatzen diren eta dena ondo doan begiratzea.

— Baina ez al die inork errieta egiten erregearen gazteluan dantzatzeagatik? —galdetu zuen Ida txikiak.

— Inork ez daki eta han daudenik! —esan zuen estudianteak—. Beno, zenbaitetan, gauren batzuetan, jauregizain zaharra joaten da; jauregi osoa zaindu behar izaten du eta giltza-mordo handia eramaten du zintzilik, baina loreek giltzen errepika entzuten dutenean, errezela luzean atzean ezkututzen dira, isil-isilik, burua atera eta kirika. «Lore-usaina dago hemen» esaten du zaintzaile zaharrak, baina loreak ez ditu ikusten.

— Hori festa! —esan zuen Ida txikiak, txaloka—. Eta nik, ezin ditzaket ikusi?

— Bai, noski —esan zuen estudianteak—. Jaurregira zoazen hurrengoan, gogoratu leihoetara begiratzea, eta hantxe ikusiko dituzu. Nik horixe egin dut gaur, eta nartziso hori bat ikusi dut sofan tente-tente jarrita: gorteko dama bat zen.

— Lorategi Botanikoko loreak ere joaten al dira? Bide luze hori egiteko gauza al dira?

— Jakina! —esan zuen estudianteak—. Nahi baldin badute, hegan egin dezakete. Ez al dituzu inoiz ikusi lore-itxurako tximeleta gorri, hori, zuri handi batzuk? Ba, tximeleta horiek lore ziren lehen. Halako batean, zurtoinetik askatu eta airean gora igo ziren; petaloak hegotxoak balira bezala astindu, eta hegan egin zuten. Eta zintzo portatu zirenez gero, baimena eman zieten eguna hegan igarotzeko zurtoinera itzuli beharrik gabe. Eta hala, petaloak hego bihurtu zitzaizkien. Baina zertan ari naiz, zuk ere ikusi dituzu eta! Baina, baliteke Lorategi Botanikoko loreek erregearen jauregia ez ezagutzea, eta hango gauak zein atseginak diren ez jakitea. Gauza bat esango dizut, ondoan bizi den botanikako irakas-

lea bera ere zur eta lur uzteko modukoa. Ezagutzen duzu irakaslea, ezta? Ba, haren lorategian sartzen zarenean, esaiozu lore bati gazteluan dantzaldia dagoela; hark gainerakoei kontatuko die eta hegan joango dira guztiak. Irakaslea lorategira irteten denean eta lorerik ez dagoela ikusten duenean, non diren ezin asmaturik geldituko da.

— Baina nola esango dio lore batek beste bati ezer? Loreek ez dute hitz egiten eta!

— Ez, ez dute hitz egiten —erantzun zion estudianteak—, baina pantomima egiten dute. Ez al zara inoiz ohartu haize pixka bat egiten duenean loreek burua mugitzen dutela eta beren hosto berdeak astintzen dituztela? Ba, hitz egingo balute bezala ulertzen dute elkar.

— Eta ulertzen al du irakasleak pantomima? —galdetu zuen Idak.

— Bai, eta ongi ulertu ere! Goiz batean jaitsi zen lorategira eta ikusi zuen asun handi batek keinuak egiten zizkiola bere hostoez klabelin gorri eder bati. Eta esaten ziola asunak: «Maite zaitut, eder hori!» Irakasleari, ordea, ez zitzaizkion hitz horiek batere gustatu, eta asuna hosto-



etan jo zuen, hostoak dira eta asunaren eskuak; baina, halako azkura eragin zion, ez baitu harrezkero asunik ukitu.

— Hori bai kontu polita! —esan zuen Ida txikiak barrez.

— Irakaspen polita ume batentzat! —esan zuen Aholkulari aspergarriak.

Bisitan etorria zen Aholkularia eta sofan eserita zegoen. Begitan zeukan estudiantea eta irudi xelege haiek egiten ikusten zuenean, zela gizon bat urkamenditik zintzilik eta bihotz bat eskuan (bihotz-lapurra baitzen), zela sorgin zahar bat erratz ganean eserita eta senarra sudur-puntan zuela, marmarka hasten zen: «Irakaspen polita ume batentzat! Fantasia ergelak besterik ez dira horiek!»

Baina Ida txikiarentzat atsegina zen benetan estudianteak loreen ganean kontatu ziona, eta huraxe zerabilen buruan. Gau osoa dantzan aritzeagatik zimeldu ziren loreak; gaixo zeuden, dudarik gabe. Hartu zituen Idak loreak, eta gainerako jostailuekin batera jarri zituen, mahai eder baten ganean, bitxiz beteriko kutxa

batean. Sofia, Idaren panpina, bere ohetxoan zegoen lo.

— Jaiki zaitez, Sofia —esan zion Idak—. Kutxan lo egin beharko duzu gaur. Loretxoak gaixo daude, eta zure ohean lo egingo dute; ea hartara sendatzen diren.

Eta eskuetan hartu zuen panpina, baina panpina muturtuta zegoen, oso haserre, bere ohea utzi behar izan zuelako.

Idak panpinaren ohean jarri zituen loreak, zabaldu zuen ohe-estalkia eta esan zien geldigeldi egoteko hantxe, berak tea egingo ziela, ea harekin sendatu eta hurrengo goizean jaikitzeko gauza ziren. Eta ohe-errezelak itxi zituen, eguzkitik gordetzeko.

Estudianteak esan ziona burutik kendu ezinik ibili zen Ida arratsalde osoan, eta oheratzeko ordua iritsi zenean, leihoko errezelen artetik begiratu zuen lehenik; amaren lore ederrak zeuden han, jazintoak eta tulipak, eta halaxe esan zien isilka:

— Badakit gauean dantzara zoaztela!

Loreek ez entzunarena egin zuten, eta ez zuten historik ere mugitu, baina Ida txikiak eza-gutzen zuen haien sekretua.

Ohean, luzaro aritu zen pentsatzen polita izango zela, bai, lore eder haiek erregearen jau-regian dantzan ikustea. «Han ote dira nire loreak ere?» Eta horretan, loak hartu zuen. Baina, gauerdian berriro esnatu zen. Loreekin eta estudiantearekin egin zuen amets, eta Aholkulariarekin, estudianteari errieta egiten ziola: Irakaspen polita ume batentzat! Idak lo egiten zuen gela isil-isilik zegoen; gau-mahaiko lanpara pizturik, eta gurasoak lo.

«Sofiaren ohean ote daude nire loreak?» esan zion bere buruari. «Ikusi egin nahi nuke!» Eseri zen ohean eta ate aldera begiratu zuen; atea erdi zabalik zegoen, eta atiaz bestaldean zeuden loreak eta bere jostailu guztiak. Adi-adi jarri zen. Ondoko gelan pianoa jotzen ari zirela iruditu zitzaion, oso apal, baina inoiz baino gozago.

«Egingo nuke lore guztiak dantzan ari direla», esan zuen. «Gustura ikusiko nituzke!», baina ez zen jaikitzaera ausartzen, ez zituen gurasoak

esnatu nahi eta. «Hona etorriko balira», esan zuen. Baina loreak ez ziren etorri, eta musikak hain eder jarraitzen zuen jo eta jo, non Idak ezin izan baitzion grinari eutsi. Jaiki zen ohetik, hurbildu zen hanka-puntetan atera, eta gelan sartu zen. Hura ikuskizuna!

Gela hartan ez zen lanpararik eta, halere, argitan zegoen guztia. Leihotik ilargi-izpiak sartzen ziren eta egun-argitan bezala zegoen. Jazintoak eta tulipak bi ilaratan zeuden jarrita; leihoan lore bat bera ere ez zen gelditu: lorontziak hutsik zeuden. Lore guztiak, lurrera jaitsita, dotore-dotore ari ziren dantzan: batzuek besteen inguruan biraka, katea osatuz, eta jiratzeko, hosto berde luzeetatik elkarri helduz. Piano aurrean eserita, lirio hori handi bat zegoen. Ida seguru zegoen ikusia zuela lirio hura udan, ondo gogoratzen baitzuen estudianteak esana: «Hara, Line anderea dirudi eta». Orduan denek barre egin zioten; orain, ordea, lore luze hark Line anderearen antz handia zuela iruditu zitzaion Idari; pianoa jotzean ere keinu berak egiten zituen, eta aurpegi luzaran horia alde batera eta

bestera mugitzen zuen, doinu eder haren erritmoa markatuz.

Inor ez zen ohartu Ida han zenik. Orduan azafrai urdin handi batek jostailuak zeuden mahaira jauzi egin zuen, zuzen-zuzenean panpinen ohera joan, eta errezelak zabaldu zituen. Han zeuden lore gaixoak etzanda. Bat-batean, ohetik jaiki zen, gainerako loreak agurtu eta dantzan hasi ziren. Tximinia-garbitzaile zaharra, beheko ezpaina puskatuta zuen hura, jaiki zen eta erreberentzia egin zien lore etorri berriei. Ez zuten jada gaixo-itxurarik; beste loreen artera joan eta ondo baino hobeto pasa zuten.

Hots bat entzun zen orduan, mahaitik erori zen zerbaitek eragina. Hotsa sortu zen aldera begiratu zuen Idak: garizumako adarra zen. Bera ere loreen kidekoa zela iritzita, jauzi egin eta loreekin dantza egitera zetorren. Oso adar ederra zen, eta argizarizko panpinatxo bat zuen puntan, Aholkulariaren antzeko txapel zabal bat zuena. Garizumako adarra, lore guztien erdian, egurrezko hiru hanka gorrien gainean saltoka hasi zen. Kolpe handiak ematen zituen zoruan, mazurka baitzen dantza hura, eta loreek ezin

zuten hura dantzatu: arinegiak ziren hain kolpe gogorak emateko.

Halako batean, Garizumako adarraren gaineko argizarizko panpina hazi eta luzatu egin zen. Paperezko loreen inguruan jira-biraka hasi, eta esan zien garrasika:

— Irakaspen polita ume batentzat! Fantasia ergelak besterik ez dira horiek!

Aholkularia bera zirudien: txapel-zabala, aurpegi-zurbila eta marmartia. Baina paperezko loreek ostikoak eman zizkioten hanka mehe haietan, eta panpina bere neurrira itzuli eta txiki-txiki bihurtu zen ostera. Huraxe izan zen polita! Ida txikiak ezin izan zion barreari eutsi. Garizumako adarrak dantzan jarraitzen zuen, eta Aholkulariak harekin dantzatu behar zuen nahitaez, bai handia eta luzea zenean bai argizarizko panpinatxo txapel beltz handiduna zenean. Orduan loreek, panpinaren ohean egondakoek bereziki, gelditzeko erregutu zioten, eta garizumako adarrak, azkenean, gelditzea erabaki zuen. Horretan, kolpe batzuk aditu ziren. Idaren panpina Sofia eta gainerako jostailuak zeuden kutxatik zetorren hotsa. Tximinia-garbitzailea mahai

ertzera joan zen korrika, etzan zen ahozpez eta kutxa ireki zuen. Sofia, orduan, altxatu egin zen, eta txunditurik, ingurura begiratu zuen.

— Dantza dugu eta! —esan zuen—. Zergatik ez dit inork esan?

— Dantzatu nahi al duzu nirekin? —esan zion tximinia-garbitzaileak.

— Dantzari ederra zara, ba! —esan, eta bizkarra eman zion. Eta ondoren, kutxa gainean eseri zen, loreren batek dantzara aterako zuen esperantzan. Alferrik, ordea; bera ez tul eta ez tul aritu arren —ejem!, ejem! ejem!— ez zitzaion inor hurbiltzen. Tximinia-garbitzailea bakarrik ibili zen dantzan, eta ez batere gaizki, ez horixe.

Loreek jaramonik egiten ez ziotenez, kutxatik behera bota zuen bere burua Sofiak, eta burrunba handia atera zuen. Berehala hurbildu zitzaizkion lore guztiak minik hartu ote zuen galdetzerara, eta oso atseginak izan ziren berarekin, haren ohean egon zirenak batez ere. Baina ez zuen minik hartu, eta Idaren loreek eskerrak eman zizkieten bere ohe ederra uzteagatik eta goxogoxo hartu zuten. Gelaren erdialdera eramán zuten, Ilargiak argitzen zuen tokira, eta berare-

kin dantzatu ziren, eta lore guztiak inguruan jarri zitzaizkion zirkuluan. Sofia pozak zorutzen zegoen eta bere ohea erabiltzen jarraitzeko esan zien, berari berdin zitzaiola eta, kutxan lo egitea.

Baina loreek honela esan zioten:

— Eskertzen dizugu, baina ez gara horrenbeste biziko. Segur aski biharko hilda egongo gara; baina esaiozu Idatxikiari lorategian lurpera gaitzala, kanarioa dagoen lekuan, hartara ederrago loratuko gara datorren udan.

— Ez, ez zaitetze hil! —esan zien Sofiak, musu emanaz.

Une horretan, saloiko atea zabaldu eta lore eder pila sartu zen dantzan. Idak ezin zuen ulertu nondik etorri zen horrenbeste lore; baietz erregearen jauregiko loreak izan. Aurretik, bi arrosa eder zihoazen, urrezko koroak buruan: erregea eta erregina ziren; atzetik, ahuntz-fraka eta krabelin ederrak, alde batera eta bestera agur eginez. Musika ere bazuten: mitxoleta handiak eta peoniak ilar-lekak joz zetozen, aurpegia gorri-gorri eginda ilar-lekei putz eta putz. Ezkila-lore urdinek eta ezkerta zuri finek kriskitinen antzeko hotsa egiten zuten. Oso musika atsegi-



na zen. Ondoren beste lore pila bat sartu zen, den-denak dantzan, bioleta urdinak eta San Jose loreak, margaritak eta mugetak. Eta lore guztiek elkar besarkatzen zuten. Ikusgarria zen, beneran!

Azkenik, loreek elkarri gabon esan zioten, eta Ida txikia, hanka-puntetan, ohera itzuli zen; ikusi zuen guztiarekin amets egin zuen.

Biharamun goizean jaiki eta mahaitxora joan zen zuzenean, loreak oraindik han ziren ikustera. Ohetxoaren errezelak zabaldu zituen, eta, bai, han ziren oraindik lore guztiak; baina oso zimeldurik zeuden, aurreko egunean baino zimelduago. Sofia, berriz, Idak jarritako kutxan zegoen, baina logura handia zuen, antza.

— Gogoratzen al duzu zer esan behar zenidan? —esan zion Ida txikiak. Sofia, ordea, ergelduta bezala zegoen, eta ez zion tutik erantzun.

— Zein gaiztoa zaren —esan zuen Idak—, eta hori, denak zurekin dantzatu direlarik.

Orduan kartoizko kutxatxo bat hartu zuen, txori polit batzuekin apaindua. Zabaldu zuen kutxa eta bertan sartu zituen lore hilak.

— Hau izango da zuen hilkutxa —esan zien—, eta Norvegiako nire lehengusuak etortzen direnean, lorategian lurperatuko zaituztegu; horrela, ederrago loratuko zarete datorren udan!

Norvegiako lehengusuak bi mutil puska ziren, Jonas eta Adolfo; aihak balezta bana eman zien opari, eta Idari erakusteko ekarri zituzten. Idak hildako lore gaixoen istorioa kontatu zien, eta han joan ziren loreak lurperatzera. Bi mutikoak aurretik, baleztak bizkarrean hartuta, eta Ida txikia atzetik, lore hilak kutxa eder hartan sartuta zituela. Hilobi txiki bat egin zieten lorategian; Idak loreei musu eman zien; eta horren ondoren, kutxa lurperatu zuen, eta Adolfo eta Jonasek, ez fusilik ez kanoirik ez zutenez gero, baleztaz geziak jaurti zituzten hilobi aurrean.

*(Den lille Idas blomster)*

# AHATEKUME ITSUSIA

Polit-polita zegoen orduantxe kanpoa. Uda zen. Garia horiturik zegoen, eta oloa artean berde; belarra, berriz, metaturik, beheko zelai oparoetan, eta han zebilen zikoina ere, batera eta bestera, bere hanka gorri luzeen gainean, egiptoeraz hizketan, amak erakutsi zion hizkuntzan. Baso handiak ziren soro eta zelaien inguruan, eta aintzira sakonak basoen erdian. Eder-eder zegoen, bai, kanpoa. Tokirik eguzkitsue-  
nean jauretxe bat zegoen, arroila sakon bat inguruan zuela, eta jauretxearen murruetatik ur ertzeraino uztao hosto-handiak zeuden. Uztao batzuk oso garaiak ziren, hosto azpian haur bat zutik hartzeko bezain garaiak, eta uztao-sasi hura basoa bera bezain txoko apartatua eta babesa zen. Hantxe zuen ahate batek habia egina. Arrautzatik irteteko puntuan zituen ahatekumeak, baina ordurako aspertu samarturik ere bazegoen hainbeste denbora arrautzen gainean jarrita egoten. Gainera, oso bisita gutxi izaten zuen, beste ahateek nahiago baitzuten arroilan

igerian ibili, hosto arterajoan eta harekin kontu-  
kontari aritu baino.

Azkenean, behintzat, bata bestearen ondotik,  
arrautza guztiak koskatzen hasi ziren.

— Txio, txio —egiten zuten. Mundura etorri  
eta burua arrautzatik kanpora ateratzen zuten  
txito guztiek.

— Kuak! kuak! —esaten zien ahate amak,  
eta, orduan, tipili-tapala, ahal zuten bezala irten  
eta hosto arteko txoko guztiak begiratzen has-  
ten ziren. Nahi zuten adina begiratzen uzten zien  
amak, berdea ona baita begietarako.

— Bai handia dela mundua! —esan zuten  
ahatekumeek; izan ere, orain askoz leku handia-  
goa zuten mugitzeko, arrautza-oskolaren  
barruan zeudenean baino.

— Hau uste al duzue dela mundu guztia? —  
esan zien amak—. Mundua jardinetik aurrerago  
iristen da, apaizaren lurretaraino, baina ni ez  
naiz haraino heldu. Ba al zarete?

Eta habiatik altxatu zen ahatea.

— Ez! Oraindik ez dira denak jaio! Arrautza  
handiena hor dago oraindik! Zenbat denbora  
beharkoote du?

Eta berriz ere habiaren gainean jarri zen.

— Zer moduz doakizu, ba? —esan zion bisitan etorrita ahate zahar batek.

— Arrautza honek atzerapen handia dakar —erantzun zion habian zegoen ahateak—. Ez da koskatzen. Baina begiraiezu besteei! Ahatekume politagorik ez dut inoiz ikusi! Aita bezalakoxeak dira denak. Alproja hura! Ez da ni ikustera etorri ere egin!

— Erakutsidazu koskatzen ez den arrautza hori —esan zion ahate zaharrak—. Indioilar baten arrautza izango da, seguru! Neu ere horrelaxe engainatu ninduten behin, eta ez nuen arazoa eta kezka besterik izan kumeekin, izan ere, esaten dizut, beldurra diote urari. Ez zirela uretan sartuko! Kuak eta kuak aritzen nintzaien, mokoka ere egiten nien, baina alferrik! Utzidazu arrautza hori ikusten. Bai, bai, indioilar-arrautza duzu hori! Uztazu bake-bakean, eta erakutsiezu igerian beste kumeei.

— Itxaron egingo dut beste pixka batean. Orain arte egon banaiz, Udako Jaiak arte ere berdin-berdin egongo naiz.

— Zeuk ikusi! —esan eta alde egin zuen ahate zaharrak.

Azkenean, koskatu zen arrautza handia ere.

— Txio, txio —egin zuen jaioberriak, eta han irten zen itzulipurdika.

Hura zen txito handia eta itsusia! Ahatea begira-begira geratu zitzaion.

— Hau da ahatekume puska! —esan zuen—. Ez du besteen antzik batere! Indioilaskoa ote da? Beno, berehala jakingo dugu. Ez da uretan sartu gabe geratuko, neronek ostikoka sarrarazi behar badut ere.

Biharamunean izugarri egun ederra egin zuen; eguzkitan dizdiz zeuden uztao-hosto berdeak. Ahate ama arroilara jaitsi zen bere familia osoarekin. Iritsi eta, plast!, uretara sartu zen.

— Kuak, kuak! —egin zuen.

Eta ahatekume guztiak, bata bestearen atzetik, pulunpaka murgildu ziren uretan. Hasieran burua ere ur azpian zutela ibili ziren, baina berehala irten ziren gora, eta ederki asko eusten zioten ur gainean; berez mugitzen zitzaizkien hankak. Han zebiltzan denak, baita txito gris handi itsusia ere.

— Ez, ez da indioilaskoa —esan zuen amak— . Begira zein ederki erabiltzen dituen hankak eta zein tente eusten dion buruari. Nire-nirea da, bai, kume hori! Eta, gainera, ez da hain zatarra, ondo begiratzuz gero. Kuak, kuak! Tira, zatozte nirekin, mundua erakutsi behar dizuet eta. Oilategian aurkeztu behar zaituztet. Niregandik urrundu gabe ibili, inork zapal ez zaitzaten, eta erne katuarekin!

Eta oilategian sartu ziren. Ikaragarritzko iskanbila zegoen han. Bi familia ari ziren borrokan, aingira-buru bat zeinek eramango, eta azkenean katuak eraman zien.

— Hara nola diren gauzak mundu honetan —esan zuen ahate amak mokoia mihaztuz, berak ere gustura asko hartuko baitzuen aingira-burua.

— Tira, mugi hanka horiek! —esan zien kumeei—. Behar bezala kuak! egin eta makurtu burua hango ahate zahar haren aurrean. Bera da denetan nobleena; espainiar odola du zainetan, eta horregatik dauka daukan tamaina, eta, ikusten duzue?, trapu gorri bat du hankan lotuta; gauza handia da hori: ahate batek izan dezakeen bereizgarri bikainena; inoiz ez dutela oilategitik

kenduko esan nahi du, eta animaliek zein giza-  
kiek begiramena diotela. Kuak! Ez hankak  
barrualdera okertu! Ondo hezitako ahateak han-  
kak zabal-zabalik eduki behar ditu, aitak eta  
amak bezala, ikusten? Eta orain, makurtu burua  
eta esan kuak!

Esandakoa egin zuten ahatekumeek. Oilate-  
giko ahate guztiak haiei begira-begira jarri ziren,  
eta ozen esaten zuten:

— Begiraiezue! Lehen gutxi ez eta, orain  
beste koadrila hau! Ene, ba! Hori da ahatekume  
itsusia! Ez dugu hemen nahi!

Eta hurbildu zitzaion ahate bat eta mokoka  
egin zion ahate txoari lepoan.

— Utzizu bakean! —esan zuen amak—. Ez  
dizu ezer egin eta!

— Ez, baina oso handia eta baldarra da, eta  
egurra eman behar zaio! —esan zuen mokoka  
egin zionak.

— Kume ederrak ditu gure ama berriak! —  
esan zuen hankan trapu gorria zuen ahate zaha-  
rrak—. Oso politak denak, honako hau izan ezik.  
Hau ez zaizu oso itxurazkoa irten. Nahiago nuke  
berriro egin ahal izango bazenu.



— Hori ezinezkoa da, andere —esan zion ahate amak—. Polita ez da, baina oso kume ona da, eta beste edozeinek bezain ederki egiten du igeri. Eta gainera, nik uste, denborarekin edertu egingo da; zera, beharbada, gerora, txikiagotu egingo da. Arrautzan denbora luzeegia eman du eta, desitxuraturik jaio da —eta lepoa laztandu eta lumak igurtzi zizkion ahatekumeari—. Gainera, ahate bat da azken finean, eta ez dio hainbeste axola. Uste dut oso indartsua izango dela, eta ziur naiz aurkituko duela bere bidea bizitzan.

— Gainerakoak oso politikak dira —esan zion ahate zaharrak—. Beno, egin kontu etxean zaudetela, eta aingira-buru bat aurkitzen baduzue, ekarri niri.

Eta horren ondoren etxekotu egin ziren. Baina arrautzatik azkena irten zen ahatekumea, ahatekume itsusia, joka eta bultzaka eta burlaka zerabilten bai ahateek eta bai oiloek.

— Handiegia da! —esaten zuten denek.

Eta indioilarra, ezproindun jaio zelako bere burua ia-ia enperadoretzat baitzeukan, belaontzia oihalak betean baino puztuago, ahatekumeari ondora joan eta glu-glu eta glu-glu hasi

zitzaion, aurpegia gorri-gorri eginda. Ahatetxo gaixoak ez zekien zer egin, ez zekien zer bide hartu. Atsekabez beterik zeukan horren itsusi izateak eta oilategikoen barregarri izateak.

Hala pasatu zen lehenengo eguna, baina handik aurrerakoak askoz okerragoak izan ziren. Ahatekume gaixoaren pertsekuzioan ibiltzen ziren denak, hura nondik zirikatuko. Anai-arrebek ere tratu txarra ematen zioten. Honela esaten zioten:

— Katuak eramango ahal hau, zatar hori!

Amak berak ere honela esaten zion:

— Nahiago nuke hemendik urrun bazina!

Ahateek mokoka eta oiloek pikoka egiten zioten, eta jaten ematen zien neskak ostikoka bazterreratzen zuen.

Azkenean, lasterka alde egin eta hesiaren gainera hegaldatu zen; hesian ziren txori txikiek ikaraturik ihes egin zuten.

— Itsusia naizelako ihes egiten dute horiek ere! —pentsatu zuen ahatetxo gaixoak, eta begiak itxi zituen, baina lasterka jarraitu zuen, eta azkenean padura batera iritsi zen. Basahateak bizi ziren padura hartan. Ahatetxoa neka-

neka eginda eta oso triste zegoen, eta hantxe geratu zen gaua pasatzen.

Hurrengo goizean basahateak hegaka abiatu zirenean, berehala ikusi zuten lagun berria.

— Zer hegazti-mota haiz hi? —galdetu zioten.

Ahatetxoak, alde batera jira eta bestera jira, ahal zuen ondoen agurtu zituen.

— Itsusia haiz gero! —esan zioten basahateek—. Baina ez zaiguk axola, gure familiakoren batekin ezkontzen ez bahaiz!

Gizajoa! Ezkontze-konturik ez zitzaion burutik pasa ere egin! Ihien artean etzateko baimena besterik ez zuen eskatzen, eta padurako ur pixka bat edan ahal izatea.

Paduran bi egun oso eman zituenean, bi basantzara agertu zitzaizkion —edo hobeto esan, bi basakirten—; arrautzatik irten berriak ziren, eta nahiko lotsagabeak, beraz.

— Hi, konpai! —esan zioten—. Itsusi madarikatua haiz eta, gogoko haugu. Gurekin etorri eta paseko hegaztia izan nahi al duk? Beste padura bat bazagok hemen inguruan, basantzara eme xarmagarri batzuk daudena; ezkongaiak dituk

denak, eta kuak esaten ikasiak! Haizen bezain itsusia izanda, pagotxa izango duk han!

Une hartantxe, danba! danba! entzun zen goialdean. Bi basantzarak hilda erori ziren kanaberadira, eta odolez gorritu zuten ura. Danba! danba! egin zuten berriro eskopetek, eta basantzara-aldra handiak altxatu ziren ihien artetik, tiro-hotsen artean.

Ehizaldi bat zen. Ehiztariak paduraren inguru guztian ezkutaturik zeuden, eta ur gaineko arbola-adarretan eserita ere bai batzuk. Lainoa bezala igotzen zen ke urdina arbola ilunen artetik eta uraren gainean zabaltzen zen. Ehiza-txakurrak batera eta bestera zebiltzan lohitan plisti-plasta, pasaeran kanabera eta ihiak alde guztietara makurtzen zituztela. Laborriak hartu zuen ahatekumea. Okertu zuen burua albora, hegaldaren azpian sartzeko, eta une hartantxe zakur handi beldurgarri bat agertu zitzaion ondo-ondoan, mingaina ahotik zintzilik eta distira gaizto bat begietan. Luzatu zuen muturra ahatekoarengana, ireki zuen ahotzarra, eta hortz zorrotz-zorrotzak erakutsi zizkion, eta, gero, plisti-plasta aldendu zen ahatea ukitu gabe.

— Ene! Eskerrak Jainkoari! —egin zuen ahatekumeak hasperen—. Hain naiz itsusia, txakurak ez dit koskik ere egin nahi izan!

Eta hantxe geratu zen ahatetxoa, etzanda, geldi-geldi, tiroen ziztuak eta danbatekoak airea lehertzen zuten bitartean. Hotsak ez ziren isildu eguna oso aurreratu zen arte, baina orduan ere ahatetxo gaixoa ez zen altxatzera ausartzen. Ordu batzuk gehiago itxaron zuen, eta, orduan, alde guztietara begiratu eta ahal zuen azkarren ihes egin zuen paduratik. Lasterka joan zen alor eta belardietatik zehar. Haize handia zebilen eta asko kostata egin zuen aurrera.

Gauerako, borda txiki pobre batera iritsi zen. Hain egoera penagarrian zegoen txabola, eze zein aldetara erori ez zekielako baitzirauen zutik. Haizearen furrustadak oso ziren gogorrak, eta ahatetxoak isatsaren gainean eseri behar izan zuen. Haizeak, ordea, gero eta indartsuago jotzen zuen. Orduan, bordako atea erro bat aterata eta alde batera okertuta zegoela ikusi zuen, eta pentsatu zuen zirrikitutik barrura sartzeko modua izango zuela, eta halaxe sartu zen. Bordan andre zahar bat bizi zen katu batekin eta

oilu batekin. Katuari «Semeño» deitzen zion andreak, eta Semeñok bizkarra konkortu eta ron-ron egiten zuen, eta baita txinpartak atera ere, baldin eta eskua ile kontra pasatzen bazitzaion. Oiloak hanka txiki motz-motzak zituen, eta «Karaka Hankamotz» deitzen zion andreak. Arrautza onak erruten zituen eta alaba balu bezala maite zuen.

Hurrengo goizean, berehalaxe aurkitu zuten ahatekume bitxia, eta katua ron-ron eta oiloa karaka hasi ziren.

— Zer demontre gertatzen da? —esan zuen andreak ingurura begira, baina begi laburrekoa izaki, ahate gizen ihes egindakoren bat izango zela pentsatu zuen.

— Hauxe aurkikuntza ederra! —esan zuen andreak—. Ahate-arrautzak izango ditut orain, arra ez bada, behintzat! Ikusi egin beharko!

Eta, proba egiteko, hiru asterako hartu zuen ahatetxoa etxean, baina han ez zen arrautzarik agertu. Katua zen etxeko jauna eta oiloa etxeko andrea, eta hitz egiten zutenean, «gu eta mundua» esaten zuten beti, munduaren erdia berak zirela uste baitzuten, eta erdi onena, gainera.

Beste iritzi batekoa izatea zilegi zela uste zuen ahatetxoak, baina oiloak ez zuen horrelakorik aditu ere egin nahi.

— Ba al dakizu arrautzak erruten?

— Ez!

— Zaude isilik, hortaz!

Eta katuak esan zion:

— Ba al dakizu bizkarra konkortzen, ron-ron egiten edo txinpartak ateratzen?

— Ez!

— Hobe duzu, orduan, zeure iritziak zeuretzat gordetzea, zentzuzko pertsona bat hizketan ari denean!

Ahatetxoa bazterrean eserita geratu zen, muturturik. Orduan, kanpoko airea eta eguzkiaren argia etorri zitzaizkion burura, eta ur gainean ibiltzeko gogo menderaezin batek hartu zuen, eta, azkenean, ezin eutsi izan zion oiloari esan gabe.

— Zer demontre gertatzen zaizu? —esan zion oiloak—. Ezer egin gabe zaudelako bururatzen zaizkizu horrelako xeblekeriak. Errun itzazu arrautza batzuk, edo has zaitez ron-ron egiten, eta joango zaizkizu kontu horiek.

— Baina ez dakizu zer atsegina den uretan ibiltzea! —esan zion ahatetxoak—. Zer atsegina den burua ur azpian sartu eta hondoraino murgiltzea!

— Entretenimendu polita! —esan zion oiloak—. Burutik eginda zaude zu! Galdegiozu katuari; ez dut bera baino izaki zuhurragorik eza gutzen. Galdegiozu ea gustatzen zaion uretan ibiltzea eta hondora murgiltzea. Ez da nik esaten dudalako. Galdegiozu gure etxekoandreari, andre zaharrari; ez da munduan hura baino pertsona argiagorik. Zuk uste duzu uretan ibiltzeko eta ur azpira murgiltzeko gogorik baduela?

— Ez didazu ulertzen —esan zuen ahatekumeak.

— Nik ulertzen ez badizut, nork uste duzu, ba, ulertuko dizula? Ez duzu, ba, usteko katua eta andre zaharra baino —ez dut esango ni baino— argiagoa zarenik? Ez zaitez ergela izan, eta emaizkiozu eskerrak Jainkoari egin dizugun on guztiarengatik. Ez duzu esango aterpe on bat ez duzunik! Ez al zaude gurean zerbait ikasteko moduko lagunartean? Baina zu tontoa zara, eta ez da batere atsegina zurekin bizi izatea. Zeure



hobe beharrez esaten dizut egia, atsegina ez bada ere, eta hori da benetako lagunak ezagutzeko biderik onena. Saia zaitez arrautzak erruten, edo ron-ron egiten, edo txinpartak ateratzen.

— Uste dut mundua ikustera joango naizela —esan zuen ahatekumeak.

— Zoaz, zoaz! —esan zion oiloak.

Eta han joan zen ahatekumea; eta ibili zen ur gainean eta murgildu zen ur azpian, baina begitan hartzen zuten izaki bizidun guztiek, itsusia zelako.

Etorri zen udazkena, eta basoko hostoak horitu eta gorritu egin ziren; haizeak mendean hartu eta alde guztietara dantzatu zituen. Hoztu zen airea eta hodeiak elurrez eta kazkabarrez kargatu ziren. Hesola gainean hotzak karrankaz zegoen belea. Hotzikara ematen zuen pentsatze hutsak ere; ez zegoen, ez, egokiera onean ahatekume gaixoa.

Arrats batean, neguko eguzkia bere edertasun guztian sartzen ari zela, txori handi eder batzuk irten ziren, aldran, sasitik. Ahatekumeak ez zuen horren txori ederrik inoiz ikusi. Zuri-

zuriak ziren eta lepo luze malguak zituzten. Beltxargak ziren. Garrasi berezi bat egin, beren hegaldatu ziren. Gora eta gora igo ziren, oso gora, eta ahatekume itsusiak halako egonezin bat sentitu zuen. Gurrpil bat bezala bira eta bira ibili zen uretan, lepoa beltxargengana luzaturik, eta garrasi zoli estrainio bat irten zitzaion, bera ere erabat ikaraturik utzi zuena. Ez zituen, ez, txori eder zorioneko haiek ahaztuko! Eta begibistatik galdu zitzaizkionean, uretan hondoraino murgildu zen, eta berriro azaleratu zenean, bere baitatik irtenda bezala zegoen. Ez zekien txori haiek zer ziren ez nora zihoazen, baina beste inorengana ez bezala erakartzen zuen indar batek haiengana. Ez zen inbidia, ezta gutxiagorik ere. Ez zitzaion burutik pasatu ere egingo halako edertasun miresgarria beretzat nahi izaterik; pozik zatekeen ahateek beren artean bizi izaten utzi baliote, ahatetxo itsusi gizajoa!

Negua hain zen hotza eta mina, uretan igeri eta igeri ibili behar zuen, ura horma ez zedin, baina gauetik gauera txikiagotzen zitzaion igeri-

gunea. Halako izotz handiak egin zituen, ezen ur ganean krask-krask egiten baitzuen hormak, eta ahatetxoak hankei eragin eta eragin ibili behar zuen, zulo osoa hormak itxi ez ziezaion. Azkenean, ordea, nekearen nekez, mugitu ezinik geratu zen, eta izotzak estali zuen.

Hurrengo goizean, goiz, nekazari bat pasatu zen handik, eta ikusi egin zuen. Horma gainera joan, egurrezko eskalapoi astunekin horma zulatu eta ahatekumea andreari eraman zion etxera. Ahatetxoa berehala zuzpeltu zen. Haurrek harekin jolas egin nahi zuten, baina ahatetxoa, gaizki erabiliko zuten beldurrez, korrika esne-marmitan sartu zen, eta esne guztia lurrera isuri zuen. Etxekoandrea, eskuak jasota, garrasika hasi zen, eta ahatetxoak gurinaren upelera ihes egin zuen orduan, eta handik, berriz, irin-azpilera, eta pentsa daiteke zer itxura izango zuen irin-azpiletik irten zenerako! Emakumea atzetik zebilkinson txilioka, sutako kurrikak eskuan hartuta, eta haurrak, barre eta oihu, elkarri bultzaka zebiltzan ahatetxoa harrapatu nahian. Eskerrak atea zabalik zegoen. Hala, ahatetxoak eskapatu ahal izan zuen. Sasi artera ihes egin, eta han etzan

zen, elur egin berriaren gainean, erabat abaildu-rik.

Baina tristeegia litzateke negu latz hartan ahatekumeak pasatu behar izan zituen lazeriak eta nekeak aipatzea. Berriro ere eguzkia epel-tzen hasi zenean, paduran zetzan ahateetxoak, ihi artean. Hegazabalak kantari ari ziren eta heldua zen udaberria.

Bat-batean, hegalak zabaldu zituen ahateku-meak. Lehen baino askoz indartsuagoak zituen orain, eta arin eraman zuten airean. Eta ohartzera-ko, jardin handi batera iritsi zen. Sagarrondoak loretan ziren jardinean; lilek aintziraren ertz izur-tsuaren gainera abailtzen zituzten beren adar luzeak, eta usainez betetzen airea. Hura zen udaberri-usain zoragarria! Aurrez aurre hiru bel-txarga zuri dotore ikusi zituen ahatekumeak, sasitik irten eta beregana etortzen, hegalak harroturik eta poliki-poliki igerian. Bertantxe ezagutu zituen ahatekumeak hegazti handios haiek, eta malenkonia estrainio batek hartu zuen.

— Hegazti handios horiengana hegaldatuko naiz, eta txiki-txiki egingo naute, ni honen itsusia

izan eta hurbiltzera ere ausartu naizelako! Baina ez dio axolarik! Akaba nazatela! Horrela hiltzea hobe, ahateen mokokadak, oiloen pikokadak, eta oilozainaren ostikoak jasatea baino. Nahiago hori, neguan hainbeste ezbehar igaro baino.

Horrela, bada, uretara joan eta beltxarga miragarrien aldera abiatu zen igerian. Ikusi zuten beltxargek, eta lasterka inguratu zitzaizkion hegadak harroturik.

— Akaba nazazue! Akaba nazazue! —esan zien gizajoak, eta burua uretara makurtu eta heriotzaren zain geratu zen. Baina zer ikusi zuen ur gardenetan islaturik? Bere irudia ikusi zuen han azpian, baina ez zen jada hegazti gris zatar bat, hegazti itsusi baldar bat: beltxarga bat zen bera ere! Oilategi batean jaio izanak ez du ezertxo ere esan nahi, baldin eta beltxarga baten arrautzatik jaioz gero!

Poztu egin zen pasatu zituen tristura eta neke guztiak pasatu izanaz. Orain hobeto preziazten zuen bere zoriona eta inguruan zuen edertasuna. Beltxarga handiak inguruan zebilzkion eta mokoaz laztantzen zuten.

Haur batzuk etorri ziren jardinera, eta ogi-puskak bota zituzten uretara, eta haur txikienak esan zuen:

— Beste bat dago!

Eta beste haurrak oihuka hasi ziren pozik:

— Bai, beste bat etorri da!

Eta txalo eta dantza egin zuten, eta, arineketan, beren aita-amengana joan ziren, eta uretara ogi-puskak botatzen zituzten, eta den-denek esan zuten:

— Etorri berria da denetan ederrena! Hain da gaztea eta polita!

Eta beltxarga zaharrenek burua makurtu eta omen egiten zioten.

Oso lotsaturik zegoen beltxarga gaztea, eta hegaldaren azpian ezkutatzen zuen burua. Ez zekien zer pentsatu; oso pozik zegoen, baina ez, ordea, batere harro, bihotz onekoa ez baita inoiz harrotzen. Gogoan zuen nola jazartzen eta mesprezatzen zuten, eta orain, berriz, hegazti ederretan ederrena zela zioten denek. Lilen adarrak uretaraino makurtzen ziren; eguzkiak epeltasun atsegina zabaltzen zuen, eta beltxarga gazteak

hegalak harrotu, lepo liraina luzatu, eta bihotza  
bozkarioz beterik esaten zuen:

— Ez nuen amestu ere egingo honelako  
zorionik ahatekume itsusia nintzela!

*(Den grimme ælling)*

# ELFOEN MUINOA

Sugandila batzuk arineketa alaian zebiltzan, arbola zahar baten arrakaletan sartu eta irten. Oso ondo ulertzen zuten elkar, sugandilen hizkeran ari baitziren.

— Hori da durunda eta burrunba Elfoen Muinotik datorrena! —esan zuen sugandiletako batek—. Bi gau dira begirik bildu ezinik nabilela. Egin dudan lo apurrerako, hagineko minez ohean egon banintz ere, igoal-igoal!

— Badarabilte zerbait, bai! —esan zuen bigarren sugandilak—. Lau makila gorriren gainean jarrita eduki dute muinoa oilaritera arte, ondo haizatu dadin; eta elfo andereak dantza berri batzuk ikasten aritu dira, takoi-tarrapataka batean. Badarabilte zerbait, bai horixe!

— Bai, ezagutzen dudan zizare batekin aritu naiz hizketan. Muinotik iritsi berria zen, han izan baita gau eta egun tunelak egiten lurpean. Zer ez omen du entzun! Mamorro gaixoak ez du piperrik ere ikusten, baina ondo asko daki itsumustuka ibiltzen eta inon direnak entzuten! Kan-



potarrak espero omen dituzte Elfoen Muinoan, eta ez nolannahikoak, alajaina, baina zein diren ez dit esan, jakin ere ez zuen jakingo eta. Argitxakur guztiak deitu omen dituzte, zuzi-prozesioa egin dezaten; urre-zilarrerria ere —badakizue zein ugari den han— garbi-garbi egin eta gero, ilargi-argitan jartzen ari omen dira.

— Nortzuk izango ote dira kanpotar horiek? —esan zuten sugandila guztiek batera—. Zer demontretan ote dabilta? Entzun hango burrunba! Entzun hango durundia!

Une horretantxe, muinoa ireki eta elfo andere zahar bat irten zen bertatik. Bizkar gabea zen, baina dotore-dotore jantzita zetorren, jauzi txikiak emanaz. Elfoen erregearen giltzain zaharra zen, eta haren ahaide txikia; eta anbarezko bihotz bat zuen bekokian. Hankak agudo baino agudoago mugitzen zituen, trinkili-trinkili-trin. Jainko maitea! Haren ziztua! Zuzen-zuzen zingira aldera jo zuen, zataren etxeraino.

— Gauean Elfoen Muinora etortzeko gonbitea dakarkizut! —esan zion—, baina egiguzu mesede: ardura zaitez gainerako gonbiteez. Zerbaite-tan lagundu beharko duzu, etxeko lanik ez duzu

eta. Oso jende ospetsua etorriko zaigu, izen handiko trasgoak, eta elfoen erregeak bera ere handietan handia dela erakutsi nahi die.

— Nori egin behar zaio gonbitea? —galdetu zuen zatak.

— Beno, dantzaldi nagusira edonor etor daiteke, baita gizakiak ere, baldin eta ametsetan hitz egiteko gai badira, edo guk egiten ditugun moduko gauzaren bat egiten baldin badakite, behintzat. Baina oturuntza handirako, aukeraketa zorrotz egin behar da; jende gorenena baino ez dugu hartuko. Eztabaida gogorrean aritu naiz elfoen erregearekin, nire ustez mamuak ez bai-kenituzke hartu behar. Beste inor baino lehen, tritoia eta haren alabak gonbidatu behar dira; ez dut uste lehorrera etortzeko irrikaz egongo direnik, baina neu arduratuko naiz harri busti bana edo beste zerbait hobe izan dezaten esertzeko; beraz, ez dut uste ezetz esango digutenik oraingoan. Lehen mailako iratxo zahar buztandun guztiek etorri behar dute, eta ibaiko jaunak eta gnomoek. Eta, nire aburuz, ezin ditugu ahaztu hilobietako txerria, infernuko zaldia eta elizako mustroa; elizaren partaide dira, gu ez bezala,

baina horiek lan-kontuak dira; senide ditugu bes-tela, eta sarritan etortzen zaizkigu bisitan.

— Kuik! —esan zuen zatak, eta han joan zen hegan gonbidapenak egitera.

Elfo andereak dantzan ari ziren ordurako muino gainean, behelainoz eta ilargi-izpiz ehundutako txal luzeez jantzirik dantzan; eta izugarrizko ikuskizuna zen halako gauzak gustuko dituen jendearentzat. Muino barruko areto nagusia garbi-garbi egin zuten arretarik handienaz. Zorua ilargi-izpiz garbitu zuten, eta hormak sorgin-gantzez igurtzi zituzten, eta horrexegatik egiten zuten dirdai, tulipan-petaloek argitan bezala. Zer ez zegoen sukalde hartan: igelak burduntzietan; suge-larruak, haur jaioberrien hatzez beteak; apo-arrabaz, sagu-muturrez eta zikutaz eginiko entsalada; zingirako sorginak egindako garagardoa, eta hilobi-sotoetan ondutako gesal-ardo apartsua; guzti-guztiak jaki fine-nak, inondik ere!; eta bukatzeko, iltze herdoil-duak eta eliz beirateetako leiar triskatuak.

Elfoen erregeak urrezko koroa garbi ziezaio-ten agindu zuen; ume azkarrenaren klera-hau-tsez egin behar zen hori, eta lan zaila izaten

zuen elfoen erregeak halako klariona lortzen, lan zaila, benetan! Logelan gortina berriak eskegi zituzten, eta suge-listuz itsatsi. Izango ez zen, ba, han, burrunba eta zalaparta?!

— Orain hau zurdaz eta kimaz lurrindu, eta kito!, amaitu da nire eginbeharra —esan zuen elfo andere zaharrak.

— Aitatxo —esan zuen alaba gazteenak—, jakin al daiteke nortzuk diren kanpotar ospetsu horiek?

— Beno, beno! —erantzun zuen erregeak—, esan egin beharko dizut azkenean. Nire alaba bik ezkontzeko prest egon beharko dute. Bi, behintzat, ezkonduko dira; hori ziur. Norvegiako trasgo gorena dator; badakizu, Dovreko gainean bizi dena, harrizko gaztelu eta gotorleku ugari eta inork uste baino balio handiagoko urre-meak dituen. Bere bi semeekin dator, emazte bila baitabilta mutilak. Trasgo zaharra norvegiar peto-petoa da, ondratua, alaia eta zintzoa; oso aspaldiko laguna dut, tratu handia izan genuen, bion arteko adiskidantza ospatzeko elkarrekin edan ohi genuen garai haietan. Emazte bila ere hona etorri zen, baina orain hilik du. Møengo

kare-labarretako erregearen alaba zen. Klarki esan daiteke, beraz, klerazko andre bat hartu zuela. Ai!, badut, bai, nire lagun zahar hori berriro ikusteko gogo! Mutilak edukazio gabeko morroskoak omen dira, baina ezin esan ezagutu gabe, eta, batek daki, ezkondu ondoren zuzenduko dira agian. Ea zeuok zuzentzen dituzuen!

— Eta noiz dira etortzekoak, ba? —galdetu zuen alabetako batek.

— Hori haizearen eta eguraldiaren mende dago —esan zuen elfoen erregeak—. Bidaia merke egitea erabaki dute, itsasontzi batean etortzeko aukera aprobetxatuz. Nik nahiago nuen Suediatik barna etorri izan balira, baina nire adiskideari oraindik ez zaio hori buruan sartzen. Ez du gaurko bizimoduaren martxa hartu, eta hori ez zait batere gustatzen, batere ez!

Une horretantxe, bi argitxakur etorri ziren jauzika, zein baino zein arinago, eta, hain justu ere, huraxe iritsi zen lehena.

— Badatoz! Badatoz! —egin zuten deiadar.

— Ekarridazue koroa, eta ilargi-argitan paratuko naiz —esan zuen elfoen erregeak.

Alabek txal luzeak altxatu eta lurrerainoko erreberentzia egin zuten.

Han zegoen Dovreko trasgo jatorra; izotz-burduntziz eta izai-pinaburuen dizdiraz eginiko koroa buruan, hartz-larruzko beroki bat soinean, eta elurretako botak jantzita; semeak, aldiz, paparra agerian eta tiranterik gabe zetozen, mardo-mardoak ziren eta.

— Muino bat al da hau? —galdetu zuen anaie-tan gazteenak Elfoen Muinoa seinalatuz—. Norwegian zulo deitzen diogu halakoari!

— Mutikoak! —esan zien aita—. Zuloak behera egiten du, eta muinoak gora! Ez duzue begirik aurpegi horietan, ala?

Gauza bakar batek harritzen zituen, antza: hangoen hizkuntza inolako trabarik gabe uler-tzeak.

— Ez alukeriarik esan! —erantzun zuen zahar-rak—. Gaizki heziak ematen duzue eta!

Halatan, bada, Elfoen Muinoan sartu ziren, non jende dotore mordoa baitzegoen elkaturik, eta hori korrika eta presaka bildu zirela, denak haize-bolada batek airean eraman balitu bezala. Barrua izugarri eder jarrita zegoen, edonoren

gustua asetzeko moduan. Tritoia eta haren alabak mahai inguruan eserita zeuden, urez beteriko upeletan; etxean bezala sentitzen zirela zioten. Jende guztiak mahaian egoteko oso manera onak erakusten zituen; guztiek, norvegiar trasgo gazte biek izan ezik. Izan ere, mahai gainean jarri zituzten hankak, nahi zuten guztia egitea libre zutela uste izanik.

— Kendu hanka horiek plateretik! —esan zien trasgo zaharrak, eta haren esana bete zuten, ez berehalakoan, halere. Poltsikoetatik pinaburu batzuk atera eta kili-kili egin zieten neskatxa afalkideei. Gero, erosoago egoteko, botak erantzi eta aldameneko elfo neskatxei eman zizkieten, gorde ziezazkieten; baina haien aita, Norvegiako trasgo zaharra, zeharo bestelakoa zen. Makina bat istorio eder kontatu zuen Norvegiako mendi zoragarriez; eta ur-jauziak apar zuritan amiltzean egiten duten organoarena bezalako soinu trumoitsuaz. Gero izokinaren istorioa kontatu zuen. Nola, naiadeen urrezko harpa entzutean, ur-lasterraren kontra jauzi egiten zuen. Ondoren neguko gau zohardiez mintzatu zen; nola lerako txilinek diin-diiin egiten zuten, eta

nola ibiltzen ziren mutikoak, zuzi irazekiak eskuan, izotz dirdaitsu gardenetan lasterka, eta nola, hain gardena izaki izotza, arrainak ere ikusten zituzten, beren oinpean izaturik. Zein ederki kontatzen zituen gauzak! Hark esaten zituenak bertan egonik bezala entzun eta ikus zitezkeen: zerratokiak lanean, neska-mutilak beren kantutak kantatzen eta Halling dantza alaia dantzatzen. Ufala! Eta bat-batean, besterik gabe, zer, eta trasgo zaharrak sekulako patxoa eman zion giltzain zaharrari, ganoraz emandako musua, baina; eta hori senide ez zirelarik!

Berehala, elfo andereen dantzarako txanda etorri zen: hasteko, dantza arruntean aritu ziren, eta ondoren, takoi-tarrapataka. Horren atzetik, fantasiako dantza etorri zen edo «dantzaz haraindiko dantza» esaten zaiona. Jainko maittea! Zein zaluki higitzen zituzten hankak! Ez zegoen asmatzerik non hasi eta non bukatzen zitzaizkien; ez zegoen haien besoak eta hankak bereizterik, txirlorak bailiran nahasten baitziren; eta pentsa nolakoa izango zen jira-bira ero hura, ezen, azkenean, infernuko zaldia zorabiatu, eta mahaitik alde egin behar izan baitzuen.



— Brr! —esan zuen trasgo zaharrak—. Hau hanka-nahaspila! Baina dantza egin, hankak luzatu eta hautsa harrotzeaz gain, ba al dakite beste ezer egiten?

— Oraintxe ikusiko duzu! —esan zion Elfoen erregeak, eta alaba gazteena irtenarazi zuen. Argal-argala zen, eta ilargi-izpia bezain gardena, ahizpa guztien artean gorpuzkera sotilena zuena. Neskak ziritxo bat hartu zuen ahoan, eta traup!, desagertu egin zen; hura zen haren abildadea.

Berehala esan zion trasgo zaharrak, ordea, ez lukeela nahiko bere emazteak horrelako dohairik izatea, eta ez zuela uste semeek ere halakorik nahiko zutenik.

Bigarrenak bere gorputzaren alboan ibiltzeko gaitasuna zuen, bere buruaren itzala balitz beza-la; eta hori elfoek itzalik ez dutelarik.

Hirugarrena oso bestelakoa zen, zingirako sorginaren garagardotegian hazia zen eta haltz-mukurrak ipurtargiz apaintzen zekien.

— Etxekoandre aparta izango da! —esan zuen trasgo zaharrak, eta begiak kliskatu zizkion topa egin ordez, ez baitzuen gehiegi edan nahi.

Laugarrenaren txanda etorri zen gero. Urrezko harpa itzel bat zeukan eta lehen sokari eragin bezain laster, ezker hanka jaso zuten denek — izan ere, elfoarrak ezkertiak dira—, eta bigarren sokari eragin zionean, berak agintzen ziena egin behar zuten besteek.

— Argi ibili emakume honekin! —esan zuen trasgo zaharrak, baina bere bi semeak muinotik kanpo zeuden ordurako, kopetaraino eginda baitzeuden hangoaz.

— Eta zer daki egiten hurrengo alabak? —galdetu zuen trasgo zaharrak.

— Norvegiarrak maitatzen ikasi dut! —erantzun zuen elfo andere gazteak—, eta ez naiz ezkonduko Norvegiara joateko ez bada!

Baina alabetan gazteenak honelaxe xuxurlatu zion trasgo zaharrari belarrira:

— Hori norvegiar kantu batean entzun duenagatik esaten du: munduaren akabera iristen denean, Norvegiako haitzek bakarrik iraungo omen dute zutik, oroitarri gisa; horra hor zergatik joan nahi duen hara, desagertzeko beldurrez dagoelako.

— Ha, ha! —egin zuen barre trasgo zaharrak—, utz dezagun hori, orduan. Zer daki, ordea, zazpigarren alabak?

— Zazpigarrenaren aurretik seigarrena dator! —esan zuen elfoen erregeak, kontatzen bazekien eta, baina seigarrenak ez zuen jendarean agertu nahi.

— Jendeari egia esaten baino ez dakit —erantzun zuen seigarren horrek—; inor ez da nitaz arduratzen, eta nahikoa lan daukat neure hiljantzia josten.

Zazpigarren alaba, azkena, etorri zen, beraz; eta zer zekien egiten hark? Ba, ipuinak kontatzen; nahi beste konta zitzakeen, gainera.

— Hona hemen nire bost hatzak! —esan zion trasgo zaharrak—. Kontaidazu ipuin bat hatz bakoitzeko!

Elfo andere gazteak eskumuturra hartu zion, eta a zer nolako barreak eragin zizkion trasgoari, ia gibelak ere bota zituen algaraka. Elfo andere gazteak laugarren hatza hartu zuenean —ezkontza iragarritz bezala urrezko eraztuna zuena—, honela esan zion trasgoak neskari:

— Ondo eutsi horri, eskua zuretzat izango da eta! Emaztetzat hartuko zaitut!

Elfo andereak erantzun zion artean kontatu gabe zeuzkala Urrezko Ilintiaren ipuina, laugarren hatzari zegokiona, eta Erpurutxorena, bosgarren hatzarena.

— Ez arduratu horregatik; gorde itzazu negurako! Orduan kontatu ahal izango dizkiguzu izaiarena, eta urkiarena, eta maitagarrien opariena eta intzigar beltza egiten duenekoa. Ez duzu ipuinak kontatzeko aukerarik faltako, han inork ez daki eta! Harrizko Aretoan eseriko gara, pinu-enborren sugarren epelean, eta ezti-ura edango dugu Norvegiako errege zaharren urrezko adarretatik; ibaiko jaunak adar pare bat erregalatu dit. Eta hantxe eserita gaudela, mendiko jauna etorriko zaigu bisitan, eta Sæterreko neskatxen kantuak kantatuko dizkigu. Izokinak urjauzian salto egin eta harrizko hormaren kontra joko du, baina alferrik, ez baita gurera sartuko. Sinetsidazu, ondo baino hobeto biziko gara, zorientsu, nire Norvegia zahar maitean! Non sartu dira, baina, mutilak?

Bai, non ote ziren? Kanpoan zebiltzan, belazeetan zehar korrika, zuzien prozesiorako zintzo-zintzo etorri ziren argitxakurrak itzali nahian.

— Zer arraio zabilzate batetik bestera? — esan zien trasgoak—. Ama bat aukeratu dut zuentzat, erdu hona eta aukera ezazue zuek ere izeben artetik bana.

Baina mutilek nahiago zutela hitzalditxoak egin eta tragotxo batzuk edan; ez zutela ezkontzeko gogo porrorik ere. Eta halaxe egin zuten, egin ere: hitzalditxoak esan, han zeudenen alde topa egin eta edalontzia buruz behera jarri gero, azken tantaraino edan zutela erakusteko. Gero, arropak erantzi eta mahai gainean etzan ziren lotarako, etxean baleude bezala. Trasgo zaharra, berriz, dantza batean zebilen, gelaren buelta osoan biraka bere emaztegai gaztearekin; eta aldean zeramatzaten botak trukatu zizkioten elkarri, eraztunak trukatzea baino dotoreago zelako.

— Han! Oilarraren kukurrukua! —esan zuen giltzain zaharrak—. Leihoetako atexkak batu behar ditugu, eguzkiak ahituko gaitu, bestela.

Eta, halaxe, muinoa itxi zuten. Kanpoan, ordea, sugandilak arrapaladan ari ziren, gora eta behera, zuhaitzaren zartatuetan zehar, eta honela esan zioten elkarri:

— Bai maitagarria trasgo zaharra!

— Nik nahiago mutil gazteak —esan zuen zizareak; baina, jakina, hark ezin ikusi, mamorro gaixoak!

*(Elverhøi)*

# ELURRETAKO ERREGINA

Zazpi istorioko ipuin bat

## LEHEN ISTORIAO

*Ispilu hautsiarena eta  
haren zatiez gertatu zena*

Erne belarriak, ipuina hastera doa! Amaitzen denerako orain dakiguna baino gehiago jakingo dugu. Behinola ba omen zen iratxo bat, iratxo guztien artean gaiztoena; deabrua bera zen, izan ere. Egun batean oso umore oneko zegoen, ispilu miragarri bat asmatu zuelako. Ispilu hartan islatzen zen gauza on eta eder oro txikiagotu eta ia ezdeusaren hurrengo bihurtzen zen, eta txar eta hutsal zen oro, berriz, handiagotu eta txarra go bihurtzen zen. Paisaje ederrenak espinaka egosiaren itxura hartzen zuten, eta jenderik xarmagarriena higuigarri bihurtzen zen, edo barre garri bestela: buruz behera eta sabelik gabe agertzen ziren, eta aurpegiak erabat desitxuratuturik, nork ezaguturik ez zegoela. Eta bakarren

batek orin bat baldin bazuen, aho-sudurrak estaltzeraino zabaldurik agertuko zitzaion. «Hau bai denborapasa polita», esan zuen deabruak berekiko. Edonori asmo onen bat bururatzen bazitzaion, berehala ikus zitekeen imintzio zatar bat ispiluan, eta horrek pozez zoratu beharrean jartzen zuen deabrua. Deabrugaien eskolan — bazuen eta deabruak eskola bat— mirari bat gertatu zela zioten ikasleek: munduaren eta gizakien benetako irudia ikus zitekeela orain. Bazter guztiak korritu zituzten ispiluarekin. Eta azkenean ez zen geratu herririk ez gizakirik ispilu hark islatu eta itxuratxartu ez zuenik. Orduan, ispilua hartuta, zerurantz abiatu ziren, aingeruez eta Jainkoaz trufatzera. Zenbat eta gorago igo, orduan eta imintzio gogorragoak egiten zituen ispiluak, eta eskuetan eustea ere kosta egiten zitzaien deabruaiei. Hegan segitu zuten, gero eta gorago, aingeruengandik eta Jainkoarengandik gero eta gertuago. Halako batean, imintzio bortitzek eraginda, deabruaiei eskuetatik erori ispilua eta lurraren kontra hautsi zen, ehundaka mila pusketatan, bilioika eta gehiago zatitan. Lehen baino kaltegarriago bihurtu zen hartara.



Zatietako batzuk hondar-ale bat baino txikiago zirenez, lau haizetara barreiatu ziren mundu osoan zehar, eta jendeari begietan sartzen bazitzaizkion, han geratzen ziren, eta jende hark dena itxuratxarturik ikusten zuen, edo gauzen alderdi makurra soilik, kristal-printza ñimiño bakoitzak ispiluaren dohai osoa gorde zuelako. Kristal-printza norbaiten bihotzean sartzen bazen, askoz okerragoa zen orduan, bihotza izozten baitzion. Ispiluaren beste pusketa batzuk kristalen neurrikoak ziren, eta leihoetan jarri zituen jendeak, baina ez zen komeni handik adiskideei begiratzea. Beste zenbait pusketa antiojo gisa erabili zen, eta ezbeharririk asko izaten zuen jendeak gauzak ondo ikusi eta zuzen jokatzeko asmoz antiojo haiek janzten bazituen. Horrek guztiak izugarritzko grazia egiten zion deabruari, eta tripak bota beharrean egiten zuen barre. Ispiluaren izpi ñimiñoetako batzuk, baina, airean segitzen zuten oraindik, eta ikusiko duzue zer gertatu zen.

# **BIGARREN ISTORIAO**

## *Mutikoa eta neskatila*

Hiri handi batean, horrenbeste jende eta etxe dagoen lekuan, ez da izaten nork bere lorategia edukitzeko aukerarik, eta, horregatik, jende gehienak landareak poteetan hartzearekin konformatu behar izaten du. Hiri horietako batean, baziren bi ume pobre, lorontzi bat baino askoz handiago ez zen lorategi bat zutenak. Ez ziren neba-arrebak, baina balira bezala maite zuten elkar. Beren gurasoak elkarren aurrez aurre bizi ziren, teilatupeko etxebizitza banatan. Etxe bateko teilatuak ia bestearena ukitzen zuen, ur-hodia baino ez zuten bien artean. Etxebizitza bakoitzak leiho txiki bana zuen, eta nahikoa zen ur-hodiaren gainetik igarotzea etxe batetik bestera joateko.

Familia bakoitzak, leiho aurrean, zurezko ontzi handi bana zuen, eta ontzi haietan sukalde-rako belarrak eta arrosa-landare txiki bat: arrosa-landare bat ontzi bakoitzean, eta eder askoak gainera. Umeen gurasoei zer, eta ontzi haiek luzetara jartzea bururatu zitzaien, ur-hodiaren

gainean leihotik leihora, eta hartara benetako lorategia ematen zuen. Ilar usaintsuak ontzieta-tik zintzilik zeuden, eta arrosen adar luzeak leihoen inguruan zabaltzen ziren batzuk bestee-kin korapilaturik, hostoek eta loreek arku han-dios bat osatzen zutela. Lore-kutxak oso altu zeuden eta hurrek bazekiten ezin zutela ertze-ra arrimatu, baina sarritan izaten zuten baimena beren aulki txikiak atera eta arrosen azpian eser-tzeko. Leku aparta zen hura jolaserako.

Baina, jakina, neguan akabo gozamen hura. Sarritan izotzak erabat estaltzen zituen leihoak. Orduan, kobrezko txanponak sutontzian berotu eta leiar izoztuetan jartzen zituzten, eta beha-txulo polit bat irekitzen zen han, biribil-biribila. Eta haren atzetik begi bizi batek egiten zuen kirik; begi batek leiho bakoitzaren atzetik. Nes-katila eta mutikoa ziren. Mutikoak Kay zuen izena eta neskatilak Gerda.

Udan nahikoa zuten salto bat ematea elka-rrekin egoteko, baina neguan etxeko eskailera guztiak jaitsi behar zituzten eta beste etxekoak igo, eta kanpoan bisutsa zurrunbilotsu aritzen zuen.

— Begira! Erlakume zuria bizitoki berri baten bila! —esan zien amonatzok.

— Horiek ere ba al dute erregina? —galdetu zuen mutikoak, bazekielako benetako erleek izaten zutela.

— Izango ez dute, ba! —esan zuen amonak—. Erladia itxiena den tokian joaten da! Besteak baino handiagoa da eta ez da inoiz lurreratzen; zeru ilunerantz egiten du hegan beti. Neguko gau askotan, hiriko kaleetan zehar hegaldaka doala, leihoetatik kirikatzen du, eta, orduan, izotz ederrez estaltzen ditu leihoak, lorez estaliko balitu bezala.

— Bai, nik ere ikusia dut! —esan zuten haurrek, eta konturatu ziren amonak egia zioela.

— Etor daiteke hona elurretako erregina? —galdetu zuen neskatilak.

— Etor dadila —esan zuen mutikoak—, sutontzi gainean jarriko dut bertan urtu dadin.

Baina amonak mutikoaren adatsa laztandu zuen eta beste ipuin batzuk kontatu zizkien.

Iluntzean, Kay txikia bere etxean arropak erantzten ari zela, leiho ondoko aulki batera igo eta zulotxotik kirikatu zuen. Elur-maluta bi erori

ziren kanpoan, eta bietarik bat, handiena, lorontziaren ertzean pausatu zen. Maluta hazten hasi zen, hazten eta hazten, eta, azkenean, dama baten itxura hartu zuen, milioika izar-malutaz egina zirudien mihise zuri finez jantziriko dama batena. Izugarri ederra zen, eta fin-fina, baina izotzezkoa dena, itsutzeraino distiratsua; bizirik zegoen, ordea. Haren begiek dir-dir egiten zuten bi izar arraitsu bailiran, baina ez zen naretasunik ez lasaitasunik haietan. Keinu egin zuen buruaz leihora, eta eskua jaso zuen. Mutikoa izutu egin zen eta aulkitik jaitsi; eta iruditu zitzaion hegazti itzel bat pasatu zela leiho paretik.

Hurrengo goizean izotza egin zuen, urtu zen gero, eta udaberria etorri zen. Eguzkia irten zen, zuhaitzak berdatzen hasi ziren eta enarak habiak egiten. Jendea leihoak zabaltzen hasi zen, eta gure bi laguntxoak berriro eseri ziren lorategi txikian, ur-hodiaren gainean, teilatu guztien gainetik.

Arrosek lore eder ugari eman zuten uda hartan; salmo bat ikasi zuen neskatilak, arrosei buruzkoa, eta bere arrosetan pentsatu zuen. Sal-

moa mutikoari kantatu zion, eta geroxeago biek elkarrekin kantatu zuten:

*Arrosak haranean loretan,  
Jesus Haurtxoa bertan pozetan!*

Eta elkarri eskua emanda, musu ematen zieten arrosei, eta bozkarioz begiratzen Jainkoaren eguzki gozoari, eta hitz ere egiten zioten, Jesus Haurtxoa han balitz bezala. Zein atseginak udako egun haiek, zer gozamena han kanpoan egotea, arrosa urrintsu haien ondoan! Izan ere, loreak eman eta eman ari ziren, inoiz agortzeko itxurarik gabe.

Egun batean, Kay eta Gerda animalien eta hegaztien irudi-liburu bat begiratzen ari zirela, erlojuak bostak jo zituen elizako kanpandorrean, eta Kayk esan zuen:

— Ai! Sastada bat sentitu dut bihotzean, eta zerbait sartu zait begian!

Neskatilak lepo inguruan jarri zizkion eskuak. Kayk begiak kliskatu zituen: ez, han ez zen ezer ikusten.

— Irten zaidala uste dut! —esan zuen Kayk. Baina bai zera! Zer izango, eta iratxoen ispilu hautsiaren printza bat. Badakizue, ispilu ikaragarri harena, gauza on eta eder oro zantar eta itsusi bihurtu, eta gauza txarrak eta akatsak nabarmendu eta areagotzen zituen harena.

Kay gizajoari ere printzetako bat sartu zitzaion bihotzean. Bihotza izotz-puska bilakatu zitzaion berehala. Ez zion minik ematen, baina hantxe zuen kristaltxoak.

— Zergatik egiten duzu negar? —galdetu zuen—. Zein itsusi ematen duzun! Ez zait ezer gertatzen. Ene! Begira! —egin zuen garrasi bat-batean—. Arrosa hori harrak jota dago, eta, begira hango beste hura zein okerra den! Egia esan, oso arrosa itsusiak dira, beren ontziak bezain itsusiak.

Eta ostikada eman zion ontziari, eta erauzi egin zituen bi arrosa haiek.

— Zertan ari zara, Kay? —egin zuen garrasi neskatilak. Haren larria ikusi zuenean, mutikoak beste arrosa bat erauzi eta bizkor-bizkor leihotik barrura egin zuen, Gerda maitagarria bakarrik utzita.

Geroxeago, Gerdak irudi-liburu hura eramanean, Kayk liburu hura umetxoentzat zela esan zion. Eta amonak ipuinen bat kontatzen bazuen, beti aurkituko zion bainaren bat. Eta hori baino okerragoa: ahal zuenetan, amonaren aulkiaren atzean jarri, antiojo batzuk jantzi eta haren hitz egiteko era imitatzen zuen. Eta hain ondo egiten zuen, ezen jendeak barre egiten baitzuen. Oso trebea zen kaleko edonor antzeratzen. Inoren alderdi berezi eta barregarrienak imitatzen zituen, eta jendeak esaten zuen:

— Hau mutiko argia!

Baina hori guztia bihotzean eta begian sartu zitzaizkion kristal-printzen eragina zen, eta horrek berak eramaten zuen, nori, eta bera horrenbeste maite zuen Gerdari ere burla egitera.

Kayren jolasak arras desberdinak ziren orain, ez zuten lehengoan antzik, helduenak ziruditen. Neguko egun batean, elurra gogoz ari zuela, lupa handi bat hartuta irten zen, eta bere beroki urdinaren barrena jaso zuen, elur-malutak bertan eror zitezten.



— Begira ezazu orain, Gerda, begiratu kristaletik! —esan zuen. Malutak handi-handiak ikusten ziren; lore zoragarriak edo hamar puntako izarrak ematen zuten. Ikusgarriak ziren benetan.

— Bai gauza bitxia, ezta? —esan zuen Kayk—, benetako loreak baino askoz interesgarriagoak dira, eta ez dute narrio txikienik ere; akatsgabeak erabat, baldin eta urtuko ez balira!

Geroxeago, eskularru handi batzuk jantzita eta bizkarrean lera zuela agertu zen, eta, belarri-zulora garrasi eginez, esan zion Gerdari:

— Plazara joateko baimena dut. Leraz ibiltzera noa besteak ibiltzen diren lekuan! —eta alde egin zuen.

Plazan, mutiko ausartenek nekazarien gurdietara lotzen zituzten beren lerak eta bide-zati luzeak egiten zituzten horrela. Gauza gustagarriagorik! Jolasaren unerik animatuenean lera handi bat etorri zen, zuri-zuria goitik behera, eta gidaria larru iletsuzko berokia eta txanoa jantzita zetorren. Lera handi hark bi buelta eman zituen plazaren inguruan, eta Kayk bizkor-bizkor lotu zion atzealdean bere lera txikia. Orduan, azkar, gero eta azkarrago, ondoko kaletik sartu

ziren. Gidariak burua jiratu eta agur egin zion Kayri oso abegitsu, elkar ezagutuko balute bezala. Kay lera handitik askatzen saiatzen zen bakoitzean, ezezagunak diosala egiten zion, eta berriro esertzen zen. Halaxe irten ziren hiriko atetik. Elurra lodi-lodi hasi zuen une horretan, hainbeste, non Kayk ez baitzuen bere sudurra baino haratago ikusten. Lera handira lotzen zuen soka askatzen saiatu zen; alferrik, ordea: ez zuen, horratik, askatzerik lortu; lera handiari lotuta jarraitzen zuen, eta haizea baino azkarra-  
go zihoazen. Indar guztiekin egin zuen garrasi, baina inork ez zion aditu, eta elurrak mara-mara segitzen zuen, eta lerak ere etengabe aurrera bere laster eroan. Lantzean behin brastakoa egiten zuen lerak, lubaki eta itxituren gainera jauzika joango balitz bezala. Kay beldurrak airean zihoan, eta aitagure bat errezatu nahi izango zukeen, baina biderketa-taula baino ez zitzaion etortzen burura.

Elur-malutak gero eta handiagoak ziren, eta azkenean oilo zuri handien itxura hartu zuten. Bat-batean lera bide bazterrean geratu zen, eta gidatzen zuen pertsona jaiki egin zen; haren

berokia eta kapelua elur soila ziren. Dama bat zen, oso garaia eta liraina, zuriaren zuriaz distiranta: elurretako erregina zen.

— Lasterketa bikaina izan da —esan zion Kayri—, baina hotzak al zaude? Bildu zaitez nire hartz-larruzko berokian! —eta bere ondoan jarri zuen leran, eta larruan bildu zuen, eta Kayri elurmeta batean murgildu zela iruditu zitzaion.

— Hotzak al zaude oraindik? —galdetu zion erreginak, eta musu eman zion bekokian. Ui!, izotza bera baino hotzagoa izan zen musua, eta zuzenean joan zitzaion bihotzaren erdiraino, ordurako bihotza ia izozturik baldin bazuen ere. Hiltzear zegoela iruditu zitzaion Kayri, baina lipar batez bakarrik, zeren berehala zen onik berriro, eta handik aurrera ez zuen hotzik sentitu.

— Nire lera! Ez ahaztu nire lera! —horixe etorri zitzaion gogora, baina lera txikia, oilo zurieta-ko bati loturik, handiaren atzetik zihoan. Elurretako erreginak beste musu bat eman zion Kayri, eta orduan bai, orduan Kay Gerda txikiaz ahaztu zen, eta amonaz, eta etxeko guztiez.

— Ez dizut musu gehiagorik emango, hilko zintuzket bestela!

Kayk begiratu egin zion. Politetan politena iruditu zitzaion. Ez zuen hura baino aurpegi argi eta ederragorik inoiz ikusi; orain ez zitzaion iruditzen izotzezkoa, leiho ertzean eseri eta keinua egin zion hartan bezala. Kayren iritzirako akatsgabea zen, eta ez zion inolako beldurrik. Kayk esan zion bazekiela buruketa zailak egiten, baita zatikien bidez ere, eta bazekiela Europako herrialde bakoitzaren hedadura milia karratutan, eta baita zenbat biztanle zituen bakoitzak ere. Erreginak irribarre egiten zion, eta Kayk pentsatu zuen berak zekien guztia ez zela nahikoa, eta orduan zero zabalera begiratu zuen, eta han joan ziren biak hegan, gora eta gora, hodei ilun baten gainean, eta trumoiak burrunba eta orro egiten zuen, antzinako kankak kantatuz bezala.

Oihanen eta lakuen gainetik egin zuten hegan, itsasoan eta irlen gainetik. Han behean, beren azpian, firrindaka zebilen iparbeltza, uluka otsoa; erlantz egiten zuen elurrak, eta haren gainetik, bele beltza hegan zihoan karranka; baina denen gainetik ilargia ageri zen, handi eta eder, eta Kayk harixe begira eman zuen neguko gau

luzea. Eguna urratu zuenean, elurretako erregi-  
naren oinetan lo zegoen Kay.

## **HIRUGARREN ISTORIOA**

### *Magia zekien emakumearen baratzea*

Zer gertatu zen Gerda txikiarekin Kay itzul-  
tzen ez zela ikusi zuenean? Non egon zitekeen  
mutikoa? Inork ez zekien ezer, inork ezin zuen  
argibiderik eman. Beste mutikoez zekiten gauza  
bakarra zen Kay bere leratxoa lera handi eta  
eder bati lotzen ikusi zutela, kolean aurrera egin  
zutela gero, eta hiriko atetik irten zirela. Inork ez  
zekien non zegoen, eta malko ugari isuri zen  
hirian. Gerda txikia negar eta negar aritu zen  
luzaroan. Azkenean, zabaldu zen Kay hil egin  
zela, hiri ondoko ibaian hondoratu zela. Oi, zein  
luzeak eta ilunak izan ziren neguko egunak!

Azkenik udaberria iritsi zen, eta eguzki epela  
harekin.

— Kay joan egin zaigu, hilda dago! —esan  
zuen Gerda txikiak.

— Ez dut uste! —esan zuen eguzkiak.

— Joan egin zaigu, hilda dago! —esan zien enarei.

— Ba, guk ez dugu hori uste! —erantzun zuten, eta azkenean Gerdak berak ere ez zuen horrela zenik uste.

— Oinetako berriak jantziko ditut, neure oinetako gorriak —esan zuen goiz batean—, Kayk inoiz ikusi ez dizkidanak, eta ibaiari galdetzera joango naiz.

Goizean goiz, amona artean lo zegoela, Gerdak amonari musu eman eta oinetako gorriak jantzi zituen. Eta, bakar-bakarrik, hiriko atetik irten eta ibairaino joan zen.

— Egia al da zuk eraman zenuela nire jolaslaguna? Hura itzultzen badidazu, nire oinetako gorriak emango dizkizut.

Eta iruditu zitzaion olatuek baietz moduko bat egin ziotela. Beraz, erantzi zituen oinetako gorriak, hain kuttunak zituen haiek, eta ibaira bota zituen, baina ur-ertzean erori ziren, eta olatu txikiek lehorrera, ondora, ekarri zizkioten berriro. Bazirudien ibaiak ez zuela oparia onartu, ez ziola Kay txikia itzuli nahi.

Baina Gerdak pentsatu zuen oinetakoak ez zituela, agian, behar beste urrun jaurti. Horregatik, kanabera artean zegoen txalupa batera igo, brankaraino joan eta oinetakoak uretara jaurti zituen berriro. Txalupa, antza denez, ez zegoen ondo lotuta, eta neskatilak egin zuen mugimenduarekin, askatu eta ur-ertzetik urrundu zen. Gerda berehala ohartu eta handik irteten ahalegindu zen, baina txaluparen beste muturrera iristerako, txalupa ur-ertzetik kana batera baino gehiagora zegoen, eta gero eta azkarrago zihoan.

Gerda txikia erabat beldurtu eta negarrez hasi zen, baina inork ez zion aditzen, txolarreek izan ezik, eta haiek ezin zuten lehorrera eraman, baina ibai-ertzeraino hegan joan eta kantuan hasi ziren, neskatila kontsolatu nahian bezala:

— Hemen gauzkazu, hemen gauzkazu!

Txalupa arin-arin zeraman ur-korronteak; Gerda txikia han zihoan, eserita eta geldi, galzterdi hutsetan. Zapatatxo gorriak atzetik zetozkion ur-gainean, baina ezin zuten txalupa iritsi, txalupa azkarrago baitzihoan.

Ibai-bazterrak ikusgarriak ziren, hango loreak zoragarriak, arbolak tantaiak, eta mendi-maldegan ardiak eta behiak ikusten ziren, baina han ez zen inor ageri.

— Apika, ibaiak Kay maitearengana narama —pentsatu zuen Gerdak, eta horrekin oso poztu zen: zutitu eta bazter berde eder haiek begiratu zituen ordu luzez.

Halaxe, bada, gereziondo batzuetara heldu zen. Etxetxo bat bazen han, leiho gorri-urdin bitxiak eta lastozko teilatua zituena. Etxaurrean zurezko bi soldadu zeuden, paretik pasatzen zen edonori armak erakusten zizkiotela. Gerdak garrasi egin zien, bizirik zeudelakoan, baina, noski, haiek ez zioten erantzun. Nahiko gertu zegoen soldaduengandik, urak ibai-ertzeraino eramane baitzuen txalupa. Deiadar egin zien berriro, arestian baino ozenago, eta, orduan, emakume zahar-zahar bat irten zen etxetik, makila handi eta oker bat euskarri harturik, eta lore polit pintatuz beteriko eguzki-kapelu handi bat buruan zuela.

— Ume gaixoa! —esan zuen andre zaharrak—. Nolatan iritsi zara halako korronte indar-



tsua duen ibaitzar horretatik munduaren bazter galdu honetaraino zu bakar-bakarrik?

Gero uretan sartu zen, eta makila makotu hartaz baliatuz, txalupa geldiarazi zuen. Txalupa ur-ertzeraino eraman eta besoetan hartu zuen Gerda.

Gerda izugarri poztu zen berriro lehorrean egoteaz. Hala ere, beldur apur bat bazion amona ezezagun hari.

— Ea, esaidazu nor zaren eta nondik zatozen!  
—esan zion emakume zaharrak.

Eta Gerdak dena kontatu zion; eta amona zaharrak buruaz baietz egin eta esaten zuen: «Aha, aha!» Eta Gerdak den-dena kontatu zionean, Kay txikia ikusi ote zuen galdetu zion, eta emakumeak handik ez zela igaro erantzun zion, baina igaroko zela, noizbait; triste egon beharrean, bere gereziak jan behar zituela, eta bere loreak ikusi, edozein irudi-liburutan baino ikusgarriagoak zirela haiek, eta lore bakoitzak, gainera, bere historia kontatuko ziola. Horrela, amona zaharrak Gerdari eskutik oratu, etxera eraman eta atea itxi zuen.

Leihoak oso garaiak ziren, eta beirak gorrixkak, urdinak eta beilegiak. Kolore haiek argitasun bitxia zabaltzen zuten etxe barruan. Mahaian, emakume zaharraren gerezi gozo haiek zeuden, eta Gerdak nahi beste jan ahal izan zuen. Eta jaten zuen bitartean, emakumeak urrezko orrazi batez orrazten zuen, eta urrekoloreko adatsak sorta kiribilak egiten zizkion aurpegi arrosa bezain polit eta biribilaren inguruan.

— Nola desio izan dudan beti zu bezalako neskatila panpoxa bat izatea, nola, baina! — esan zion atsoak—. Ikusiko duzu zein ederki pasatuko dugun elkarrekin!

Eta emakume zaharrak ilea orrazten zion bitartean, Gerda txikiari ahaztuz joan zitzaion Kay, bere jolaslagun maitea. Izan ere, andre zahar hark magia zekien, baina ez zen sorgin gaizto bat, magia denborapasarako soilik erabiltzen baitzuen, eta orain Gerda berekin geratzea nahi zuen. Horregatik, baratzera irten eta makila makotuaz arrosa-landareak ukitu eta, lorez lore gainezka bazeuden ere, lur beltzean hondoratu zituen denak, eta ematen zuen han ez zela

sekula arrosarik egon. Beldur baitzen andre zahar hura Gerdak arrosak ikusiz gero, ez ote zen bereekin oroituko, eta Kay txikiarekin gero, eta azkenean ez ote zion handik aldegingo.

Hori egin eta gero, lorategira eraman zuen Gerda. Hangoa bai usain goxoa, hango dena bai polita! Irudika daitezkeen lore guztiak zeuden baratze zoragarri hartan, urte-saso guztietakoak eta denak loretan; ezein irudi-liburuk ezin zuen horren ederra eta anitza izan. Gerda pozez jauzika hasi zen, eta jolasean aritu zen bertan, eguzkia gereziondo garaien atzean gorde zen arte. Orduan ohe txiki liluragarri batera eraman zuen amonak. Oheak seda gorriko estalki harro-harro bat zuen, bioleta urdinez zipriztindua, eta hantxe egin zuen lo Gerdak, gozo-gozo, eta, erregina batek bere eztei-gauean nola, amets eztiak izan zituen.

Biharamunean ere eguzkitan aritu zen loreekin jolasean, eta baita ondorengo egun askotan ere. Gerdak lore guztiak ezagutzen zituen, eta asko izan arren, iruditzen zitzaion bat falta zela; ezin esan zein, ordea. Harik eta egun batean, eserita zegoela, emakume zaharraren lorez pin-

tatutako eguzki-kapelua ikusi zuen arte, kapelu-ko lorerik politena arrosa bat baitzen. Andre zaharrari ahaztu egin zitzaion hangoa kentzea beste guztiak lurpean desagertarazi zituenean. Hala gertatu ohi da sarri: ezin izaten dela den- dena gogoan eduki!

— Zeer?! —esan zuen Gerdak—. Nolatan ez dago hemen arrosarik?!

Eta lasterka joan zen lore-moltsoen artera, eta bila eta bila hasi zen. Alferrik, ordea: baratzean ez zen arrosarik. Azkenean negarrari eman zion, eta haren malkoak lehen arrosak egon ziren lekuan erori ziren, eta malko beroek lurra hezatu zutenean, bat-batean ernatu ziren arrosa-landareak, lurperatuak izan zirenean bezain loretsu. Arrosak besarkatu eta musukatu egin zituen Gerda txikiak, eta etxeko arrosa ederrretan pentsatu zuen, eta baita Kay txikiarengan ere.

— Ai, ama! Zenbat denbora galdu dudan! —esan zuen neskatilak—. Kay aurkitu behar dut. Ba al dakizue non den? —galdetu zien arrosei—. Zuek ere uste duzue hil egin dela?

— Ez da hil —erantzun zioten arrosek—. Gu lurpean izan gara, hildako guztiak egoten diren lekuan, eta han ez zegoen Kay.

— Mila esker! —esan zien Gerda txikiak, eta beste loreetara joan zen, eta haien kalizetan begiratu eta galdetu zien:

— Ba al dakizue Kay txikia non den?

Baina loreak, eguzkitara begira zabal-zabal, ametsetan zeuden, zein bere ametsean murgildurik. Gerdak amets ugari entzun zuen, baina Kayri buruz bat ere ez.

Eta zer kontatzen zuen lili gorriak?

— Entzun danborra: porron-pon! Bi nota baino ez ditu, porron-pon! ari da beti. Adu emakumeen samin-kantua! Adu abadeen deia! Emakume hindua, *sari* gorria soinean, su-metaren gainean dago zutik; bera eta bere senarren hilotza sugarretan bildurik. Emakumeak, ordea, inguruko jende artean dagoen gizon batengan du gogoia, begiak su-lamak baino distiratsuagoak dituen harexengan. Emakumeari gizon horren begietako sugarrak erretzen dio bihotza, aurki errauts bihurtuko duten su-lamek

bainoago. Hil ote dezakete su-lamek bihotzeko garra?

— Ez dut piperrik ere ulertzen! —esan zuen Gerda txikiak.

— Hori da nire istorioa! —esan zuen lili gorriak.

Zer dio ezkerre beltzak?

— Han, mendiaren bidezidor estuaren gainean, gaztelu zahar bat dago. Gazteluko horma zahar gorrietan gora hedatzen da huntz berde sarria, historik hosto, balkoiraino, eta balkoian neska lirain bat dago, besoak barandan jarrita eta bideari so. Adarrean den arrosa ere ez da hura bezain eder; ez eta haizeak mugitzen duen sagar-lorea ere hura bezain airos; neska higitzen denean, haren sedazko soineko dotorearen xuxurlak dio: Noiz etorriko ote da?

— Nor? Kay? —galdetu zuen Gerda txikiak.

— Nik neure istorioa kontatzen dut soilik, neure ametsa, ez besterik! —erantzun zuen ezkerre beltzak.

Zer kontatzen du negu-txilintxak?

— Han, arbola artean, sokeratik dilin-dalan, ohol luze bat dago zintzilik: zabu bat da. Bi nes-

kato pinpirin, soinekoak elurra bezain zuri eta kapeluen sedazko xingola berde luzeak firurika, zanbuluka dabilta zabuan eserita. Nesken neba, haiek baino zahartxoagoa, zutik dago zabuan. Soken inguruan jarri ditu mutilak besoak, ez jausteko, esku batean kikaratxo bat baitu, eta bestean buztinezko pipa bat, xaboi-punpuluak egiteko. Zabua kulunkarekin batera, kolore ñabarreko punpuluak zabaltzen dira airean; azken punpuluak piparen giderrean geratu da eta haizeak emeki eragiten dio. Zabua kulunkan ari da. Txakur txiki beltz bat, punpuluak bezain arina, atzeko hanken gainean jarri eta zabura igo nahian dabil. Zabua kulunkan segitzen du, eta txakurrak irrist egiten du; zaunka hasten da, haserre; neska-mutilek barre egiten dute; punpuluak lehertu egiten dira. Ohol bat kulunkan, bitsezko eszena bizi bat, hori da nire kanta!

— Gauza politikak izango dira esan dituzunak, baina oso doinu tristean kontatu dituzu, eta Kay ez duzu aipatu ere egin. Zer ote diote jazintoek?

— Baziren behin hiru ahizpa eder, oso garde-nak eta delikatuak. Baten soinekoa gorria zen, beste batena urdina eta hirugarrenarena txit

zuria. Eskutik oratuta dantzan ari ziren laku nare baten ertzean, ilargi-argitan. Ez ziren silfideak, gizakiak baizik. Urrin ezin goxoago bat zabaldu zen airean, eta neskak basoan desagertu ziren; han urrina are sarkorragoa zen. Hiru zerraldo datoz irristan oihanetik aintzira alderantz, eta zerraldoetan luze, hirur neskak. Ipurtargiak inguru-minguru dabilta hegan, airean dindilizka dauden kriseilu ttipiak bailiran. Dantzan ari ziren neskatilak lo ala hilik ote daude? Loreen usainak hil direla esaten du; arratsaldeko kanpaiak hil-kanpaia jotzen du!

— Oso tristetzen nauzu —esan zion Gerda txikiak—. Zure usain sarkorrek hildako neskak gogorazten dizkit. Ai! Egia ote Kay hilik dela? Arrosak lurpean egon dira eta ezetz esaten dute.

— Din-dan! —egin zuten jazintoen txilinek—. Hil-kanpaia ez dugu Kay txikiarengatik jotzen; Kay ez dugu-eta ezagutu ere egiten! Gure kantua kantatzen ari gara, ez dugu besterik ezagutzen eta!

Eta Gerda urrebotoiarengana joan zen; urrebotoiak dir-dir egiten zuen bere hosto berde distiranteen artean.



— Eguzki txiki dirdaitsu bat ematen duzu! Esaidazu: ba al dakizu non aurki dezakedan nire jolaslagun maitea?

Eta urrebotoiak dizdiz bizi bat egin eta Gerdari begiratu zion. Zer kanta zezakeen urrebotoiak? Kayri buruzko kanturik ez behintzat.

— Jainkoaren eguzki alaiak gozo berotzen zuen etxetxo baten barrua udaberriko lehen egunean. Errainuak auzoaren horma zuriaren gaineraino iristen ziren, eta hormaren ondoan hazten ziren lehen lore beilegiek urre distiratsua ziruditen eguzkitan. Etxe aurrean amona zahar bat zegoen, bere kadiran eserita. Iloba etorri zitzaion —neskame txiro polita bera— bisitatxo bat egitera, eta musu eman zion. Urrea zen, bihotzeko urrea, musu bedeinkatu hura. Urrea zegoen ezpainenetan, lurrean, urrea han goian, goiz oskarbi hartan. Hori da nire istorioa! —esan zuen urrebotoiak.

— Nire amonatxo zahar gaixoa! —egin zuen hasperen Gerdak—. Faltan izango nau; triste izango da niregatik, Kayrengatik triste egon zen bezalaxe. Baina laster itzuliko naiz etxera, eta Kayrekin itzuliko naiz gainera! Alferrik ari naiz

lorei galdezka, beren kantuak baino ez dakizkizite, ez dute niretzako albisterik!

Eta soinekotxoa jaso zuen azkarrago joan ahal izateko; baina liliparen gainetik pasatzean, lilipak hanketan jo zuen. Orduan, Gerda gelditu egin zen. Lore luzeari begiratu eta galdetu zion:

— Zuk zerbait dakizu, ala? —eta harengana makurtu zen. Eta zer kontatu zion lilipak?

— Neure burua ikusten dut! Neure burua ikusten dut! —esan zuen lilipak—. Oi, oi, oi, hau usain gozoa dudana! Han goian, teilatupeko gelatxoan, neskato dantzari bat dago, erdi jantzirik. Hanka bakar baten gainean jartzen da, gero bi hankan, eta ematen du mundu osoa daukala bere oinen azpian. Dantzaria itxurapen hutsa da, ordea. Te-ontzitik ura isurtzen du eskuan duen jantzi baten gainera; jantzi hori bere gerruntzea da. «Gauza ona da garbitasuna!» esaten du dantzariak. Haren soineko zuria gako batetik zintzilik dago; hura ere te-ontzian garbitu izan da, eta teilatuan sikatu. Dantzariak soinekoa jantzi eta azafrai-koloreko zapi bat jartzen du gero lepo-bueltan, soinekoaren zuria nabarmentzeko. Hanka bat jasotzen du gora-

gora! Begira nola jartzen den tente zurtoin baka-  
rraren gainean! Neure burua ikusten dut! Neure  
burua ikusten dut!

— Hori guztia ez zait piperrik ere axola! Ez dit  
ezertarako balio —esan zuen Gerdak.

Eta baratzearen amaieraraino joan zen arine-  
ketan. Atea itxita zegoen, baina krisketa zahar  
herdoilduari eragin eta eragin, azkenean brasta-  
koan zabaldu zen, eta Gerda txikia mundu zaba-  
lera irten zen ortozik eta lasterka. Hiru bider  
begiratu zuen atzera, baina ez zuen inor ondoren  
segika. Handik gutxira, ordea, lasterrean ezin  
segi, eta, harri handi baten gainean jarririk, ingu-  
rura begiratu zuen, eta ikusi zuen uda joana zela  
eta udazkena ere aurrera zihoala. Baratze lilura-  
garri hartan ezin izan zen horretaz jabetu; izan  
ere, han eguzkia egin ohi zuen beti, eta urte-  
saso guztietako loreak batera egon ohi ziren  
loretan.

— Jainko maitea! Bai berandu nabilela! —  
esan zuen Gerda txikiak—. Udazkena gainean da  
eta! Ezin dut atsedetik hartu! —eta jaiki eta  
bidean jarri zen.

Ui, zein minduak eta nekatuak zituen hankatxoak, eta nolako hotza egiten zuen, eta zein goibel ageri zen dena! Sahatsen hosto luzeak zeharo horituta zeuden, eta behelaino umela tantaka jausten zen arboletatik euria bezala, eta hostoak, bata bestearen ondoren, denak erortzen ari ziren, eta elorri beltzak bakarrik zuen fruitua, baina mingotsa eta hozkia ematen duena. Oi, bai grisa eta tristea zela mundu zabalak!

## **LAUGARREN ISTORIA**

*Printzea eta printzesa*

Gerdak atsedean hartu behar izan zuen berriro. Bele beltz batek jauzi egin zuen elur gainera, Gerdaren aurre-aurrera. Hantxe pausaturik egon zen denbora luzez, Gerdari begira eta buruari eragiten. Halako batean, esan zion:

— Kra-kra! Eunon! Eunon!

Ez zekien hobeto esaten, baina atsegin zitzaion neskatileta eta galdetu zion ea nolatan zihoan bakar-bakarrik mundu zabalean zehar.

Gerdak «bakarrik» hitza aditu zion, eta berehala ulertu zuen horrek esan nahi zuen guztia. Gerdak bere bizitza osoko abenturak kontatu zizkion beleari, eta Kay ikusi ote zuen ere galdetu zion.

Eta beleak, pentsati, buruari eragin eta esan zion:

— Baliteke! Baliteke!

— Zer?! Ziur al zaude? —egin zuen deiadar neskatilak, eta beleari eman zion besarkadarekin, ia itotzen du.

— Astiro, astiro! —esan zuen beleak—. Kay txikia dela esango nuke! Printzesa ezagutu eta ahaztu egingo zintuen, jakina!

— Printzesa batekin bizi al da? —galdetu zion Gerdak.

— Bai, entzun ondo —esan zuen beleak—. Baina izugarri kostatzen zait zure hizkuntza mintzatzea. Bele-elea ulertuko bazenu, askoz ere hobeto kontatuko nizuke.

— Ezin, ez dut ikasi eta —esan zuen Gerdak—, baina amonak badaki, baita Ahuntz-erdara ere. Nahiago nuke nik ere baneki.

— Ez dio axola —esan zion beleak—; ahal dudan moduan kontatuko dizut, gaizki samar, alegia.

Eta, halaxe, zekien guztia kontatu zion:

— Erreinu honetan bada printzesa bat, oso, baina oso, bizkorra; munduko egunkari guztiak leitu ezezik, guztiak ahaztu ere egiten ditu, hain da azkarra. Behin batean, tronuan eserita zegoela, eta ez pentsa jende guztiak uste duen bezain gauza atsegina denik hori, kantuan hasi zen ahopetik: «zergatik ez naiz ezkontzen, zergatik?».

«— Ez da burutazio txarra, alajaina! —esan zuen printzesak berekiko, eta ezkontzea erabaki zuen, baina hitz egiten zitzaionean erantzuna ematen jakingo zuen gizon batekin behar zuen izan, ez soilik itxura ederra izango zuen batekin, hori benetan aspergarria izango zen eta. Orduan, gorteko dama guztiei dei egin zien, eta damak, haren asmoa zein zen jakin zutenean, pozarren jarri ziren.»

«— Hau poza! —esan zuten damek—. Horixe bera aritu nintzen pentsatzen neu ere orain hurrena!»

— Sinetsidazu, egia hutsa diotsut —esan zion beleak Gerdari—. Emaztegaia dut. Ongi hezia dago eta jauregian aske ibiltzen uzten diote; harexek esan dit dena!

Jakina, haren emaztegaia bele bat zen; izan ere, bele batek emaztea bilatzen duenean beti bilatu ohi du bele eme bat.

«Berehala argitaratu zituzten egunkariak, bihotz-zerrenda batez apaindurik ertzak eta printzesaren inzialekin, jakinarazteko itxura oneko edozein mutil joan zitekeela jauregira printzesa-ekin hitz egitera; etxean balitz bezala patxadaz hitz egin eta ongien mintzatuko zen huraxe hautatuko zuela printzesak senartzat.»

— Bai, bai! —esan zuen beleak—. Sinetsidazu, egia da eta, ni hementxe nagoela bezain egia.

«Tropolean joan omen ziren mutilak, eta, zein lehenago iritsiko, bultzaka eta arrapataka ibili baziren ere, ez zen zorterik izan ez lehen egunean ez bigarrenean. Gazteak gauza ziren primeran mintzatzeko kalean zeudenean, baina jauregiko atea pasa eta ikusi orduko hango zilar-koloreko uniformedun goardiak, eta eskailbu-

ruan urre-kolorez jantzitako lekaioak, eta areto handi argitsu ederrak, sorgoturik geratzen omen ziren, harri bihurturik, printzesa eserita zegoen tronuaren aurrean. Zer esan ez zekitela gelditzen ziren, printzesak esandako azken hitza errepikatzeko ez bazen, eta hori ez zitzaion bate-re gustatzen hari, batere ez, baina. Ematen zuen mutilek tabako-hauts lelagarri bat hartu zutela eta lozorroan egoten zirela, harik eta kalera irten eta beren onera etorrita mintzamina itzultzen zitzaien arte. Ilara luze bat zegoen hiriko atetik hasi eta jauregiraino.»

— Neuk ikusia! —esan zuen beleak.

«Goseak eta egarriak zeuden, baina jauregitik ez zuten lortu ezta basoerdi ur epel bat ere. Bizkorrenek ogitartekoak eraman zituzten, baina ez zituzten ondokoekin banatu.»

«— Gosetu-itxuran agertzen badira printzesaren aurrera, hark ez ditu aukeratuko! —esaten zuten berekiko.»

— Baina Kay, Kay txikia? —galdetu zion Gerdak—. Noiz etorri zen? Jendetza horren artean al zen hura ere?



— Itxaron apur bat, itxaron apur bat, oraintxe dator harena eta!

«Hirugarren egunean gaztetxo bat agertu zen, zaldirik eta zalgurdirik gabe, baina bipil eta alegera hartu zuen jauregirako bidea. Haren begiek zureek bezalaxe egiten zuten dir-dir, eta adats luze zoragarria zuen, baina arropa umil-umilak.»

— Bai, hori Kay zen! —egin zuen deiadar Gerdak pozaren pozez aztoraturik—. Oi, ama, azkenean aurkitu dut! —eta txaloka hasi zen.

— Motxila txiki bat zeraman bizkarrean —esan zuen beleak.

— Ez, segur aski lera izango zen —erantzun zuen Gerdak—, berekin baitzeraman desagertu zenean!

— Baliteke —esan zuen beleak—, ez nion arretaz begiratu, baina nire emaztegai heziak esandakoagatik dakit jauregiko ateraino iritsi zela eta ikusi zituela zilar-koloreko uniformedun goardiak eta eskailburuan urre-kolorez jantziriko lekaioak, eta ez omen zen izutu batere; buru-keinu bat eginez agurtu eta esan omen zien:

«— Aspergarria izan behar du eskaileretan geratzeak; nahiago dut barrura joan!»

«Areto handi haiek dirdai egiten zuten kriseilu ugariren argitan. Isilpeko aholkulariak eta jaun txit prestuak ortozik zebiltzan, urrezko erretiluak zeramatzatela batetik bestera. Konturatuko zinenez, hangoa ez zen txantxetakoa! Mutilaren botek karraska-hots negargarria ateratzen zuten, baina bera ez zen, horratik, larritu.»

— Kay zen, ziur! —esan zuen Gerdak—. Gogoan dut bota berriak jantzi zituela egun hartan, eta amonaren gelan karraska-hotsa egiten ziotela!

— Karraska-hotsa egiten zuten, bai, eta nola, gainera! —esan zuen beleak.

«Hala ere, patxadarik handienaz, izukaitz, printzesaren aurrera joan zen. Printzesa errotrariaren neurriko perla handi batean eserita zegoen. Mutil gizajoa! Gorteko dama guztiak, beren ganbarazainekin eta ganbarazainen ganbarazainekin, eta zaldun guztiak, beren otseinekin eta otseinen otseinekin, eta hauek ere zein bere morroiarekin, den-denak printzesaren inguruan zeuden. Eta zenbat eta atetik gertuago egon,

orduan eta tenteago gainera. Otseinen otseinen morroiari, beti txapinetan dabilen horri, ezin zitzaion begiratu ere egin; pentsa zein harro zegoen atean!»

— Izugarria izango zen! —esan zuen Gerda txikiak—. Baina lortu al zuen Kayk printzesaren eskua?

— Belea naizelako, niretzat izango zen bestela, eta hori beste bati hitza emanda nagoelarik. Ni bele-elean aritzen naizenean bezain ondo mintzatu omen zen; hala esan zuen nire emaztegai heziak. Mutil ausarta eta atsegina omen da. Eta ez omen zen printzesaren eskua lortzeko asmoz etorri, haren buru-argitasuna ezagutzera baizik. Eta asko gustatu zitzaion printzesa, printzesari bera adina gustatu ere.

— Bai, ziur-ziur, Kay zen! —esan zuen Gerdak—. Oso argia da; pentsa, zatikiak ere buruz dakizki! Zer, ez nauzu jauregi barrura eraman behar, ala?

— Errazagoa da esaten! —esan zuen beleak—. Baina nola sartu? Nire emaztegai heziarekin hitz egingo dut; hark emango digu

aholku. Baina jakin behar duzu han ez diotela sekula sartzen utziko zu bezalako neskatila bati.

— Sartuko naiz, bai horixe! —esan zuen Gerdak—. Kayk hemen nagoela jakiten duenean, nire bila etorriko da berehala.

— Itxaroidazu langa haren ondoan! —esan zion beleak. Eta jiratu zuen burua eta hegan joan zen.

Gautzen ari zuenean itzuli zen belea.

— Kra-kra! —esan zuen—. Goraintziak nire emaztegaiaren partetik! Eta hona hemen ogi-opiltxo bat zuretzat; sukaldetik hartu du, han soberan ere izaten da, eta zu gosez zaude segur aski. Ezinezkoa da zu jauregian sartzea, badakizu: ortozik zaude. Goardia zilarreztatuek eta lekaio urreztatuek ez lizukete utziko. Baina ez egin negarrik, nola edo hala sartuko zara eta. Nire emaztegaiak ezkutuko eskailera estu bat ezagutzen du, logelaraino doana, eta badaki hango giltza ere nola lortu.

Eta lorategian sartu ziren, etorbide nagusian, han non hostoak banan-banan erortzen ari ziren. Eta jauregiko argiak banaka-banaka itzali zire-

nean, beleak jauregi ostera eraman zuen Gerda, erdi zabalik zegoen ate bateraino.

Ene, nola egiten zuen tunpaka Gerdaren bihotzak, egonezinak eta gogoak astindurik! Ematen zuen zerbait txarra egitera zihoala, baina haren asmo bakarra mutil hura Kay ote zen jakitea zen. Bai, Kay behar zuen izan. Harengan pentsatu zuen, haren begi jakinduriz betet-  
tan, haren adats luzean; begien aurrean balu bezala ikus zezakeen haren irribarrea, etxeko arrosen azpian esertzen zirenean bezala. Kay ere poztuko zen, bai, bera ikustean, eta entzutean beragatik egina zuen bidaia luzea, eta jakitean zein triste geratu ziren etxeko guztiak bera itzultzen ez zela ikustean. Ene, hura egonezina eta poza!

Eskailerara iritsi ziren orduan; han, apal batean, kriseilu txiki bat zegoen piztuta. Eta zoruan bele hezia zegoen, buruari alde batera eta bestera eragiten eta Gerdari begira. Eta Gerdak burua makurtu zuen, amonak erakutsi bezala.

— Senargaiak oso ongi hitz egin dit zuri buruz, andereño —esan zuen bele heziak—, zure

*curriculum vitæ*, esaten den bezala, zirraragarria da; zinez! Har ezazu, arren, kriseilua eta aurretik joango natzaizu. Zuzen-zuzen joango gara, inorekin topo egin gabe.

— Norbait datorrela iruditzen zait! —esan zuen Gerdak. Izan ere, zurrumurru-moduko bat sumatu zuen bere ondotik igarotzen, eta itzal batzuk hormetan. Han zihoazen zaldi txankameheak, kima haizetan izurturik; eta haien gainean, zamalka, ehiza-mutilak, zaldunak eta damak.

— Ametsak baino ez dira! —esan zuen bele emeak—. Jaun-andereen pentsamenduak harra-patzera datoz. Aukera aparta, inondik ere, suertatu zaizuna; hartara, oso eroso ikusiko baitituzu pentsamenduok, jaun-andereak ohean daudela. Baina espero dut egunen batean ohorea eta loria iristen badituzu, jakingo duzula zure esker ona erakusten!

— Zertara dator hori orain? —esan zuen basoko beleak.

Eta lehenengo gelan sartu ziren. Hormetatik zintzilik arrosa koloreko saten-oihalak zeuden, lore bordatuez apainduak. Ametsak beren aurre-

tik igaro ziren berriro, baina oso bizkor igaro ziren, eta Gerdak ezin izan zuen ezer garbi ikusi. Gelak zein baino zein dotoreagoak ziren, edonor ahozabalik uzteko modukoak. Eta, azkenik, logelara iritsi ziren. Sabaiak palmondo handi bat zirudien, oso kristal fineko hostoak zituena; eta gelaren erdian, urrezko zurtoin antzeko batetik dilindan, liliak ziruditen bi ohe zeuden. Bat zuria zen eta han printzesa zegoen lo. Bestea gorria zen, eta hantxe bilatu behar zuen Gerdak Kay! Lore gorriaren hosto bat alderatu zuen eskuaz, eta garondo beltzaran bat ikusi zuen. Bai, Kay zen! Bere izenez deitu eta kriseilua hurreratu zion. Ametsek, zaldi gainean xuxurla, alde egin zuten burrunbaka. Orduan mutila esnatu egin zen, burua jiratu zuen eta... ez zen Kay.

Printzeak garondoan baino ez zuen haren antzik; gaztea eta lerdena zen, hala ere. Printzesak kirika egin zuen lili zuri antzeko ohe ertzetik, eta zer gertatzen zen galdetu zuen. Orduan Gerda txikia negarrez hasi zen, eta historia osoa kontatu zuen, eta nola beleek lagundu zioten.

— Neskato gajoa! —esan zuten printzeak eta printzesak, eta beleek egindakoari ederretsi zio-

ten, eta esan zieten ez zeudela, inolaz ere, haiek egindakoagatik haserre, baina ez zutela berriro horrelakorik egin behar. Nolanahi ere, saria eman zieten.

— Zer nahiago duzue —galdetu zien printzesak—, libre geratu ala behin betiko lana ganbarabele gisa, sukaldeko hondarren truke?

Eta bele biek gur egin zioten eta behin betiko lanpostua hautatu zuten, zahartzaroan pentsatuta.

— Ona izaten da agurearentzako zerbait gordetzea —esan zuten, halaxe deitzen baitzieten zahartzaroari.

Eta printzea ohetik jaiki zen, Gerdak bertan lo egin zezan, beste ezer ezin baitzuen harengatik egin. Gerdak eskutxoak elkartu eta pentsatu zuen:

— Zein onak diren gizakiak eta animaliak! — eta, halaxe, begiak itxi eta ondo baino hobeto egin zuen lo. Amets guztiak hegan itzuli ziren. Oraingoan Jainkoaren aingeruen antza zuten; lera txiki bati tiraka zetozen, eta leran eserita Kay, buruaz agur eginez. Baina amets hutsa izan zen, Gerda esnatzean desegin egin zena.



Biharamunean sedazeta belusez jantzi zuten Gerda, burutik hasi eta oinetaraino. Jauregian geratzea eskaini zioten; han ondo pasatuko zuela. Baina berak erantzun zien zalgurdi txiki bat eta bota pare bat besterik ez zuela behar Kayren bila joateko mundu zabalean zehar.

Eta botak eta esku-berogarri bat eman zizkionten. Zoragarri polit jantzita geratu zen, eta alde egiteko ateraino joan zenean, han, ate aurrean, urre gorrizko zalgurdi berri bat zuen zain. Printze-printzesen armek dizdiz egiten zuten zalgurdiaren atean, izarrak bailiran. Gidaria, lekaioak, eta postiloiak, —postiloiak ere bai baitziren—, hantxe zeuden urrezko koroa bana jantzita. Printzeak eta printzesak berek lagundu zioten Gerdari zalgurdira igotzen eta zortetik onena opatu zioten. Basoko beleak —ordurako ezkondua— konpainia egin zion lehen hiru legoatan. Gerdaren aldamenen eseri zen, zaldiei bizkarra ez ematearren. Beste belea atarian geratu zen, hegalak astinduz; ezin izan zen besteekin joan, buruko minez egoten zelako behin-betiko lana eta jakiak soberan zituenetik. Zalgurdiaren barrua azukre-erroskilaz beterik zegoen, eta

eserlekuaren kutxan frutak eta jengibrezko opil-  
txoak zeuden.

— Adio! Adio! —egin zioten deiadar printze-  
printzesek, eta Gerda txikiak negar egin zuen,  
eta bele beltzak negar egin zuen. Halaxe egin  
zituzten lehen legoak; orduan, beleak ere agur  
esan zion eta oso agur tristea izan zen, triste-  
triste. Arbola baten gainera egin zuen hegan  
eta hego beltz luzeak astindu zituen, zalgurdia,  
eguzki-errainua bezain distiratsu, bistatik galdu  
zuen arte.

## **BOSGARREN ISTORIA**

### *Neskato bidelapurra*

Baso ospelean zehar zihoazen. Zalgurdiak  
zuzi baten moduan egiten zuen argi eta bidela-  
purrak itsutzen zituen bere distiraz, eta hori  
larregi izan zen haientzat.

— Urrea! Urrea! —egin zuten garrasi, eta zal-  
gurdiaren gainera joan eta eraso egin zioten.  
Zaldia gerarazi, postiloiak, gidaria eta lekaioak  
hil eta zalgurditik atera zuten Gerda txikia.

— Bai potolotxo eta ederra dagoela; intxaurrez haziko zuten! —esan zuen atso bidelapurrak. Atsoak bizar luze sarri bat zuen eta bekainak begien gainera eroriak—. Bildots gizendu bat bezain guria dago! Gozoa egon behar du honek nahitaez! —eta hori esanez bat, aitzo zorrotz bat atera zuen zorrotik eta aitzoak dirdai lazgarri bat egin zuen.

— Ai! —egin zuen atsoak une horretan bertan, bizkar ganean zeraman alabatxoak belarrian haginka egin baitzion; neskatoa halakoxea zen eta, inon den ume basati eta lotsagabeena.

— Ume zapoa! —esan zuen amak, baina kontua da ezin izan zuela Gerda hil.

— Nirekin jolastuko da! —esan zuen neskato bidelapurrak—. Esku-berogarria emango dit, eta soineko eder hori, eta nire ohean egingo du lo! —eta haginka egin zion berriro amari, eta atsoak jauzi eta txilinbuelta egin zuen airean, eta bidelapur guztiek, barre batean, esan zuten:

— Hara nola egiten duen dantza bere txikiarekin!

— Zalgurdian joan nahi dut! —esan zuen neskato bidelapurrak, eta, ohi zuen legez, gogoak

eman ziona egin zuen, gaizki ohitutako umea baitzen eta burugogorra.

Gerdarekin zalgurdian eseri eta, sasi eta arantza artetik, baso barrenera joan ziren. Bidelapurtxoa Gerda bezain garaia zen, baina indartsuagoa; bizkargainak sendoagoak zituen eta azala ilunagoa; eta haren begi ikatza bezain beltzek bazuten halako aire triste bat. Gerdari beso bat gerritik pasa eta esan zion:

— Ez zaituzte hilko, zurekin haserretzen ez naizen bitartean behintzat! Benetako printzesa al zara?

— Ez —esan zuen Gerda txikiak, eta gertatu zitzaion guztia kontatu zion, eta baita Kay txikia zenbat maite zuen ere.

Bidelapurtxoak aurpegi serioz begiratu zion; buruaz imintzio arin bat egin eta esan zuen:

— Ez zaituzte hilko haserrarazten banauzu ere; hori gertatuko balitz, neronek hilko zintuzket eta! —eta Gerdaren malkoak sikatu eta eskuak haren esku-berogarri leun epelean sartu zituen.

Halako batean zalgurdia gelditu egin zen; lapur-gaztelu baten atariaren erdian zeuden.

Gazteluaren hormak goitik beheraino arrakalaturik zeuden. Belabeltzak eta erroiak hegan zebiltzan arrakaletan sartu-irtenean, eta bi zakurtzar, gizon bat osorik irensteko adinakoak, jauzika. Jauzi itzelak ematen zituzten, baina zaunkarik ez zuten egiten, debekaturik zuten eta.

Gela handi zahar kedartsu batean, su handi bat zegoen harrizko zoruaren gainean. Kea sabairantz igotzen zen eta han zebilen, jira eta bira, irteera bila. Galdara eskerga batean salda ari zen egosten, eta burduntzian erbiak eta untxiak erretzen.

— Gaur nirekin eta nire aberetxoekin egingo duzu lo! —esan zuen neskato lapurrak.

Zerbait jan eta edan ondoren, bazter batera joan ziren. Lastairak eta ohe-estalkiak zabaldurik zeuden han. Goian, kotetan eta hagetan pausatuturik, baziren ehundik gora uso, eta denak lotan zeudela zirudien arren, zertxobait higitu egin ziren neskatilak agertu zirenean.

— Nireak dira; den-denak! —esan zuen lapurtxikiak, eta gertuen zuenetako bat hartu, hanke-tatik oratu eta astindu egin zuen, eta usoak hegoei eragin zien.

— Emaiozu musu! —egin zuen garrasi, eta usoarekin, zapla, aurpegian eman zion Gerdari.

— Hemen basoko alprojak! —jarraitu zuen, murruren garaieneko zulo batean zegoen barrote ilara bat seinalatuz—. Basoko alproja hutsak dira bi-biak! Aske utzi orduko ihes egingo lidakete; eta hona hemen nire Be zahar maitea! —eta adarretatik oratu zion elur-orein bati. Elur-oreina lotuta zegoen, eta lepo-bueltan kobrezko uztai bat zuen—. Hau ere lotuta eduki beharra daukagu, ospa egiten du bestela. Gauero-gauero kili-kili egiten diot lepoan nire aizto zorrotzaren puntaz! Sekulako beldurra dio!

Eta neskatoak aizto luze bat hartu zuen hormako arrakala batetik eta elur-oreinari pasatu zion lepo inguruan. Animalia gaixoa marruka eta putinka hasi zen, eta neskato lapurrak, algara batean, Gerda hartu eta ohera eraman zuen bul-tzaka.

— Lo ere aiztoarekin egiten al duzu? —galde-tu zion Gerdak, artega samar.

— Aiztoarekin joaten naiz lotara beti! —esan zuen lapur txikiak—. Sekula ezin da jakin zer ger-tatuko den. Baina orain kontaidazu berriro Kay

txikiari buruz lehen kontatu didazuna eta zergatik irten zinen mundu zabalera.

Eta Gerdak hasieratik kontatu zion dena berriro, eta basoko usoek urrumaka ziharduten, neskati len gainean zegoen kaiolan, eta beste usoak, berriz, lo zeuden. Bidelapur txikiak lepote pasatu zion besoa Gerdari, eta, beste eskuan aiztoa zuela, berehala hasi zen zurrungaka. Baina Gerdak ezin zuen begirik bildu, ez zekien bizirik ala hilik irtengo ote zen handik. Bidelapurrak suaren inguruan eserita zeuden, kantari eta zurrutean, eta atso lapurra txilinbueltaka ari zen. Ene, hura beldurra! Begiratze hutsak ere beldurra ematen zion Gerdari.

Orduan basoko usoek esan zuten:

— Urru! Urru! Kay txikia ikusi dugu. Oilo zuri batek zeraman haren lera, eta Kay elurretako erreginaren leran eserita zihoan. Airean zihoazen, behe samarretik; gu basoan habian geundela, arbolen gainetik pasatu ziren. Erreginak kume guztioi putz egin zigun, eta gu ez beste guztiak hil egin ziren. Urru! Urru!

— Zer esaten ari zarete hor goian? —egin zuen garrasi Gerdak—. Nora joan da elurretako erregina? Ba al dakizue nora joan den?

— Segur aski Laponiara, han beti baita elurra eta izotza! Galdeiozu hor behean loturik dagoen elur-oreinari.

— Han bada, bai, izotza eta elurra! Paraje ezin hobea, inondik ere! —esan zuen elur-oreinak—. Hango zabaldi elurtuetan bada aske eta libre korrika egiteko aukera! Hantxe dauka elurretako erreginak udako kanpa-denda, baina jau-regia urrunago dago, Ipar Polo aldean, Spitsberg deituriko irlan.

— Ene, Kay, nire Kay maitea! —egin zuen hasperen Gerdak.

— Geldi egon! —esan zuen neskato lapurrak—. Bestela aiztoa sartuko dizut sabelean!

Biharamun goizean, Gerdak usoek esandako guztia kontatu zion bidelapurtxoari, eta neskattoa oso serio geratu zen, baina buruaz baiezkoa egin eta esan zion:

— Berdin dio, berdin dio!

— Ba al dakizu non dagoen Laponia? —galde-tu zion elur-oreinari.



— Nork nik baino hobeto? —erantzun zuen abereak, begiak bris-bris—. Han jaio nintzen, han hazi, eta han egiten nuen jauzi alor elurtuetan.

— Entzun! —esan zion neskatoak Gerdari—. Ikusten duzun moduan, gure gizon guztiek alde egin dute. Ama, ordea, hemen dago oraindik, eta geroago ere bai, baina eguerdi aldera, botila handitik edaten duenean, lo-kuluska bat egin ohi du. Orduan egingo dut zerbait zure alde.

Eta ohetik jauzi egin, amaren lepotik zintzilik jarri eta bizarretik tiraka esan zion:

— Egun on, ahuntz maitea!

Eta amak sekulako zaplatekoa eman zion masailan, eta masaila urdindu eta gorritu egin zitzaion neskatoari, baina maitasunezko adierazpen bat baino ez zen izan.

Ama, botilatik edan ondoren biaoa egitera joan zenean, neskato bidelapurra elur-oreina zegoen tokira joan zen, eta honela esan zion abereari:

— Oso gustura segituko nuke zuri lepoan aitzoaz kilimak egiten, benetan barregarri jartzen baitzara, baina berdin dio, soka askatu eta jaregingo dizut, Laponiara joan zaitezten, baina arin

baino arinago ibili behar duzu, neskatila hau elurretako erreginaren jauregira eramateko, hantxe baitago bere jolaslaguna. Egingo nuke badakizula zer esan zidan Gerdak, ozen samar hitz egin baitzuen, eta zu beti izan zara belarri-luzea.

Elur-oreinak, poz-pozik, jauzi-putinkak egin zituen. Neskato lapurrak haren gainera igotzen lagundu zion Gerdari, eta arreta handiz lotu, eta, gainera, kuxin txiki bat eman zion eroso joan zedin.

— Beno, tira —esan zuen—, hartu zeure larruzko botak berriro, hotz egingo du eta, baina zure esku-berogarria niretzat. Oso polita da eta ez dut hori gabe geratu nahi! Baina lasai, ez zara hotzak hilko. Tori nire amaren mitoi handiak, ukalondoraino iritsiko zaizkizu. Jantzi itzazu! Orain nire amaren esku zatarrak dituzula ematen du!

Eta Gerdak negar egin zuen pozaren pozez.

— Ez ezazu mainarik egin! —esan zion bide-lapurtxoak—. Pozez zorutzen egon behar zenuke! Eta hemen dituzu bi opil, eta urdaiazpiko bat, goserik ez pasatzeko.

Gauza horiek ere elur-oreinaren bizkar gainean lotu zituzten. Lapur txikiak atea zabaldu, zakur itzel haiek barrura eramane eta elur-oreina lotuta zegoen soka ebaki zuen aiztoaz. Honela esan zion gero elur-oreinari:

— Hasi korrika! Baina zaindu ondo neskatila!

Eta Gerdak mitoi handiez estaliriko eskuak luzatu eta agur egin zion neskato lapurrari. Eta elur-oreina arrapalada bizian joan zen arantza eta sasi guztien gainetik, oihan handietan barna, zingira eta ordokietan zehar, ahal zuen azkarren. Otsoak uluka ari ziren, eta erroiak krazka. «Atxu! Atxu!», egin zuen zeruak, gorri-gorri, doministikuka ari balitz bezala.

— Nire aspaldiko egunsenti boreal maitea! — esan zuen elur-oreinak—. Soizu! Hori dirdira!

Eta han joan zen, are azkarrago, gau eta egun lasterka. Ogi-opilak jan zituzten, eta baita urdaiazpikoa ere, eta Laponiara iritsi ziren.

# SEIGARREN ISTORIOA

## *Laponiako emakumea eta Finlandiako emakumea*

Etxetxo baten ondoan geratu ziren. Oso etxe pobrea zen. Teilatua lurreraino iristen zen eta familiak arrastaka sartu eta irten behar izaten zuen, hain zen baxua atea. Barruan emakume laponiar zahar bat zegoen bakarrik, olio-lanpara gainean arraina frijitzen. Elur-oreinak Gerdaren historia osoa kontatu zion, baina lehen-lehenik berea, askoz ere garrantzitsuagoa iruditzen zitzaiolako. Gerdak ezin zuen hitzik ere egin, hain zegoen hozmindurik!

— Ai, gaixoak zuek! —esan zien Laponiako emakumeak—. Bide luzea duzue oraindik! Ehun legoa baino gehiago egin beharko duzue Finlandiara iristeko, hango lurretan baitabil elurretako erregina, gauero su urdinak isiotzen. Pare bat hitz idatziko diot bakailao idortu batean, paperik ez dut eta. Zeuok eramango diozue emakume finlandiarrari, hark nik baino aholku hobeak emangodizkizue eta.

Gerda berotu zenean eta zerbait jan eta edan zuenean, Laponiako emakumeak bakailao idortu batean lerro pare bat idatzi eta Gerdari eman zion, ondo gordetzeko esanez. Eta elur-oreinaren bizkar gainean lotu zuen neska, eta elur-oreinak jauzi egin eta arrapaladari ekin zion. «Atxu! Atxu!», entzuten zen goian, eta gau luze hartan egunsenti boreal urdin paregabea ikusi zen, distirant. Eta halako batean Finlandiara iritsi ziren, eta emakume finlandiarraren tximinian jo zuten, aterik ez zuen eta.

Barruan izugarrizko beroa egiten zuen eta Finlandiako emakumea ia biluzik zebilen. Txikia zen, eta ugerdoa. Berehala erantzi zizkion arropak Gerda txikiari. Mitoiak eta botak hartu zizkion, bero larregi izango baitzuen osterantzean. Gero izotz-pusketa bat jarri zion elur-oreinari buruan, eta azkenik, bakailaoan idatzitakoa leitu zuen. Hiru bider leitu zuen idatzia, eta buruz ikasi zuenean, pote batean sartu zuen bakailaoa, jatekoa nola zen, emakume hark ez baitzuen inoiz ezer alferrik galtzen.

Emakume hari ere bere historia kontatu zion lehen-lehenik elur-oreinak, eta gero Gerda txi-

kiarena, eta Finlandiako emakumeak bere begi adimenez beteak kliskatu zituen, baina ez zuen deus ere esan.

— Emakume bizkorra zara —esan zion elur-oreinak—, badakit munduko haize guztiak sedazko hari batez lotzeko ahalmena duzula. Itsasontzi-kapitain batek korapiloetako bat askatzen badu, aldeko haizea izango du; bigarren bat askatzen badu, haizea zakartu egingo da; eta hirugarrena eta laugarrena askatzen baditu, basoak ere erauziko lituzkeen haize bortitza harrotuko da. Ez al diozu emango neskatilari edabe bat, hamaika gizonen indarra eman eta elurretako erregina gailentzen lagunduko diona?

— Hamaika gizonen indarra —esan zuen finlandiarrak—. Bai, horrekin aski izango da!

Eta emakumea apalategi bateraino joan zen; handik larru handi bildu bat hartu eta zabaldu egin zuen. Ikur arraroak zeuden idatzirik larruan, eta emakume finlandiarra haiek leitzen aritu zen, bekokitik izerdia zeriola.

Baina elur-oreina Gerda txikiaren alde erre-guka hasi zitzaion berriro; Gerdak halako begirada errukarriz begiratzen zion, eta emakume fin-

landiarra keinuka hasi zen berriro. Elur-oreina bazter batera eramán eta izotz gehiago jarri zion buruan, eta honela xuxurlatu zion:

— Egia da. Kay txikia elurretako erreginarekin dago, eta bikaina iruditzen zaio hango guztia, eta munduko lekurik hoberena irizten dio hari, baina hori bihotzean kristalezko printza bat eta begi batean kristal-hauts aletxo bat duelako da. Horiek biak atera behar zaizkio aurrena, hori egin ezean ez baita berriro gizakia izango eta elurretako erreginaren mende segituko baitu.

— Ez al daukazu Gerda txikiari hori guztia gainditzeko ahalmena emango dion zerbait?

— Ezin diot eman daukana baino ahalmen handiagorik! Ez al duzu ikusten zein handia den? Ez al duzu ikusten gizakiek eta animaliek kasu egiten diotela? Nola iritsi da, bestela, ortozik, munduaren amaieraraino? Ez diogu guk esan behar zenbaterainoko ahalmena duen; bihotzean du eta. Ahalmen indartsu hori haur xalo eta onbera izateak ematen dio. Bere kasa elurretako erreginarengana joan eta Kay txikiari kristalak kentzeko gauza ez bada, guk ezin diogu lagundu. Hemendik bi legoara hasten da elurre-

tako erreginaren baratzea; eramán ezazu haurra haraino. Utz ezazu elurretan, baia gorridun zuhaixkaren ondoan. Eta itzul zaitez lehenbailehen, berriketan geratu gabe!

Eta Finlandiako emakumeak elur-oreinaren gainean jarri zuen Gerda txikia, eta elur-oreina ahal zuen azkarren joan zen lasterka.

— Ene, botarik gabe nago eta! Ez dut mitoirik ere! —egin zuen garrasi Gerda txikiak.

Kanpoan egiten zuen hotz zorrotzogatik ohar-tu zen falta zituela, baina elur-oreina ez zen ausartu gelditzen, eta baia gorridun zuhaixkaraino segitu zuen lasterka bizian. Hantxe utzi zuen Gerda, eta patxo bat eman zion ahoan, eta malko lodi distiratsuak irristatu zitzaizkion elur-oreinari masailan behera. Buelta hartu eta ahal zuen azkarren itzuli zen. Han geratu zen Gerda gajoa, oinetakorik gabe, eskularrurik gabe, Finlandiako paraje izoztu hartan.

Gerda gorputz eta arima hasi zen antxitxiketan. Eta orduan elur-maluta saldo bat hurbildu zitzaion. Malutak ziren, baina ez zetozen zerutik, zerua oskarbi baitzegoen, egunsenti borealaren argitan dizdiz. Elur-maluta haiek lur arrasean



zetozen, eta zenbat eta gertuago, orduan eta handiagoak ziruditen. Gerdak ondo gogoan zuen luparen laguntzaz begiratu zien hartan zein handi eta eder ikusi zituen! Baina oraingo hauen handitasuna lazgarria zen, maluta haiek bizirik baitzeuden: elurretako erreginaren aitzintaldeko soldaduak ziren. Arraroetan arraroenak ziren itxurari dagokionez: zenbaitzuek kirikiño esker-ga beldurgarriak ziruditen; bestetzuek sugetzar korapilatuak, lepoak luzatuta, eta beste batzuek hartz txiki lodikoteak, ileak laztuta; baina denak elur-maluta zuri-zuri biziak ziren.

Gerda txikia Aitagurea esaten hasi zen. Hura zen hotzaren handia! Gerdak bere hatsa ikusten zuen, nola izozten zen ahotik irten orduko, lurrin-zutabe bat bailitzan. Hats-zirimola hura, gero eta lodiagoa egiten zen, eta ezin konta ahalako aingerutxo distirant bilakatzen; eta gero, aingeru txiki haiek lurra ukitu bezain agudo, handitu egiten ziren. Kasko bana zuten buruan denek, eta lantza eta ezkutua eskuetan. Gero eta aingeru gehiago zetorren, gero eta gehiago, eta Gerdak Aitagurea amaitu zuenerako, legio oso bat zuen inguruan. Astindu ederra eman zieten maluta

beldurgarri haiei! Beren lantzez zulatu eta ehundaka puska txikitan desegin zituzten. Eta Gerda txikia bidean jarri zen berriro, askoz ere lasaiago eta bipilago. Aingeruek txapladatxoak eman zizkioten eskuetan eta oinetan eta horri esker ez zuen horrenbesteko hotza sentitzen, eta, bizkor-bizkor, elurretako erreginaren jauregirantz abiatu zen.

Baina ikus dezagun zer gertatu zen Kayrekin, beste ezer baino lehen. Jakina, Kayk ez zuen Gerda txikiarengan pentsatzen, eta are gutxiago hura jauregiko ateetan egon zitekeenik.

## **ZAZPIGARREN ISTORIA**

### *Elurretako erreginaren jauregian gertatu zena eta gerokoak*

Jauregiko hormak elur-pikorrez eginak ziren, eta ate-leihoak haize zorrotzez. Ehundik gora areto zuen jauregiak, elur-zirimolek eratuak denak. Handienak legoa batzuetako luzera zuen. Egunsenti borealak argitzen zituen denak, eta oso handiak ziren, huts-hutsak, hotz-hotzak eta

distira bizikoak. Han ez zen inoiz jai-girorik izaten, ezta hartz-dantza bakar bat ere, ekaitzak musika jo eta hartz zuriek, atzeko hanken gainean jarririk, beren manera onak erakutsi ahal izateko modukorik. Ez zen inoiz joko-saiorik, aho-keinuka eta txaloka aritzekorik; behin ere ez azeri zuri andereñoen kafe-orduko solasaldirik. Hutsak, handiak eta hotzak ziren elurretako erreginaren gelak. Egunsenti borealak beti berdin gertatu ohi ziren, eta aldez aurretik jakin zitekeen, zehatz-mehatz jakin ere, noiz izango zen argiaren unerik gorena eta noiz apalena. Elur hutsezko areto eskergaren erdian aintzira izoztu bat zegoen. Azaleko izotza mila puskatan zegoen zartatuta, baina puska guztiak berdin-berdinak ziren: artelan ikusgarria osatzen zuten. Eta aintzira erdian elurretako erregina esertzen zen, etxean izaten zenean, behinik behin, eta esaten zuen arrazoiaren ispiluaren gainean esertzen zela, eta hura zela mundu osoan bakarra eta onena noski.

Kay txikia hotzak erabat ubelduta zegoen, ia beltz, baina ez zuen nabaritu ere egiten, erreginak musu eman zionean hozkirria kendu bai-

tzion, eta Kayk izotz-puska baten pareko bihurturik zuen bihotza. Han zebilen izotz-zati zorrotz zapalak hartu eta era guztietan jartzen, zeregin hartatik emaitza jakin bat lortu nahian, gu, txinatar jokoan, zurezko pieza txikiekin irudiak osatzen ari garenean bezala. Kayk ere irudiak osatzen zituen, baina oso irudi zailak, arrazoiaren joko hotza baitzen. Kayren begietarako, irudi haiek ezin ederragoak ziren eta berebiziko garrantzia zuten. Begian sartu zitzaion kristal-printzagatik zen hori! Kayk osatzen zituen irudiak hitz idatziak ziren, baina behin ere ez zuen lortu nahi zuen hitzaosatzea, *Betikotasuna* hitza hain zuzen. Eta esana zion elurretako erreginak:

— Irudi hori osatzen badidazu, zeure buruaren jabe izango zara, eta mundu osoa emango dizut opari, eta patin berri batzuk.

Baina Kayk ezin zuen.

— Lurralde epeletara noa! —esan zuen elurretako erreginak—. Begiratu bat eman behar diet hango lapiko beltzei! —Etna eta Vesubio izeneko sumendiez ari zen—. Zuritu bat eman behar diet! Bada garaia eta. On egingo die limoiondoei eta mahastiei!

Eta joan zen hegan elurretako erregina, eta han geratu zen Kay, bakar-bakarrik milia batzue-tako elurzulo eskerga huts hartan, bere izotz-puskei begira, eta pentsatzen eta pentsatzen aritu zen, harik eta bere baitan zerbait kraskatu zen arte. Eserita geratu zen, zurrun eta geldigeldi. Hotzak hilik zegoela zirudien.

Gerda txikia sartu zen orduan jauregiko ate handitik, haize zorrotzezko atetik; baina Gerdak arratseko otoitza egin zuen eta haizea etzan egin zen, lotarako bezala, eta neskatoa barrura sartu zen, areto eskerga, huts izoztura, eta Kay ikusi zuen. Berehalaxe ezagutu zuen, eta lepora jauzi egin zion eta, bere besoen artean estutzen zuela, garrasika esan zion:

— Kay, Kay maitea! Aurkitu zaitut, azkenean!

Baina Kayk eserita jarraitu zuen, geldirik, zurrun eta hotz. Gerda negarrez hasi zen, eta haren malko epelak Kayren paparrean erori eta bihotzeraino iritsi ziren, eta han zuen izotz-puska urtu eta ispilu-zatitxoa desegin zioten. Kayk Gerdari begiratu zion eta neskatoak salmoa kantatu zuen:

*Arrosak haranean loretan,  
Jesus Haurtxoa bertan pozetan!*

Kay ere negarrez hasi zen eta malko ugari isuri zuen, negar eta negar aritu zen, eta azkeanean han irten zen ispilu-alea begitik, eta orduan Kayk Gerda ezagutu eta algaraka esan zuen:

— Gerda! Nire Gerdatxo laztana! Non egon zara horrenbeste denboran? Eta ni, non egon naiz ni? —eta ingurura begiratu zuen—. Hau da leku hotza! Hau da leku handia eta hutsa!

Eta estu-estu besarkatu zuen Gerda, eta Gerdak, pozaren pozez, negar eta barre batera egiten zuen. Izan ere, zorion handiko unea zen hura; eta izotz-puskak, pozaren pozez haiek ere, dantzan hasi ziren bien inguruan, eta nekaturik zoruan etzan zirenean, han osatu zuten elurretako erreginak Kayri eskatu zion hitza. Kay bere buruaren jabe zen beraz, eta elurretako erreginak mundu osoa eman beharko zion opari, eta patin pare berri bat.

Eta Gerdak musu eman zion Kayri matrailetan, eta anpolaien pareko jarri zitzaizkion; musu eman zion begietan, eta begiek dir-dir egin

zuten neskarenek bezala; musu eman zion eskuoinetan, eta Kay bere onera etorri zen; osaturik zegoen. Itzul zedila elurretako erregina nahi zue-nean etxera, Kayren askatasun-agindua zoruan zegoen eta, izotz-pusketa distiratsuetan idatzita.

Eta, eskutik oratuta, jauregi itzel hartatik irten ziren neska-mutikoak. Amonari buruz eta teilatupean loratzen ziren larrosei buruz egin zuten berba. Eta iragaiten ziren lekuan haizea baretu egiten zen eta eguzkia irten. Baia gorridun zuhaixkara iritsi zirenean, han zeukaten elur-oreina zain. Beste elur-orein gazte batekin zegoen. Elur-orein gazteak gainezka zituen errapeak eta esne epel gozoa eman zien neska-mutikoei. Gero musu bana eman zien ahoan. Elur-oreinek emakume finlandiarraren etxera eramán zituzten Gerda eta Kay lehenengo. Hango barru epelean berotu ostean, etxerako bidea egiteko zehaztasunak jaso zituzten, eta handik, emakume laponiarrarengana joan ziren. Laponiako andreak prest zituen neska-mutikoentzako jantzi berriak eta lera.

Elur-oreinek, neska-mutikoen aldamenean alai jauzika, beraien herrialdeko mugaraino

lagundu zieten. Lehen berdeguneak azaltzen hasi ziren, eta Kayk eta Gerdak agur esan behar izan zieten elur-oreinei eta emakume laponiarri.

— Adio! —esan zioten elkarri.

Eta lehen txoritxoek txioak entzun zituzten, eta basoan kimu berriak ikusi zituzten, eta basotik irteten, Gerdak ondo ezagutzen zuen zaldi bikain bat —urrezko karrozari lotuta joan zen hura— ikusi zuten, eta haren gainean neskato bat zamalka, txano gorri distiratsu bat buruan eta pistolak gerrian. Neskato bidelapurra zen, etxean egoteaz gogaiturik iparraldeko bidea hartuta, baina iparrekoa aspergarria suertatzen bazitzaion, beste norabaitekoa hartzeko prest. Berehala ezagutu zuen Gerdak lapurtzua, eta baita lapurtzua ere. Hura poza!

— Alproja ederra eginda zaude zu! —esan zion Kay txikiari—. Ez dakit merezi duzun inor zuregatik mundu akaberaraino joatea!

Baina Gerdak txapladatxo bat eman zion masailan bidelapurtzuari, eta printzearen eta printzesaren galde egin zion.



— Atzerrira joan dira! —esan zuen neskato lapurrak.

— Eta belea? —galdetu zuen Gerda txikiak.

— Ai, belea! Hil egin zen! —erantzun zuen neskatoak—. Haren emaztea alargun geratu da, eta zapi beltz bat jarri du hanka batean. Aieneka batean dabil. Egundo halako lelokeriarik! Baina kontaidazu zer moduz ibili zaren eta nola aurkitu duzun Kay!

Eta Gerdak eta Kayk dena kontatu zioten.

— Eta, hala bazan, ez bazan, sar dadila kalabazan! —neskato lapurrak hori esan eta, biei eskua emanaz, agindu zien, noizbait hiri aldera joaten bazen, egingo ziela bisita. Zaldi gainera igo eta mundu zabalera joan zen trostan. Eta Kayk eta Gerdak, elkarri eskua emanik, aurrera egin zuten zorioneko udaberri berde eta loretsu hartan. Elizetako kanpaiak dilindan entzun zituzten, eta berehala ezagutu zituzten kanpandorre garaiak, eta hiri handia, beren hiria. Halaxe, bada, sartu ziren hirian, eta amonaren etxeko ateraino joan, eskailerak igo eta gelan sartu ziren. Betiko moduan zegoen dena. Erlojuaren penduluak «Dik! Dik!» egiten zuen, eta orratzek

jira eta bira segitzen zuten. Baina atea igaro orduko, pertsona helduak zirela ohartu ziren Kay eta Gerda. Ur-hodi gaineko arrosa-landareek leihoa inguraturik zuten beren lore ederrekin, eta hantxe zeuden bien txikitako aulkitxoak ere, eta han eseri ziren Kay eta Gerda elkarri eskua emanda. Amesgaizto bat uxatzen den bezala uxatu zuten oroimenetik elurretako erreginareen jauregi handi, hotz eta huts hura.

Amona, Jainkoaren eguzkiaren epelean eserita, Biblia leitzen ari zen ahots ozenez:

— «Berriro haurren antzeko bihurtzen ez bazarete, ez zarete sartuko Jainkoaren erreinuan.»

Eta Kayk eta Gerdak elkarri begiratu zioten, eta orduan ulertu zuten salmo zaharraren esanahia:

*Arrosak haranean loretan,  
Jesus Haurtxoa bertan pozetan!*

Han zeuden eserita, pertsona heldu bihurturik biak, baina aldi berean haur ziren, haur bihotzez, eta uda zen, uda epel bedeinkatua.

*(Sneedronningen)*

# TXERRIZAINA

Bazen behin printze pobre bat; oso erreinu txikia zuen, baina, ezkondu ahal izateko, nahikoa, eta horixe zen egin nahi zuena: ezkondu.

Jakina, ausardia behar zen enperadorearen alabari «Nirekin ezkondu nahi duzu?» galdetzeko, baina, hala ere, ausartu egin zen, lekurik urrutienetan ere ezaguna baitzen printzearen izena; ehundaka ziren «Bai» eta «Eskerrik asko, jauna» esango zioten printzesak, baina enperadorearen alabak zer esango zion, hortxe zegoen koska!

Entzun dezagun istorioa.

Ba omen zen printzearen aitaren hilobian arrosa-zuhaixka bat, izugarri ederra; bost urtez behin bakarrik loratzen zen, eta, orduan, arrosa bakar bat ematen zuen; baina nolakoa, ordea, arrosa! Aski zen hari usain egitea kezka eta nahigabe guztiak ahazteko.

Printzeak bazuen urretxindor bat ere, munduko kantu zoragarri guztiak eztarritxoan bildurik balitu bezala kantatzen zuena. Arrosa eta

urretxindorra printzesari ematea erabaki zuen printzeak, eta, hala, zilarrezko kutxa bikainetan sartu eta bidali egin zizkion.

Enperadoreak areto handira ekarrarazi zituen kutxak, han ari baitzen printzesa bere neska-meekin «biziketan» jolasten; ez zuten beste zereginik. Oparien kutxak ikusi zituenean, pozez txaloka hasi zen printzesa.

— Nahiago nuke mixintxo bat balitz! —esan zuen, baina arrosa zoragarria agertu zen.

— O! Bai lan fina egin dutela! —esan zuten neskame guztiek.

— Ederra baino ederragoa da! —esan zuen enperadoreak—. Akasgabea!

Baina ukitu zuen printzesak, eta, ukitu zutenean, ia-ia negarrez hasi zen.

— Ai ene, aita! —esan zuen—; ez da egindakoa! Benetakoa da!

— Ai ene, ai ene... —esan zuten neskame guztiek— Benetakoa da!

— Ea, ikus dezagun zer dagoen beste kutxan, haserretu baino lehen —esan zuen enperadoreak, eta han irten zen urretxindorra; eta hain

ederki kantatu zuen, ezen hasieran inork ezin izan baitzuen haren kontra ezer esan.

— *Superbe! Charmant!* —esan zuten neska-meek, denek baitzekiten frantsesez, nork baino nork okerrago.

— Txori honek gure enperatriz zenaren musika-kutxa gogorarazten dit —esan zuten gortegizon zahar batek—. Bai, bai, melodia berberak dira, eta kantatzeko modua ere berbera.

— Egia! —esan zuten enperadoreak, eta haurtxo batek bezala negar egin zuen.

— Hala ere, ezin dut sinetsi benetakoa denik! —esan zuten printzesak.

— Benetakoa da, bai —esan zuten ekarri zutenek.

— Ba, joan dadila, orduan, hegan! —esan zuten printzesak, eta printzeari etortzen uzteko konturik ez zuen entzun ere egin nahi. Printzea, ordea, ez zen kikildu; zikindu zuen aurpegia beltzez, sartu zuen kapelua begietaraino, eta atea jo zuen.

— Egun on, enperadore —esan zuen—. Hartuko al nindukezu jauregian zerbitzari?

— Askok nahi lukete hori! —esan zion enperadoreak—. Baina ea! Bai, txerriak zainduko dituen bat behar dut, txerri asko daukagu eta.

Eta, hala, enperadorearen txerrizain egin zuten printzea. Txerritegien ondoko gela txiki nazkagarri bat eman zioten bizileku. Han eseri eta lan eta lan eman zuten printzeak egun guztia, eta arratserako eltzetxo polit bat egin zuten; eltze horrek kanpaitxoak zituen inguru guztian, eta, irakiten zuenean, denak txilin-txilin zoragarrian hasi eta doinu zahar hau jotzen zuten:

*Ach, du lieber Augustin,  
Alles ist væk, væk, væk!*

Baina miresgarriena zera zen: hatz bat lurrunetan sartuz gero, hiriko sukalde guztietan egiten ari ziren afari guztien usaina hartzen zela bertantxe. Eta hori oso bestelako kontua zen, arrosaren aldean.

Printzesa paseatzera irten zen bere neskame guztiekin eta, abestia entzun zuenean, gelditu egin zen; poz eman zion, berak ere jotzen baitzuen «Ach, du lieber Augustin»: huraxe besterik

jotzen ez zekien, eta hatz bakar batekin, gainera.

— Nire abestia da eta! —esan zuen—. Txerri-zain hau gizon ikasia da, inondik ere. Zoazte eta galdeiozue zenbat balio duen instrumentuak.

Hala, neskameetako batek printzearen gelara sartu behar izan zuen, baina horretarako eskalapoiak jantzi zituen, noski.

— Zenbat eskatzen duzu eltzeagatik? —galdetu zion neskameak.

— Printzesak hamar musu ematea —esan zion txerrizainak.

— Jainkoak gorde gaitzala! —esan zuen neskameak.

— Gutxiagogatik ez dut emango —esan zion txerrizainak.

— Eta? Zer dio? —galdetu zuen printzesak.

— Ezin dizut esan —esan zion neskameak—, izugarrikeria bat da!

— Esaidazu, orduan, belarrira.

Eta belarrira esan zion.

— Gizajoa! —esan zuen printzesak, eta alde egin zuen handik. Baina asko urundu baino

lehen, kanpaitxoan txilin-txilin zoragarria entzun  
zuen berriro:

*Ach, du lieber Augustin,  
Alles ist væk, væk, væk!*

— Zoazte eta galdeiozue ea hartuko dituen  
hamar musuak neskameek emanda.

— Ez, eskerrik asko —esan zuen txerrizai-  
nak—; printzesak berak eman beharko dizkit  
hamar musu, bestela ez dut eltzea emango.

— Bai gogaikarria! —esan zuen printzesak—.  
Hortaz, nire inguruan jarri beharko duzue, inork  
ikus ez nazan.

Neskameak printzesaren inguruan jarri ziren,  
gonak zabal-zabal eginda, eta, hala, nork berea  
hartu zuen: txerrizainak hamar musuak eta prin-  
tzesak eltzea.

Hura bai gauza! Irakin eta irakin edukitzen  
zuten gau eta egun. Bazekiten zer kozinatzen  
zuten hiriko sukalde guztietan, bai gela-zerbitza-  
riaren etxean, bai zapatariarenean. Dantza eta  
txalo zebiltzan neskameak.



— Badakigu zeinek dauzkan zopa eta taloak afaltzeko, eta zeinek haragi-opilak; bai interesgarria!

— Guztiz interesgarria! —esan zuen soinekozainak.

— Bai, baina zaindu mihiak, enperadorearen alaba naiz eta!

— Jainkoak gorde gaitzala! —esan zuten denek.

Txerrizainak —hau da, printzeak, inork ez bazekien ere printzea zenik— ez zuen eguna alferkerian igaro, eta oraingoan karraka bat egin zuen. Eragiten zitzaionean, mundua mundu denez geroztik entzun diren waltse, galopa eta jiga guztiak jotzen zituen.

— *Superbe* da, gero! —esan zuen printzesak, ingurutik pasatzean—. Inoiz ez dut entzun konposizio dotoreagorik. Zoazte eta galdeiozue zenbat balio duen instrumentuak. Baina musu gehiagorik ez!

— Printzesak ehun musu eman diezazkion nahi du —esan zuen neskameak.

— Erotuta dago, ala?—esan zuen printzesak, eta aldendu egin zen, baina urrutira baino lehen gelditu zen.

— Artea ere bultzatu beharra dut —esan zuen—; enperadorearen alaba naiz! Esaiozue hamar musu emango dizkiodala, atzo bezala, eta gainerakoak neskameok emango dizkiozuela.

— Guk ez diogu musu eman nahi, ordea! —esan zuten neskameek.

— Lelokeriak! Nik musu ematen badiot, zuek ez duzue eman ezinik. Gogoan izan nik ordaintzen ditudala zuen soldatak eta nik ematen dizuedala aterpe eta ostatu.

Eta, hala, neskameak berriro joan behar izan zuen.

— Printzesaren ehun musu; bestela, bakoitzak berea.

— Jar zaitzte nire parean —esan zuen printzesak, eta neskame guztiak inguruan jarri zitzaizkion, txerrizainak musuak hartu bitartean.

— Zer demontre egiten ote du jendetza horrek txerritegien inguruan? —esan zuen enperadoreak atarira irten zenean. Begiak igurtzi eta betaurrekoak jarri zituen.

— Hara! Neskameak dira eta! Zer misteriotan ote dabilta? Noan ikustera!

Eta txapinei atzetik gora tira egin eta orpoak sartu zituen, txinalka baitzerabilta.

Arranoa! Haren presa! Larrainera iritsi zenean, poliki-poliki hurbildu zen, eta nola neskameak oso okupaturik baitzeuden musuak kontatzen, joko garbia izan zedin eta printzesak musu gutxiegi edo gehiegi eman ez zezan, ez ziren enperadorearen etorreraz konturatu. Enperadorea oin puntetan zegoen begira.

— Zer da hau? —esan zuen enperadoreak, zertan ari ziren ikusi zuenean; eta txapinaz jo zituen buruan, txerrizaina laurogeita seigarren musua hartzen ari zen une berean.

— Alde hemendik! —esan zuen enperadoreak, haserre bizian, eta printzesa eta printzea, biak, erreinutik egotzi zituen.

Han geratu ziren biak, printzesa negarrez eta txerrizaina muzin, eta euria ari zuen goian-behean.

— Hau zorigaitza nirea! Printzea onartu banu sikiera! Errukarria ni!

Txerrizaina zuhaitz baten atzera joan zen; garbitu zuen aurpegiko beltza, bota zituen arropa zatarrak, eta printze jantzita agertu zen. Hain zen ederra, ezen printzesak erreberentzia eta guzti egin baitzion.

— Arbuio egitera natorkizu —esan zion printzeak—. Ez zenuen printze zintzo bat hartu nahi, ez zenituen arrosa eta urretxindorra preziatu, baina txerrizain bati musu emateko gertu zinen musika-kaxa zirtzil baten truke. Zerorrek egin duzu ohea eta, etzan zaitez bertan!

Eta printzea bere erreinu txikira itzuli zen, eta atea giltzaz itxi zuen. Printzesak kanpoan geratu behar izan zuen, eta benaz kantatu:

*Ach, du lieber Augustin,  
Alles ist væk, væk, væk!*

*(Svinedrengen)*

# AMA BATEN ISTORIOA

Ama bat bere semearen ondoan eserita zegoen, erabat atsekabeturik, semea hilko ote zitzaion beldur. Zurbil-zurbil zegoen umea, begitxoak itxita eta arnasestuka; noizbehinka barru-barrutik hartzen zuen arnasa, hasperen eginez bezala, eta halakoetan tristura handiagoz begiratzen zion amak umetxoari.

Orduan atea jo zuten eta agure zahar bat sartu zen, zaldi-burusi moduko batean bilduta; dena beharko zuen agureak, berotuko bazen, negu gorria zen eta. Kanpoan, guztia elurrak eta izotzak estalita zegoen eta ipar beltza zebilen.

Agurea hotzak dar-dar zegoenez eta umea une batez lokartu zenez, amak pitxer bat garga-gardo hartu eta sutan berotu zuen agurearentzat. Agurea sehaska kulunkatzen ari zen, eta ama alboan eseri zitzaion, seme gaixoari begira; umea arnasa hartu ezinik zegoen, eta amak eskutxoa hartu zion.

— Ez dut galduko, ezta? —esan zuen amak—  
. Jainkoak ez dit eramango, ezta?

Eta agureak, Herio bera, keinu berezi bat egin zuen buruaz, baiezkoa zein ezezkoa izan zitekeen keinu bat. Amak burua makurtu zuen, eta negar-malkoak jausi zitzaizkion masailetan behera; burua astun zuen, hiru egun eta hiru gau egin baitzituen begirik bildu gabe, eta lokartu egin zen, baina tartetxo batez besterik ez, hotzak dardarka esnatu baitzen berehala.

— Baina zer gertatu da hemen? —esan zuen amak bazter guztietara begira.

Han ez zegoen agurerik, ezta umerik ere, berekin eramán baitzuen agureak. Gelaren bazterrean erloju zaharra jo eta jo ari zen. Bat-batean zintzilikari handia lurrera erori zen, danba!, eta erlojua gelditu egin zen.

Ama gaixoa korrika etxetik irten eta semeari deika hasi zitzaion.

Etxearen kanpoaldean emakume bat zegoen, soineko beltz luze bat jantzirik, elurretan eserita, eta honela esan zion amari:

— Herio zure etxean izan da, etxetik ateratzen ikusi dut zure semea besoetan zeramala. Haizea baino bizkorrago ibiltzen da, eta behin hartutakoa ez du sekula itzultzen.

— Esaidazu, behintzat, zein bide hartu duen —esan zuen amak—. Erakutsidazu bidea, eta neuk aurkituko dut.

— Badakit zein bide hartu duen —esan zuen beltzez jantzitako emakumeak—, baina esatea nahi baduzu, zure semeari kantatu dizkiozun kantu guztiak kantatu beharko dizkidazu. Oso gustukoak ditut; entzunak dauzkat. Ni Gau naiz, eta negarrez ikusi izan zaitut kantatzen zenue-nean.

— Guztiak kantatuko dizkizut —esan zuen amak—, baina utzidazu aurrera egiten, utzidazu semearen bila joaten.

Baina Gau geldi eta mutu geratu zen. Amak eskuak bihurkatu, kantatu, eta negar egin zuen; asko izan ziren kantuak, baina askoz gehiago malkoak.

Orduan Gauk honela esan zion:

— Zoaz eskuinalderantz, izai-baso ilunean barrena. Zure semea hartuta harantz zihoala ikusi dut Herio.

Basoaren erdian bidegurutze bat zegoen, eta amak ez zekien zein bide hartu; bazen han elorri-arantza bat, ez hosto, ez lore; negu gorria

izanda izotz-burduntziak zituen adarretatik zintzilik.

— Ikusi al duzu Herio nire semearekin?

— Bai, ikusi dut —esan zion elorri-arantzak—, baina ez dizut esango zein bide hartu duen, zure bihotzaren kontra berotzen ez banauzu. Hotzak akabatzen nago, eta izoztuko naiz berehala.

Amak bularraren kontra hartu zuen elorria, estu-estu, eta arantzek zauriak egin zizkieten, eta odol-tanta lodiak isuri zituen. Baina, neguko gau hotz hartan, elorriari hosto berde berriak hazi, eta lore berriak zabaldu zitzaizkion, hain da handia ama mindu batek bihotzean duen berotasuna. Eta elorriak bidea erakutsi zion.

Hala, aintzira handi batera iritsi zen ama, baina han ez zegoen ez ontzirik, ez txaluparik. Aintzira ez zegoen gainean ibiltzeko bezain izozturik, eta sakonegia zen oinez zeharkatzeko; baina nola edo hala igaro behar zuen aintzira semea aurkituko bazuen. Lurrean luze etzan zen aintzira edateko asmoarekin, baina hori ezinezkoa zen noski; ama gaixoak, ordea, mirari baten esperantza zuen.



— Alferrik ari zara! —esan zion aintzirak—. Baina saia gaitezen irtenbide bat bilatzen! Begira, niri perlak biltzea gustatzen zait eta zure begiak ikusi ditudan perlarik gardenenak dira; negar egiten baduzu harik eta begiak erori eta neureganatzen ditudan arte, Herioren mintegira eramango zaitut. Loreak eta zuhaitzak zaintzen ditu han Heriok, eta landareetako bakoitza giza bizitza bati dagokio.

— Edozein gauza egingo nuke semea salbatzeko —esan zuen amak malkoak zerizkiola.

Eta negar handiak egin zituen, harik eta begiak uretara erori, aintziran hondoratu eta bi perla bihurtu ziren arte. Orduan aintzirak ama jaso, eta beste ertzera eraman zuen, zabu batean nola; han etxe berezi bat zegoen, izugarri handia; ezin zitekeen jakin mendi bat zen, bere baso, haitzulo eta guzti, edo gizakiek eraiakia zen. Dena dela, amak ezin zuen hura ikusi, negarretan galduak baitzituen begiak.

— Non aurkituko dut Herio, nire semea hartu duena? —esan zuen amak.

— Ez da oraindik iritsi —esan zuen Herioren mintegia zaintzen zuen atsoak—. Baina nola aurkitu duzu bidea? Nork lagundu duzu?

— Jainkoak lagundu dit —esan zuen amak—. Jainkoa errukitsua da, eta zeu ere halaxe izango zara. Non aurkituko dut neure semetxoa?

— Nik ez dakit —esan zuen emakumeak—, eta zu itsu zaude. Bart lore eta zuhaitz asko zimeldu ziren; Herio berehala etorriko da, noski, berriak aldatzera. Badakizu pertsona bakoitzak bere bizitzaren zuhaitza edo lorea duela, nork bere izaeraren arabera. Itxuraz beste landareak bezalakoak badira ere, bihotz pilpilaria dute hauek; umeeak ere bihotz pilpilaria dute. Kontuan eduki hori, beharbada zure semearen lorea ezagutuko duzu eta. Baina, zer emango didazu zer egin behar duzun esaten badizut?

— Ez daukat zer emanik —esan zuen ama nahigabetuak—, baina munduaren azken muturreraino joango naiz zuk hala nahi baduzu.

— Han ez daukat nik zer eginik —esan zuen atsoak—, baina hartuko nuke zure adats beltz luze hori. Oso ile ederra duzu, badakizu, eta asko

gustatzen zait. Nire ile zuria emango dizut trukean, ezer ez baino gehiago da!

— Hori besterik ez bada —esan zion amak—, gustura emango dizut.

Eta amak bere adats beltz luzea eman zion atsoari, eta atsoak bere ile zuria amari.

Herioren mintegi handira sartu ziren biak. Loreak eta zuhaitzak nahas-mahas bitxienean hazten ziren han. Baziren jazinto ederrak beirazko kanpaien azpian, eta baziren peonia handi sendoak. Baziren uretako landareak ere, mardulak batzuk, maxkalak besteak, sugeak inguruan kiribilean eta karramarro beltzak zurtoinetan atxikita zituztela. Palmera, haritz eta platanondo ederrak zeuden; perrexila ere bazegoen, eta ezkaia, loretan. Zuhaitz eta lore bakoitzak bazuen izen bat. Landare bakoitza izate bati zegokion, artean bizirik zen bati, nahiz Txinan, Groenlandian, edo munduko edozein bazterretan izan. Bazeuden zuhaitz handi batzuk lorontzi txikietan, eta hain estu egon ere, lehertzeko zorian baitzeuden ontziak; baziren han-hemenka ere txiki kaxkar batzuk, lur emankorrean landatuak, ondo zainduak eta ongarrituak, eta gorol-

dioz inguratuak. Ama gaixoa landare txikienetara makurtu zen; lore bakoitzaren bihotz-taupadak entzun zituen, eta milioika landareren artean bere semearen bihotza ezagutu zuen.

— Hauxe da! —egin zuen oihu amak, eta azafrai urdin txiki baterantz luzatu zuen eskua; azafraia gaixorik zegoen, albora okertuta.

— Ez ukitu lorea! —esan zion atsoak—. Zaude hemen! Eta Herio etortzen denean, berehala etorriko dela uste dut eta, ez iezaiozu lorea erauzten utz, egiozu amenazo, zeuk ere beste lore guztiak erauziko dituzula. Horrek beldurtu egingo du, bera baita landareen erantzule Jainkoaren aurrean, eta Jainkoaren baimenik gabe ezin da lorerik erauzi.

Bat-batean, haize-bolada hotz batek alderik alde zeharkatu zuen mintegia, eta Herio bazetorrela konturatu zen ama itsua.

— Nola aurkitu duzu bidea? —galdetu zion Heriok—. Nolaz iritsi zara nire aurretik?

— Ama bat naiz —esan zuen emakume gaixoak.

Heriok orduan loretxo ahulera hurbildu zuen bere esku luzea, baina amak eskumuturretik

gogor heldu zion bi eskuekin, Heriok hostoren bat ukituko zion beldur. Heriok orduan putz egin zion eskuetara; amak Iparburuko haizea baino bafada hotzagoa sentitu zuen eskuetan, eta erretira egin behar izan zituen.

— Ezin duzu ezer egin nire kontra! —esan zuen Heriok.

— Jainkoak bai, ordea —erantzun zion emakumeak.

— Nik Jainkoaren nahia betetzen dut —esan zuen Heriok—. Haren baratzezaina naiz; haren lore eta zuhaitz guztiak hartu, eta Paradisuko Baratzean aldatzen ditut, Herrialde Ezezaguan; baina behin han daudenean nola hazten diren eta zer gertatzen den esatera ez naiz ausartzen.

— Itzulidazu semea —esan zuen amak negarretan, erreguka.

Eta bat-batean han inguruko bi arrosa eder eskuetan hartu, eta esan zion Heriori:

— Lore guztiak erauziko ditut, etsi-etsi egingoda nago eta!

— Ez ditzazula ukitu! —esan zuen Heriok—. Zoritxarreko emakumea zarela diozu, eta beste ama bat egin behar duzu orain zoritxarreko?!

— Beste ama bat?! —esan zuen ama gaixoak, eta bi loreak jaregin zituen.

— Tori, hemen dituzu zure begiak —esan zion Heriok—. Aintziratik jaso ditut, horrenbeste distiraten zuten! Ez nekien zureak zirenik; har itzazu; lehen baino argiagoak dira orain; begirazazu horko putzuaren hondoan, erauzi nahi zenituen bi loreen izenak esango dizkizut; eta han ikusiko duzu beren etorkizuna, beren bizitza osoa; han ikusiko duzu hondatu nahi zenuen hura.

Eta emakumeak putzura begiratu zuen, eta lehenengoarena ikustean izugarri poztu zen. Munduarentzat bedeinkazioa zen hura, inguruan poza eta zoriona zabaltzen zituena. Baina bigarrenarena ikusi zuen orduan, oinazez, beharrez, izuz eta zorigaitzez beterik, etorkizun beltza zen hura.

— Bata zein bestea Jainkoaren borondatez dira hala —esan zuen Heriok.

— Bietatik zein da zorigaitzaren lorea, eta zein bedeinkapenarena? —galdetu zion amak.

— Ez dizut esango —esan zion Heriok—, jakin ezazu bietako bat zure semearen lorea dela. Zure semearen patua ikusi duzu, zure semearen etorkizuna.

Amak, izaturik, oihu egin zuen:

— Zein zen nire semea? Esan! Salba ezazu gizajoa! Salbatu nire semea ezbehar honetatik! Eraman ezazu, hobe izango da eta! Eraman Jainkoaren erreinura! Ahaztu nire malko eta errukiak, ahaztu esan eta egin dudan guztia!

— Ez dizut ulertzen! —esan zuen Heriok—. Zer nahi duzu, semea zurekin eramanez ala ezagutzen ez duzun Herrialdera neurekin eramatea?

Orduan amak eskuak gurutzatu, belauniko jarri eta erregu egin zion Jainkoari:

— Ez ezazu aintzat hartu nire erregua Zure Borondatearen kontra badoa, Bera da-eta zuzenena! Egin bedi zure Nahia!

Eta umil-umil burua makurtu zuen.

Eta Heriok Herrialde Ezezagunera eramanez zion semea.

*(Istorien om en moder)*

# KLAUS HANDI ETA KLAUS TXIKI

Baziren behin herri batean izen bereko gizon bi: Klaus zeritzen bi-biei; baina batak lau zaldi zituen, eta bat besterik ez bestea. Bata eta bestea bereizteko, lau zaldi zituenari «Klaus Handi» esaten zioten, eta bat besterik ez zuenari «Klaus Txiki». Bien artean gertatutakoa kontatuko dizuet orain, bene-benetakoa da eta:

Astean zehar Klaus Txikik Klaus Handiren lurrak goldatu behar izaten zituen, zeukan zaldi bakarrarekin; ordainetan, Klaus Handik bere laurrekin laguntzen zion, baina astean behin bakarrik, igandean. Arranopola! Bai ederki astintzen zuela zigorra Klaus Txikik bost zaldien gainean, bereak balitu bezala ibiltzen baitzen egun hartan. Eguraldi aparta egiten zuen, eta elizako kanpai guztiak mezatara deika ari ziren. Jendea, apain-apain jantzita eta otoitz liburua besapean hartuta, apaizaren sermoia entzutera zihoan, eta pasaeran, han ikusten zuten Klaus Txiki bere bost zaldiekin goldaketan; orduan, Klaus Txikik,



zigorra astindu eta, harro-harro, esaten zuen oihuka:

— Arre, ene zaldiok!

— Ez esan hori! —esan zion Klaus Handik—.

Hik zaldi bat besterik ez duk eta.

Baina, norbait elizara bidean pasa orduko, ahazten zitzaion ez zuela halakorik esan behar, eta han hasten zen berriz ere oihuka:

— Arre, ene zaldiok!

— Ez esateko, ba, hori! Bestela, buruan jo eta bertan hilda utziko diat hire zaldi hori, eta akabo harenak orduan!

— Hago lasai, ez diat berriz esango eta —erantzun zuen Klaus Txikik.

Baina, inor ondotik pasa eta «Egun on!» esaten zion orduko, izugarri pozten zen Klaus Txiki —izan ere, zoragarria iruditzen zitzaion bost zaldi izatea lurra goldatzeko—, eta zigorra astindu eta oihuka esaten zuen:

— Arre, ene zaldiok!

— Nik erakutsiko diat, bai, arre esaten zaldiei! —esan zion Klaus Handik.

Eta hartu zuen mailua, jo zuen Klaus Txikiren zaldia buruan, eta bertan hilda utzi zuen.

— Ai, orain bai egin duala ederra; batere zaldirik gabe gelditu haiz! —esan zuen Klaus Txikik, eta negarrez hasi zen.

Gero, zaldia larrutu, eta larrua haizetan jarri zuen lehortzen. Behin lehortu zenean, sartu zuen zaku batean, hartu zuen zakua lepoan, eta hirira abiatu zen larrua saltzera.

Bide luzea zuen aurretik, eta baso itzaltsu batetik pasa beharra zeukan. Ekaitza ekarri zuen, eta galdu egin zen, eta ostera bidea aurkitu zuenerako, gain-gainean zuen arratsa; bide luzea geratzen zitzaion oraindik hirira heltzeko, baina etxetik ere urrunegi zegoen ilundu baino lehen itzuli ahal izateko.

Bide-bazterrean baserri handi bat zegoen. Itxita zeuzkan leiho-tapak, baina argia ikusten zen zirrikituetatik. «Utziko didate gaua bertan pasatzen», pentsatu zuen bere artean Klaus Txikik, eta atea jo zuen.

Etxeko andreak zabaldu zion atea, baina Klaus Txikiren eskaria entzun zuenean, bere bideari segitzeko esan zion, senarra kanpoan zela eta berak ez zuela ezezagunik hartzen etxean.

— Tira ba, kanpoan egingo dut lo —esan zuen Klaus Txikik, eta andreak atea itxi zion muturrean.

Handik bertan lastategia zegoen, eta lastategiaren eta baserriaren artean, estalpe txiki bat, lastozko estalki zapalekoa.

— Hortxe etzango nauk —esan zuen Klaus Txikik estalki hura ikustean—. Ohe bikaina izango diat, non eta zikoina ez zaidan hegaldaka etortzen oinak mokokatzera.

Izan ere, zikoina bat zegoen teilatuan, bere habian.

Klaus Txiki, beraz, teilatu gainera igo, bertan luze etzan, eta batera eta bestera mugitu zen, harik eta eroso jarri zen arte. Zurezko leiho-tapek ez zuten leihoko goialdea erabat ixten, eta Klaus Txikik etxe barrena ikusten zuen handik.

Mahai handi bat ikusi zuen, ederki atondua: ardoa, haragi errea eta arrain bikainik ere bazen. Etxeko andrea eta herriko sakristaua mahaira eserita zeuden, biak bakarrik: andrea ardoa zerbitzatzeko gizonari eta gizona berealdiko arrain-jatea egiten, arrainzale amorratua baitzen, izan ere.

— Mokadutxo bat hartzerik izango banu neuk ere! —esan zuen Klaus Txikik, eta leiho aldera makurtu zuen burua.

Alajainkoa! Pastel bikainik ere ez zitzaien falta eta! Hura zen banketea hura!

Halako batean, norbait sumatu zuen zaldi gainean baserri aldera zetorrela: etxeko jauna zen, etxera bidean. Oso bihotz oneko gizona zen, baina bazuen gaitz arraro bat: ezin zuen begien aurrean sakristaurik ikusi. Bat ikusi orduko, haserre bizian jartzen zen. Hain zuzen ere horregatik joan zitzaion sakristaua andreari bisita egitera etxeko jauna kanpoan zela, eta andreak, zituen jakirik goxoenak atera zizkion sakristauri. Senarra zetorrela sumatu zutenean, izuaren izuz dardarka hasi ziren biak, eta andreak erreguka eskatu zion sakristauari sartzeko han, gela-ko txokoan hutsik zegoen kutxa handian. Eta bai azkar sartu ere hura, bai baitzekien etxeko jaun gaixoak ezin zuela begien aurrean sakristaurik ikusi. Andreak aitaren batean ezkutatu zituen jaki goxo haiek guztiak ogia erretzeko labean, ardoa ahaztu gabe, bazekien-eta senarrak ikusten bazituen, galdezka hasiko zitzaiola.

— Hara! —esan zuen Klaus Txikik, hasperen eginez lastozko teilatu-gain hartan, jakiak desagertu zirela ikusi zuenean.

— Nor dabil hor? —galdetu zuen etxeko nagusiak; eta Klaus Txiki ikusi zuen—. Zer egiten duk hor goian etzanda? Hator barrura, gizona!

Orduan Klaus Txikik galduta nola ibili zen kontatu zion, eta gaua etxean pasatzeko baime-na ere eskatu zion.

— Bai, noski! —esan zion etxeko nagusiak—. Baina lehenbizi zer edo zer jan beharko diagu, ezta?

Andreak goxo-goxo hartu zituen biak; mahai handi bat paratu, eta katilukada bana morokil eman zien jateko. Etxeko jauna goseak zegoen, eta gogo handiz jan zuen emandakotik; baina Klaus Txikik ezin zituen burutik kendu beste jaki goxo haiek —haragi errea, arraina eta pastela—, bai baitzekien andreak labean gordeta zeuzkaila.

Klaus Txikik mahai azpian —bere hanken artean— utzi zuen zakua, zaldi-larrua barruan. Ondotxo dakigunez, zaku hura hartuta atera baitzen etxetik, larrua hirian saltzeko asmoz. Moro-

kila ez zuen batere gogoko Klaus Txikik, eta hala, zapaldu zuen indarrez zakua, eta larruak zapart-hots gogorra atera zuen.

— Ixo! —esan zion Klaus Txikik zakuari, baina berriz zapaldu zuen, eta arestian baino are hots gogorragoa atera zuen larruak, karrask!

— Zer arraio duk zaku horretan? —galdetu zion etxeko nagusiak.

— Deus ere ez; zera... azti bat! —esan zuen Klaus Txikik—. Esaten ari zait ez dugula morokilik zertan jan; berak, aztikeriaz, leporaino bete duela labea haragi errez, arrainez eta pastelez.

— Bai ote? —esan zuen etxeko jaunak; jautzian labea ireki, eta hantxe ikusi zituen andreak gordetako jaki goxo haiek guztiak, zakuko aztiak magia sortuak zirela uste zituenak. Andrea ez zen ezer esaten ausartu, eta berehala mahairatu zien janaria. Hala, bada, nahi adina arrain, haragi eta pastel jan zuten biek. Orduan, Klaus Txikik berriro zapaldu zuen zakua, eta larruak karrask egin zuen.

— Zer esan dik orain? —galdetu zuen etxeko jaunak.

— Ba, zera... —hasi zen Klaus Txiki—, beste aztikeria bat egin duela, eta hiru botila ardo dau dela labean guretzat.

Andreak, orduan, atera egin behar izan zuen gordean zeukan ardo hura; edan zuen ardo hartatik etxeko nagusiak, eta oso pozik jarri zen. Zer ez zuen emango Klaus Txikik zakuan zeukana bezalako azti bat edukitzeagatik!

— Eta Txerren agerrarazteko gai ote da? —galdetu zuen etxeko nagusiak—. Gogoz ikusiko nuke, orain umore oneko nagoenez!

— Bai, noski! —esan zuen Klaus Txikik—. Esaten diodan guztia egiten dik nire azti honek. Ez al da egia, hi? —galdetu zuen, eta zakua zanpatsu, karrask!—. Entzun duk, ezta? Baietz esan dik. Oso zatarra duk ordea Txerren hori; ikustea ere ez dik merezi.

— Bo! Horrek ez zidak batere beldurrik ematen. Zer itxura du ba?

— Zera..., sakristau bat ematen dik goitik behera!

— Arranoa! —esan zuen etxeko nagusiak—. Horren zatarra al da, ba! Badakik ez ditudala sakristauak begi onez ikusten; baina, orain, ez

ziok inporta: Txerren dela jakinda, errazago eramango diat. Adorez betea nagok orain! Baina, ez dakidala gehiegi hurrera!

— Aztiari galdetuko zioat —esan zuen Klaus Txikik; zakua zapaldu, eta belarria hurbildu zuen zakura.

— Zer esan dik?

— Horko txoko horretan dagoen kutxa hori zabaltzen baduk, bertan ikusiko duala Txerren kuzkurtuta, baina eusteko kutxako estalkiari, Txerrenek alde egin ez dezan.

— Lagunduko al didak eusten? —esan zuen etxeko nagusiak, eta kutxara hurbildu zen; andreak sakristaua gordeta zuen kutxara, alegia. Sakristaua, bien bitartean, beldurrak airean zegoen.

Etxeko nagusiak kutxako estalkia pixka bat zabaldu, eta barruan begiratu zuen.

— Arraioa! —esan zuen atzeraka jauzi eginenez—. Ikusi diat, bai horixe! Gure sakristaua bera zirudik! Beldurgarria duk benetan!

Ikusi zutena ikusi eta gero, eztarria busti beharra zegoen, eta ordu ttikiak arte egon ziren edaten.



— Hire azti hori saldu behar didak! —esan zion Klaus Txikiri etxeko nagusiak—. Nahi duana eskatu! Lakari bete diru emango diat ordainez.

— Ez, ezin diat halakorik egin! —esan zuen Klaus Txikik—. Pentsa ezak zer laguntza ona dudan neure azti hau.

— Pozik hartuko nitek, ba, halako bat neuretzat, bai horixe! —esan zuen etxeko nagusiak, eta eskari bera egin zion behin eta berriro.

— Ondo zagok —esan zuen Klaus Txikik azkenik—. Gaur gaueko ostatua eman didak, eta portatu haiz; ordaindu beharko diat nolabait. Har ezak nire aztia nahi baduk, baina lakari bat diru eman beharko didak ordainez, eta ondo bete ontzia, gero!

— Emango diat, bai, dirua —esan zion etxeko nagusiak—, baina eraman ezak hemendik kutxa hori, ez diat gehiago ikusi nahi etxean; batek zekik Txerren hori barruan dagoen oraindik!

Klaus Txikik larru lehorra zeukan zakua eman zion etxeko nagusiari, eta berak lakari bat hartu zuen ordainetan, diruz beterik.

Etxeko nagusiak orga bat ere eman zion, dirua eta kutxa eraman zitzan.

— Adio! —esan zuen Klaus Txikik, eta handik alde egin zuen, dirua eta kutxa handia, sakristau eta guzti, harturik.

Basoaren beste aldean ibai zabal eta sakon bat zegoen; ura bizi-bizi zetorren ibaian behera, eta nekez egin zitekeen ur-lasterraren kontra igeri. Zubi berri handi bat zegoen ibaian alderik alde. Klaus Txiki zubiaren erdian gelditu, eta ahots betean, sakristauak kutxa barrutik entzuteko moduan, esan zuen:

— Eta zer egin behar diat nik orain kutxa madarikatu honekin? Zama ikaragarria dik, harriz betea dagoela ematen dik! Aspertu nauk eramaten. Hartu eta uretara bota behar diat bertantxe, etxeraino igeri joan dadin: iristen bada ondo, eta iristen ez bada, hor konpon!

Orduan, hartu kutxa esku batekin, eta pixka bat altxatu zuen, uretara bota nahiko balu bezala.

— Ez, zaude! —esan zuen oihuka sakristauak kutxa barrutik—. Utzidazu irteten!

— Arraioa! —esan zuen Klaus Txikik, beldurtuta balego bezala—. Barruan zagok oraindik!

Oraintxe bota behar diat uretara, bertan ito dadin.

— Ez, ez! Zaude pixka batean! —esan zuen oihuka sakristauak—. Lakari bat diru emango dizut bakean uzten banauzu!

— Tira, hori besterik duk —esan zuen Klaus Txikik, eta kutxa zabaldu zuen.

Sakristaua jauzian atera zen kutxatik, bota zuen uretara kutxa hutsa, joan zen etxera, eta lakari bat diru eman zion Klaus Txikiri. Bazuenez lehenagotik ere beste bat, baserritarrak emana, diruz beteta zeraman orain orga.

— Hau duk mauka! Ondo pagatu zidatek, gero, zaldia! —esan zuen bere artean Klaus Txikik etxera iritsi eta orgako diru guztia lurrean pilatu zuenean—. Gozoa jarriko duk Klaus Handi, neukan zaldi bakarrarekin aberastu naizela jakiten duenean, baina ez zioat ezer esango.

Eta morroia bidali zuen Klaus Handiren etxera, ale-neurri bat eskatzera.

— Zer arraiotarako nahiko ote du horrek neurri bat? —pentsatu zuen bere artean Klaus Handik, eta bikez igurtzi zuen neurriaren hondoa, neurtzen zuena neurtzen zuela ere, neurgai har-

tatik zerbait barruan itsatsita gera zedin; eta halaxe gertatu zen, gertatu ere, ezen neurria itzuli ziotenean, zilarrezko hiru diru berri aurkitu zituen barruan.

— Zer da hau, ordea? —esan zuen Klaus Handik, eta lasterka joan zen Klaus Txikiren etxera—. Nondik atera duk hik horrenbeste diru?

— Atzo saldu nuen zaldi-larruarengatik eman zidatek.

— Ez zagok gaizki pagatuta, ez horixe! —esan zuen Klaus Handik.

Eta etxera joan, hartu aizkora, eta bere lau zaldiak jo zituen buruan. Gero, zaldiak larrutu, eta hirira joan zen larruekin.

— Larruak, larruak! Larruak salgai! —zihoan kalez kale oihuka.

Hiriko zapatari eta zurratzaile guztiak laster agertu ziren ea zenbatean saltzen zituen galdezka.

— Lakari bat diru larru bakoitzeko! —erantzuten zien berak.

— Hi, zer, burutik hago, ala? —esan zioten denek—. Zer uste duk, ontzivadaka neurtzen dugula guk dirua, ala?

— Larruak, larruak! Larruak salgai! —jarraitu zuen berak oihuka.

Baina larrua zenbatean zen galdetzen ziotenean:

— Lakari bat diru larru bakoitzeko —erantzuten zuen berak.

— Ederra sartu nahi ziguk horrek! —esan zuten denek.

Eta hartu zituzten zapatariek uhalak eta zurratzaileek larruzko mantalak, eta Klaus Handi astintzen hasi ziren.

— Larruak, larruak! —esaten zioten burla eginez—. Hi bai larrutuko haugula. Alde hemendik!

Eta ahalik eta lasterren alde egin behar izan zuen Klaus Handik hiritik. Halako jipoirik ez zuen bere bizitza osoan hartu.

— Holakorik niri! —esan zuen etxerakoan—. Larrutik pagatuko zidak Klaus Txiki horrek. Jo-ta-bertan hil behar diat!

Baina Klaus Txikiri amona hil zitzaion etxean. Amona, egia esan, oso gaizki eta zakar portatu zen berarekin, baina, nolana ere, Klaus Txiki hunkituta zegoen. Amona hila hartu eta bere ohe beroan ezarri zuen, berpiztuko balitz ere. Hantxe

utziko zuen gau osoan, eta bera, berriz, beste askotan bezala, bazter batean zegoen aulkian eseriko zen lo egitera.

Gauean, bazterreko aulkian eserita zegoela, gelako atea zabaldu, eta Klaus Handi sartu zen, aizkora eskuan. Bazekien non zegoen Klaus Txikiren ohea. Zuzen-zuzenean hara joan, eta aizkorakada gogor bat eman zion amona hilari kopetan, Klaus Txiki zelakoan.

— To! —esan zuen—. Ez didak, ez, berriz ziria sartuko! —eta etxera itzuli zen.

— Gizatxar zitala halakoa! —esan zuen Klaus Txikik—. Bertan garbitu behar ninduen. Eskerrak amona dagoeneko hilotz zegoen, hilko zuen-eta bestela.

Orduan, jantzi zizkion amonari igandetako arropak, eskatu zion auzoari zaldia, lotu zuen zaldia gurdira, eta atzeko eserlekuan ezarri zuen amona, gurdiaren trikili-trakalak bota ez zezan. Eta han joan ziren biak basoan barrena. Eguzkia atera zenean, benta handi baten aurrean ziren. Hantxe gelditu, eta zer edo zer jatera sartu zen Klaus Txiki.

Bentako nagusia gizon aberatsa zen, eta bihotz handikoa, gainera, baina erretxina oso, barrua piperrautsez eta tabakoz betea balu bezala.

— Egun on! —esan zion Klaus Txikiri—. Goiztxo jantzi dituk hik arropa onenak!

— Bai —esan zuen Klaus Txikik—. Hirira noak amonarekin. Amona hor kanpoan diat, gurdian eserita, ez baitu sartu nahi. Eramango al diok, mesedez, baso bat ezti-ur? Eta garrasika hitz egiok, gorra zagok eta.

— Eramango ez zioat, ba! —esan zuen bentako nagusiak.

Bete zuen baso handi bat ezti-urez, eta gurdian zurrun zegoen amona hilari eraman zion.

— Tori! Hemen duzu ezti-ura, semeak zuretzat eskatu didana! —esan zuen bentako nagusiak, baina andre hilak ez zuen txintik atera ez zirkinik egin.

— Entzun al didazu? —esan zuen bentako nagusiak eztarria urratu beharrean—. Hona semeak zuretzat eskatutako ezti-ura!

Gauza bera oihukatu zion behin eta berriro, baina amonak zirkinik ere ez zuen egiten, eta

bentako nagusiak, haserre baino haserreago, hartu eta aurpegira bota zion ezti-ura. Eta sudurretatik ezti-ura zeriola, han joan zen amona hankaz gora, gurdian eserita baina lotu gabe baitzeraman.

— Arranoa! —esan zuen oihuka Klaus Txikik. Atera zen bentatik arrapaladan, eta zintzurretik heldu zion bentako nagusiari—. Ez didak, ba, amona hil! Begira zer zulo duen kopetan!

— Hau zoritxarra! —esan zuen bentako nagusiak eskuak bihurrituz—. Nire odol bero honek dik errua. Klaus Txiki, maite hori, lakari bat diru emango diat, eta neurea banu bezala lurperatuko diat amona, baina ez ezak ezer esan, gainerakoan, lepoa moztuko zidatek, eta gauza izugarria izan behar dik horrek!

Klaus Txikik, beraz, lakari bete diru eskuratu zuen, eta bentako nagusiak berea balu bezala lurperatu zuen amona.

Klaus Txiki bere diruarekin etxera iritsi bezain laster, Klaus Handirenera bidali zuen semea, neurria utziko ote zion eskatzera.

— Nola liteke, baina! —esan zuen Klaus Handik—. Ez al dut, ba, hil? Neure begiez ikusi behar



diat hori! —eta neurria hartu eta Klaus Txikirengana joan zen.

— Arraioa! Nondik atera duk hik horrenbeste diru? —galdetu zion begiak irten beharrean, hango dirutza ikusita.

— Amona hil hidan ni hil beharrean —esan zuen Klaus Txikik—. Amona saldu eta lakari bat diru eman zidatek ordainez!

— Ez diate gaizki pagatu, gero! —esan zuen Klaus Handik. Eta joan zen lasterka etxera, hartu zuen aizkora, eta bere amona hil zuen bertan. Jarri zuen amona gurdi gainean, eta hirira eramán zuen, botikaria bizi zen etxera, eta hilotza erosiko ote zuen galdetu zion.

— Nor da hori, eta nondik atera duzu hilotza? —galdetu zuen botikariak.

— Amona dut! —esan zuen Klaus Handik—. Lakari bat diru eskuratzeagatik hil dut.

— Jainkoak gorde gaitzala! —esan zuen botikariak—. Zu ez zaude burutik sano! Ez ezazu holakorik esan; entzuten badizute lepoa galduko duzu eta!

Izugarrikeria bat egin zuela esan zion botikariak, oso gizon gaiztoa zela eta zigorra merezi

zuela. Eta Klaus Handiri halako beldurra sartu zitzaion, ezen ziztu bizian alde egin baitzuen botikariaren etxetik; jauzian igo zen gurdi gainera, eragin zaldiari, eta etxera abiatu zen. Botikariak eta gainerakoek zorotzat hartu zuten, eta horregatik utzi zioten alde egiten.

— Larrutik pagatuko didak! —esan zuen Klaus Handik etxera bidean—. Larrutik pagatuko didaanez, Klaus Txiki, bai horixe!

Eta etxera iritsi bezain laster, hartu zuen zeukan zakurik handiena, joan zen Klaus Txikirengana eta esan zion:

— Sartu didak, bai, ederra berriro! Aurrena neure lau zaldiak akabatu nitian, gero nire amona zaharra! Eta dena hire erruz, baina ez didak, ez, berriz sartuko!

Eta harrapatu zuen Klaus Txiki gerritik, sartu zuen zakuan, hartu zakua lepoan, eta oihu batean esan zion:

— Uretan ito behar haut!

Bide luzea egin behar zuen ibaira iristeko, eta Klaus Txiki ez zen, ez, oso karga arina. Bide ondoan eliza bat zegoen; organoa jotzen ari ziren elizan, eta eliztarrek zoragarri kantatzen

zuten. Utzi zuen Klaus Handik zakua lurrean, elizako ate ondoan, eta aurrera segitu baino lehen, elizan sartu eta salmo bat entzutea pentsatu zuen. Klaus Txikik ez zion zakutik alde egingo, eta gainera, elizan ziren denak. Eta elizara sartu zen bera ere.

— Ai ene! Ai ene! —hasi zen intzirika Klaus Txiki zaku barruan. Batera eta bestera mugitzen zuen gorputza, baina alferrik, ezin korapiloa askatu. Horretan ari zela, unai zahar bat pasa zen handik, elurra bezain zuri ilea eta makila luze bat eskuan. Unaiaren aurretik behi- eta zezen-talde handi bat zihoan. Abereek Klaus Txiki zegoen zakua hankaperatu eta azpikoz gora irauli zuten.

— Ai ene, errukarria ni! —esan zuen Klaus Txikik—. Hain gazterik zerura joan beharra!

— Eta nik, gaixo honek! —esan zuen unaiak—. Zahartu, eta ezin oraindik joan!

— Askatu zakua! —egin zuen oihu Klaus Txikik—. Sar hadi nire ordeztu eta zuzen-zuzenean joango haiz!

— Bai, joateko irrikaz nagok! —esan zuen unaiak; askatu zuen zakua, eta Klaus Txiki jauzian atera zen barrutik.

— Abereak hik zainduko dizkidak? —galdetu zuen agure zaharrak zakuan sartzean. Klaus Txiki zakua lotu, eta behi eta zezen guztiekin alde egin zuen handik.

Handik laster irten zen Klaus Handi elizatik; hartu zuen berriro zakua lepo gainean, eta karga gutxiago zuela iruditu zitzaion; izan ere, unai zaharra Klaus Txikiren erdia zen pisuan.

— Arinago zagok orain zaku hau! Salmoa entzuten egon naizelako izango duk, noski!

Eta ibai aldera abiatu zen. Oso ibai sakona eta zabala zen. Bota zuen uretara zakua, unai zaharra barruan, eta esan zion oihuka, Klaus Txiki zelakoan:

— Ez duk, ez, nire lepotik barre gehiago egingo!

Eta etxe aldera abiatu zen, baina bidegurutzera iristean, Klaus Txiki topatu zuen, ganadua-rekin bidez zihoala.

— Zer arraio da hau! —esan zuen Klaus Handik—. Baina ez al haut, ba, oraintxe bertan ibaira bota?

— Bai, ba! —erantzun zuen Klaus Txikik—. Orain dela ordu erdi bat eskas bota nauk!

— Eta nondik atera duk, ba, halako abere-talde ederra, jakin baliteke? —galdetu zuen Klaus Handik.

— Uretako ganadua duk —esan zuen Klaus Txikik—. Oraintxe kontatuko diat zer gertatu zaidan, eta gainera eskerrak eman behar dizkiat ni ibaira botatzeagatik. Hemen naukak berriro, eta guztiz aberastuta, ikusten duanez. Beldur handia pasa diat zaku barruan: haizea txistuka sumatu diat belarrietan, zubitik behera ibaiko ur hotzeta-  
ra bota nauanean. Berehala jo diat hondoa, baina ez diat minik hartu, oso belar biguna hazten baita han behean. Hondoa jo orduko zabaldu duk zakua, eta dontzeila eder bat agertu zaidak aurrez aurre, elurra bera bezain jantzi zuria soinean eta koroa berde bat adats bustiaren gainean; eskutik heldu eta esan zidak:

«— Zu Klaus Txiki zara, ezta? Hona hemen zenbait abere zuretzat; bide-puska bat urrunago

abere-talde oso bat dago, eta opari eman nahi dizut.»

«Orduan konturatu nauk ibaia bide handi bat dela urtarrentzat. Han behean zabiltzak bidez bide, itsasotik ibaiaren azken muturreraino. Lore zoragarri politak zeudean, eta belarrik samurrena hazten zuan, eta arrainak, uretan igeri, belarrien inguruan zebilzkidaan itzulinguruka, hemen txoriak airean bezala. Bai jende jatorra hangoa, eta zenbat eta zenbat abere bide-bazterretan!»

— Orduan, zergatik itzuli haiz, ba? —galdetu zion Klaus Handik—. Ni ez nindukean itzuliko, han hondoan dena hain zoragarria baldin bada.

— Zera —esan zuen Klaus Txikik—, trikimailu bat erabili diat. Entzun duk arestian kontatutakoa, ezta? Ibaiko dontzeilak esan zidak bidepuska bat aurrerago —eta bidea esan duenean ibaia esan nahi zian, hark ez baitu beste ibilbiderik— beste abere-talde bat aurkituko nuela niretzat. Baina nik bazekiat zenbat ukondo egiten dituen ibaiak, orain alde batera, gero bestera; luze jotzen dik. Horregatik, ahal izanez gero, asko laburtzen duk uretatik irten, eta lehorretik joanda. Horrela, bide-puska handia aurreratzen

duk eta lehenago eskuratzen duk uretako ganadua.

— Hi haiz, hi, zorionekoa! —esan zuen Klaus Handik—. Eta neu jaisten banaiz, lortuko ote dut urpetar abererik?

— Bai, ba! —esan zuen Klaus Txikik—. Baina ezin haut zakuan eraman ibairaino; astunegia haiz niretzat. Dena den, heure kabuz joan, eta zakuan sartzen bahaiz, neronek botako haut, eta pozik, gainera!

— Eskerrik asko! —esan zuen Klaus Handik—. Baina ibai-hondoraino heldu, eta ez badut uretako ganadurik eskuratzen, txiki-txiki egingo haut!

— Ez hadi horren gogorra izan, motel!

Eta ibai aldera abiatu ziren. Abereak, ura ikusi orduko, abailan joan ziren edatera, egarriz amorratzen baitziren.

— Begira zer habaila daramaten —esan zuen Klaus Txikik—. Ibai hondora itzuli nahi ditek berriro horiek!

— Bai, baina lagun egidak niri lehenbizi —esan zuen Klaus Handik—. Egurtuko haut beste-

la! —eta zezenetako baten bizkar gainean zegoen zaku handi baten barruan sartu zen.

— Baina sar ezak harri bat badaezpada, hondoratuko ez banintz ere —esan zuen Klaus Handik.

— Bai, motel, lasai! —esan zion Klaus Txikik; sartu zuen, bada, harri handi bat zakuan, lotu zuen ondo zaku hori, eta plastaaa... bota zuen uretara. Han joan zen Klaus Handi zubitik behera, eta berehala murgildu zen ibaiaren hondohondoraino.

— Ez zakiat, ba, ganadu askorik aurkituko duen horrek! —esan zuen Klaus Txikik, eta bere abereak hartuta, etxera joan zen.

*(Lille Claus og store Claus)*



# KANPAIA

Iluntzean, hiri handiko kale txikietan, eguzkia ezkututzen zenean, eta tximinien artetik hodeiek urreak bezala distirutzen zutenean, sarritan entzuten zuen jendeak, noiz batek, noiz besteren batek, ohiz bestelako soinu bitxi bat; eliza bateko kanpai hotsa zirudien, baina bitarte labur batean baino ez zen entzuten, hain zen handia zalgurdien abarrotsa eta kaleko ardaila!

— Gauezkila da —esaten zuten—, eguzkia sartzera doa.

Hiriaz kanpora joaten zirenek, nola han etxeak sakabanatuago zeuden, bakoitzak bere lorategia edo baratze txikia zuela, are ederragoa ikusten zuten iluntzeko zerua eta argiago entzuten kanpai-errepika. Eliza bateko kanpai-hotsa zirudien, basoan, baso isil urrintsu hartan, egon behar zuen elizaren batekoa, eta hara begira jartzten zen jendea, handikiro.

Denbora igaro zen, eta elkarri esaten zioten:

— Elizaren bat ote dago basoan? Bai soinu bitxia eta polita kanpai horrena! Zergatik ez gara hara joaten, bertatik ikustera?

Aberats jendea zalgurdietan abiatu zen, eta behartsuak oinez, baina oso bide luzea zen, eta basoaren ertzean hazten zen sahasti batera heldu zirelarik, hantxe eseri ziren, zuhaitzen adar luzeei begira, basoaren erdi-erdian zeudelakoan. Hiriko gozogile batek, iritsi eta denda jarri zuen, eta gero, beste gozogile batek kanpai bat eseki zuen bere dendan, bikez estalia, euri-tik babesteko, eta mihirik gabea. Jendeak oso erromantikoa iritzi zion txangoari, eta inondik ere, te hartzea baino askoz hobea izan zela esan nahi zuen horrek. Hiru lagunek esan zuten alde alde igaro zutela basoa, eta denbora guztian entzun zutela kanpai-danda bitxi hura, baina hotsa, hiri aldetik zetorrela iruditu zitzaizela beraiei. Batek poema bat eta guzti egin zuen horren gainean; poeman esaten zen kanpaiaren soinua ama batek bere haur maitearekin darabilen ahotsa bezalakoxea zela, eta ez zegoela kanpai-danda harena baino doinu goxoagorik.

Herrialdeko enperadoreari ere iritsi zitzaion horren berri, eta kanpai-hotsa nondik zetorren aurkitzen zuenari «Munduko Kanpai Jole Nagusi» titulua emango ziola agindu zuen, baita zera hura kanpaia ez bazen ere.

Jende asko sartu zen basora sari-usainean, baina batek bakarrik ekarri zuen azalpen-antzeko zerbait. Inor ez zen ordea nahikoa barrendu basoan, ezta hura ere, baina esan zuenez, zuhaitz barren-huts batean bizi zen hontzakote batek eragina zen kanpai-danda. Hontza jakintsu bat omen zen hura, eta danba-danba, zuhaitza buruaz jotzen aritzen zen etengabe, baina hotsa zerk egiten zuen, edo hontzaren buruak edo enborrak, hori ez omen zekien. Nolanahi ere, Munduko Kanpai Jole Nagusi izendatu zuten, eta urtero-urtero hontzari buruzko hitzaldi labur bat prestatzen zuen, baina hala ere ez zen beste ezer jakin.

Sendotza-eguna iritsi zen horretan. Gotzainak oso hitzaldi ederra egin zuen, zirraragarria benetan. Sendotza hartutakoak guztiz hunkiturik zeuden, egun handia baitzen haientzat: haur iza-teari utzi eta heldutasuna iristen zuten, ume

arima pertsona zentzudunago batena bihurtu balitzaie bezala. Eguraldi bikaina zegoen, eguzkitsua; sendotza hartu eta gero, hiritik kanpora irten ziren gazteak, eta han argi eta garbi entzun zuten kanpai ezezagunaren hotsa, baso aldetik entzun ere, inoz baino ozenago. Bat-batean basora joateko gogo bizia egin zitzaien denei, hiruri izan ezik. Neska batek etxera itzuli behar zuen dantzaldirako soinekoa saiatzera, dantzaldi eta soineko haiexengatik hartu baitzuen sendotza egun hartan; bestela, itxaron egin beharko zuen! Bigarrena mutil behartsu bat zen; sendotzako jantziak eta oinetakoak maileguz hartu zituen ugazabaren semearengandik, eta ordu jakin batean itzuli behar zizkion. Hirugarrenak esan zuen ez zela leku arrotzera joaten gurasoekin ez bazen, esaneko mutila izan zela beti, eta berdin jarraitzeko asmoa zuela aurrerantzean ere, sendotza hartuta egonagatik, eta ez ziotela horregatik barre egin behar!..., baina besteek horixe egiten zioten, barre gogotik.

Hiru horiek, beraz, ez ziren joan; gainerakoek, berriz, bideari ekin zioten. Eguzkia dizdiz eta txoriak kantari ari ziren. Sendotza hartutako gaz-

tetxoak ere, elkarri eskutik helduta, txoriekin batera kantari zihoazen, oraindik ez baitzuten ardurazko betebeharrik, eta, gainera, sendotza hartu berriak ziren Jainkoaren aurrean.

Baina, luze gabe, nekeak hartu zituen gazteenetako bi, eta hirira itzuli ziren biak. Beste bi neskato lurrean eseri ziren, lorezko koroak egitera, eta ez zuten bidean aurrera jarraitu. Gainerakoek, gozogileek dendak jarri zituzten sahasira iristean, esan zuten:

— Begira, heldu gara! Kanpaiaren arrastorik, ordea, batere ez; jendearen irudipen hutsa izango zen!

Orduan bertan, kanpaiak jo zuen baso alde-tik, eta hain gozo eta handios jo ere, ezen lauz-pabostek gehixeago barneratzea erabaki zuten. Oso baso sarria zen, itxi-itxia, eta igarotzen zaila. Liliak eta otso-belarrak oso gora hazten ziren, goregi, aukeran, eta aihenek eta laharrek sorta luzeak eratzen zituzten zuhaitzik zuhaitz, non ere urretxindorrek kanta-kantari eta eguzki-izpiak jostari zebiltzan. Oso leku polita eta lasaia zen. Baina ez zen ez hura neskentzako moduko bidea: soinekoak urratuko zitzaizkien. Baziren

han haitz handiak, kolore guztietako goroldioz estaliak, eta ur gardeneko iturritxoak, ura soinu berezia eginez zeriena: «gur, gur!».

— Ez da, ba, hau izango kanpaia! —esan zuen mutiletako batek, eta soinu hura entzutera etzan zen lurrian—. Arretaz aztertu beharra dago hau —eta bera han geratu zen, eta gainerakoek aurrera jarraitu zuten.

Zuhaitz-azalez eta adarrez egindako etxola batera iritsi ziren halako batean; arbola handi bat, basa sagarrez betea, etxola gainera abaildurik zegoen, haren teilatu arrosaz estalira astindu nahiko balu bezala bere oparotasuna. Sagar-arbolaren adar luzeak teilatu gailurreraino hedatzen ziren, eta teilatu gailurrean kanpai txiki bat zegoen zintzilik. Hori ote zen entzun ohi zutena? Bai, bat etorri ziren horretan denak, bat izan ezik. Mutil horren arabera, aurkitu zuten kanpai hori oso txikia eta mehea zen, ezin zitekeen lehenago hain urrutitik entzun zuten hura izan, eta gainera, egiten zuen hotsak ez omen zituen bestearenak bezala gizakien bihotzak hunkitzen. Horrela mintzatu zen mutil hori erre-

ge-seme zen eta horregatik eman zioten besteek erantzun hau:

— Errege-kastako hauek gehiago dakitela erakutsi behar beti!

Horrenbestez, bakarrik abiatu zen basoan barrena. Bidean aurreratu ahala, gero eta gehiago estutzen zion bularrean basoko bakartasunak. Baina berdin entzuten zuen besteei horrenbeste gustatu zitzaien kanpai txiki hura, eta tarte-marteka, haizeak gozogilearen aldetik jotzen zuenean, argi entzuten zien haiei ere, tea hartzen eta kanta-kantari ari zirela. Baina kanpaiaren danda sakona guztiaren gainetik entzuten zen, organo batek lagunduta bezala; kanpai-hotsa ezkeraldetik zetorren, bihotza dagoen aldetik.

Horretan, abar-hotsa entzun zen sasi artean, eta hara non agertzen den errege-semearen aurrean mutiko bat, eskalapoiez eta eskumuturrak agerian uzten zizkion jaka batez jantzita. Elkar ezagutu zuten. Izan ere, mutikoa sendotza hartu zutenetako bat zen, ugazabaren semea, jaka eta botak itzuli behar zizkiolako besteekin joaterik izan ez zuena. Eta jaka eta botak itzuli

ondoren, eskalapoia eta lehengo arropa txiroak jantzita abiatu zen, bakar-bakarrik, kanpai-dandaren ozenak eta sakonak erakarrita.

— Elkarrekin joan gaitezke —esan zuen errege-semeak.

Baina eskalapoiekiko koitadua lotsa-lotsa eginda zegoen. Jakaren mauka motzei tira egin, eta behar bezain arin ibiliko ote zen ez zekiela esan zuen, eta, bere iritziz, kanpaia bilatzeko eskuinaldera jo behar zela, alde hori zelako gauza handi eta aintzagarri guztiei zegokiena.

— Tira ba, baina horrela ez dugu berriz elkar ikusiko —esan zuen errege-semeak, eta buruaz keinu egin zion mutiko txiroari. Mutikoa basoko alderdi ilun eta sarrienean barneratu zen. Arantzek arropak urratu eta odoletan utzi zizkieten aurpegia, eskuak eta oinak. Errege-semeak ere bazituen harramazka batzuk, baina hari behintzat eguzkiak argitzen zion bidea eta harexekin joango gara gu ere, adoretua dugu-eta mutila.

— Aurkitu egin behar dut kanpaia, eta aurkitu egingo dut —esan zuen—, baita munduaren azken muturreraino joan behar badut ere.



Han, zuhaitzetan, baziren tximino nazkagarri batzuk, hortz guztiak agerian barrez errege semeari:

— Harrika egingo diogu? —zioten—. Harrika egingo diogu, errege-semea da eta!

Errege-semeak, batere beldurrik gabe, aurrera jarraitu zuen, basoan gero eta barrenago. Sekula izan diren lorerik harrigarrienak hazten ziren basoan: izar-itxurako lili zuriak odol-koloreko lorezil gorriekin, zeru-koloreko tulipa urdinak haizetan dizdiz... Sagarrondoek, berriz, xaboi-punpuila handi distiratsuak adinako sagar-aleak zituzten. Pentsa nolako distira egingo zuten hango zuhaitz haiek eguzkiaren argitan! Zelai berde ezinago ederretan orein arrak eta orein emeak zebiltzan, belarretan jolasean; ba, zelai haien inguruan sekulako haritzak eta pagoak hazten ziren, eta azalean pitzaturen bat zutenei belarra eta aihen luzeak ernatzen zitzaizkien pitzatuetatik. Baziren baso-eremu handiak ere, eta basoetan ur bareko aintzirak, eta aintziretan beltzarga zuriak, hegalak astinduz igeri. Errege-semea, gelditu, eta entzuten jartzen zen; lehenengo aldietan kanpai-hotsa aintzira sakon haie-

tako batetik zetorrela iruditu zitzaion; gero jabetu zen, ordea: kanpaiak ez zuen antziretan jotzen, basoan barrenago baizik. Eguzkia apal-tzen hasi zen, airea suarena bezalako distira gorri batek hartu zuen, eta basoan baretasun handi bat nagusitu zen. Belauniko jarri, arratsaldeko salmoa kantatu, eta esan zuen:

— Ez dut sekula aurkituko bila nabilen hori! Ezkutatzera doa eguzkia, badator gaua, gau beltza. Eguzki biribil gorria ikusi ahal izango dut lur azpira erabat ezkutatu aurretik. Haitz haietara igoko naiz; zuhaitz garaienak bezain handiak dira eta!

Eta muskilei eta zuztarrei helduz, haitz hezeetan gora joan zen; harrietan uretako sugeak kiribiltzen ziren eta apoek zaunka egiten ziotela ematen zuen, baina hala ere eguzkia erabat desagertu aurretik iritsi zen gora. Gain hartatik ikusten zena, zein ikuskizun paregabea! Itsaso, itsaso handi ikusgarria begien aurrean ageri zitzaion, bere baga luzeak kostaldera bultzaka, eta itsasoak eta zeruak bat egiten zuten hartan, aldare handi distiratsua ematen zuen eguzki-begiak. Sugarrezko koloretan urtuta bezala

zegoen dena. Basoa kantari, itsasoa kantari, eta haren bihotza ere beraiekin batera kantari. Eliza handi sakratu bat zen izadi osoa: arbolak eta airean loka zeuden hodeiak habeak ziren, loreak eta belarra belusezko apaindura, eta zerua, berriz, kupula handi bat. Goialdean gorri-kolorak apalduz zihoazen eguzkia gorde ahala, baina milioika izar piztu ziren, milioika lanpara diamantezko, eta errege-semeak besoak zabaldu zituen zerurantz, itsasorantz, eta basorantz..., eta orduantxe, eskuineko aldetik, mauka motzeko jakaz eta eskalapoiez jantzita, mutiko txiroa agertu zen. Leku berera iritsi ziren biak batera, zein bere bidetik. Bata bestearengana joan ziren korrika, eta eskutik heldu zioten elkarri, Izadiaren eta Poesiaren tenplu handi hartan; eta haien gainean kanpai santu ikusezinak jo zuen, inguruan arima dohatsuak zebilzkiola jira eta bira dantzan eta pozaren pozez aleluika!

*(Klokken)*

# ZORIONAREN ESKALAPOIAK

## I. Hasiera

Gau batez festa handi bat ospatzen ari ziren Kopenhagen, Østergade kaleko etxe batean, Kogens Nytorvetik hurbil. Noizean behin egin behar izaten diren horietako festa bat zen; beste festa baterako gonbitea jaso nahi izanez gero antolatu behar izaten diren horietakoa, alegia. Gonbidatuen erdiak karta-jokoan ari ziren mahaira eserita, eta beste erdiak, berriz, etxekoandreak «Ea, ba, zerbait bururatzen zaigun» esan ondoren zer gertatuko zain zeuden.

Horretan zeuden beraz, eta elkarrizketa nola-hala bazihoan aurrera. Erdi Aroaz mintzatu ziren, besteak beste, eta garai hura gurea baino askoz ere hobea omen zela esan zuen norbaitek. Bai, Knap epaileak esan zuen hori. Eta bero-bero jardun zuen, gainera, iritzi horren alde hizketan, hain sutsu, non etxekoandrea ere haren alde jarri baitzen. Ørstedek *Iraganari eta orainari*

*buruzko almanakan* idatzitako artikulua gaitzetsi zuten biek, artikulua hartan gure garaia, oro har, hobea zela esaten zela eta. Izan ere, epailearen ustetan, Hans erregearen agintaldia izan zen sekula izan den garai onena eta zoriontsuena.

Eta horrela jarraitu zuten, baietz eta ezetz, harik eta arratsaldeko egunkaria iritsi zelarik etenaldia egin zuten arte. Etenaldi laburra harere, egunkariak ez baitzekarren irakurtzea merezi zuen ezer. Baina utz ditzagun berriketak, eta goazen orain sarrera-gelara, berokiak, bastoiak, aterkiak eta eskalapoiak uzten ziren gelara. Bi neskame zeuden han eserita: gaztea zen bata, eta zaharra bestea. Itxuragatik, beren ugazabandreei festara lagun egitera etorriak ematen zuten, neska zahar ezkongaberen edo alarguntzaren batekin etorriak edo. Baina bi emakumeei arretaz begiratu gero, berehala antzematen zitzairen ez zirela neskame arruntak inondik ere: leun-leunak ziren haien eskuak, neskame baten-tzako dotoreegiak haien egokera eta imintzioak, eta ikusgarri eta bitxiak, berriz, jantziak. Jakina, bi maitagarri ziren eta! Gazteena ez zen Zorion bera, baina bai haren ohorezko dama baten don-

tzeila, Zorionaren opari txikienak banatzen ibiltzen den horietako bat. Zaharra, berriz, kopetilun zegoen; Oinaze zen, eta berak egiten dituz bere mandatu guzti-guztiak, behar bezala egiten direla ziur egon nahi izaten baitu beti.

Egunean zehar zer egin zuten kontatzen ari zitzaion bata besteari. Zorionaren ohorezko damaren dontzeilak txikikeria batzuk baizik ez omen zituen egin ordu arte: kapelu berri bat putzura erortzetik libratu, Handiki batek gizon zintzo bati agur esatea lortu, eta horrelakoak. Baina ba omen zuen agindu berezi-berezi bat artean betetzeko.

— Kontatu egin behar dizut —esan zuen—. Begira, urteak ditut gaur, eta hori ospatzeko eskalpoi pare bat eman didate, nik gizadiari emateko aginduarekin. Ahalmen handiko eskalpoiak dira: horiek janzten dituen gizakia nahi duen garaira edo tokira joan ahal izango da berehala; denborarekin eta tokiarekin zerikusia duten desio guztiak beteko zaizkio bat-batean. Eskalpoi horiei esker mundu honetan zoriona ezagutu ahal izango du jendeak behingoz.

— Eta hik sinetsi, zuntzuna halakoa! —esan zion Oinazek—. Eskalapoi horiek janzten dituen zoritxarreko izango dun, eta eskalapoi horietatik noiz askatuko irrikitan egongo dun!

— Bai zera! Hori ez da egia! —erantzun zion besteak—. Begira, hementxe utziko ditut, ate ondoan; horrela, bakarren batek jantzi egingo ditu, bereak dituelakoan, eta zoriona zer den jakin ahal izango du. Ikusiko duzu!

Eta horrelaxe amaitu zen elkarrizketa.

## II. Epailearena

Berandu zen. Knap epaileak, gogoan Hans erregearen garaian murgilduta, etxera joan behar zuela erabaki zuen. Baina hain zegoen lilaratuta, ezen bere eskalapoiak jantzi ordez Zorionaren eskalapoiak jantzita atera baitzen Østergadera. Eta eskalapoiaren ahalmen magikoa zela eta, hara non aurkitzen den Hans erregearen garaian, eta ikusten duen kalea buztinez eta lokatzez beterik, artean zolatu ere gabe.

— Ene... hemengo lokatza eta zikina! —esan zuen Epaileak—. Ez dago espaloirik, eta kaleko argi guztiak itzalita daude!

Ilargia ez zen zeru goienera iritsi artean, eta gau lanbrotsua zenez, dena erdi ilunbetan zegoen. Kale-argitxo bat ikusten zen, halere, lehenengo kale-kantoian: Ama Birjinaren irudi baten aurrean zintzilik jarritako argia zen, baina hark ere argi askorik ematen ez, eta Epaileak ez zuen irudia ikusi haren pare-parera iritsi arte. Ama Birjinaren eta Haurraren irudi bat zen.

— Erakusketa-areto batekoa edo izango da; irudia jasotzea ahaztuko zitzaien.

Orduan, Erdi Aroko tankeran jantzitako bi gizon pasa ziren Epailearen albotik.

— Hara besteak! Mozorro-dantza batetik datoz hauek, seguru!

Hurrena, danbor- eta xirula-hotsa entzun eta lastargi batzuk ikusi zituen. Epailea bertan gelditu zen, begira-begira, eta sekulako prozesioa zetorrela ikusi zuen. Aurrena danborjoleak zetozen, beren instrumentua trebeki jotzen, eta soldaduak atzetik, balezta-arkuez armaturik. Prozesioko pertsonaiarik ospetsuena, ordea, apaiz jan-



tzita zetorren gizon bat zen. Epailea harri eta zur zegoen: zer demontre zen hura guztia, eta nor arraio zen gizon hura?

— Selandiako gotzaina da, gizona! —esan zioten.

— Jainkoarren! —esan zuen—. Zer gertatu ote zaio, ba, gotzainari?

Epaileak burua astindu zuen: ezetz, hura ez zela gotzaina. Eta Østergaden behera abiatu zen, gotzainaren kontu hartan pentsatzen, ez eskuin ez ezker begiratu gabe. Igaro zen Hojbropladsen enparantzatik, baina ezin aurkitu Slotspladsengo zubia: ibai zabal moduko bat besterik ez zegoen. Azkenean, bi gizon ikusi zituen txalupa batean.

— Uhartera eraman dezagun nahi du berorrek? —galdetu zioten.

— Uhartera? —esan zuen Epaileak, zein garaitan zegoen ohartu gabe artean—. Christianshavnera joan nahi dut, Torvegade txikira.

Bi gizonak begira-begira geratu zitzaizkion.

— Baina, esaidazue, arren, non den zubia. Lotsagarria da hau! Kale-argi bakar bat ere ez

piztuta! Eta padura batean gabiltzala ematen du, hainbeste lokatzarekin!

Baina, txalupazainei zenbat eta gehiago hitz egin, orduan eta gutxiago ulertzen zuten elkar.

— Ez dut ulertzen Bornholmeko zuen dialekto hori, aizue! —esan zien haserre, eta atzera jiratu zen. Eginahalak eginda ere ezin zubirik aurkitu, ordea; eta eskudelaren arrastorik ere ez!

— Sekula halakorik! Lotsagarria da hau! —esan zuen.

Izan ere, sekula ez zitzaion iruditu bere garaia gau hartan bezain negargarria.

— Tira, tira, zalgurdi bat hartzea izango da onena... —pentsatu zuen. Non zebiltzan zalgurdiak, ordea? Bat bera ere ez zen inon ageri!

— Handia da hau, gero! Hauxe behar genuen! Kongens Nytorvera itzuli beharko dut; han beti izaten da gurdiren bat. Ez naiz Christianshavnera berehalakoan iritsiko bestela!

Eta, hala, Østergadera abiatu zen, eta kale erditsura edo iritsita zegoenean, ilargia laino artetik atera zen.

— Jesus! Hau da aldamiaoa, hemen jarri dutena!

Baina Østerport zen; garai zahar haietan Østergaderen amaieran zegoen.

Azkenean, atexka bat aurkitu zuen, eta gure Nytorvera atera zen, baina larre zabal bat besterik ez zen artean. Zuhaixka batzuk zeuden, han eta hemen, eta belarditik ubide edo ibai zabal bat igarotzen zen. Ibai ertzean etxola batzuk ageri ziren, holandar itsasontzi-patroientzako etxeak; izan ere, Holandarren Belardia deitzen zioten leku hari orduan.

— Edo ni ari naiz *fata morgana* horietako bat ikusten, orain esan ohi duten bezala, edo, bestela, seko mozkortuta nago! —esan zuen Epaileak hasperenka—. Zer... zer demontre da hau?

Atzerantz itzuli zen, gaixo zegoela sinetsita. Kalera bueltatu eta arretaz begiratu zien etxeei, lehen baino arreta handiagoz oraingoan: hormak zuntoiez eginak ziren eta lastozko sabaia zuten gehienek!

— Ez, ez: ez nago neure onenean! Pontxe-tra-goxka bat besterik ez dut edan, baina, antza denez, ez dit batere onik egin. Izan ere, hori da

astakeria: afaritarako pontxea eta izokin epela jartzea ere! Esan egin beharko diot anfitrioiari. Agian, hara itzuli eta nola nagoen ikusiko balute... Baina, hain barregarria da hau guztia... gainera, batek daki ez ote ziren oheratuko honezkerro.

Eta hasi zen etxearen bila, baina hura ere ezin izan zuen aurkitu.

— Arraioa! Izugarria da! Ez dago Østergade hau ezagutuko duen kristaurik! Ez dago dendarik, etxola kaskar xahar batzuk bakarrik; Roskilden edo Ringsteden nagoela ematen du. Baina, tira, ez dezadan denborarik gal, oso gaixo nago eta! Ene... non arraio ote dago agentearen etxea? Hara! Etxe hau ere ez da lehengo hura, baina norbait bada esna, eta berehala konturatuko dira ondoezik nagoela.

Atea erdi zabalik aurkitu zuen, eta argia ikusten zen zirrikitutik. Behinolako ostatu bat zen, garagardotegi-moduko bat. Holsteingo taberna bat ematen zuen. Gizaseme jator batzuk zeuden barruan: itsasontzi-patroiak, Kopenhageko burgesak eta legegizon pare bat. Han ari ziren, beren garagardo pitxarren inguruan eserita

eztabaida sakonean, eta ez zioten jaramon handirik egin bisitariari.

— Barkatu —esan zion Epaileak etxekoandreak—. Ondozik nago! Eskatuko al didazu gurdi bat, mesedez, Christianshavnera eraman nazan?

Etxekoandreak Epaileari begiratu, burua astindu eta alemanez hasi zitzaion. Eta etxekoandreak danieraz ez zekielakoan, Epaileak alemanieraz egin zion galdera. Andreak, berriz, hori entzun eta Epailearen janzkera bitxia ikusita, gizon hura atzerritarra zela pentsatu zuen; baina ohartu zen gizona gaixo zegoela, eta pitxar batean putzutik harturiko ura eman zion, gazi samarra.

Epaileak burua esku artean ezkutatu, arnasa sakon hartu eta hura guztia zein bitxia zen pentsatu zuen.

— Arratsaldeko «Eguna» al da hori? —galdetu zuen zerbait esatearren, etxekoandreak eskuan paper-puska handi bat zekarrela ikusi zuenean.

Andreak ez zuen ulertu Epaileak zer esaten zion, baina kazeta hartu eta eman egin zion. Zur

gainean egindako grabatu bat ikusten zen irudian, eta Koloniako hirian gertatu omen zen fenomeno optiko bat agertzen zen grabatuan.

— Oso zaharra da, gero! —esan zuen Epailleak, hain aspaldiko obra bat aurkitu izanaz harriturik—. Non aurkitu duzu hain antzinako kazeta hau? Balio handiko kazeta da, gertakari hura guztia asmakizun hutsa izan bazen ere; izan ere, irudian agertzen den fenomeno egunsenti boreal bat besterik ez omen zen izan, ez dago zalantzarik elektrizitateak eragindako fenomeno bat izan zela.

Epailearen inguruan eserita zeudenek harri eta zur begiratu zioten hori esan zuenean. Zutitu zen bat, agurtu zuen adeitasunez Epailea eta, serio-serio jarrita, esan zion:

— Oso gizon jakintsua da berori, *monsieur*.

— Ez, ez —erantzun zion Epailleak—. Denetik pixka bat bakarrik, badakizu nola izaten den...

— Bertute handia da *modestia* —erantzun zion besteak—. Berorrek esan duena *mihi secus videtur* iruditu zait, baina hemen uzten dut atsegin handiz nire *judicium*.

— Galde diezazuket norekin ari naizen? —galdetu zion Epaileak.

— Idatzi Sakratuetan *baccalaureus*-a naiz —erantzun zion gizonak.

Epaileak aski izan zuen erantzun hori; titulu hura primeran zegokion gizon haren janzkerari. Eskola-maisuren bat, pentsatu zuen Epaileak, tipo bitxia benetan, Jutlandian oraindik aurki daitezkeen bakar horietakoa.

— Ezin esan hau *locus docendi* bat denik —jarraitu zuen gizonak—, baina, tira, jarrai beza berorren hitzaldiarekin, mesedez. Asko jakingo du antzinateaz.

— Halaxe da, bai. Gustukoa dut liburu zahar interesgarriak irakurtzea, eta atsegin ditut modernoak ere, baina ez «Egunoroko Istorioak» eta horrelakoak; horretarako aski ditugu errealtateko istorioak —esan zuen Epaileak.

— *Egunoroko Istorioak* dio berorrek? —galdetu zion gure batxilerrak.

— Bai, gaur egungo eleberri horiek esan nahi dut.

— Oh —esan zuen besteak irribarretsu—. Talentu handiz idatziak dira, ba. Eta gortean ere

irakurtzen dituzte. Erregeak Ivent eta Gaudian zaldunen eleberria atsegin omen du, Arturo erregeari eta Taula Biribilari buruzko hori. Gorteko zaldunekin txantxetan ibili omen da ipuin horren kontura.

— Baliteke. Nik ez dut irakurri oraindik; Heibergek argitaratu berria izango da.

— Ez —erantzun zion besteak—. Ez du Heibergek argitaratu, Gottfred von Ghemenek bai-zik.

— Horrek argitaratua da, beraz? —esan zuen Epaileak—. Oso izen zaharra da! Izan ere, ez al zen bera izan Danimarkako lehen argitaratzailea?

— Bai, bera dugu gure lehen argitaratzailea —erantzun zion besteak.

Eta berriketan jarraitu zuten lasai-lasai. Ostaturko burges bat ere hasi zen haiekin hizketan. Urte batzuk lehenago hondamendia ekarri zuen izurri ikaragarriari buruz aritu zen burgesa, 1484ko izurriari buruz, hain zuzen. Epaileak, berriz, kolera-izurriari buruz ari zela uste izan zuen, eta horri eskerrak ez zuten inolako gorabeherarik izan beren elkarrizketan. Mintzagai izan



zuten zuela urte gutxi, 1490ean, gertaturiko Itsaslapurren gerra ere; itsaslapur ingelesek itsasontziak sakailatu omen zituzten Rhedenen; eta Epailea, 18014 urteko gertakariak bizi izan baitzituen berak, besteekin bat etorri zen, eta ingelesen jarrera kritikatu zuen. Baina elkarrizketak itxura txarra zuen ordurako, gero eta ilunagoa; batxiler gizajoa ez zen oso gizon jantzia ere, eta Epailearen hitz sinpleenak ere ausartegiak edo fantastikoegiak iruditzen zitzaizkion. Azkenean, elkarri begira gelditu ziren, batak bestea ezin ulerturik. Batxilerra latinez hasi zen, horrela besteak hobekiago ulertuko ziolakoan, baina alferrik hori ere!

— Ondo al zaude? —galdetu zion etxeakoandreak Epaileari, berokiko mahukatik tiraka. Eta orduan gogoratu zuen Epaileak, elkarrizketarekin erabat ahaztua baitzuen, ostatura iritsi aurretik hartutako tratua.

— Jainkoarren! Non arraio nago? —esan, eta buruko arina egin zitzaion pentsatzen hasi orduko.

— Edan dezagun ardo gorria! Eta ezti-ura, eta Bremengo garagardoa! —oihukatu zuen bezero batek—. Berorrek ere edan beza gurekin!

Orduan, bi neskak sartu ziren, bi koloreko kofiak buruan, eta, buru-makurtua eginez, edatekoa atera zieten. Epaileak izotzaren hotza nabaritu zuen bizkarrean.

— Zer da hau? Zer demontre gertatzen da? —esan zuen, baina gainerakoekin edan behar izan zuen berak ere. Haien esku zegoen, gizajoa, eta zeharo atsekabeturik. Bezeroetako batek mozkortuta al zegoen galdetu zion; Epaileak ez zion ezetzik esan, baina *droschke* bat bila zezala erregutu zion. Hitz hori entzutean Epailea Moskueraz hitz egiten ari zela uste izan zuten gainerakoek.

Sekula horrelako gizarte lotsagabe eta arruntik! Bere herria berriro pagano bihurtu zela ematen zuen; hala iruditzen zitzaion behintzat Epaileari.

— Nire bizitzako unerik larriena igarotzen ari naizela uste dut oraintxe!

Baina orduan mahai azpitik lau hankan ateraino joan eta ihes egitea bururatu zitzaion. Ate

albora iritsi zenean, ordea, besteek, haren asmoa igarrita, zangoetatik heldu zioten, eta eskalapoiak galdu zituen, bere zorionerako. Horrela sorginkeria guztia desegin zen.

Epaileak kale-argi bat ikusi zuen piztuta aurre-aurrean, eta etxe handi bat haren atzean; ezagunak zituen etxe hura eta inguruko orube guztiak. Atzera Østergaden zegoen, eta guk eza-gutzen dugun bezalaxe ikusten zuen orain. Lurrean etzanda zegoen, oinak gurditegi bateko atearen kontra jarrita, eta harantzaxeago gau-zain bat zegoen lo.

— Jainkoarren! Ez naiz, ba, kalean lo geratu! —esan zuen—. Bai, bai; hau da Østergade, beti bezain garbi eta argitsu. Izugarria da pontxe-tra-goxka batzuek zenbaterainoko kaltea egin dieza-daketen!

Eta bi minutu geroago Christianshavnera bidean zihoan, zalgurdi batean eroso-eroso eserita. Gau hartan pasatutako larrialdia eta beldurra gogoratu zuen, eta gure garaiko errealitate zoriontsua miretsi zuen, zeren eta akatsak akats, gure garaia askoz ere hobea baitzen bisitatu

berri zuen beste garai hura baino. Eta ez zuen arrazoirik falta Epaileak, ez horixe!

### **III. Gauzainaren abentura**

— Hara, begira zer eskalapoï pare ederra! — esan zuen gauzainak—. Hemen goian bizi den tenientearenak izango dira, haren ate aurrean-txe daude eta!

Gizon zintzoa baitzen, txirrina jo eta eskalapoïak jabeari itzuli nahi izango zizkion gauzainak. Argia piztuta zegoen, baina ez zituenez etxepekoak esnatu nahi, hantxe bertan utzi zituen.

— Bai epel ibiliko nintzatekeela ni traste horiekin —esan zuen—. Hain leuna dute larrua! —eta primeran sartu zitzaizkion oinak eskalapoïetan.

— Eroa da, gero, gure mundu hau! Ohera joan besterik ez zuen, eta begira zertan ari den, gelan atzera eta aurrera! Gizon zoriontsua da: ez du ez emazte eta ez haur, eta gauero jaso ohi du nora edo hara joateko gonbitea. Ai, horren

larruan banengo, orduan bai nintzatekeela ni zoriontsu!

Eta gauzainak bere nahia azaldu bezain pronto, han hasi ziren lanean eskalapoiak; eta teniente bihurtu zuten gauzaina, hezur eta mami. Gelan zutik zegoen eta arrosa koloreko papertxo bat zuen eskuan. Papertxoan poema bat zegoen, tenienteak berak idatzi berria: izan ere, nork ez du poesia idazteko gogoia izan bizitzan behin bederen? Honela zioen poesiak:

*Aberatsa banintz!*

*Artean hankagorri bat baizik ez nintzela  
otoitz egiten nuen aberats izan nahi nuela*

*Aberatsa banintz! ofiziala nintzateke,  
kasaka, lumak eta sastakaia harturik;  
azkenean ofizial izatea lorturik,  
ez dut izan ez izango sekula dirurik.*

*Jainkoak lagun diezadala!*

*Neskato batek ahoan musu eman zidan  
arrats batean,*

*mutiko alai nintzen ni, hura gaztea oso artean,*

*eta izan, banituen hamaika ipuin eta alegia  
ez izan arren dirurik.*

*Eta hark ipuinak entzun nahi zituen soilik,  
izan ugari nituen nik, ez ordea urrerik.*

*Jainkoak lagunduko ahal ditu egunen batean!*

*Aberatsa izan nahi dut!*

*eskatzen diot Jainkoari oraindik,  
zenbat hazi den neskato hura lehendik!*

*Hain da argia, ederra eta ona,  
entzungo balu ene bihotzak dioena  
eta gaztaroan bezala ekarriko balit zoriona...  
pobrea naiz ni eta haren maitasunik  
ez datorkit baina.*

*Azkenean Jainkoak lagunduko ahal dit!*

*Arima bakean baneuka eta  
ez baneuka barrenean harrik,  
ez neukake paperean  
neure mina idatzi beharrik.  
Lerro hauek egunen batean  
iristen badira zuregana,*

*gaztarokoak bailiren irakur itzazu, laztana.*

*Ez irakurtzea apika hobe duzu ordea,  
hain dut beltz etorkizuna, hain naiz pobrea.*

*Jainkoak emango ahal dizu laguntzarik!*

Bai, horrelakoxe bertsoak idaztarazten ditu maiteminak, baina gizon zuhurak ez ditu sekula argitara ematen. Tenienteak, maitasunak eta pobreziak hirukote bat osatzen dute, horrelako zerbait. Are gehiago: Zoriontasunaren lauki apurtuaren erdia osatzen dute. Horixe bera pentsatzen zuen tenienteak ere, eta burua leihoaren kontra jarrita, hasperen egin eta esan zuen:

— Hor beheko gauzaina bera ere ni baino zoriontsuagoa izango da! Ez du-eta ezagutzen zein den nire benetako gabezia! Berak badu etxe bat, badu emaztea, eta baditu seme-alabak, berak sufritzen duenean negar egiten dutenak eta haren pozarekin pozten direnak. Ene, bai zoriontsu nintzatekeela neu ere, haren larruan banengo!

Eta aitaren batean gauzain bihurtu zen berriro gauzaina. Eskalapoiek teniente bihurtu zuten,

baina bere burua lehen baino are zoritxarrekoa-  
go sentiturik, nahiago izan zuen benetan zen  
gizona izatea berriro. Eta horrela, gauzaina gau-  
zain izan zen oster.

— A ze amesgaiztoa! —esan zuen—. Eta bai  
gauza bitxia! Goiko tenientea nintzen neure  
ametsean, baina, egia esan, ez zen batere gauza  
atsegina. Faltan nituen neure kontraria eta muki-  
zuak; ikusten ere ez didate uzten-eta beren  
musuekin!

Berriro eseri zen eta lo-kuluxka egin zuen,  
baina loak ez zizkion bere pentsamenduak  
uxatu, eskalapoiak jantzita baitzituen. Une har-  
tan izar iheskor bat ikusi zen zeruan.

— Hara non doan bat! —esan zuen—. Baina  
mordoa gelditzen da oraindik. Ai... bai zoragarria  
litzatekeela zeruko gauzak hurbilagotik ikusi  
ahal izatea. Batez ere Ilargia, hatz artetik ihes  
egiterik ez duena. Nire emazteak arropa garbi-  
tzen dion estudianteak esaten du hiltzean izar  
batetik bestera ibiltzen garela hegan. Ipuin bat  
da, ezta?, baina ez litzateke gauza txarra ere  
hara gora jauzi egin eta nire gorputza hemen  
gelditzea, eskaileretan. Hori bai ederra!



Baina mundu honetan badira zenbait gauza ongi pentsatuta esan beharrekoak, bereziki Zorionaren eskalapoiak jantzita badituzu. Begira, begira, bestela, gauzainari zer gertatu zitzaion...

Guri dagokigunez, gizakioi alegia, gehientsuenok ezagutzen dugu baporearen lastertasuna zenbaterainokoa den, guztiok ibili baikara noizbait trenez edo itsasoak zeharkatzen dituen itsasontzian. Bada, lastertasun hori alferraren urratsak edo marraskiloaren ibilera bera baino geldoagoa da argiaren lastertasunarekin alderatzen badugu; argia ziztu batean higitzen da, zaldi lasterkaririk bizkorrena baino hemeretzi milioi bider lasterrago. Eta elektrizitatea argia bera baino lasterrago ibiltzen da. Heriotza bihartzean ematen digun deskarga elektriko bat da; elektrizitatearen hegaletan abiatzen omen da orduan arima, aske-aske. Eguzki-argiak hogeit mila egiten ditu zortzi minutu eta segundo batzuetan; baina, elektrizitatearen lastertasunean, arimak minutu gutxiago behar du bide bera egiteko. Argizagien arteko distantzia gure etxearen eta gure lagunaren etxeen arteko distan-

tziaren antzekoa da arimarentzat, nahiz eta elkarretatik oso hurbil egon etxeak. Deskarga elektriko horrek, ordea, gure gorputzak erabiltzeko ahalmena kentzen digu, baita Zorionaren eskalapoiak jantzita baditugu ere.

Hala, gauzainak segundo gutxitan egin zituen Ilargirainoko 52.000 miliak. Ilargia, jakina denez, gure planetarena baino gai askoz ere arinago batez egina da; elur egin berria bezain biguna dela esan genezake. Mädler doktoreak bere Ilargi-mapan erakutsi zituen horietako krater batean aurkitu zen berehala gauzaina. Bada-kizue zein mapa esaten dudan, ez? Kraterrak milia daniar luze bateko zulo handi bat zuen barnealdean; eta hiri bat zegoen haren hondoan. Bada-kizue nola gelditzen den arrautza-zuringo bat urez beteriko edalontzi batean botatzen denean? Bada halakoxea ematen zuen hiri hark ere: bigun-biguna zen; kandelaz osaturiko dorre, kupula eta galeriak zituen; egurats garden eta dardarkarian dilindan zegoen. Gure planeta suzko bola bat bezala ikusten zuen gauzainak, bere gainean bira eta bira.

Hirian jende asko bizi zen. Hango guztiek gurearen oso bestelako itxura zuten, baina giza-kiak zirela esan dezakegu; bazuten hizkuntza propioa ere, eta sinestezina dirudien arren, gauzainak hizkuntza hura ulertu, ulertzen zuen.

Gauzainaren arimak primeran ulertzen zuen Ilargiko biztanleen hizkuntza. Gure Lurrari buruz eztabaidan ari ziren; ez zekiten han inor bizi ote zitekeen, hango airea astunegia omen zen izaki zentzuzkorik han bizi ahal izateko. Uste zuten Ilargian beste inon ez zela izaki bizirik, Ilargia zela planeta berdadero bakarra, han bizi zirela unibertsoko biztanle bakarrak.

Baina itzul gaitezen berriro Østergadera, eta ikus dezagun zer gertatu zen gauzainaren gorputzarekin.

Hantxe zegoen, eskaileretan etzanda; makila eskutik erorita zuen, eta Ilargira begira zituen begiak, hara ihes egin zion arima zoragarriaren bila balebil bezala.

— Zer ordu dugu, gauzain? —galdetu zuen oinezko batek.

Gauzainak erantzunik eman ez eta, oinezkoak sudurretik tira nahi izan zion pixka bat. Baina

gauzainaren gorputzak oreka galdu eta zerraldo erori zen: hilda zegoen. Sudurrean atximur egin ziona ikara-ikara eginda gelditu zen: gauzaina seko hilda! Hala, eman zen heriotzaren parte, eta egunsentian erietxera eraman zuten gorpua.

A ze adarjotzea, bat-batean arima itzuli eta, pentsatzekoa denez, Østergaden zehar bere gorputzaren bila hasi eta aurkitu ez balu! Polizien-gana joango zen korrika, galdutako gauzen bulegora gero, inork aurkitu ote zuen edo, eta erietxera azkenik; baina hori baino askoz ere argiagoa izango da arima bere kasa dabilenean; jakina, gorputzak ez du arima tontotu besterik egingen!

Bada, esan bezala, gauzainaren gorputza erietxean sartu zuten, eta han, garbiketa-gelara eraman eta lehenengo gauza eskalapoiak kentzea egin zioten. Arimak, orduan, ez zuen hara itzuli beste erremediorik izan; gorputza zegoen tokirako bidea hartu zuen instant batean, eta gorputza berpiztu egin zen bat-batean. Bere bizitzako gaurik izugarriena izan zela esan zuen: bi markoren truke ere ez zukeen berriro bizipen hori biziko. Eskerrak dena amaitu zen!

Egun horretan bertan eman zioten alta gauzainari. Baina eskalapoiak hantxe geratu ziren, erietxean.

## **IV. Larriunea. Olerkia. Bidaia txundigarria**

Gure hirian, Kopenhagen, badakigu denok nolakoa den Frederiks erietxeko sarrera, baina litekeena denez ipuin hau kopenhagetarra ez den norbaitek ere irakurtzea, haren deskribapen labur bat egingo dut.

Erietxea hesi garai samar batek bereizten du kaletik, baina hesiaren burdinazko barra lodien artean tarte handia dago eta haien artetik ihes egin eta osteratxoa egitera irten daitezke estudiante argalak; hala esaten dute behintzat. Burua izaten zen barra artetik ateratzen gehien kostatzen zen gorputz atala; eta, kasu honetan ere, mundu honetan beti gertatzen den bezala, buru txikiak ziren abantaila gehien zutenak. Sarrera hau aski izango da.

Estudiante gazteetako bat, buruhandia bera —zentzu fisikoan buru handia zuena alegia—, ari zen gau hartan goardia egiten. Goian behean ari zuen euria. Baina oztopoak oztopo, estudianteak kanpora irten beharra zuen, ordu laurdentxo batez. Ordu laurdenagatik atezainari ezer esaterik ez zuela merezi pentsatu eta barren artetik irtetea erabaki zuen. Gauzainari ahaztutako eskalapoiak han zeuden; estudianteak ez zuen imaginatu ere egin, ezta gutxiagorik ere, Zorionaren eskalapoiak zirenik, baina eguraldi txar harekin oso baliagarriak izango zitzaizkiola pentsatu eta jantzi egin zituen. Orain barra artetik igarotzea bakarrik gelditzen zitzaion. Horretan saiatzen zen lehenengo aldia zuen, eta han zebilen:

— Ai, burua haga artetik pasatzea lortuko banu!

Eta hori esan, eta burua handi-handia zuen arren, erraz eta aise atera ahal izan zuen, eskalapoiei esker. Gorputza ateratzera zihoala, ordea, ez atzera ez aurrera gelditu zen.

— Aggg! Gizenegi nago! —esan zuen—. Nik uste nuen burua izango zela zailena, baina bai zera! Ezingo naiz atera!

Orduan burua atzera sartzen saiatu zen, baina ezin! Lepoa, mugitu, mugitzen zuen, aise gainera, baina ezin burua atera. Hasieran asko haserretu zen, eta ondoren, berriz, etsipenak hartu zuen. Sekula bizi izan zuen egoerarik larrienean jarri zuten Zorionaren eskalapoiek, eta zoritxarrez, ez zitzaion aske gelditu nahi zuela esaterik bururatu. Bai zera! Burua ateratzen tematu zen, besterik ez! Ibaika ari zuen euria, eta arimarik ez zen kalean. Ateko txirrina jotzera iritsiko balitz, libratuko zuten agian, baina hori ere ezin! Hurrengo goiza arte hantxe gelditu beharko zuela etsita zegoen; goizean errementariren bat etorri eta barrak zerraz moztuko zituen. Baina ez zuen lan erraza izango. Pareko umezurztegiko haur jaka-urdin guztiak bere inguruan pilatuko ziren, Nyboder auzoko guztiak etorriko ziren pikotan nola zegoen ikustera. Saldoka iritsiko zen jendea; iazko txapelketarako baino askoz ere jende gehiago joango zen.

— Ene! Odola burura igotzen ari zait eta erotu egingo naiz! Erotu, bai, bai! Ai, berriro libre banengo eta hau guztia amaitua balitz!

Bazen garaia, lehenago esan behar zuen hori! Izan ere, bere nahia azaldu zuen unean bertan aske gelditu zitzaion burua. Eta erietxean sartu zen ziztu batean, Zorionaren eskalapoiek emandako sustoarekin izu-izu eginda.

Baina ez dezazuela pentsa hor amaitu zirenik haren abenturak, bai zera! Okerrena gelditzen da!

Igaro zen gaua eta hurrengo eguna, eta inor ez zen eskalapoien bila agertu.

Arratsaldean funtzioa zegoen Kannikestraede kaleko antzoki txikian. Aretoa jendez gainezka zegoen: olerki berri bat agertzen zen programan. Entzun dezagun zer zioen olerki berriak. Hau du izenburua: *Nire amonaren antiojoak*

*Hainbeste daki amona gureak,  
jaio izan balitz beste aro batean  
kiskali egingo zuketenugarren artean.  
Oraina bezala iragartzen du geroa,*



nork duen heriotza hurbil,  
nork etorkizun oparoa;  
badaki zer gertatzen ari den,  
zer datorren ere bai,

horretaz guztiaz, ordea, ez du deus esan nahi.

Heldu den urtean zer arraio jazoko da?  
Zerbait berezia agian? Jakingo nuke gustura!

Zein izango da nire patua?

Eta nire herri maitearena?

Esaten ez badu ere

gure amonak badaki hori dena.

Eta kuttuna eta begikoa ni nauenez,

kontatzen hastea lortu nuen

jardunaren jardunez.

Tori betaurrekoak eta zoaz

—esan zidan amonak—.

Begira egoteko, jende asko dabilen

lekuak dira onak.

Zerorrek nahi duzun lekuan jarri eserita  
eta behatu jendea betaurrekoak ipinita.

Ez kezkatu, ikusiko baituzu berehala  
ororen etorkizuna ageriko kartak bezala.

*Eskerrak eman amonari eta hor jo dut kalera  
ikusminez beteta antiojoekin proba egitera.*

*Nora jo? Jendelekua izan ohi da eliza,  
aise sartzen da han, ordea, gau-ihintza.*

*Antzokia! Horretarako aproposa delakoan nago,  
arratseko funtzioa gainera ezin egokiago.*

*Sartu eta nor bere kadiran dago lasai ederrean,  
betaurrekoak ipinita eseri behar dut aurrean.*

*Zaudete lasai, oraindik  
ez zaitezte joan mesedez,  
ikusi gura dut zer piura duzuen  
zaldi eta txotako legez.*

*Isilik daude eta ikustera noa  
zer dakarkien etorkizunak  
baietz esaten baitu deus esaten ez duenak.*

*Etorkizuna iragartzen hasi aurretik  
eskerrak denoi bihotz-bihotzetik.  
Karten bidez segituan jakingo dugu dena:  
zuen geroa, nirea eta gure herriarena.*

*(Eta antiojoak jantzirik)*

*Ene, lehertuko naiz barrez! Hau da ikusmira!*

*Zuek ere itoko zinatekete  
bazeundete hemendik begira.*

*Itxura ederra dute hemengo galaiek,  
eta ez kaskarragoa hango dama haiek.*

*Ene, ene, hau da jende pila  
eta hau txotako festa!*

*Beltzez jantzita hainbeste ezpata eta hirusta!  
Andere pika hori hor ari da etengabe keinuka,  
bateko urre koitadu hori begiz jota dauka.*

*Ikuskizun honen ederrak nauka liluratuta,  
areto honetan hainbeste diru dago pilatua!*

*Eta atzerritik etorritako itzal handikoak;  
ez dira, baina, orain aipatzekoak.*

*Ba ote dudan politikaren geroa ikusterik?  
Hori ez dago eskatima besterik.*

*Egunkariak ezingo ditut utzi erabat salduta  
lastoarekin soilik gari-aleak kenduta.*

*Orduan antzerkiaz jardungo dut agian,  
ez, ez dut haserrerik ikusi nahi  
inoren aurpegian.*

*Eta nire patua? Hori ez zaio inori axola,*

*bere-berea du eta nork bere bihotz-zola.*

*Dena ikusiagatik ez dut ezer kontatu nahi,  
garaia iristean jakingo duzue eta itxaron lasai.*

*Gutako zeinek lortuko du zoriontsu izatea?  
Ez pentsa gero niretzat zaila denik hori esatea!*

*Hobe izango dut dena isilean gordetzea,  
ez da eta gustagarri hemen inor mintzea.*

*Zeinek joko ditu urte gehiago,  
jaunak ala andreak?*

*Ez lekarke orain ezer onik hori esateak.*

*Azkenean jarriko al dut agerian  
inoren etorkizunik?*

*Ez du merezi eta nagoen isilik.  
Inor mintzeko beldurrak nauka hartua,  
buruan zer darabilten ikusteko  
oraintxe dut ordua.*

*Ez da gero makala nire aztikeria,  
berdin zait sinesten ez baduzue ere  
nire miraria.*

*Zuei hau jakinarazteko ez dago modu errazik*

*ez baituzue entzun  
hitz eta puntu hutsala baizik.*

*Eta besterik gabe, banoa entzule maite hori.  
Euts diezaiola nork bere iritzi eta sinesmenari!*

Primeran errezitatu zen olerkia, eta errezitatzailleak arrakasta handia lortu zuen. Ikusleen artean erietxeko estudiantea zegoen; itxura batean, zeharo ahazturik zuen aurreko gauean izandako abentura. Baina jantzita zituen eskalapiak; izan ere, inor ez zenez haiek jasotzera erietxera agertu, eta kaleak lokaztuta zeudenez, oso ongi etorriko zitzaizkiola pentsatu zuen estudianteak.

Estudianteari ere asko gustatu zitzaion olerkia.

Olerkiak liluraturik utzi zuen. Halako antiojo batzuek zein baliagarriak izango zituen pentsatu zuen: agian, antiojo haiek ongi erabiliz gero, jendearen bihotzetan zer dagoen ikus liteke; eta estudiantearen ustez, hurrengo urtean zer gertatuko zen igartzea baino askoz ere interesgarriagoa litzateke hori, zeren datorren urtean zer ger-

tatzen den jakin egiten baita azkenean, eta beste aldiz, sekula ez.

— Begira lehenengo ilaretako jaun-andere horiek. Haien bular barnean zer dagoen ikusterik banu... Hori bai ona! Txulotxoren bat izan behar lukete, erakusleiho moduko bat. Ai, nahi izate hutsarekin denda horietan sartzerik banu! Dendaz denda ibiliko lirateke nire begiak! Horrako emakumearenean, esaterako, arropa denda handi bat aurkituko nuke segur aski; hurrengoarena, berriz, denda huts-hutsa da, baina garbitu ederra behar du. Denda on-onak ere izango dira, ordea! Jakina! —esan zuen hasperen eginez—. Begira: hark, esaterako, denda bikaina du, baina dagoeneko jarria du mutil bat dendari; eta horixe du dendak txarra! Oihuak entzungo nituzke denda guztietatik: «Sartu, sartu barrura!». Ai! Bihotz horietan sartzerik banu, pentsamendu arin leunak sartzen diren bezala!

Horretarakoxe zeuden, bada, eskalapoiak! Estudiantea bat-batean txiki-txiki bihurtu eta bidaia txundigarri batean abiatu zen, lehenengo ilaretako jendearen bihotzetan zehar. Bisitatu zuen lehenengo bihotza emakumezko batena

zen, baina une batez iruditu zitzaion Ortopedia Institutuan zegoela, medikuak batzuei giltzadurak erauzi eta beste batzuei txertatzen dizkien tokian. Igeltsuzko moldeak eta gorputz-atal akastunak hormetatik zintzilik zeuden gela batean zegoen! Institutuan eria sartzen zenean egiten zitzaizkion moldeak, ordea, eta bihotzean, berriz, pertsonak sendaturik alde egiten zutenean egiten eta gordetzen ziren. Hangoak andrearen lagunen gorputzeko eta izpirituko akatsen moldeak ziren.

Berehala beste emakume baten bihotzera iritsi zen, baina eliza handi eta santu bat iruditu zitzaion oraingoarena. Aldare nagusiaren inguruan xalotasunaren uso zuria zebilen hegan. Atsegin handiz belaunikatu izango zatekeen gure estudiantea, baina hurrengo bihotzera joan beharra zuen. Hartatik ere aurrekoaren organoaren oihartzuna entzuten zen, ordea, eta gizon berri eta zintzoagoa bihurtu zela iruditzen zitzaion estudianteari; horregatik, hurrengo santutegira sartzeko duin sentitu zen. Teilatupe apal bat zen, eta ama gaixo txiro bat bizi zen bertan. Eta oso pobrea zen arren, Jainkoaren Eguzki

gozoaren dirdira sartzen zen leiho batetik, arrosa zoragarriak zeuden teilatupeko lorontzi txikian dilindan eta bi txori urdin argi poz-pozik ari ziren kantari, ama gaixoak bere alabarentzako bedeinkazioa eskatzen zuen bitartean.

Ondoren, jendez gainezka zegoen harategi batean sartu zen lau hankan. Han ez zegoen haragia eta haragia besterik: gizon aberats ospetsu baten bihotza zen; Handikien gizartegidan agertuko zen, segur aski, haren izena.

Gizon ospetsuaren emaztearen bihotzetik ere pasa zen. Usategi erdi erori bat zen. Senarraren erretratu batek haize-orratz modura egiten zuen usategian: haize-orratza ateari loturik zegoen, eta horrela, senarra alde batera ala bestera mugitzearekin ixten edo irekitzen ziren atea.

Ispiluz beteriko areto batera igaro zen handik. Rosenborgeko gazteluko aretoaren antzekoa zen, baina gaztelukoak ez bezala, ispilu handitzaileak ziren hangoak. Aretoaren erdian giza-kiaren *Ego* ezdeusa zegoen, Dalai Lama bat baiditza lurrean eserita, bere handitasunarekin zeharo liluraturik.



Gero jostorraz-ontzi estu-estu batean ikusi zen; orratz zorrotzez beterik zegoen dena.

— Neskazar baten bihotza da hau, inondik ere! —pentsatu zuen estudianteak, baina erdi-erditik huts egin zuen. Izan ere, militar gazte bat zen, domina askoren jabea, gainera; gizon ausart eta kementsua esaten dena, beraz.

Estudiante damutua zeharo atsekabeturik iritsi zen ilarako azken bihotzera. Erabat nahasturik zituen pentsamenduak, baina bere irudimen eroak nahastu zuela uste zuen.

— Jainko maitea! —zioen hasperenka—. Erraz erotzen den horietakoa naiz, alajaina! Gainera sekulako beroa egiten du hemen. Odola burura igotzen ari zait! —eta aurreko gaueko abentura izugarria etorri zitzaion gogora, burua erietxeko barren artean harrapaturik gelditu zitzaioneko hura, alegia.

— Han hasi zen dena, seguru! —pentsatu zuen—. Berandu baino lehen hasi beharko dut tratamenduren bat hartzen. On egingo lidake bainu errusiar batek. Ai, oraintxe azken mailan banengo...

Eta halaxe aurkitu zen lurrinezko bainuen aretoko goiko mailan, baina goitik behera jantzita, bota, eskalapoi eta guzti! Ur bero tantak erortzen zitzaizkion sabaitik aurpegira.

— Uf! —esan, eta dutxa hotz bat hartzera irten zen ziztu batean.

Bainuetako langileak ere oihu egin zuen, gizona jantzita zegoela ikustean. Estudianteak, halere, nahikoa kemen bildu zuen, eta esan zion:

— Apustu bat da.

Baina bere gelara iritsi bezain laster bi enplastu jarri zituen; lepoan bata, bizkarrean bestea; eromena gorputzetik aterako zuen itxaropenarekin.

Biharamunean ubelduraz josita zuen bizkarrara; hori izan zen estudianteak Zorionaren eskalapoietatik atera zuen gauza bakarra.

## **V. Eskribauaren metamorfosia**

Gauzaina —oraindik ez gara beraz ahaztu— gauean aurkitu eta erietxean utzi zituen eskalapoiekin akordatuta zegoen ordurako; jaso zituen

erietxetik, baina ez zirenez ez tenientearenak eta ez auzoko beste inorenak, poliziari eman zizkion azkenean.

— Alajaina! Neureen igoal-igoalak dira, ba! — esan zuen eskribauetako batek, eskalapoi alde-rrai haiei begiratu eta bereen alboan jarri zituela—. Zapatari baten begiak ere ez lituzke bereiziko!

— Eskribau jauna —esan zion paper mordo bat zekarren polizia batek.

Eskribaua, jiratu, eta harekin hizketan hasi zen, eta hara non, berriro eskalapoiei begiratu zienerako ez zen gai bere eskalapoiak ezkerrekoak ala eskuinekoak ziren ziur esateko.

— Bustitako hauek izango dira! —pentsatu zuen, eta bai oker pensatu ere, Zorionaren eskalapoiak baitziren bustitako haiek. Baina polizia bat zergatik ez da, ba, nahastuko?

Eta jantzi zituen eskalapoiak, eta paper batzuk patrikan gorde eta besapean hartu zituen beste batzuk, etxean errepasatu eta zuzentzeko. Baina igande goiza zen, eta eguraldi polita zegoen.

— Gustura joango nintzateke paseeran Frederiksberg parkeraino —esan zuen. Eta haraxe abiatu zen.

Ez zegoen hura bezain gizon lasai eta langile-rik, eta ondo merezia zuen paseotxoan, hainbeste gauzogatik hain onuragarria gertatu zitzaiona bestalde. Hasieran ezertan pentsatu gabe zihonan, eta eskalapoiek, beraz, ez zuten beren ahalmen magikoa erabiltzeko aukerarik izan.

Baina hiribidean lagun batekin egin zuen topo. Olerkari gazte bat zen, eta kontatu zion udako oporretara zihoala biharamunean.

— Ba ote? Bazoaz berriro ere, orduan? —esan zion eskribauak—. Hori da zortea dutena zu bezalako gizon askeek! Libre dute noranahi joatea, eta gu, berriz, hementxe, oina kateaz loturik.

— Bai, ogiaren arbolari ondo loturik, ordea! —erantzun zion olerkariak—. Ez duzue biharkoaz zertan kezkatu, eta erretiroa jasotzen duzue zahartzaroan!

— Zorte hobea duzu zuk! —esan zion eskribauak—. Olerkiak idaztera esertzea, hori bai plazerra! Loreak bota eta bota ibiltzen zaizue jen-

dea, eta, gainera, zuek zarete zeuen nagusi bakarrak. Ene! Probatu egin behar zenuke eguna joan eta eguna etorri justiziaren arazo hutsal horiek idazten jardutea zer den!

Olerkariak burua astindu zuen, eta gauza bera egin zuen eskribauak. Azkenean, bakoitzak bereari eutsi zion, eta hala, agur esan zioten elkarri.

— Arraza berezi batekoak dira olerkariak! Bai horixe! —esan zuen eskribauak—. Nahiago nuke neu ere olerkari banintz! Hori bai: ez nituzke besteez bezain bertso negargarriak idatziko, seguru nago! Udaberri egun aparta, gaurkoa, olerkari batentzat. Hain garbi dago airea, hain eder hodeiak, eta hain usaintsuak dira landare berdeak. Bai... urteak ziren ez nintzela gaur bezala sentitzen!

Bistakoa da olerkari bihurtua zela ordurako. Begiratu hutsean ez zitzaion inongo alderik nabaritzen, zeren ez baita egia olerkariak gainerrako pertsonen desberdinak direla; izan ere, segur aski, olerkari ez direnen artean izango da olerkari ospetsu askok baino sen poetikoagoa duenik. Desberdintasun bakarra da olerkariak

memoria izpiritual hobeia duela, gai dela ideia eta sentimendua gogoan gordetzeko, harik eta era argi eta ordenatu batean aditzera ematen asmatzen duen arte, eta besteek, aldiz, ezin dutela halakorik egin. Baina izaki arrunt izateari utzi eta izaki dohatsu bihurtzea eraldaketa baten ondorioa da beti, eta horixe da eskribauari gertatu zitzaiena.

— Bai usain zoragarria! —esan zuen—. Izeba Loneren bioletak dakarzkit gogora! Ene, oso txikia nintzen ni orduan! Zenbat denbora ote zen horretaz oroitzen ez nintzela! Nire izeba xaharra! Burtsaren atzealdeko horretan bizi zen. Beti izaten zuen aldaxka bat edo kimu berde pare bat uretan, baita negu gogorrenetan ere. Bioleta usaina izaten zen nonahi; nik, berriz, kobrezko txanponak berotu eta beira izoztuetan jartzen nituen, leihotxoak eginez. Ikuskizuna liluragarria zen. Kanpoan, ubidean, izotzak harrapaturik zeuden gabarrak, eskifaiek bertan behera utzirik; bele-talde oihulari bat zen hango eskifaia bakarra. Baina udaberria airean nabaritzen zen orduko, dena berpizten zen atzera. Kantuekin eta oihuekin kraskatzen zen izotza. Itsasontziak

bikeztatzen ziren eta aparailuak jartzen zitzaizkien, urrutira joateko. Ni, berriz, hemen gelditu nintzen, eta hementxe jarraituko dut betiko, komisaldegian, besteek atzerrira joateko pasaportea nola ateratzen duten begira. Horixe da nire patua! —esan zuen hasperen eginez; baina bat-batean isildu egin zen—. Jainko maitea! Baina, baina, zer gertatzen ari zait? Nik ez dut sekula halakorik pentsatu ez sentitu! Udaberriko haizea edo izango da! Aztoratu eta goxatu egiten nau aldi berean! —eta eskua patrikan sartu zuen, bere paperen bila—. Honek ekarriko nau berriro errealitatera! —esan, eta lehenengo orria begiratu zuen—. *Sigbrith andrea*, tragedia orijinala bost agerralditan —irakurri zuen—. Zer demontre da hau? Nire eskuz idatzia ez da, ba! Baina, nik, tragedia bat idatzi? *Intriga ezpondan* edo *Otoitz eguna*, vaudevillea. Baina, nondik atera da hau? Norbaitek patrikan sartuko zidan! Gutun bat ere badago —bai, gutunak antzokiaren helbidea zuen; obrak ez zizkiotela onartu jakinarazten zioten, eta ez oso doinu adeitsuan gainera—. Hmm, hmm, —esan zuen eskribauak, eta banku batean eseri zen. Burua argi-argi

zuen, bihotza berriz samur-samurra. Zer egiten zuen konturatu ere gabe, han ondoko lore bat hartu zuen. Bitxilore arrunt bat zen, baina botanikariek milaka hitzaldiren bidez azaltzen digutena azaldu zuen une batean lore hark. Kontatu zuen bere jaiotzaren mitoa, mintzatu zen eguzki argiak duen indarrak, eta zabaldu zituen bere hostoak, bere usain gozoa inguru guztian barreiatuz. Eskribauak bizitzaren borrokan pentsatu zuen orduan, gu ere hunkitzen gaituen borroka horretan, alegia. Argiak eta aireak gor-tea egiten zioten loreari, baina loreak nahiago zuen argia; izan ere argia ilundu eta desagertzen zenean, loreak bere lore-hostoak ixten zituen eta airearen besoetan lo gelditzen zen.

— Argiak ematen dit edertasuna —zioen loreak.

— Baina aireari esker hartzen duzu arnasa —esan zuen, ahapeka, olerkariaren ahotsak.

Handik oso hurbil mutiko bat zegoen; lokatzez beteriko erreten batean makila bat astintzen ari zen. Ur-tantak hosto berdeen gainera erortzen ziren, eta tanta haiek gorantz jaurtitzen zituzten milioika animalia ikusezinetan pentsatu



zuen eskribauak; eta beren tamaina kontuan harturik, gu hodeiez haraindi botako bagintuzte bezala sentitu behar zuten animalia haiek tantek gorantz jaurtitzen zituztenean. Eskribauak, horretan eta bere eraldaketan pentsatu zue-  
nean, irribarre egin zuen:

— Lo nago! Ametsetan ari naiz! Baina bai gauza arraroa dela ametsetan aritzea eta, aldi berean, amets bat dela ohartzea! Ai, amets hau gogoratu ahal banu bihar esnatzen naizenean! Oso arraro sentitzen naiz: hain argi ikusten dut dena, hain esna sentitzen naiz..., baina, aldi berean, jakin badakit, sentipen hauek guztiak txorakeria bat bezala gogoratuko ditudala bihar goizean, eta hori, ezer gogoratzekotan! Ametsetan batek entzuten eta esaten dituen gauza burutsu eta eder guztiakin gertatzen da elfoen urrearekin gertatzen den gauza bera: zoragarria da eskuan duzunean, baina egun argitan ikusirik hartxintzar eta orbela besterik ez da.

— Ai! —esan zuen hasperen eginez, kanta-kantari eta adarrez adar saltoka zebiltzan txorixoei begira—. Horiek bai zoriontsuak! Bai ederra litzatekeela hegan egin ahal izatea! Zorione-

koak dohain horrekin jaiotzen direnak! Zer ez nukeen emango hegazabal bihurtzearren!

Eta bat-batean hego bihurtu zitzaizkion lebitaren hegala eta mahukak; luma bihurtu zitzaion arropa, eta atzapar eskalapoia. Eskribauak, eraldaketa hartaz jabeturik, barre egin zuen bere golkorako:

— Hara! Orain bai ari naizela ametsetan! Dena dela, sekula ez dut hau bezain amets zentzugaberik egin.

Eta hostotza berdera joan zen hegan, kantari; baina bere kantuan ez zegoen poesiarik, desagertua zen bere sen poetiko guztia. Izan ere, eskalapoiek, gauzak behar den moduan egingen dituen edonork bezala, gauza bakarra egin zezaketen aldiko: olerkari izan nahi zuen eta olerkari izan zen; orain, berriz, txoritxo bihurtu nahi izan zuen, eta, jakina, aurreko dohain guztiak galdu zituen.

— Bai ederki! —esan zuen—. Egunez komisaldgian arituko naiz, arazo serioez arduratuko naiz, eta gauez, berriz, hegazabal bat bezala Frederiksberg parkean hegan nabilela amets

gingo dut. Arraioa! Komedia ederra idatz neza-  
keen honi buruz!

Eta belarretara jaitsi zen hegan. Burua alde batera eta bestera okertu eta belar samurra mokokatu zuen; orain zuen neurriarekin Afrika Iparraldeko palmondoak bezain garaia iruditzen zitzaion belarra.

Baina, horretan, gau iluna egin zen bere inguruan; iruditu zitzaion zerbait bota ziotela gainera, gauza handiren bat. Nyboder auzoko mutiko batek txoriari gainera bota zion txano handi bat zen. Gero esku bat sartu zen, eskuak eskribauari bizkarretik eta hegaletatik heldu zion, eta eskribaua txioka hasi zen. Mutikoak emandako sustoarekin oihuka hasi zen:

— Mukizu lotsagabe alaena! Ez zara konturatz-  
zen polizia-komisaldegiko eskribaua naizela,  
ala?

Baina mutikoak «txio, txio, txio» besterik ez zuen entzun. Eta eman zion kolpe txiki bat mokoan, eta han eraman zuen berekin.

Etorbidean eskolako bi lagunekin topo egin zuen, ordea; goi mailakoak ziren —goi mailako gizarte klasekoak, jakina; zeren ikasketei zego-

kienez kalamidade hutsa baitziren, eskolako okerrentxoetakoak—. Lagunek txoria erosi zioten, zortzi txelinen truke, eta horrela itzuli zen eskribaua Kopenhagera, Gothersgadeko familia baten etxera.

— Eskerrak ametsetan ari naizen! —esan zuen eskribauak—. Haserretzeko kontua litzateke bestela! Lehenengo olerkari izan naiz; eta orain, berriz, hegazabal! Jakina, nire sen poetikoak txoritxo bihurtu nau. Baina gauza triste da gero, mukizu batzuen esku gelditu beharra ere! Batek daki nola bukatuko den hau guztia!

Mutikoek areto dotore batera eraman zuten. Han emakume lodi irribarretsu batek hartu zituen, baina ez zen batere poztu mutikoek basahegazti arrunt bat —hala esan zuen etxekoandreak— zekartela ikustean; dena dela, gaurkoagatik gauzak bere horretan uztea eta txoria leiho alboko kaiola hutsean sartzea erabaki zuen etxekoandreak.

— Papagaia alaituko du agian —esan, eta papagai berde bat seinalatu zuen. Papagaia harro-harro zebilen letoizko kaiola zoragarri bateko zabuan dilindan.

— Papagaitxoaren urteak dira gaur —esan zuen etxekoandreak, laño-laño—, eta hara non basatxoritxoia etorri zaion zorionak ematera!

Papagaiak ez zuen txintik erantzun, eta harro-harro jarraitu zuen atzera eta aurrera dilindan. Ondoko kaiolan zegoen kanario polita, zeina aurreko udan bere aberri epel usaintsutik hara eramán baitzuten, kanta-kantari hasi zen.

— Zalapartaria halakoa! —esan zion etxekoandreak, eta zapi zuri bat jarri zion kaiola gainean.

— Txio, txio —esan zuen kanarioak—. Hau da elurtea!

Eta hasperen egin eta isildu egin zen.

Eskribaua, edo, etxekoandreak deitzen zion bezala, basatxoria, kanarioaren alboko kaiola txiki batean gelditu zen, papagaia zegoen tokitik hurbil. Papagaiak esaten zekien giza esaldi bakarra, eta nahiko barregarri esaten zuena gainera, hauxe zen: «Izan gaitezen zentzudunak, arren!». Oihukatzen zuen beste guztia kanarioak txiotxio-ka esaten zuena bezain ulertezina zen; ez, noski, gure eskribauarentzat, zeren orain hegatzia bai-

tzen bera ere eta primeran ulertzen baitzien bere kidekoei.

— Palmondo berdeen eta almendrondo loratuen artean ibiltzen nintzen ni hegan —zioen kanarioak kantari—. Anai-arrebekin ibiltzen nintzen, lore ederren artean eta aintzira gardenaren gainetik. Aintziraren hondoan kulunkan zeuden landareak. Papagai zoragarriak ere ikusten nituen; oso istorio liluragarriak kontatzen zituzten, istorio anitz eta luzeak.

— Basatxoriak ziren, ordea! —erantzun zion papagaiak—. Ez ziren hegazti ikasiak. Izan gaitetzen zentzudunak, arren. Zergatik ez duzu barre pixka bat egiten? Etxekoandreak eta bisita guztiek nik esaten dudanarekin barre egiten badute, zuk ere egin behar zenuke. Akats larria da, gero, dibertigarria denari graziarik ez aitortzea! Izan gaitetzen zentzudunak, arren!

— Ene! Oroitzen al zara arbola loratuen artean zabaldutako itzal-oihalen azpian dantzatzen ziren neskatxa pinpirinez? Gogoratzen al zara hango fruitu gozoez eta belar-zukuez?

— A, bai! —esan zuen papagaiak—. Baina igoalekoxe gaude gu hemen! Jatekoa badut, ona

gainera, eta moduz tratatzen naute; eta horrekin nahikoa dut, ez dut gehiago behar. Izan gaitezen zentzudunak, arren! Olerkari sena esaten zaiona duzu zuk, eta nik jakituria eta buru-argitasuna. Badituzu dohainak, izan, baina ez duzu zentzuz jokutzen; zuk zeure doinu zoliak kantatzen dituzu, eta zapia botatzen dizute horregatik. Niri, berriz, ez didate halakorik egiten, zuk baino gehiago eskaintzen diet eta; nire mokoarekin liluratzen ditut, eta etengabe aritzen naiz «pit! pit! pit!». Izan gaitezen zentzudunak, arren!

— Oi, nire aberri loretsua! —kantatu zuen kanarioak—. Kantatuko ditut zure arbola berde ilunak, zure badia txikiak, non urazal gardena musukatzen baitute zuhaitz adarrek, eta kantatuko nire anai-arreba koloretsuen alaitasuna, non Basamortuko ur-landareak hazten baitira.

— Utziozu mainari behingoz! —esan zion papagaiak—. Esazu zerbait barregarria! Barrea da izpirituaren egoera argienaren seinale eta. Ba al dakite barre egiten zakurrek eta zaldiek? Ez: badakite negar egiten, baina barrea pertsonen dohainada. Jo, jo, jo! —esan zuen algara batean

papagaiak, eta bere esalditxoak bota zuen ondoren—. Izan gaitezen zentzudunak, arren!

— Txoritxo gris daniar gizajoa —esan zuen kanarioak—. Zu ere harrapatu zaituzte. Zure basoan hotz egingo du akaso, baina han aske biziko zinateke. Egizu ihes hegaka! Kisketa hura ixtea ahaztu zaie, zabalik dago hor goiko leihoa. Zoaz hegan, zoaz!

Eta horixe egin zuen eskribauak: zas! atera zen kaiolatik. Baina, orduan, beste gelara ematen zuen ate erdi itxia karraskatu eta etxeko katua agertu zen, bere begi berdeak dizdiz, eta txoritxo harrapatzera joan zen korrika. Kanarioa bere kaiolan hegaldatu zen, eta papagaiak hegoak astindu zituen oihuka: «Izan gaitezen zentzudunak, arren!».

Eskribauak izu beldurgarria sentitu zuen, eta leihotik hegan alde egin zuen. Han joan zen etxeen eta kaleen gainetik hegan, eta azkenean atsedean apur bat hartu ahal izan zuen.

— Izan gaitezen zentzudunak, arren! —esan zuen eskribauak, zer esaten ari zen pentsatu ere egin gabe, papagaiak esaten zuena imitatuz. Eta



une hartantxe eskribau bihurtu zen atzera; mahaira eserita zegoen beti bezala.

— Jainkoarren —esan zuen—. Nola iritsi naiz hona? Nola gelditu naiz ni horrela lo? Amesgaizto bat izan dut. A ze zentzugabekeria mordo!

## **VI. Eskalapoiek egin zuten gauzarik hoberena**

Biharamunean, goizean goiz, eskribaua artean lo zela, atea jo zuten; aldamenekoa zen, seminarioko estudiantea. Barrura sartu zen.

— Utz iezazkidazu zure eskalapoiak —esan zion—. Lorategia blai eginda dago, baina eguzki ederra egiten du, eta pipa bat erretzera jaitsi nahi nuke.

Eta eskalapoiak jantzi bezain laster lorategian agertu zen. Lorategian aranondo bat eta udareondo bat zeuden. Horrelako lorategi bat, hura bezain txikia izanik ere, altxor bat zen Kopenhage hiriaren bihotzean.

Estudiantea lorategiko bidezidorrean gora eta behera ibili zen. Seiak baino ez ziren. Posti-  
loiaren korneta oihartzuna entzun zen kaletik.

— Oh, bidaiatzea, bidaiatzea... —esan zuen—  
. Ez dago hori bezalakorik! Horixe da nire desio-  
rik handiena! Bidaiatuz baretuko litzaidake orain  
sentitzen dudan ezinegon hau. Baina bidaia  
luzea behar luke izan, noski! Suitza zoragarrira  
joan nahi nuke, eta Italia bisitatu gero eta...

Ene! Eskerrak eskalapoiak bertantxe jarri  
ziren lanean, bestela urrutiegi joango zen estu-  
diantea, eta gu harekin. Gogotik bidaiatu zuen,  
alajaina! Suitzaren bihotzean aurkitu zen, bai,  
baina diligentzia batean, beste zortzi bidaiariren  
artean estu-estu. Buruko mina zuen, zurrun sen-  
titzen zuen lepoa eta odola oinetara jaitsi  
zitzaion; handituta zituen oinak, botak estu gel-  
ditzen zitzaizkion-eta. Tarteka lo zihoan, tarteka  
esna. Eskuineko patrikan kreditu-gutun bat  
zuen; ezkerrekoan, berriz, pasaportea, eta gol-  
koan zeraman poltsatxoan urrezko luis batzuk.  
Lo gelditzen zen bakoitzean bere altxorretako  
bat desagertzen zitzaiola egiten zuen amets,  
ordea, eta sukarrak hartuta bezala esnatzen zen;

esnatzean egiten zuen lehenengo mugimendua triangelu bat zen, eskuinetik ezkerrera eta gora, bularrera, bere altxor guztiak han zeramatzan ikusteko. Aterkiak, makuluak eta burukoak alde batetik bestera balantzaka zebiltzan goiko sarean, eta ez zuten ongi ikusten uzten, baina bikaina zen ikusmira. Estudianteak zeharka begiratzen zuen paisajea, eta haren bihotza olerki bat kantatzen ari zen, ezaguna dugun olerkari batek bederen *Suitzan* kantatua, baina gaurdaino argitara eman gabea:

*Ez dut hau baino desio zoragarriagorik  
begi bistan dut Montblanc mendia, nire maitea  
izango banu horretarako diru askirik  
zoriona nuke haren ondoan egotea.*

Laño baina ikusgarria zen izadi guztia han. Pinudiek txilardi hutsak ematen zuten, hodeien sabaian ezkutatzen ziren harkaitz garai haien gainean. Elurra hasi zuen. Haize hotza zebilen.

— Uf! —hasperen egin zuen—. Ai, Alpeez bestaldean banengo! Uda litzateke honezkero, eta lortua izango nuke dirua, nire kreditu-gutunare-

kin. Diruak ematen didan larritasun honek ez dituzten Suitzaz gozitzen. Ai, oraintxe bestaldean banintz!

Eta horrela agertu zen beste aldean. Italiaren bihotz-bihotzean zegoen, Florentzia eta Erroma artean. Trasimeno aintzirak, arratseko Eguzkiaren argitan, ematen zuen urre gorria mendi urdinxken artean. Han, Anibalek Flaminio menderatu zuen gune hartan, mahatsondo bake-tsuek hatz berdeetatik heltzen zioten elkarri orain, eta bide-bazterreko erramu-zuhaitz usaintsu batzuen alboan haur zoragarri erdi biluz batzuk zerri talde bat zaintzen ari ziren, ikatza bezain zerri beltzez osatua. Koadro hau erakutsiko bagenu, pozik oihukatuko lukete guztiek: «Italia zoragarria!». Baina teologoak ez zuen halakorik esan, ez eta diligentzian harekin zihoran inortxok ere.

Milaka euli eta eltxo pozoitsu zebiltzan hegan eta bidaiariek mirto-adarrak astintzen zituzten. Alfer-alferrik zen, ordea: ez zutela euliek handik alde egingo! Gurdi hartan ez zegoen aurpegia handitua eta ziztadez gorritua ez zuen bidaiari bakar bat ere. Zaldi gizajoek sarraskia ematen

zuten, euli-saldo bat zuten inguruan hegan. Gur-dizaina jaisten zen euliak uxatzera, baina une baterako bakea bakarrik izaten zen. Eguzkia ezkutatu egin zen, eta bat-batean hotz izugarri batek hartu zuen izadi guztia. Ez zen batere atsegina. Baina mendiak eta hodeiak kolorerik berdeenaz jantzi ziren, kolore argia, distiratsua... Bai, zeuon begiez ikusi behar zenukete; deskri-bapena irakurtzea baino hobea da. Zoragarria zen! Eta hala iruditzen zitzaien bidaiariei ere, baina... hutsik zuten urdaila, nekeak lehertuta gorputza, eta bihotzak nahi zuen gauza bakarra gau hartan atsedean hartzeko leku bat zen. Noiz iritsiko ziren, ordea? Gehiago kezkatzen zituen horrek, izadiaren edertasunak baino.

Bidea olibondo-sail batetik igarotzen zen, sahats begitsuen artetik; eta hantxe zegoen ostatu bakartia. Ostatuaren aurrean eskale-talde batek bere etxolak altxa zituen; haien arteko osasuntsuenak «gosearen maiorazgoa ematen zuen, adin nagusitasuna iritsia ordurako». Gainerakoak, edo ziren itsu, edo zituzten zangoak elbarri eta zebiltzan eskuekin, edo zituzten besoak ezinduak eta hatzik gabe eskuak. Miseriaren

irudi bera ziren, miseria bera zarpailez jantzia. «*Eccellenza, miserabili!*» esaten zuten beren gorputz-adar elbarriak luzatuz. Ostalaria bera ere, oinutsik, tximak nahasturik eta atorra zikin batez jantzirik atera zen kanpotarrei ongi etorria egitera. Ateak haize-oihalak lotzeko sokez lotuta zeuden; geletako lurra adreilu apurtuez zolatua zen; saguzarrak zebiltzan sabaiepean hegan, eta egundoko kiratsa zegoen...

— Baina, baina! Ukuilu honetan ostatu hartuko dugula uste duzu, ala? —esan zuten bidaiari batek—. Mahaia ukuiluan jartzea hobe! Han behintzat batek badaki zer arnasten duen.

Leihoak ireki zituzten, haize pixka bat sar zedin, baina beso akastunak eta aiene amaigabeak iritsi ziren haizea bera baino lehenago: «*Miserabili, Eccellenza!*». Hormak idazkunez beterik zeuden; *bella Italiaren* kontrakoak ziren gehienak.

Jatena ekarri zuten. Zopa arin bat, piperbeltez eta olio kerratuz gozatua. Entsaladak ere olio bera zuten. Platera nagusiak, berriz, arrautza ustelak eta oilar gandor errea ziren. Ardoak ere

zapore bitxia zuen, nahastura nazkagarri baten zaporea.

Gauerako ate aurrean ezarri zituzten maletak. Bidaiari bat goardia egiten gelditzen zen besteek lo egin zezaten. Goardiaren lehenengo txanda teologoari tokatu zitzaion. Hura goragalea! Kiskaltzeko moduko beroa zegoen, eltxoak burrunbaka eta zizta-zizta zebiltzan, eta *misera-biliak* intzirika ari ziren kanpoan, ametsetan.

— Bai, bai, gauza handia da bidaiatzea! — esan zuen estudianteak hasperenka—. Baina gorputzik ez duenarentzat bakarrik! Ai, gorputza lasai ederrean geldituko balitz arima hegan abiatzen denean! Noala noan tokira, bihotza erdiratzen didan amets bat egiten dut; orain dudana baino zerbait hobea nahi nuen nik! Zerbait hobea, onena; baina, zer da zerbait hori, eta non dago? Bai, ondo dakit nik zer nahi dudana: etorkizun zoriotsua nahi dut, denik eta etorkizun zoriotsuena!

Eta hitz horiek esan bezain laster bere etxean agertu zen. Leiho aurrean mihise zuri luzeak zeuden zintzilik; lurrean hilkutxa bat zegoen, eta hilkutxaren barruan gure estudian-

tea, heriotzaren amets isilean. Betea zen bere nahia: gorputza atsedenean, eta arima hor zehar bidaian. «Inor ere ez da zoriontsu hilobira aurretik», esan zuen Solonek, eta hona hemen haren esana nola zen egia handia.

Hilezkortasunaren esfinje bat da hilotz bakoitza, eta hilkutxa beltzeko esfinje honek ere ez zuen betetzen gizonak bi egun lehenago, artean bizirik zela, idatzitakoa:

*O, zu, herio ahaltsu beldurgarria  
hilarria dugu zeure opari bakarra  
Eten egingo al da Jakobena zurubia?*

*Neu ere izango al naiz, ba, kanposantu-belarra?*

*Gure mina ez du orain inortxok ezagutzen  
ez da jakiten bakarrik ez zaudeno  
gure bihotzak gehiago duela sufritzen  
hilerrian den hilobirik hotzenak baino*

Bi giza irudi zebiltzan gelan hara-hona. Eta ezagutzen ditugu, gainera: Oinaze zen bat, eta Zorionaren mezularia bestea. Hilotzaren gainera makurtu ziren biak.



— Ikusten al dun? —esan zuen Oinazek—. Horra, hire eskalapoiek gizadiari ekarri dioten zoriona!

— Hemen datzanari, behintzat, betiko zoriona ekarri diote, ba! —erantzun zuen Pozak.

— Baita zera ere! —esan zuen Oinazek—. Berak alde egin zinan, ez ziotenan oraindik deitu! Bere arimak oraindik ez din zeruko altxorrez gozatzeko adina indar, eta hori zunan haren helburua. Mesede bat egin beharko zionat!

Eta kendu zizkion eskalapoiak oinetatik. Eta horrela amaitu zen heriotzaren ametsa, eta zutitu egin zen berpiztua. Oinaze desagertu egin zen, eta baita eskalapoiak ere; bere jabetzako zituen, nonbait.

*(Lykkens Galosher)*

# HANS KANKAILU

Bazen behin landan jauretxe zahar bat, eta jauretxe hartan lurjabe zahar bat bizi zen bere bi semeekin. Bi seme horiek oso azkar-ustekoak ziren. Erabakia zuten erregearen alabari ezkonproposamena egin behar ziotela, eta hartaraxe ausartu ziren; izan ere, erregearen alabak jakinarazi baitzuen hizketarako etorri ederrena zuen gizona hartuko zuela senartzat. Bi anaiek aste-bete eman zuten prestatzen; ez zuten denbora gehiagorik izan, baina aski eta sobera zuten hori, zekiten guztia jakinda eta hain ezagutza baliagarriak izanda. Bietako batek Latinezko Hiztegia zekien buruz, eta baita hiriko azken hiru urteetako berripaperak ere, aurretik atzera nahiz atzetik aurrera. Besteak, berriz, elkargoetako estatutu guztiak ezagutzen zituen, eta baita elkargoburu baikotzak jakin beharrekoa ere. Estatuko aferez hitz egiteko gai zela uste zuen, beraz; eta zaldihalak brodatzen ere bazekien, oso trebea baitzen eskulanetan.

— Niretzat izango da erregearen alaba —zioten biek, eta aitak zaldi eder bana eman zien. Hiztegia eta berripaperak buruz zekizkienari ikatz koloreko zaldi beltza eman zion eta elkargo gaietan eta brodatze-lanetan ikasia zenari, berriz, esne koloreko zaldi zuria. Eta bi anaiek olio z gurtzi zituzten ezpainak, hobeto hitz egiteko. Zerbitzari guztiak atarian bildu ziren bi anaiak zaldi gainera igotzen ikustera, baina, orduan, hirugarren anaia agertu zen, izatez hiru anaia baitziren; bakarrik, hirugarren hori, Hans Kankailu, inork ez zuela kontuan hartzen, ez zuelako bere anaiek adinako jakituria.

— Nora zoazte jantzi dotore horiek jantzita? —galdetu zien.

— Gortera, printzesarekin hizketatu eta haren onespina irabaztera. Ez duk entzun atabalariak lurralde guztian aldarrikatzen ari diren albistea?

Eta albistearen berri eman zioten.

— Arraioa! Nik ere joan behar diat, ba —esan zuen Hans Kankailuk. Baina anaiek barre egin zioten, eta alde egin zuten.

— Aita, emaidazu zaldi bat. Nik ere ezkondu nahi dut. Aukeratzen banau, ondo, eta aukeratzen ez banau, neuk aukeratuko dut bera.

— Ergelkeria galanta! —esan zion aitak—. Ez diat zaldirik emango. Hik ez dakik ganorazko gauzarik esaten, eta hire anaiak, berriz, ez dituk nolana hikoak horretan.

— Zaldirik ematen ez badidazu —esan zuen Hans Kankailuk—, akerra hartuta joango naiz; akerra nirea da eta ederki asko eramango nau!

Eta eseri zen zangalatrau akerraren gainean, eragin zion bi orpoez, eta han joan zen lauhazka bide nagusian behera. Fiuu! Hura abiada, zera-matena!

— Hemen naiz! —oihu egin zuen Hans Kankailuk, eta haizeari durundi eragiterainoko indarrez hasi zen kantari.

Anaiak isilik zihoazen; ez zioten elkarri hitzik esaten, gero adierazi beharreko burutapen on guztiak ondo gorde behar baitzituzten, eta esan behar zutena ondo pentsatu.

— leepa! —oihu egin zien Hans Kankailuk—, hemen nauk! Begira zer aurkitu dudan bidean — eta belehil bat erakutsi zien.

— Zer demontre egin behar duk horrekin, Kankailu? —esan zioten anaiek.

— Erregearen alabari eman.

— Bai, nik ere horixe egingo nitek —esan zioten anaiek eta, barrez, aurrera jarraitu zuten.

— Ieepa! Hemen nauk! Begira zer aurkitu dudan; horrelako gauzarik ez duk bidean egunero aurkitzen.

Anaiek atzera begiratu zuten zer ote zuen ikusteko.

— Kankailu —esan zioten—, hori eskalapoï zahar bat duk! Gaina ere apurtuta zeukak eta! Printzesarentzat al duk hori ere?

— Bai, noski, —esan zuen Hansek, eta anaiek aurrera jarraitu zuten barrez.

— Ieepa, ieepa, hemen nauk! —oihu egin zuen Hans Kankailuk—. Hau duk, berriz, ona!

— Zer aurkitu duk oraingoan? —galdetu zioten anaiek.

— Pozez zoratzen jarriko duk printzesa!

— Tira, motel! —esan zioten anaiek—, hori erretenetik hartu duan buztina duk eta!

— Bai, hala da —esan zuen Hans Kankailuk—  
, eta buztinik finena, gainera. Irrist egiten dik  
eskuetatik.

Eta buztinez bete zituen sakelak. Anaiak  
aurrera egin zuten ahal zuten bezain arinen, eta  
Hans baino ordubete lehenago iritsi ziren hiriko  
ateetara. Atean txartel bat ematen zieten ezkon-  
gaiak, iritsi ahala, eta ilaran jartzen zituzten sei-  
nako lerroetan, eta hain zeuden estu, ezen ezin  
baitzuten besorik mugitu, eta eskerrak horri,  
bestela jantziak zarratatuko baitzizkioten elkarri,  
bata bestearen aurrean egote hutsagatik. Hiriko  
beste biztanle guztiak gazteluaren inguruan zeu-  
den, leihoetatik kirika, erregearen alabak ezkon-  
gaiak nola hartzen zituen ikusteko. Ezkongaiak,  
berriz, banan-banan gelan sartzen zirenean, hitz  
egiteko ahalmena galtzen zuten.

— Utikan! —esaten zuen printzesak—. Kan-  
pora!

Orduan, Hiztegia buruz zekien anaia sartu  
zen, baina den-dena ahaztu zitzaion ilaran egon  
zen bitartean. Zoruak kris-kris egiten zuen, eta,  
sabaia ispiluzkoa zenez, buruz behera ikusten  
zuen bere burua; leiho bakoitzean hiru eskribau

eta elkargoburu bat zeuden, han esaten zen guztia idazten, jarraian berripaperetara bidali eta kale-kantoietan bi sosean saldu ahal izateko. Izugarria zen hura, eta sutontziak ere hainbesteraireno zituzten berotuak, ezen gaina gori baitzuten.

— Bero izugarria dago hemen —esan zuen ezkongaiak.

— Gaur oilaskoak erretzen ari baita aita —esan zuen printzesak.

Bo! Han geratu zen mutila inozoa bezala; ez zuen era horretako elkarrizketarik espero, eta ez zitzaion hitz bat ere etortzen, noiz, eta orain, burutsuen agertu nahi zuenean.

— Utikan! —esan zuen erregearen alabak—. Kanpora!

Eta alde egin behar izan zuen.

Orduan bigarren anaia etorri zen.

— Ikaragarrizko beroa dago hemen —esan zuen.

— Bai, oilaskoak erretzen ari gara gaur —esan zuen erregearen alabak.

— Zer..., erre..., zer? —esan zuen mutilak, eta eskribau guztiek zintzo-zintzo idatzi zuten «Zer..., erre..., zer»

— Utikan! —esan zuen erregearen alabak—. Kanpora!

Orduan Hans Kankailu etorri zen. Akerraren gainean sartu zen gelaraino.

— Hau da bero galda, hemen duzuen! —esan zuen.

— Oilaskoak erretzen ari naizelako da —esan zuen erregearen alabak.

— Oso egokiera ona —esan zuen Hans Kankailuk—. Hortaz, bele bat erre ahal izango dut nik ere, ezta?

— Bai, noski —esan zuen erregearen alabak—, baina non errerik ba al duzu? Nik ez dut ez eltzerik ez zartaginik.

— Badut, bai —esan zuen Hans Kankailuk—. Hona hemen eltze bat.

Eta eskalapoia atera eta hantxe sartu zuen belea.

— Otordu on baterako adina baduzu hor —esan zion erregearen alabak—, baina non aurkituko dugu gainetik botatzeko saltsa?

— Sakelean badut pixka bat —esan zuen Hans Kankailuk—. Nahikoa eta sobera.

Eta buztin pixka bat isuri zuen sakeletik.



— Hori da arrazoia! —esan zuen printzesak—; denetarako duzu erantzuna, eta etorri ederra daukazu. Senartzat hartuko zaitut. Baina ba al dakizu hemen esan ditugun guztiak berripapere-tan izango direla bihar? Leiho bakoitzean hiru eskribau eta elkargoburu bat egon baitira eserita, eta elkargoburua da okerrena, ez baitu ezer ulertzen.

Ikaratzeagatik esan zion hori erregearen alabak. Eskribau guztiak barreari ezin eutsirik zeuden eta tinta-tantaz zipriztindu zuten zorua.

— A! Horiek dira, beraz, gizon handiak —esan zuen Hans Kankailuk—; hortaz, dudan gauzarik onena emango diot elkargoburuari.

Eta sakelak barrukoz kanpora bihurtu eta buztina jaurti zion aurpegira.

— Oso ederki egina! —esan zuen printzesak—; neronek ez nukeen egiten jakingo, baina saiatuko naiz ikasten.

Horrela, bada, Hans Kankailu errege egin zen, emaztea eta koroa irabazi zituen eta errege-aulkian eseri zen. Guk elkargoburuaren berripapere-tik jakin dugu hau guztia, baina batek daki!

*(Klodshans)*

# BERUNEZKO SOLDADU IRMOA

Baziren behin berunezko hogeita bost soldadutxo, anaiak guztiak, berunezko goilare beretik atereak baitziren. Fusil bana zuten besagainean, burua tente, aurrera begira, eta diren uniforme gorri-urdin zoragarrienak soinean. Mundu berrira etorri eta entzun zituzten lehen hitzak, gordeta zeuden kutzako estalkia ireki zenean, mutiko batek oihuka eta txaloka esandako hauek izan ziren: «Berunezko soldadutxoak!» Mutilak urtebetetzea zuen eta soldaduak jaso zituen opari. Mahai gainean ezarri zituen berehala.

Soldadu guztiak berdin-berdinak ziren, bat izan ezik. Bat hori hanka-bakarra baitzen: izan ere, huraxe egin zuten azkena, eta ordurako ez zegoen behar adina berun. Hala ere, hantxe zegoen hanka bakarraren gainean tente-tente, besteak bi hanken gainean bezain tente; eta, hara gauzak nola diren, soldadutxo hori izango zen, hain zuzen, gerora nabarmenduko zena.

Soldaduak zeuden mahai hartan bazen beste hainbat jostailu, baina paperezko gaztelu zora-

garri bat zen bereziki ikusgarria. Gazteluko leiho meharretatik gelak ikusten ziren. Kanpoan zuhaixka batzuk zeuden, aintzira itxuratzen zuen ispilu txiki baten inguruan; eta aintziran, igeri zebiltzan argizarizko beltzargak islatzen ziren. Den-dena zen zoragarria, baina denetan xar-mantena gazteluko ate zabalduaren aurrean zegoen damatxoa zen, inondik ere. Hura ere paper ebakiz egina zen, baina soinekoa muselina finenezkoa zuen, eta zinta urdin estu bat zeukan sorbalda gainean, txal moduan jarria. Gerrian, zintaren bi muturrak lotzeko, lentejuela bat zuen, bere aurpegia bezain handia. Damatxoak luzaturik zituen besoak, dantzaria baitzen; eta hain gora jasota zuen hanka bat, non soldadutxoak ez baitzion ikusi, eta bera bezala hankabakarra zela uste izan zuen.

— Bera nuke emazte aproposa —pentsatu zuen—; baina dotoreegia da niretzat. Gaztelu batean bizi da bera; nik, aldiz, ez dut kutxa bat baino, eta hori ere hogeita bost lagunentzako! Ez, ez legoke harentzako tokirik! Baina nola edo hala ezagutu beharra daukat.

Eta etzan zen, luze-luze, mahai gainean zegoen tabako-hautsa gordetzeko ontziaren atzean. Handik oso ongi ikusten zuen damatxoa, nola zegoen hanka bakarraren gainean zutik, oreka galdu gabe.

Gaua etorri zenean kutxan sartu zituzten gainerako soldadutxoak, eta etxeko guztiak ohera joan ziren. Iritsi zen jostailuen olgetarako ordua eta jolasean hasi ziren: elkarri bisitan joaten, borrokan egiten, dantzaldiak antolatzen. Berunezko soldadutxoak zalapartaka ari ziren kutxa barnean, haiek ere jolasean ibili nahi zuten eta; baina, eginahalak eginda ere, ezin kutxaren estalkia ireki. Intxaur-kraskailua, berriz, zilipurdi-ka zebilen, eta klarionak ergelkeriak idazten zituen arbelean. Hain zen handia hango zarata kanarioa ere esnatu eta berriketan hasi zen, eta bertsoan gainera! Bi bakarrik gelditu ziren bere tokian geldi-geldi: berunezko soldadutxoa eta dantzari txikia. Dantzaria hanka-puntetan, tente-tente, besoak luzaturik; eta soldadua ere tinko hanka bakarraren gainean, dantzariari begirik kendu gabe.

Erlojuak hamabiak jo zituenean, danba!  
altxatu zen tabako-ontziaren estalkia. Baina han  
ez zen tabako-hautsik, ez horixe: iratxo beltz  
txiki bat atera zen. Txantxa-kutxa bat zen.

— Aizak, berunezko soldadu! —oihukatu zion  
iratxoak—. Zeri begira hago?

Baina berunezko soldadutxoak ez entzunare-  
na egin zion.

— Hago, hago! Ikusiko duk bihar! —esan  
zuen iratxoak.

Eta eguna argitu bezain laster haurrak jaiki  
zirenean, berunezko soldadutxoa leiho ertzean  
ezarri zuten; eta zela iratxoaren eraginez edo  
zela haize-bolada baten eraginez, kontua da  
leioa kolpetik ireki eta soldadutxoa buruz behe-  
ra erori zela hirugarren solairutik. A ze plausta-  
da! Han gelditu zen, gizajoa, kapelu gainean  
hankaz gora, hanka airean, eta baioneta, berriz,  
bi harlauzen artean sartuta.

Neskamea eta mutikoa berehala jaitsi ziren  
soldadutxoaren bila, baina, ia zapaldu bazuten  
ere, ez zuten ikusi. Soldaduak «Hemen naiz!»  
oihu egin balu aise aurkituko zuten; baina ez, ez

zitzaion egoki iruditu uniforme zantzita oihuka  
hastea.

Orduan euria hasi zuen; gero eta lodiago ari  
zuen, eta azkenerako euri zaparrada galanta  
bota zuen. Atertu zuenean, bi kalekume hurbildu  
ziren soldadua zegoen tokira.

— Aizak, begira! —esan zuen batek—. Beru-  
nezko soldadu bat! Txalupan bidaliko diagu.

Eta hala, egin zuten txalupa bat egunkari-  
paperez, sartu zuten bertan soldadua, eta han  
abiatu zen erretenean behera. Bi mutikoak albo-  
tik zihoazkion korrika eta txaloka. Ene! Egundo-  
ko olatutzarrak eratzen ziren erretenean. A ze  
nolako ur-amilak! Jakina, izugarrizko euri-jasa  
bota zuen eta. Paperezko txalupa ur-zurrunbilo  
hietan gora eta behera zebilen, zilipurdiak egi-  
nez behin eta berriro. Berunezko soldadutxo  
ikara-ikara eginda zegoen ordurako, baina han-  
txe eutsi zion, burua tente, aurrera begira, fusila  
besagainean.

Bat-batean, estolda handi batek txalupa iren-  
tsi zuen, eta kutxan baino ilunago geratu zen  
dena.

— Nora arraio ote noa? —pentsatu zuen—. Erru guztia iratxoarena da, ondotxo dakit nik! Ai, damatxoa txalupan banu, sikiera, niri bost axola dagoena baino ilunago balego.

Baina, halako batean, estoldan bizi zen uretako arratoi handi bat agertu zitzaion.

— Non duk pasaporteak? —galdetu zion arratoiak—. Ea, paper horiek!

Soldaduak ez zion txintik esan, eta tinkoago eutsi zion fusilari. Txalupa ziztu batean zihoan, eta atzetik segika arratoia. Haren hortzen karraska-hotsa, haren oihiak eta biraoak:

— Gera ezazue! Gera ezazue! Ez du bide-saririk ordaindu eta! Ez du pasporterik erakutsi!

Ur-lasterra bizkortu egin zen, eta berunezko soldaduak argia ikusi zuen estoldaren bukaeran. Ausartetan ausartena ere beldurtzeko moduko zarata bat entzun zuen orduan. Pentsa, estolda amaitzen zen tokitik ura ubide handi batera amiltzen zen trumilka! Guretzat urjauzi handi batean behera joatea bezain arriskutsua zen soldadutxoarentzat. Handik behera joatea.

Baina beranduegi zen ordurako, eta soldaduak ezin zuen ezer egin. Txalupa irauli egin

zen; soldadutxoak ahal bezain tinko irauñ zuten; inork ezingo zuen esan begi-kliska bat ere egin zuenik.

Txalupak hiru edo lau itzuli egin zituen, eta urez bete zen kareleraino: hondoratzen hasi zen. Han zegoen berunezko soldadutxoa, ura leporaino; eta txalupa, behera eta behera, gero eta hondorago; eta papera, bustiaren bustiaz, gero eta beratuago; eta azkenean burutik gora iritsi zitzaion ura soldadutxoari... Dantzari xarmanta etorri zitzaion gogora, ez zuela berriro ikusiko, eta aspaldi bateko kanta zahar hau entzun zuen bere baitan:

*Aurrera, gudari, aurrera!  
Zoaz Herioren altzora!*

Desegin zen papera eta hondoratu zen berunezko soldadutxoa..., baina hondoa jo aurretik arrain batek irentsi zuen.

Ene, hura zen ilun beltza! Estoldakoa baino askoz leku ilunagoa zen, eta estuagoa gainera. Baina han zegoen berunezko soldadutxoa, beti



bezain irmo, luze-luze etzanda, fusila besagai-  
nean zuela.

Arrainak ikaragarritzko mugimenduak egiten zituen. Azkenean, ordea, geldi-geldi geratu zen, eta handik pixka batera argi-printza bat sartu zen. Gero erabat argitu zuen, eta norbaitek oihu egin zuen:

— Berunezko soldadutxo bat!

Izan ere, arrain hura arrantzaleek harrapatu baitzuten, eta azokara eraman, saldu, eta sukaldera iritsi zenean, sukaldariak labana handi batez ireki zuen. Bi hatzekin soldadutxoa gerritik hartu eta egongelara eraman zuen, guztiek ikusi nahi baitzuten arrain baten urdailean bidaia egina zen gizon harrigarri hura; baina berunezko soldadutxoa ez zegoen horregatik harro. Mahai gainean utzi zuten eta han... hauek dira, hauek, bizitzaren komeriak! Nora etorriko, eta, hara!, lehen egondako gela berera. Hantxe zeuden lehengo haurrak eta mahai gaineko jostailuak. Hantxe ikusi zuen gaztelu zoragarria eta gazteluko dantzari panpoxa, hanka baten gainean zutik, beste hanka gora altxaturik zuela. Ongi irmoa zen dantzaria ere, eta hainbeste hunkitu zuen

berunezko soldadua, non berunezko malkoak isuri baitzituen ia, baina ez zuen ondo emango soldadu batek hori egitea. Begiratu zion neskari eta neskak begiratu zion berari, baina ez zioten elkarri ezer esan.

Bat-batean haur batek soldadutxoa hartu, eta inolako arrazoirik gabe, sutara bota zuen. Hori ere txantxa-kutxako iratxoaren erruz izango zen segur aski.

Garrak hartuta zegoen berunezko soldadutxoa, berotan kiskaltzen, baina ez zekien oso ondo suagatik edo bere maitasunagatik ote zen. Bere kolore biziak ere margulduak zituen, bidaia-gatik edo penagatik, batek daki! Begiratu zion neskatxari, eta neskatxak begiratu zion berari. Soldadutxoa konturatu zen urtzen ari zela, baina irmo eutsi zion, fusila besagainean. Bat-batean ate bat zabaldu eta haizeak airean eraman zuen dantzaria; eta dantzaritxoa, silfide bat bailitzan soldadutxoaren albo-albora hegan joan, sugartu eta bertan desagertu zen. Ordurako, soldadutxoa urtu eta berun-puska huts bihurtua zen. Biharamunean neskameak errautsak garbitzean berunezko bihotz-tankerako zerbait aurkitu

zuen. Dantzariaren arrasto bakarra, berriz, haren lentejuela zen, suak ikatza bezala belztua hura ere.

*(Den standhaftige tinsoldat)*

# MARIERPURU

Bazen behin emakume bat haurtxo txiki bat izateko gogo handia zuena, baina ez zekien nondik ekarri; joan zen sorgin zahar batengana eta esan zion:

— Haurtxo txiki bat edukitzeko irrikaz nago eta, esango al didazu nondik ekarri?

— Tira, zer edo zer egin ahal izango dugula uste dut —esan zion sorginak—. Tori garagar-ale hau; ez da nekazarien soroetan izaten dena bezalakoa, ez eta oiloei ematen zaiena bezalakoa ere; sar ezazu lore-poto batean ea zer gertatzen den.

— Eskerrik asko! Eskerrik asko! —esan zion emakumeak, eta sorginari hamabi penike eman eta etxera joan zen. Erein zuen garagar-alea, eta berehalaxe lore eder bat erne zen; tuliparen antzekoa zen lorea, baina itxita zituen petaloak, artean pipila balitz bezala.

— Hau da lore ederra! —esan zuen emakumeak, eta musu eman zien haren petalo gorri-hori politei, eta musu ematean, plast! zabaldu

zen lorea. Tulipa zen, bai, argi zegoen, baina lorearen erdi-erdian, estigma berdearen gainean, neska txiki nimiño bat zegoen eserita, izugarri polita eta delikatu; ez zen hazbete baino garaiagoa, eta, horregatik, Marierpuru jarri zion izena emakumeak.

Marierpuruk intxaur-oskol bernizatu apain bat zuen sehaska, bioleta-hosto urdinak koltxo eta arrosa-hosto bat estalgarri. Han lo egiten zuen gauetz; egunez, ordea, mahai gainean ibiltzen zen jolasean, emakumeak plater bat baitzuen han, ertz guztia lore-txirikordaz inguratua eta loreen zurtoinak uretan zirela. Ur gainean tulipa-hosto handi bat zegoen, eta haren gainean eseri eta plateraren alde batetik bestera ibiltzen zen Marierpuru, bi zaldi-ile zurirekin arraunean eginez. Ikusgarri polita zen. Eta abesten ere bazekien, eta inoiz entzun ez zen bezalako ahots gozo xarmagarritz abesten zuen, abestu ere.

Gau batean, Marierpuru bere ohetxoan etzanda zegoela, apo handi itsusi batek jauzi egin zuen leihora, kristal bat hautsita zegoen eta. Ene! Zein nazkagarria zen apotzar likatsu

itsusi hura! Eta handik, berriz, zuzenean mahaira jauzi egin zuen, Marierpuru arrosa-hostoaren azpian lo zegoen lekura.

— Hauxe litzateke emazte polita nire semearentzat —esan zuen apoak, eta Marierpuru lo zegoen intxaur-oskola hartu eta leihotik kanpora joan zen lorategira. Erreka handi zabal bat zegoen jardinean, baina ertz-ertzean bazuen lokazti eta zingira bat, eta hantxe bizi zen apoa bere semearekin. Ene! Zein itsusia eta nazkagarria semea ere! Ama bezalakoxea!

— Kun-kun, kun-kun —besterik ez zuen esan intxaur-oskoleko neska txiki polita ikusi zutenean.

— Ez ezazu hain ozen hitz egin, esnatu egingo duzu bestela! —esan zion apo zaharrak—. Ihes egingo digu, kardu-ilauna baino arinagoa da eta! Errekako ur handietan dauden igebelarren hostoetako batean jarriko dugu; uharte batean bezala egongo da han, hain baita txikia eta arina. Handik ezingo du ihes egin, eta guk, bitartean, zuen bizilekua prestatuko dugu lokatzetan.

Igebelar ugari zegoen errekan, eta haien hosto berde zabalak ur gainean igeri zeudela

ematen zuen. Erreka ertzetik urruneneko hostoa zen handiena ere, eta haraxe joan zen igerian apo zaharra Marierpuru barruan zuen intxauroskolarekin.

Neska txiki gaixoa goizean oso goiz esnatu zen, eta, non zegoen ikusi zuenean, negar eta negar hasi zen garrazki: hosto handiaren bira osoa urez inguraturik zegoen, eta lehorrera iristeko modurik inondik ez.

Apo zaharra lokatzetan eseri eta bizilekua belarrez eta igebelar-pipil horiz estaltzen aritu zen, errainarentzat apain-apain jartzeko, eta, gero, bere seme itsusiarekin batera Marierpuru zegoen hostora egin zuen igeri. Marierpururen ohe polita ekartzera joan ziren, ezkongelan jartzeko, Marierpuru ekarri aurretik. Apo zaharrak erreberentzia handi bat egin zuen uretan Marierpururen aurrean, eta honela esan zion:

— Nire semea da hau; zure senarra izango da, eta oso eroso biziko zarete biok lokaztian.

— Kun-kun, kun-kun —besterik ez zuen esan semeak.

Eta ohetxo polita hartuta, igerian aldegin zuten ama-semeek, eta Marierpuru bakar-baka-

rrik geratu zen hosto berdearen gainean, negar eta negar, ez baitzuen apo itsusi harekin bizi nahi, ez haren seme izugarriaren emazte izan nahi. Inguruan zebiltzan arraintxoek —ikusiko zuten noski apoa-eta, entzungo zuten esan zuena-eta—, buruak atera zituzten, neska txikia ikusi nahian, nik uste. Eta ikusi zuten bezain laster, gustatu egin zitzairen, eta apo itsusiarekin bizitzera joan beharko zuela pentsatzeak nahigabe handia eman zien. Ez, ez zuen horrelakorik gertatu behar. Murgildu ziren denak batera eta jarri ziren Marierpuru zegoen hostoaren zurtoin inguruan, eta, haginka-haginka, karraskatu egin zuten zurtoina, eta, orduan, ibaian behera joan zen hostoa, eta harekin batera Marierpuru ere, apoak aurkituko ez zuen leku batera.

Marierpuru batetik bestera zihoan, eta sasi arteko txori txikiek ikusten zutenean, «Andereño polit» abesten zioten. Hostoa urruntzen eta urruntzen zihoan, eta, hala, atzerriko herrialdeetara iritsi zen.

Tximeleta txuri bat jira eta bira ibili zitzaion inguruan pixka batean, eta azkenean pausatu egin zen, Marierpururi eder iritzita. Oso zoriontsu



zen orain Marierpuru: apoak ezin zuen harrapatu eta oso bazter politak ikusten zituen bidean; eguzkiak diz-diz egiten zuen uretan, eta urrezkoa zirudien urak. Hartu zuen gerrian zeukan zinta eta lotu zion mutur bat tximeletari eta beste hostoari, eta orduan eta azkarrago irristatzen zen hostoa, eta baita bera ere, hosto gainean zutik jarrita.

Halako batean liztor bat etorri zen hegan; ikusi zuen Marierpuru, eta bertantxe hatzaparrez gerri lirainetik heldu eta hegan eraman zuen arbola bateraino. Baina hosto berdeak errekan behera jarraitu zuen, eta baita tximeletak ere, hostoari lotuta baitzihoan.

Ai ene! Beldurrak akabatzen zegoen Marierpuru liztorrak arbolara eraman zuenean, baina atsekaberik handiena hostoari lotu zion tximeletatxo txuri politak ematen zion: askatu ezinik geratzen bazen, goseak hilko zen.

Liztorra, ordea, ez zuen horrek kezkatzen. Jarri zuen Marierpuru arbolaren historik handienean eta loreen eztoa eman zion jateko, eta liztor-itxurarik batere ez zuela baina hala ere oso polita zela esan zion. Handik pixka batera, arbo-

lan bizi ziren liztor guztiak etorri zitzaizkion bisitan; liztor andereñoek Marierpururi begiratu eta antenei igurtzika esan zuten:

— Bi hanka besterik ez ditu eta! Ez diote, ba, oso poliki ematen!

— Ez du antenarik! Hori da gerri estua duena! Gizaki bat ematen du!

— Bai gauza itsusia! —esan zuten liztor eme guztiek, Marierpuru oso polita zen arren.

Polita zelakoan zegoen harrapatu zuen liztorra ere, baina beste guztiek itsusia zela esan zutenean, bera ere hori sinesten hasi zen, eta handik aurrera ez zuen Marierpuru ezertarako nahi izan: joan zedila nahi zuen lekura! Arbolatik eramán eta bitxilore baten gainean utzi zuen, eta Marierpuru negarrez geratu zen, itsusia zela eta liztorrek ere nahi ez zutelako; eta hori, imajina daitekeen ezer baino politagoa zelarik: arrosa-hosto ederrena baino ederragoa eta gardenagoa.

Marierpuru gaixoa bakar-bakarrik bizi izan zen basoan uda osoan. Ehundu zuen ohetxo bat belarrez, eta uztao-hosto baten azpian zintzilikatu zuen eurietatik babesteko. Jateko, loreen ezta

xurgatzen zuen, eta edan, goizetan hosto gaine-  
tan sortzen zen ihintza edaten zuen. Horrela joan  
ziren uda eta udazkena, baina gero negua etorri  
zen. Hain gozo abestu ohi zioten txori guztiek  
alde egin zuten, babesgarri izan zuen uztao-  
hosto handia zimeldu eta zurtoin ihar bilakatu  
zen, eta Marierpuru orain hotzak dardaraz zego-  
en, jantziak ere gastatuak zituen eta; hain txiki-  
txoa izanik, gainera, nola ez zen, ba, hotzak hil-  
tzen egongo, Marierpuru gaixoa. Hasi zuen elu-  
rra, eta gainera erortzen zitzaion elur-maluta  
bakoitza guri palakada bat botako baligute beza-  
la zen harentzat, gu handiak baikara, eta hura,  
berriz, erpuruaren tamainakoa. Hosto ihartu  
batean bildu zen, baina horrek ez zion berotasun  
handirik eman: hotzak dardaraz zegoen.

Marierpuru bizi zen basotik hurbil bazen  
garagar-soro handi bat, baina garagarra aspaldi  
bildua zuten eta lasto soildu iharra baizik ez zen  
geratzen soro izoztuan. Garagar-lasto arte har-  
tan ibiltzea basoan ibiltzea bezala zen Marierpu-  
rurentzat. Haren hotzikarak! Halako batean sati-  
tsu baten etxeko atera iritsi zen, lasto azpian  
lurrean zegoen zulo txiki batera. Satitsua epel-

epelean bizi zen han; gela osoa aiez beterik zeukan, eta bazuen sukalde polit bat ere, jaki-gela eta guzti. Marierpuru atarian geratu zen zutik, beste edozein haur eskale bezala, eta garagarale pixkatxo bat eskatu zuen, bi egun oso baitzeramatzan baraurik.

— Gaixoa zu! —esan zion satitsuak, funtsean satitsu ona baitzen—. Zatoz etxeko epelera nirekin afaltzera.

Gero, berriz, Marierpururi atsegin iritzita, esan zion:

— Nahi baduzu, gera zaitezke hemen negurako, baldin eta gela garbi eta txukun edukitzen badidazu, eta ipuinak kontatzen badizkidazu, oso gogoko ditut eta.

Eta Marierpuruk satitsuak esan bezala egin zuen, eta oso eroso egon zen han.

— Bisitari bat etorriko zaigu aurki —esan zion satitsuak—; auzokoa etorri ohi zait astero bisitan. Nirea baino ere etxe hobe da du berak, oso gela zabalekoa, eta belusezko beroki beltz zoragarri bat erabiltzen du. Senartzat hartu ahal bazenu, ez litzaizuke ezer faltako, baina itsua da.

Dakizkizun ipuin polit guztiak kontatu behar dizkiozu.

Baina Marierpururi ez zitzaion gustatu auzokoarekin ezkontzekoa, auzoko hura satorra baitzen. Han etorri zen satorra bisitan, bere belusezko beroki beltza soinean. Oso aberatsa eta zuhurra zela esan zion satitsuak, eta berea baino hogeit hamar aldiz etxe handiagoa zuela. Jakinduria handikoa zen satorra, baina ez zitzaizkion ez eguzkia ez loreak gustatzen; gaizki esaka jarduten zuen haien kontra, ez zituelako inoiz ikusi. Marierpuruk abestu egin behar izan zion, eta abestu zizkiolarik «Hega, hega, liztorra» eta «Fraidea dabil zelaian», zuen ahots gozoagatik maitemindurik geratu zen satorra Marierpururerekin. Baina ez zuen ezer adierazi, oso zuhurra zen eta.

Satorrak tunel bat egin berria zuen lur azpian bere etxetik satitsuaren etxeraino, eta nahi zutenean handik ibiltzeko baimena eman zion satitsuari eta Marierpururi. Pasabidean hilda zegoen txoriarekin ez ikaratzeko esan zion, txoria oso osorik zegoela, luma, moko eta guzti; itxuraz, arestian hila behar zuela, negu hasieran edo,

eta, orain, berak tunela egindako lekuan lurperaturik zegoela.

Satorrak ardagai-puskatxo bat hartu zuen ahoan, ardagaiak ilunpetan suak bezala argi egiten baitu, eta aurretik abiatu zen beste bie pasabide luze ilunean argi eginez. Txori hila zegoen lekura iritsi zirenean, satorrak bere mutur luzeaz lurrari bultza egin eta zulo handi bat egin zuen sabaian, kanpoko argia sar zedin. Lurrean, erdi-erdian, enara hil bat zegoen, bere hegala politak bi alboetan estu-estu eginda eta hankak eta burua luma artean zituela; garbi zegoen hotzak hil zela txori gaixoa. Marierpururi pena handia eman zion; oso maite zituen txori txikiak, uda osoan txio-txioka kantari aritu zitzaizkiolako. Baina satorrak bere hanka motzekin enarari ostiko bat eman eta esan zuen:

— Amaitu dira honen txio-txioak! Patu tristea izan behar du, gero, txori jaiotzeak! Nire umeak ez dira sekula txori izango, Jainkoari eskerrak; txoriak txio-txioka bai, baina negua iristean, goseak hil!

— Bai, zu burutsua zara eta, ondo diozu — esan zuen satitsuak—. Zertarako ditu txoriak

bere txio-txio guztiak hotzak etortzen direnean? Goseak eta hotzak hiltzeko! Oso erromantikoa!

Marierpuruk ez zuen ezer esan, baina besteek txoriari bizkarra eman ziotenean, txoriarengana makurtu zen, burua ezkutatzeko zioten lumak alboratu eta begi itxietan musu eman zion.

— Hauxe izango zen, beharbada, udan hain gozo abesten zidan txoria —pentsatu zuen—; nolako poza ematen zidan txori maitagarri hark!

Itxi zuen satorrak berriro kanpoko argia sartzen uzten zuen zulo hura eta etxera lagundu zien andereei. Marierpuruk ezin izan zuen gauean batere lorik egin; hala, jaiki zen ohetik, ehundu zuen lastozko alfonbra handi eder bat, eraman zuen txoria zegoen lekura eta txoriaren gainean zabaldu zuen, eta satitsuaren gelan aurkitu zuen kotoi leun pixka bat jarri zion bi aldamenetan, lur hotz haren gainean ohe epel bat izan zezan.

— Agur, txoritxo maitagarri hori —esan zion—. Agur, eta eskerrik asko, udan, arbola guztiak berde zeudenean eta eguzkiak berotzen gintuenean, abesten zenuen abesti gozoagatik.

Eta txoriaren paparrean etzan zuen burua, baina hots batek asaldarazi zuen: bazirudien han barruan zerbait taupadaka ari zela. Txoriaren bihotza zen. Txoria hilda ez, baina konorte gabe zegoen, eta berotasuna eman zitzaionean, berpizten hasi zen.

Udazkenean enara guztiak lurralde beroetara joaten dira, baina bakarren bat berandutzen bada, eta hotzak harrapatzen badu, hilda bezala erortzen da, eta erortzen den lekuan geratzen da, eta gero elurrak estaltzen du. Marierpuru oso ikaratu zen; bera hazbete garai baino ez zen, eta txoria handi-handia zen haren aldean; baina adorea bildu, eta txori gaixoaren inguru guztian pilatu zuen kotoia; gero, berak estalgarritarako erabili ohi zuen menda-hosto baten bila joan zen, eta txoriaren buru gainean jarri zuen. Hurrengo gauean, isil-isilka, txoriarengana joan zen berriro, eta bizirik aurkitu zuen, baina oso ahul; txoriak doi-doi zabaldu ahal izan zituen begiak unetxo batez Marierpururi begiratzeko, han zegoen eta Marierpuru, zutik, beste argiontzirik ezean ardagai-puska bat eskuan zuela.



— Mila eta mila esker, haur maitagarria —  
esan zion txori ezinduak—; berotasun ederra  
eman didazu. Berehala indartuko naiz eta irten  
ahal izango naiz berriro eguzki epeletara.

—Ez, ez! —esan zion Marierpuruk—. Hotz  
handia dago kanpoan; elurra ari du eta izozturik  
dago dena; gera zaitetz ohe epelean; nik zaindu-  
ko zaitut.

Orduan, Marierpuruk ura ekarri zion hosto  
batean, eta enarak, pixka bat edan zuenean,  
kontatu zion hegala urratu zuela elorri batean,  
eta horregatik ezin izan zuela beste enarak  
bezain arin hegan egin haiek lurralde bero urru-  
netarako bidea hartu zutenean. Azkenean lurre-  
ra erori zela, baina handik aurrerakorik ez zuela  
gogoan, eta ez zekiela batere nola sartu zen  
tunel hartan.

Han geratu zen enara negu osoan, eta  
Marierpuruk oso ondo zaindu zuen eta maitasun  
handia hartu zion. Marierpuruk ez zien txoriaz  
ezertxo ere aipatu satorrari eta satitsuari, ez bai-  
tzuten gogoko enara gaixo zorigabea.

Udaberria etorri eta eguzkiaren beroak lurra  
epeldu zuen bezain laster, Marierpuruk satorrak

sabaian egindako zuloa ireki zuen, eta enarak agur esan zion; eguzkiak izpi gozoak igortzen zituen bien gainera, eta enarak galdetu zion ea ez al zuen berarekin joan nahi, bizkarrean eramango zuela hegan baso berderaino. Baina Marierpuruk bazekien satitsua nahigabetu egingo zela horrela alde egiten bazuen.

— Ez, ezin dut —erantzun zion Marierpuruk.

— Agur, orduan; agur, neska polit, txintxo hori —esan zion enarak, eta eguzkitara hegaldatu zen. Marierpuru atzean begira geratu zitzaion, begiak malkoz beterik, kariño handia hartu baitzion enara gaixoari.

— Txio, txio —kantatu zuen txoriak eta baso berdera joan zen hegan.

Marierpuru oso triste geratu zen. Ezin zen eguzki epeletara irten; satitsuaren etxe inguruan ereindako garagarra hazita zegoen, eta hura oso baso sarria zen hazbeteko garaiera besterik ez zuen neskatila gaixoarentzat.

— Uda honetan arrea egiten hasi behar duzu —esan zion satitsuak Marierpururi, berarekin ezkontzeko eskatu baitzion belusezko beroki beltzeko sator aspergarriak—. Artilezko arropak

eta lihozkoak, bietatik egin behar dituzu; satorraren emaztea izaten zarenean etxea eta zeure burua janzteko behar dena egin behar duzu.

Marierpuruk goruetan hasi behar izan zuen, eta satitsuak lau armiarma hartu zituen ardaztean eta ehunean aritzeko gau eta egun. Satorrak arratsaldero egiten zuen bisita, eta beti lelo bera izaten zuen: uda amaitzen zenean eguzkiak ez zuela hainbeste berotuko, orain lurra lehorlehor eginda eta harria bezala gogortuta zegoela, eta beraz, uda amaitzean ezkonduko zela. Baina Marierpuru ez zegoen batere gustura; bost axola zitzaion sator aspergarri hura. Goizero, egunsentian, eta arratsero, eguzkia sartzen zenean, kanpora irteten zen isilka, eta zeru urdina ikusi ahal izaten zuen haizeak garagarburuak etzaten zituenean; kanpoan argia zegoela eta dena polita zela pentsatzen zuen orduan, eta enara maitagarria berriro ikusteko gogoia sortzen zitzaion. Enara, ordea, ez zen inoiz itzuli. Segur aski handik urrun ibiliko zen, baso berde zoragarrian hegaka.

Udazkena etorri zenerako prest zegoen Marierpururen arrea.

— Hemendik lau astera ezkonduko zara —  
esan zion satitsuak.

Baina Marierpuruk, negarrez, esan zion ez  
zuela sator aspergarri harekin ezkondu nahi.

— Txepelkeriak! —esan zion satitsuak—, ez  
zaitez burugogorra izan, bestela nire hortz zuria-  
rekin kozka egingo dizut! Senar bikaina izango  
duzu; erreginak berak ere ez du haren belusezko  
beroki beltzaren parekorik; eta ondo beteta ditu  
sukaldea eta jaki-gela. Eskerrak eman behar  
zenizkioke Jainkoari horrelako senarragatik!

Ezkontzera zihoazen, bada. Satorra Marierpu-  
ruren bila etorri zen; Marierpuruk lurpean, behe-  
behean, bizi beharko zuen harekin, eta ez zuen  
inoiz eguzkitara irteterik izango, satorrak ezin  
baitzuen eguzkia jasan. Neska gaixoa oso triste  
jartzen zen eguzki ederrari betiko agur esan  
beharko ziola pentsatzen zuenean; satitsuarekin  
bizi izan zen bitartean, atetik begiratu ahal izan  
zion, gutxienez.

— Agur, eguzki argi hori! —esan zion, eta  
besoak eguzki aldera luzatu eta satitsuaren  
etxetik pixka bat aurreraxeago joan zen, orain

garagarra bilduta baitzegoen eta garagar-lastoa besterik ez baitzen geratzen.

— Agur, agur! —eta bere beso ñimiñoez hango loretxo gorri bat besarkatu zuen—. Enara inoiz ikusten baduzu, emaizkiozu goraintziak nire partetik.

— Txio, txio —entzun zuen une horretantxe Marierpuruk buruaren gainetik. Begiratu zuen gora, eta enara ikusi zuen pasatzen. Enara oso poztu zen Marierpuru ikusi zuenean. Marierpuruk kontatu zion ez zuela sator itsusi harekin ezkondu nahi, eta lur azpian bizi beharko zuela, eguzkia inoiz iristen ez zen lekuan. Eta ezin izan zion negarrari eutsi.

— Badator negu hotza —esan zion enarak—, eta lurralde beroetara noa. Etorri nahi duzu nirekin? Eser zaitez nire gainean! Lotu zaitez xingolarekin eta hegan joango gara, sator itsusiarengandik eta bere zulo ilunetik urrun; mendiez haraindi joango gara, eguzkia hemen baino distiratsuago den lurralde beroetara; han uda izaten da beti eta lore pila dago. Zatoz nirekin, Marierpurutxo maitagarria, zuk salbatu zenidan-eta

bizia lurpeko pasabide ilunean izoztuta nengoenan.

— Bai, zurekin joango naiz —esan zuen Marierpuruk, eta txoriaren bizkar gainean eseri eta oinak haren hegal zabalduetan jarri zituen. Lotu zion xingola luma sendoenetako bati, eta han joan ziren hegan goi-goitik, baso eta aintziren gainetik, elurra inoiz urtzen ez den mendi handienen gainetik; Marierpuruk hotzikara sentitu zuen aire hotzetan, baina txoriaren lumarte epelean sartu zen, eta burua bakarrik ateratzen zuen beheko ikuspegi zoragarriak ikusteko.

Azkenean lurralde beroetara iritsi ziren. Argitasun handiagoa zuen han eguzkiak, eta bi aldiz garaiagoa zen zerua. Mahats berde eta urdin ederrak hazten ziren hesietan, laranja eta limoiak zeuden arboletatik zintzilik mitrez eta belar usaintsuz beteriko basoetan, eta haur zoragarriak zebiltzan bideetan korrika, kolore miresgarriko tximeleta handiekin jolasean. Baina zenbat eta aurrerago egiten zuen enarak, orduan eta lurralde ederragoak agertzen ziren. Itsaso urdinaren ertzean, arbola berde ikusgarri baten azpian, marmolezko jauregi zuri antzinako

bat zegoen: mahatsondoak zituen pilare itzaltsuetan kiribilduak, eta kontaezin ahala habia haien gainean. Habia haietako batean bizi zen enara.

— Hau da nire etxea —esan zion enarak—, baina hor beheko lore zoragarri horietako bat aukeratzen baduzu, hantxe utziko zaitut, eta nahi bezain zoriontsu biziko zara.

— Zoragarria izango litzateke! —esan zuen Marierpuruk, eskutxoekin txaloka.

Marmolezko zutabe zuri handi bat zegoen lurrean erorita, hiru puska eginda, eta puska horien artean lore zuri batzuk hazten ziren, izugarri politak. Enarak lore haietako baten hosto zabal baten gainean utzi zuen Marierpuru, eta haren harridura, lorearen erdian gizontxo bat ikusi zuenean, kristala bezain distiratsua eta gardena. Urrezko koroa polit bat zuen gizontxoak buruan eta bi hegal distiratsu bizkarrean, eta ez zen Marierpuru baino handiagoa. Loreetako aingerua zen. Lore guztiek zuten horrelako gizontxo edo anderetxo bat, baina hura zen denen errege.

— Zein ederra den! —esan zion ahopean Marierpuruk enarari. Printze txikiari ikara handia

eragin zion enarak, enara txori erraldoia baitzen, eta bera, berriz, hain txikia eta delikatu... Baina Marierpuru ikusi zuenean poz-pez jarri zen: inoiz ikusi zuen neskarik politena zen hura. Orduan, koroa burutik kendu eta Marierpururi jarri zion, eta zer izen zuen galdetu zion, eta ea berarekin ezkondu eta loreen erregina izan nahi zuen! Bai, oso bestelako senarra zen hura apoa-ren semearen aldean edo belusezko beroki beltzeko satorraren aldean. Baietz erantzun zion, beraz, printze ederrari, eta gizontxo edo andere txo polit bat irten zen lore bakoitzetik. Atsegina ematen zuen haiek ikusteak. Bakoitzak sari bat ekarri zion Marierpururi, baina saririk onena euli zuri handi baten hegadak izan ziren. Bizkarrean lotu zizkioten eta, hala, lorerik lore hegan ibili ahal izan zen. Han ez zen atsegina eta zoriona besterik, eta enarak ahal zuen ongien kantatu zien habiatik, nahiz eta bera penetan egon, maitasun handia ziolako Marierpururi eta harengandik inoiz ez apartatzea nahi izango zukeelako.

— Hemendik aurrera ez zara Marierpuru izango —esan zion loreen aingeruak—. Hori izen itsu-



sia da, eta zu, berriz, oso polita. Maia esango dizugu.

— Agur, agur —esan zuen enarak, eta lurralde beroetatik alde egin zuen, atzera Danimarkara. Habia bat zuen han, istorio hau idatzi zuen gizona bizi zen etxeko leihoaren gainean. Enarak «Txio, txio» kantatzen zion gizonari, eta horregatik jakin dugu guk istorio hau.

*(Tommelise)*

# OLE BEKAINEKO

Mundu guztian ez da Ole Bekainekok adina ipuin dakienik. Eta zer ipuin kontatzaile ona den, gainera!

Gauean, haurrak txintxo-txintxo mahaira eserita edo beren aulkitxoetan jarrita daude-nean, orduan agertzen da Ole Bekaineko. Gal-tzerdi hutsik ibiltzen denez, isil-isilik igotzen da etxeko eskaileretan gora, atea poliki-poliki zabaldu, eta, txas!, esne goxoz zipriztintzen ditu haurren begiak, pittin bat bakarrik, hutsa, baina bai hurrek begiei ezin zabalik eusteko eta bera ezin ikusi ahal izateko adina. Ole Bekainekok, haurren atzean ezkutatu, eta gozo-gozo putz egiten die lepondoan, burua astundurik uzteko. Ez die batere kalterik egiten, noski: Ole Bekaine-ko haurren hobe beharrez aritzen da beti. Haurrak geldi egotea besterik ez du nahi, eta non geldiago ohean sartuta baino? Bai, geldi-geldi egon beharra dute, Ole Bekainekok ipuinik kon-tatuko badie.

Halako batean, haurrak lokartu orduko, ohe gainean esertzen da. Apain jantzita dago, sedaz burutik oinetaraino, baina ezin esan zer koloretako arropak dituen, berde-, gorri- eta urdin-koloreko distirak baitarizkie, bera nola mugitzen den. Goardasol bat darama besape banatan: bat, irudiak dituen, haur txintxoek gainean zabaltzen du, eta haurrek ametsik zoragarrienak izaten dituzte gau guztian zehar; bestea, ezer ez daukana, haur gaiztoek gainean zabaltzen du, eta haurrak lozorroan egoten dira, eta amets bat bera ere egin gabe esnatzen dira biharamunean.

Orain entzungo dugu nola behin Ole Bekaineko, aste betez, gauero-gauero joan zen Hjalmar izeneko mutil batengana, eta mutilari zer kontatu zion. Zazpi ipuin dira guztira, zazpi egun baititu asteak.

## **Astelehena**

— Badakizu zer? —esan zuen Ole Bekainekok gau batean, Hjalmar oheratu ondoren—. Itxura pixka bat eman behar diot gela honi!

Eta lorontzietako lore guztiak zuhaitz handi bilakatu ziren, beren adar luzeak sabairaino eta hormetan zehar hedaturik zituztela: gelak hosto-perik zoragarriena ematen zuen. Adarrak oro zeuden lorez beterik, eta lore bakoitza arrosa bat baino politagoa zen; oso usain gozoa zerien, eta jaten bazenituen, fruitu melatuak baino gozoagoak ziren. Fruituek urrearen dirdira zuten, eta opilik ere bazen, mahaspasez bete-beterik. Ikusgarria benetan! Eta hara non, bat-batean, atsekabezko intziri batzuk entzuten diren Hjalmarrek eskolako liburuak zituen mahaiko kajoi-tik.

— Zer da hau, baina? —esan zuen Ole Bekainekok.

Joan, eta kajoia ireki zuen. Arbela zen, erabat larrituta; eragiketa batean zenbaki bat oker zeukala eta, egonezinik. Arbel-ziria salto eta brinko zebilen soka-muturretik lotuta, txakur txikiak legez. Eragiketa burutzen lagundu nahi zuen, baina ezin asmatu nola. Hjalmarren idazketa-koadernoaren ere aieika ari zen. Bihotza urratzen zuen hari entzuteak! Orri bakoitzean, goitik beherako hurrenkeran, letra larri guztiak zeu-

den, bakoitzak letra xehe bana zuela alboan, ereduak bailiran. Haien ondoan beste batzuk zeuden, aurrekoak antzeratu nahian: Hjalmarrek idatziak ziren. Etzan-etzanda zeuden, azpitik eutsi behar zieten lapitz-marren gainera erori balira bezala.

— Begira, honela jarri behar duzue! —esan zien ereduak—. Ikusten? Honela, albo batera, arrastada batez!

— Bai, nahi bai, guk! —esan zuten Hjalmarren letrek—. Baina ezin, hain gaude ahul!

— Bizkorgarri pixka baten beharrean zaude-tela iruditzen zait niri! —esan zien Ole Bekainekok.

— Ez, ez! Hori ez! —erantzun zuten letrek oihuz, eta tente-tente jarri ziren, ezin tenteago.

— Ba, ez gara ipuin kontatzen hasiko! —esan zuen Ole Bekainekok—. Instrukzio pixka bat egin beharko duzue! Bat, bi! Bat, bi!

Eta han ibilarazi zituen letrak, inon den eredurik bikainena bezain tente eta mardul, instrukzioa egiten. Baina Ole Bekainekok alde egin eta Hjalmarrek goizean ikusi zituenean, beti bezain makotuta zeuden.

## Asteartea

Hjalmar oheratu orduko, Ole Bekainekok bere iratxo-xiringaz ukitu zituen gelako altzari guztiak, eta han hasi ziren berehala nor bere buruaz berriketan. Listuontzia, ordea, isil-isilik zegoen, oso haserre, beste guztiek, harroputz haiek, soilik beren buruaz hitz egiten zutelako, soilik beren buruan pentsatzen, bera deusetarako gogoan hartu gabe, nahiz eta hantxe egon, txokoan apal-apal, tu egin nahi bazioten ere.

Komodaren gainean zintzilik koadro handi bat zegoen; urre-koloreko markoa zuen, eta paisaje bat irudikatzen zuen: zuhaitz zahar tantaiak, loreak belar artean, eta aintzira bat, ibai eta guzti. Ibaia basoaren atzetik eta gaztelu askoren aurretik igarotzen zen itsaso zabaleraingoko bide luzean.

Ole Bekainekok koadroa iratxo-xiringaz ukitu, eta txoriak kantari hasi ziren, zuhaitzak adarrak astintzen, eta hodeiak lerro-lerro pasatzen.

Haien itzalak paisajearen zehar irristan ikusten ziren.

Orduan, Ole Bekainekok Hjalmar txikia mar-  
koraino jaso bai, eta zangoz aurrera sartu zen  
Hjalmar koadroan, belar luzea zegoen lekuan  
hain justu, eta hantxe egon zen, eguzkiak zuhai-  
tzen adar artetik ematen ziola. Gero, aintzirara  
joan, eta txalupa txiki batean eseri zen. Txalupa  
zuri-gorritz margotuta zegoen, eta haize-oihalei  
zilarraren distira zerien; sei beltxargek, urrezko  
koroa bana lepoan eta izar urdin bana ñirñirka  
buruan, baso beltzen artetik tiraka eraman  
zuten. Baso haietako zuhaitzek bidelapurrei eta  
sorginei buruzko pasadizoak kontaktzen zituzten,  
eta loreak, berriz, elfo txiki maitagarriez eta txi-  
meletek esandako kontuez mintzatzen ziren.

Diren arrainik politenak, ezkatak zilar- eta  
urre-kolore, txaluparen atzetik igeri zihoazen.  
Noizean behin, uretatik jauzika atera, eta plasta!  
erortzen ziren berriz uretara. Txoriak zihoazen  
hurrena, gorriak zein urdinak, txikiak zein han-  
diak, bi lerro luzetan hegan. Eltxoak dantzan  
zihoazen, eta erlastarrak burrun-burrun! esanez.

Denek lagundu nahi zioten Hjalmarri bidean, eta denek zeukaten zer kontatua!

Hura bai ederra, txalupan egin zuten txangoa! Basoak orain ziren sarriak eta itzaltsuak, orain baratzerik zoragarrienak bezalakoak, eguzki-argiz eta lorez beteak, beirazko eta bolizko jauregi handi eta guzti. Jauregietako balkoietan printzesak zeuden; umeak ziren denak, Hjalmarren ezagunak, berarekin jolasean ibilitako neskatxak. Printzesek besoa luzatu, eta azukrezko txerritxoak erakusten zituzten eskuan, gozogile batek sal ditzakeen goxoenak. Haien aurretik itsasontziz igarotzean, Hjalmarrek mutur batetik heltzen zion txerritxoari, eta nola printzesak ere tinko heltzen baitzion bestetik, puska banarekin geratzen ziren: printzesa txikienarekin, Hjalmar handienarekin. Jauregi bakoitzean printze txikiak zeuden zaindari, ezpata urrezkoak aurkezten, eta mahaspasak eta berunezko soldadutxoak purraka banatzen. Horiek dira printzeak, horiek!

Han zihoan Hjalmar ontziz: orain basoetan zehar, orain areto handietan barrena, orain hiri baten erditik. Inudea bizi zuen etxe ondotik ere pasa zen; hark zaindu zuen txikitan, eta oso



maite zuen. Inudeak agur egin zion eskuaz eta buruaz, eta kantu polit bat kantatu zuen, berak idatzi eta Hjalmarri bidali ziona:

*Sarritan, Hjalmar, zaitut gogoan.  
Hjalmar laztana, ene maitea!  
Musu eman nizun, musu, ahoan,  
musu kopetan, ta masailan.  
Zure estrain hitza entzun ahala,  
esan behar, ai!, adio ta agur.  
Jainko gureak gorde zaitzala,  
Haren baitako aingerua zu!*

Eta txori guztiek harekin batera kantatu zuten, loreek zeinek bere zurtoinean dantza egin zuten, eta zuhaitz zaharrak buru-makurtuak eginenez hasi ziren, haiei ere Ole Bekaineko ipuin kontatzen aritu izan balitzaie bezala.

## **Asteazkena**

Ibaika ari zuen euria kanpoan! Hjalmarrek ametsetan entzuten zuen nola ari zuen, eta Ole

Bekainekok leihoa zabaldu zuenean, leiho-barreneraino iristen zen ura. Benetako aintzira bat zen, baina barkurik bikainena zeukaten etxe aurrean.

— Hjalmar txiki, nahi al duzu barkuz ibiltzera etorri nirekin? —galdetu zuen Ole Bekainekok—. Gaur gauean atzerrietan ibili, eta bihar goizera-ko bueltan izango zara.

Eta bat-batean, barku bikain hartan aurkitu zen igandeetako arropak jantzita. Eguraldiak ere berehala garbitu zuen, eta han joan ziren kale artean. Eliza inguratu, eta itsaso zabalera iritsi ziren halako batean. Hain denbora luzean nabigatu zuten, non begien bistatik galdu baitzuten lurra, eta zikoina-talde bat ikusi zuten, sorlekua utzi eta lurralde beroetara zihoala. Lerro-lerro zihoazen, bata bestearen ondotik, eta oso hegaldi luzea eginak ziren ordurako. Haietako bat neka-neka eginda zihoan, eta ozta-ozta eusten zioten hegalek; azkena zen lerroan, eta atzera gelditu zen luze gabe. Eta azkenean, amildu egin zen, behera eta behera, hegalek zabal-zabal; astindu zituen hegalek bizpahiru aldiz, baina alferrik: hankekin barkuko aparailua jo, oihalean

behera irristatu, eta danba!, ontzi gainera erori zen.

Ontzi-mutilak hartu eta oilategian sartu zuen, oilo, ahate eta indioilarrekin batera. Zikoina gai-xoa lotsa-lotsa eginda zegoen.

— Zer txori-modu da hau? —esan zuten oilo-ek.

Eta indioilarrak ahal zuen gehiena harrotu, eta nor zen galdetu zion. Eta ahateek atzera egin zuten, elkarri bultzaka eta builaka:

— Kaa!, kaa!

Zikoinak Afrika beroaz eta piramideez hitz egin zuen, eta basazaldia bezala basamortuan lasterka dabilen ostrukaz. Baina ahateek ez zioten tutik ere ulertzen, eta han zebiltzan, elkarri bultzaka:

— Gaixo hau zozoa baino zozoagoa dela, denak ados, ezta?

— Bistan da, bai, zozoa dela! —esan zuen indioilarrak, glu-glu eginez.

Zikoina isil-isilik gelditu zen, Afrikan gogoia.

— Bai txanka mehe politak dituzula! —esan zion indioilarrak—. Zenbatean da metroa?

— Kaa, kaa, kaa! —lehertu ziren barrez ahateak.

Baina zikoinak entzungor egin zien.

— Egin beza berorrek ere barre pixka bat —esan zion indioilarrak—, ateraldiak merezi zuen eta; ala, agian, arrunkeria iruditu zaio? Glu, glu! Berorrekin berriketa gutxi, ezta? Bakarrik jostatuko gara, ba!

Eta oiloak karakaka eta ahateak karranka hasi ziren. Zein barregarria iruditu zitzaien! Izugarria da, gero!

Baina Hjalmarrek, oilategira joan, atea zabaldu, eta zikoinari deitu zion. Zikoina jauzi batean ontzi-gainera atera, eta Hjalmarren aldamenean jarri zen. Atsedena hartuta zegoen ordurako, eta Hjalmarri aurrean makurtzen zitzaiola ematen zuen, eskerrak eman nahiko balizkio bezala. Orduan, hegalak zabaldu, eta han joan zen hegan, lurralde beroetarantz, eta oiloak karakaka, ahateak karranka, eta indioilarra burua gorri-gorri eginda gelditu ziren.

— Bihar salda egingo dugu zuekin —esan zien Hjalmarrek.

Eta orduantxe esnatu zen. Bere ohean zegoen. A zer bidaia Ole Bekainekok gau hartan aukeratu ziona!

## Osteguna

— Begira gauza bat! —esan zuen Ole Bekainekok—. Baina ez izutu! Sagutxo bat erakutsi behar dizut!

Eta eskuan zeraman animalia txiki polit bat erakutsi zion.

— Zu ezteietara gonbidatzera etorri da. Gaur gauean bi sagutxo ezkonduko omen dira. Lur azpian bizi dira, zure amaren janaritegiaren azpiko horretan. Bizileku bikaina, inondik ere.

— Baina nola demontre pasako naiz ni lurreko sagu-zulo horretatik? —galdetu zuen Hjalmarrek.

— Utzi hori nire kontu —esan zuen Ole Bekainekok—. Berehala txikiagotuko zaitut!

Eta iratxo-xiringaz ukitzeaz batera, txikitzen eta txikitzen hasi zen, hatz bat baino txikiago bihurtu arte.

— Orain arropak eskatu beharko zenizkioke berunezko soldatutxoari. Poliki emango dizute, eta hain da gauza ederra jende aurrean uniformez jantzita agertzea!

— Halaxe da, bai! —esan zuen Hjalmarrek, eta begi itxi-ireki batean berunezko soldadutxo lerdenean bezain apain jantzita aurkitu zen.

— Eser bedi bere amaren ditarean, mesedez —esan zion sagutxoak—, berori eramateko ohorea egin diezadan.

— Jainkoarren, andereño! Niregatik hainbeste neke hartu beharra ere! —esan zuen Hjalmarrek.

Eta han joan ziren biak sagutxoaren ezteietara. Lurrazpian sartu eta pasadizo luze batetik abiatu ziren lehenbizi. Doi-doi kabitzen zen ditarean ardagaiz argitutako bidean.

— Zer usain gozoa, ezta? —esan zuen sagutxoak, Hjalmar herrestan zeramala—. Pasadizo guztia urdai-gantzez igurtzi dute! Gauza goxoa-gorik!

Halako batean, eztei-aretora iritsi ziren: eskuinaldean sagutxo emeak zeuden, txutxumutxuka eta irriz, elkarri iseka ari balira bezala;

ezkerraldean sagutxo arrak, muturpeko bizarrak hankaz atesatzen; eta erdian, gazta azal-huts baten ganean, senar-emaztegaiak. Musuka elkar jan beharrean ari ziren denen agerian; ezkongaiak baitziren, eta berehala ezkontzekoak, gainera.

Gonbidatuak erruz zetozen; saguak estu-estu zeuden, ito beharrean, eta ezkongaiak ate-atean nola baitzeuden, ez zegoen ez aretoan sartzerik ez aretotik irteterik. Pasabidea ez ezik aretoa ere urdaiz igurtzita zegoen, beste aho-gozagarririk ezean. Bazkalostean, baina, ilar bat atera zuten, eta sagutxo batek, etxekoa bera, senar-emaztegaien izenak karraskatu zituen ilar-ale hartan; izenak ez, barka, izenaren lehenengo letrak bakarrik. Egundaino halakorik!

Oso eztei ederrak izan zirela eta mintzagai politikak erabili zituztela, bat zetozen sagutxo guztiak.

Eta, azkenean, etxera eraman zuten berriz Hjalmar. Goi mailako lagunarte atseginean egon zen, bai, baina hartarako, bere burua izugarri txikitu, eta berunezko soldadutxo baten arropak jantzi behar izan zituen.

## Ostirala

— Harrigarria zenbat jende nagusik nahi nauen ondoan! —esan zuen Ole Bekainekok—. Gaizki eginaren harra duten horiek gehienbat. «Ole txikia, Ole maitea —esaten didate—, begiak ezin bildurik gabiltza, eta esna egoten gara gau guztian, gure gaizki eginak ikusten. Inguma gaiztoak bezalakoak dira: ohe ertzean eseri eta ur beroz ziprizontzen gaituzte. Zergatik ez zara haiek uxatzera etortzen, goxo-goxo lo egin dezagun? —eta hasperen sakonak egiten dituzte—. Esan gabe doa, ordaintzeko prest gaudela. Gabon pasa, Ole! Leihoan utzi dizugu dirua». Diruak niri bost, ordea! —esan zuen Ole Bekainekok.

— Zer egin behar dugu gaur gauean? —galdetu zuen Hjalmarrek.

— Ba, ez dakit berriz ezteietara joateko gogorik izango duzun..., ez da atzokoa bezalako izango. Zure arrebaren panpina handia, gizon bat ematen duen Herman delako hori, Berta



anderearekin ezkontzen da. Gainera, panpinaren urtebetetzea da, eta hamaika opari izango da, beraz.

— Badakit, bai, zer den hori! —esan zuen Hjalmarrek—. Panpinak arropak berritu beharrean aurkitzen diren bakoitzean, urtebetetzea edo ezkontza ospatzen uzten die arrebak. Ehun aldiz gertatu ez bada!

— Bai, baina gaur gaueko hau ehun eta batgarren ezkontza da, eta behin ehun eta batgarrena pasata, ba, akabo dena, kito! Beraz, gaurko hau ere zoragarria izango da! Begira! Begira!

Eta Hjalmarrek mahai aldera begiratu zuen. Han gainean kartoizko etxetxo zegoen, argiak leihoetan, eta berunezko soldadutxo guztiak kanpoan, armak aurkezten. Ezkongaiak lurrean eserita zeuden, mahaiaren hankaren kontra jarrita, pentsakor, eta bazuten, bai, pentsakor egoteko arrazoirik. Ole Bekainekok amonaren gona beltza gainetik jantzi eta ezkondu egin zituen. Zeremonia bukatzean, lapitzak idatzitako ereserki eder hau kantatu zuten gelako altzari guztiek. Doinua, erretretarena:

*Gure kantu zolia haizea bezala etorki,  
ezkongaien gelara sartu da gozo-gozoki.  
Zutitu dira biak, makila bezain irmoki;  
larru finenaz biak, eginak daude osoki.  
Gora larru-makilak! Esan ozenki ta goitik!  
Euri nahiz eguzki, kanta dezagun gogotik!*

Opariak banatu zizkieten orduan, baina uko egin zieten jateko gauza guztiei. Izan ere, aski zuten beren amodioa.

— Bertan geratuko gara, ala atzerrira joango gara? —galdetu zuen senargaiak.

Eta aholku eskatu zioten enarari, bidaia asko egin baititu, eta baita oilo zaharrari ere, bost bider izan baititu txitotxoak. Enarak lurralde bero atsegingarriez hitz egin zien. Han mordo handi astunetan hazten omen da mahatsa, gozo-etan gozoena omen da haizea, eta sekula ikusi gabeko koloreak omen dituzte mendiek.

— Baina hango azak ez dira gureak bezalakoak! —esan zuen oiloak—. Behin kanpoan eman nuen uda, nire txitotxo guztiekin. Bazen han harrobi bat, eta hara joaten ginen aztarrika ibiltzera, eta azak hazten ziren baratze batera sar-

tzeko baimena ere baguen. A zer azak hangoak, berde-berdeak! Horren ederrik ez dut behin ere ikusi!

— Baina berdinak dira eta aza guztiak! — esan zuen enarak—. Eta hemen, gainera, beti eguraldi txarra!

— Bai, baina ohitu egiten da bat! — esan zuen oiloak.

— Baina hotz handia egiten du, izozteko modukoa!

— Horrek mesede egiten die azei! — esan zuen oiloak—. Gainera, beroa ere izaten dugu hemen. Duela lau urte, ez al genuen, ba, bost astez luzatu zen udaldi bat izan? Bero izugarria egin zuen, eta arnasa ezin harturik ibili ginen! Eta, gainera, guk hemen ez dugu han dituzten zomorro pozoitsu horietakorik, ez eta bide lapurrik ere. Gure herri hau politena ez dela dioenak gaiztoa behar du izan! Horrek..., horrek ez du hemen bizitzea ere merezi! — esan, eta negarrez hasi zen—. Ni ere ibilia naiz hor barrena. Hamabi miliatik gora egin ditut upel batean sartuta! Bidaiatzea ez da batere gozoa, ez horixe!

— Bai, andere zentzuduna dugu oiloa —esan zuen Berta andereak—. Niri ere ez zait batere gustatzen mendian ibiltzea, gora igo beharra gero behera jaisteko. Ez, harrobira joango gara, eta pasieran ibiliko gara aza artean.

Eta horixe egin zuten.

## Larunbata

— Ipuina kontatuko didazu gaur? —esan zuen Hjalmar txikiak Ole Bekainekok ohean sartu zue-  
nean.

— Gaur gauean ez dugu astirik —esan zuen Olek.

Eta zeukan goardasolik ederrena zabaldu zuen haurraren gainean.

— Begira txinatar hauek!

Goardasol osoak katilu txinatar handi bat ematen zuen: zuhaitz urdinak, zubi arku-zorro-  
tzak, eta zubien gainean, txinatar txiki-txikiak buru-makurtuak egiten.

— Dirdirak darizkiola utzi behar dugu mundu osoa biharko —esan zuen Olek—. Jaieguna da

bihar: igandea. Eliz dorrera igo behar dut, kanpaiek ondo jo dezaten elizako iratxo txikiak distirra ateratzen ari zaizkien ikustera. Eta alorretara ere joan behar dut, haizeak belarretako eta hostoetako hautsak astindu ote dituen ikustera. Baina lanik handiena izar guztiak jaisten eta garbitzen izango dut! Hartu eta mantalaren gainean jartzen ditut, baina, lehenbizi, banan-banan zenbatu behar ditut, bai izarrak eta bai izarrak egoten diren zuloak, zein bere lekura itzuli ahal izateko gero. Bestela, loka geratzen dira, eta horrela, izar iheskor gehiegi izango genuke, erorigingo bailirateke denak, bata bestearen ondotik.

— Aizu! Entzun ondo, Ole jauna! —esan zuen Hjalmarren logelako horman zintzilik zegoen erretratu zahar batek—. Hjalmarren aitabisaba naiz. Eskerrak eman nahi dizkizut haurrari ipuinak kontatzeagatik, baina ez dezazula burutik nahas, mesedez! Izarrak ezin dira jaitsi; are gutxiago distirarazi. Izarrak globoak dira, gure ludia bezala, eta horixe dute ona, gainera!

— Eskerrik asko, aitabisaba xaharra, eskerrik asko! —esan zuen Ole Bekainekok—. Zu izango

zara familia-burua, buru «tzarra», inondik ere; zu baino zaharragoa naiz ni, ordea! Jentil zaharra nauzu. Erromatarrek eta greziarrek loaren jainkotsat hartu ninduten. Etxe txit leinargietan sartu izan naiz, eta sartzen naiz oraindik ere. Ondo moldatzen naiz bai txikiekin bai handiekin. Beraz, badakizu, konta itzazu zuk ipuinak!

Eta Ole Bekainekok alde egin zuen, goardasola hartuta.

— Batek ezin du pentsatzen duena esan ere!  
—bota zuen erretratu zaharrak.

Eta orduantxe iratzarri zen Hjalmar.

## **Igandea**

— Gabon! —esan zuen Ole Bekainekok.

Hjalmarrek buruaz agurtu zuen, eta jauzi egin, eta hormaz kontra biratu zuen aitabisabaren erretratua, aurreko gaueko erretolikarekin has ez zedin.

— Orain kontaidazu ipuinen bat: leka batean bizi ziren bost ilarrena, oiloari gortea egiten zion

oilarrarena, edo hain fina izaki, jostorratza zela begitantzen zitzaion pasaratzeko orratzarena.

— Onetik gehiegi, kalterako —esan zuen Ole Bekainekok—. Badut beste zerbait zuri erakusteko: anaia erakutsi behar dizut. Ole Bekaineko izena du berak ere, baina ez da behin baino gehiagotan inorengana azaltzen, eta norbaiti agertzen zaionean, hartu eta zaldi gainera igo-tzen du berarekin, eta ipuinak kontatzen dizkio. Bi ipuin besterik ez daki: bata hain ederra, ezen ez baita mundu zabalean hura amestu ere leza-keenik, eta bestea, berriz, ezin esan ahala itsusi eta beldurgarria.

Ole Bekainekok hartu eta leihoraino altxatu zuen Hjalmar, esanez:

— Horra nire anaia, beste Ole Bekaineko! Herio ere deitzen dute. Ikusten duzunez, ez da irudi-liburuetan bezain higuingarria, dena hezur. Ez, ez, jaka zilarrez brodatua du. Husar uniformerik zoragarriena du, belusezko kapa beltza haizetara duela zaldiaren gainean. Begira, badoa lauhazkan!

Eta hantxe ikusi zuen Hjalmarrek beste Ole Bekaineko hura, zaldi gainean pasa eta gazteak

zein zaharrak zaldi gainera igotzen. Batzuk aurrean jartzen zituen eta beste batzuk atzean, baina galdera hau egiten zien lehenbizi:

— Zer moduzkoak zure notak?

— Onak! —erantzuten zuten denek.

— Ea ba, erakutsi —esaten zien berak.

Eta notak erakusten zizkioten. «Bikain» eta «Oso ongi» zeukaten guztiak zaldiaren aurrean esertzen ziren, ipuin zoragarria entzutera, baina, aldiz, «Erdipurdi» eta «Eskas» zeukatenek atzean eseri behar zuten, eta haiei ipuin beldurgarria egokitzen zitzaien. Dardarka eta negarrez hasten ziren, eta zalditik jaitsi nahi izaten zuten, baina ezin, bat-batean loturik bezala gelditzen baitziren.

— Ba, Herio da Ole Bekainekorik zoragarriena! —esan zuen Hjalmarrek—. Nik ez diot batere beldurrik!

— Ez diozu zertan eduki behar —esan zuen Ole Bekainekok—. Zu nota onak ateratzeaz bakarrik arduratu!

— Bai jauna, irakasbide ederra! —esan zuen ahapetik aitabisabaren erretratuak—. Ez dela alfer-alferrik batek bere iritzia ematea, zera!



Eta poz-pezik gelditu zen.

Hauxe da, ba, Ole Bekainekoren ipuina. Gaur gauean agian zerorri kontatuko dizu besteren bat.

*(Ole Lukøje)*